P. MENDI

BURU.

C
OLOIIZ.9.

1

upna

upna
Universidad Pública de Navarra

Huy Rc

upna
Universidad Pública de Navarra

✠

JESUSEN AMORE-NEQUEEI DAGOZTEN, CEMBAIT OTOITZ-GAI,

JESUSEN COMPAÑIACO

A. SEBASTIAN MENDIBURUc

EGUIÑAC.

I. Z.

1760.

BEHAR BEZALA.
Iruñeco Libru-guille JUAN ANTONIO CASTILLA-ren ECHEAN.

upna

IRACVRLEARI.

BEIN baño, gueiagotan adiracia daduca gure JESUS maita-garriac, JESUS beraren Compañiacoac hari behar dutela, beste anitzen artean, beraren Bihotz humil mansoaren DEVOcionea Lurrecoei aguertzen, ta ar-erazten.

NIC al-eguiña ez-pada ere, eguin dut cerbait, joan diran, oguei ta urte gueiagotan gure lan hau nol ere-bait eguitea gatic. Orretan haritu naz ni, hartaraco hitz-videa izandu dudan aldietan, naiz cela confessione-etaco demboran, naiz bestela:ta nioiz ere baño, hastiro-ago nere Missioneetan.

ETA horduan guciei erraten niena gueldi cedin aditzen nindutenen gogoan, utzi izandu diet, artaraco ciran, Errietan, JESUSen Bihotzaren iceneco Cofradia, edo Congregacionea, hartan sartzen diranac eguin behar dituzten, cembait gauza bereisten nieztela; ta besten artean, elca-requin Elizan, JESUS aguerturic, eta beguira dagotela, eguin behar diranac. Orietatic dira, JESUSi dagozcan, gauzac Librutic aditzea, ta aditzen dutena gogoan arturic, otoitz eguitea.

ALDI ori-etaraco behar zutela erran izandu didate anitz Eliz-guizonec, berariazco Libruren bat, edo bertze; ta eguiaciotela, ezaguturic, cembait illabeteco hastia izandu nuen batean, euscarara nuen, DEVOcione beraren berrizco Aita Croiseten laburcho bat; eta adiraci nien, hura aguertzean, emain niela alic lenena otoitzgaiez betericaco beste batere.

ANDIC laster asi nintzan ni onen moldatzen; baña ecin utz nintzaqueen, eguitecoac eraman didate guerozco dembora, eguiteco berri batec, nengoen lecutic atera, ta, artaraco etzela, cirudien, beste batera eraman ninduen artean. ANnuen hastia, artaraco artuz, bucatu ditut, JESUSi esquerrac, asiac ceuden otoitz gaiac; eta gog-osoz, ta bihotzez vidaltzen dieztet orain nere adisquide maiteei, ta gañeraco Euscaldunei.

OTOITZ-gaiac dira, JESUS maite dutenei eraguiteco, era orretaco maitatzalleac eguin behar dutena, edo JESUSen Bihotzaren DEVOcioneac, escatzen duena.

DEVOcione onec esca-

-zen duena da, JESUSi zor diogun, amore andiari amorez erantzutea; ta, gu-gatic JESUSec eraman cituen, neque-tormentu gucien, ta egungo egunetan ere ecusten dituen, videgabeen damuz gueren bihotzac betetzea: damu--amore oriec escatzen dituzten, gauzac JESUS beraren icenean zucen eguiteco.

EZ da erraz, ez, guc hau eguitea, ongui ezagutzen ez pa-dugu norañocoac diran, gure orretaraco zorrac: ez, eta zor hau ezagutzea ere, lenic ezagutzen ez pa-dugu guc, nor den JESUS, ta nor garan gu; cer den JESUSec gu gatic eguin, ta eraman duena; ta ceri dagocala, edo cer gatic izandu den hau gucia.

HAU adiraztea gatic nic, gauzac nastu bague, ta aguertuz aldian aldicoa, lembicico Libruco otoitz-gaietan aguertzen dizut cere charqueri galdua, ta JESUSen Jangoicatasun andi-on-maita-garria.

BI garrenean JESUS beraren gu ganaco urricaltasuna; ta gure urricariz guiza-tasuna artu zuenetic anditu artean gu gatic eguin zuena. IRURgarrenean bere Bataiotic eguin ta eracutsi cituen gauzac. Laurgarrenean, bere Passioneco demboran gure zorren alde eraman zuen vicitza, ta iltze gogorra; ta azquenecoan, guerozco dembora guciã Aldarean zor diogun, amore bazterric baguecoa.

OTOITZ--gaiac moldatu ditut Euscaldunen oneraco; ta orre gatic, oi den baño, gueisseago gauzac ceetzen, ta aguertzen ditudala. ADItu, ta ecusi dudanac eman dit Esculdun gueienen berria; ta ez dut uste, gucien artean arquitzen den amar-etatic bat, gogozco, ta bihotezco otoitzera oitua dagoenic. ARtara oituac daudenentzat asqui, ta gueiegui lizaque otoitz--gai bacoitzean dacardanaren laurdena; baña ez daquit asquico den gañeracoentzat, diodan gucia ere. GUERtatzen zaie alabaña otioitz-eguitean, otoitz onetara oituac daudenei, ta oitu gabeei, aurrei, ta andiei oguia-requin, ta jaquia requin guertatzen zaiena.

ANdiac, behar bezala jateco, ez du, maira janaría ateratzea, besteric behar. Ara daquioneco, austen du, edo cerratzen du oguia, zaritzen du jaquia, chiquitzen ditu; biac bere ortz-aguin-equin, ta igortzen du gucia, odol, aragui, ezur-zain, ta behar den gauza eguiñen zaion, bazter-etara, edo bere barrenera. Baña, Amaren le-

esnea, ta aia baicic, artzen ez daquien, aurrari berebat eguiten ba-diozu, gosez, ta negarrez hau laster illen zaitzu. ONEC artuco ba du cerbait, apur eguinic eman beharco diozu, edo ongui ceetua, ta prestatua, jan behar duen, noguia, edo edocein gauza.

ERA berean; gogozco otoitzera oitua dagoenac aditu--hordu, odolez icerdituric egondu cela bein gure JESUS maita-garria, beste batean uiratu zutela Borreroac bost milla, ta azot ucaldi gueiago--requin; edo, iltzez josiric, ill-eraci zutela gurutze batean, edo cerbait orrelaco, gogoa orretan gueldi erazten ba-du, dezaquenac bezala, ecusten du, nor den JESUS, ta nor den bera; ecusten du, beraren becatuac gatic dirala, ta secula gucian erretzen egon ez dedin, gure JESUSen neque guciac: ecusten du, ecin andiagoa dela, JESUSec dion, amorea; ta amore onec ar-eraci diozcala JESUsi, eraman dituen, neque guciac; eta hau, ta onelaco gauza cembait ecusi ezquero, beratzen zaio bere bihotza; damutzen zaio gaizqui eguiñaz; escatzen dio JESUsi eguiñaren barcamentua; ematen dio, gaizquiric berriz ez eguiteco, ta gaitz-videtic quentzeco hitz osoa. ESCAtzen dio, artaraco behar den bere laguntza, ta gracia. EMAten diozca, bere neque tormentu--equin eguin dion ona gatic, al dituen esquer guciac, eta erraten dio, eguiñen duela ordañez al duen on gucia.

ETA oira non eguiten duen bere jate gucia, edo gogozco otoitz eder bat, gaia uquituz bezala, eracuste bat-equin.

Baña Animaco jate, edo otoitz bera eraguiteco, orretara oitua, ez dagoen, luscaldun bati, ogui, edo gai bera, edo beste edocein ongui ongui eracutsi beharco diozu; ta eracutsi beharco diozu nola ebaquiere, ta nola jan; edo eman beharco diozcatzu moldatuac, edo eguiñac becatuen damua, barcamentuaren, ta laguntzaren escaera, esquerren--eman--era, gaizquiric ez eguiteco, ta gauz onetan zucen ibiltzeco almoa, ta gañeraco gauzac.

ORRE gatic, bada aguertu dut, ecusico dezun adiña, otoitz bacoiztzeraco guia; ta ori aguertzean, noizean bein, ta luzaroago bucatzean, ereñi ditut, otoitz onac ecarri oi dituen, asmo, hitz, eta gauza cembait; ar ditzatzun, bihotzez emateco cere Jaun on maita-garriari, edo icas dezazun nola hitz-eguin cere Jangoicoari, ta otoitz on-

etic

etic atera behar dezuna.

CONgregacionean, aſi ta utzi bague iracurtzen da otoitz-gai gucia. Baña nola errazqui barraiatzen diran gogotic, bein baicic, aditzen ez diran, gauzac, edo ceren gogoac aiſa igueſ-eguin oi duen, aditzen dituen, gauzac uztiric, naiago dituen-etara, Iracurleac lagundu behar die Congreganteei, beren gogoan erabiltzen, iracurri diena, erraten diela noizean-bein beren otoitz demboran, cer, edo cer, len iracurri-etatic, edo era bereco beſte cerbait.

ORREtaraco dira, otoizgai bacoitzaren ondoren arquitzen diran, Eſcrituraco hitzcuntzac, edo Sentenciac, eta oriei dichezcon hitzac; bada oriec, ecuſico dezun bezala, otoitz-gai berari dagozcanac dira, ta len errana berritzen, ta ſendortzen duten, gauzac.

OTOItz demboran, bada, iracurrico ditu Iracurleac, cein bere aldian, edo aldiraco artuco du bacoitzetic, onguien deritzan zatia, edo orren ordez errain du irur aldiz cerbait orrelaco.

IRAcurleac ez dira guciac mihi batecoac: batzuec behar dute hordu-erdi bat, beſteac laurden batez iracurtico duteneraco: ta bacoitzac iracurri behar du bere eran, baña gueiegui luzatu bague. ORREgatic, bada, bere zatietan berecia dago otoitz-gai bacoitza; ta bacoitzean buca ditequeen bezala, utiic eguin bague; ta, artara baño, len ecuſico du Iracurleac, aldi artan iracurri behar duena.

ETA, obequi Elizan iracurtzeco, iracur beza lenic bere Echean; ta ecus beza, iracurtzean, aldatu behar duen, hitzen baten, edo beſtearen bucaera; bada Librua bazter gucietaraco eguiña da, ta hitz guciac ez dituzte era batean bucatzen Euſcaldun guciac. Eguia da, dauden eran iracurtzen ba-ditu ere (onguiiracurtzen dituela, ta dagocana, dagocana-requin) ez dutela adilleac galduco erraten zaiena; bada Libru onetaco euſcara, len eguin nuenarena baño errazagoa da; ta angoa ere aditzen dute, dagoen bezala, diodan eran iracurtzen ba zaie, berac erraten dutenaz. ETA bein, edo berriz cerbait galdua gatic, laſter oituco dira, aditzen dituzten hitz-etara; ta erdarazcoac, eta beſte behar ez diranac, utziric, artuco dituzte beren hitzcuntz--etaraco hitz euſcaldun garbi-leunac.

CONgregacioneac eman dute videa, Libru hau, era onetan moldatzeco: baña Congrega-

ga-

gacio-etaraco ez ecic beſtetaraco ere eguin da Librua; bada eguin da, Euſcaldun bihotz onezcoac gogozco otoitzera oiteraztea gatic; otoitza da alabaña Animaren janaria; ta janari, becatuz ez iltzeco, noizean-bein bada ere artu beharra.

LAGUN artean, bezain ongui ar dezaque bacoitzac bacarric bere janari on indartſu hau; edo bacoitzac berez, ta Libruz bere buruari laguntzen diola, eguin dezaque Jai-egunetan, MEZAcoan, ta haſtia duen, aldi oro edocein toquitan gogozco bere otoitza: ta nai duenari, nai duenean, onetan laguntzeco ere eguin da Librua.

¶ TA aiſago lagun dezan, ta erraz orretaraco nora nai eraman dedin, arquituco dezu amaica zatitan, edo Libru chiquitan berecia. Bai ta irur zati anditan ere. LAGUNtzen ba--dizu, nic nai adiña, izain zara zu zori onean jaioa, ta JESUSen Bihotzecoa. Emen zu ala izatera, izain zara guero Cerucoa. An dacuſagula bioc elcar eternidade gucian. Bai arren, bai.

¶ Obiſpo Jaunac, eta Erregueren Conſejuac eman dute beren baimena, edo Licencia Libru hau aguertzeco; bai ta Jeſuſen Compañiaco Naguſiac ere. Erdarazcoac dira orien baimenac, eta nere baitan guelditzen dira, ecuſi nai dituenari eracuſteco. Obiſpo Jaun D. Gaſpar Mirandac ematē die berroguei eguneco barcacio, edo Indulgencia, otoitz-gai bacoitza iracurtzen, leitzen, edo aditzen dutenei, ori eguiten duten aldi oroco.

Libru-guilleac, oi den bezala, eguin ditu bere utſac. Ori andienac, atera ditzatzun zuc, haſtiz zaudenean.

I. Z. ò TOMO I.

PAgina 18. Columna 2. Linea 25. egui, eguia. pag. 23. Col. 1. lin. 6. guiñan et cill, lee guiñan-etic ill. pag. 25. c. 1. l. 3. nolaco, nolacoa. pag. 29. c. 2. l. 2. ditut, dizut. pag. 70. c. 1. l. 22. ſalatuco, ſaiatuco. pag. 96. c. 2. l. 14. dacarcen, darren. 157. c. 1. l. 31. Jangoicoa, Jangoicoac. pag. 159. c. 1. l. 24. Erronac, Erricoenac. pag. 178. c. 1. l. 3. Jandone, Andre-dona. pag. 230. c. 1. l. 6. betazalac, betazal. pag. 236. c. 2. l. 34. baño..adde..becatutic. Ibid. 36. Jangociotaſun, Jangoicotaſun. p. 246. c. 2. l. 14. ba-cen, ba da. pag. 264. c. 2. l. 22. dio, dioz.

II. Z. ò TOMO II.

Pag. 23. col. 2. lin. 2. emenigo, emengo. pag. 27. c. 1. l. 24. igarzotea, igarotzea. pag. 28. c. 2. l. 24. ogunez, egunez. pag. 41. c. 2. l. 4.

l. 4. icefte, icafte. pag. 42. c. 1. l. 8. derra, ederra. pag. 74. c. 2. l. 2. ſanuac, Santuac. pag. 77. c. 2. l. 6. egun, cigun. p. 78. c. 1. l. 28. daquitena, digutena. pag. 122. c. 1. l. 35. bere, bera. pag. 123. c. 1. l. 28. maldicionei, maldicioren. pag. 236. c. 2. l. 7. diran, dira. 142. c. 2. l. 7. egarti, egarri. 144. c. 2. l. 11. den, dien. pag. 150. c. 1. l. 15. guitacen, gaitecen. 155. c. 2. l. 7. Job, Tobias. pag. 168. c. 1. l. 5. berac, bereac. pag. 177. c. 2. l. 26. egui, eguitecoa. 183. c. 2. l. 30. m garriac.... maita-garria. pag. 187. c. 1. l. 31. ezatera, izatera. 197. c. 1. l. 2. guer, gueiagotan. 199. c. 2. l. 1. viztico, vizteco. 202. c. 1. l. 3. gaiftea, gaiftora. 206. c. 2. l. 28. gordezco, gordetzeco. 230. c. 2. l. 231. dizuen, dizunean. 232. c. 2. l. 15. ba, bat. p. 242. c. 1. l. 29. dabilla, dabillela. 243. c. 1. l. 7. Jefui, Jefufen. 246. c. 2. l. 37. Zabitza, Zabiltza. p. 252. c. 1. l. 8. adde eguiten cituela. 252. c. 2. l. 4. arqui, afqui. Ibid. l. 11. gueren, gucien. pag. 158. c. 1. l. 33. vicita, vicitza. Ibid. c. 2. l. 12. gogora-ena, gogorra-rena. p. 263. c. 2. l. 4. aicina, aitziña. 265. c. 2. l. 22. guitecoac, eguitecoa. 277. c. l. 21. gundeei, gendeei. 278. c. 1. l. 21. arqui, afqui. 303. c. 1. l. 16. dezue, dizue. 315. c. 2. l. 20. efcuiric, efcuric. pag. 318. c. 2. l. 2. bera, bere. 323. c. 1. l. 11. galgarrien, galgarriren. p. 342. c. 2. l. 28. nintzanen, nintzan. 350. c. 1. l. 1. gogoraco, gogaraco. p. 353. c. 1. l. 19. guciac, gucia. 368. c. 1. l. 11. anitzez, anitzec. 374. c. 2. l. 37. tar, tzar.

III. Z. ó TOMO. III.

Pag. 9. col. 2. lin. 27. ſoñeco, ſoñecoa. pag. 10. c. 2. l. 14. gogorren, gogorraren. p. 17. c. 2. l. 19. nembillinen, nembillen. 22. c. 1. l. 6. gaifoag, gois. 31. c. 1. l. 17. jaquid, jaquiundea. 37. c. 1. l. 18. ezarri, ecarri. pag. 38. c. 2. l. 28. mundur, munduan. 40. c. 1. l. 29. Oñiz, Oñic. pag. 44. c. 2. l. 18. iltzen, iltzez. 83. c. 1. l. 12. atar, ateratzean. 86. c. 1. l. 29. ciguna, cigunaz. pag. 94. c. 1. l. 11. zuten, zucen. 104. c. 1. l. 17. jard, indartſu. pag. 109. c. 1. l. 9. pecoa, pecoac. 113. c. 2. l. 19. dizqugui, dizquigu. p. 119. c. 1. l. 7. ceduzcati. ceduzcatziela. 133. c. 2. l. 11. zan etan, zañ-etan. p. 136. c. 1. l. 9. dele, guri Jefufec. 149. c. 2. l. 16. galdu, galdua. pag. 163. c. 1. l. 23. anari, janari. 177. c. 2. l. 36. Erreguac, Erregueac. pag. 186. c. 1. l. 14. ciquitz, ciquintzen. 191. c. 2. l. 22. gaiq, gaizqui g. p. 197. c. 2. l. 11. eramanz, eramazu. Ibid. l. 15. guertatezu, guertatzen. pag. 208. c. 2. l. 29. centnzric, centzuric. p. 219. c. 2. l. 35. Erreguar, Erregueri. 233. c. 1. l. 29. ſuleco, ſulececo. p. 241. c. 1. l. 8. laguntzac, laguntza. 261. c. 1. l. 19. jaunari, janari. p. 287. c. 1. l. 16. Eztara, Etzara. p. 289. c. 1. l. 9. beren, bere. 402. c. 2. l. 21. Ceruzo, Ceruco.

upna

LICENCIAS DEL ORDEN, DEL SEñOR OBISPO, Y REAL Consejo.

EUgenio de Colmenares, de la Compañia de Jesus, Provincial de la Provincia de Castilla. Por particular comission, que para ello tengo de N. M. R. P. General Lorenzo Ricci, doy licencia, para que se imprima un Libro, cuyo titulo es *Jesusen Amore Nequeei dagozten, cembait Otoitz-gai*, ò Meditaciones sobre el Amor, Penas, y Trabajos de JESUS, compuesto por el P. Sebastian de Mendiburu, de la misma Compañia; el qual ha sido examinado, y aprobado por persona docta, y grave de nuestra Compañia. En testimonio de lo qual di èsta firmada de mi nombre, y sellada con el Sello de mi Oficio, y refrendada de mi Secretario, en este nuestro Colegio de Avila, à 4. de Noviembre de 1758.

IHS.
Eugenio de Colmenares.

✠

IHS.
Joachin de Medrano. Sec.

DON GASPAR DE MIRANDA Y ARGAIZ, POR LA GRACIA de Dios, y de la Santa Sede Apostolica, Obispo de Pamplona, del Consejo de su Magestad, &c.

POr la presente, y por lo que à Nos toca, damos, y concedemos licencia en forma, para que sin incurrir en pena, ni censura alguna, se pueda imprimir, è imprima el Libro intitulado *Jesusen Amore-Nequeei dagozten, cembait Otoitz-gai*, ò Meditaciones sobre el Amor, Penas, y Trabajos de JESUS, compuesto por el R. P. Sebastian de Mendiburu, de la Compañia de Jesus; atento, à que, haviendo sido examinado, y reconocido de nuestra orden, nos ha constado no contener cosa alguna, que no sea conforme à nuestra Santa Fè Catholica, y util à las buenas costumbres. Y concedemos 40. dias de Indulgencia, à todas, y à cada una de las per-

¶ so-

ſonas de ambos ſexos, que leyeren, ù oyeren leer alguna de las Meditaciones de dicho Libro, por todas, y cada una de las veces, que lo executaren. Dada en Pamplona à doce de Diciembre de 1758.

Gaſpar, Obiſpo de Pamplona.

Por mandodo de ſu S.I. el Obiſpo mi Sr.
Dr. D. Joſeph Eladio Colado. Sec.

CENSURA DE DON JUAN JOSEPH DE AMEZQUETA, Capellan de las MM. Auguſtinas Recoletas de la Ciudad de Pamplona.

OBedeciendo el mandato de los Señores del Real y Supremo Conſejo de Navarra con todo el reſpeto, y acatamiento debido, he viſto, y leido con atencion un Libro en Vascuence intitulado *Jeſuſen Amore-Nequeei dagozten, cembait Otoitz-gai*, ò Meditaciones ſobre el Amor, Penas, y Trabajos de Jeſus, ſu Author el Padre Sebaſtian de Mendiburu; y luego que vi à ſu frente el nombre de ſu Author, dixe aſsi para con migo miſmo: es *Obra ò produccion* (para hablar à la moda) del Padre *Sebaſtian*? Luego no puede dejar de ſer Grande, Auguſta, Santa, Divina, Religiosa, y digna de toda veneracion; que ſon atributos, y predicados, que lleva en ſu proprio nombre: *Sebaſtianus*, id eſt *auguſtus*. (Apud Diction. Nebriſ.) No es el Padre *Sebaſtian*, Eſcritor de eſte *Libro*, hijo de la Compañia de Jeſus, *Maeſtro* en muchas *Facultades*, *Miſsionero* Apoſtolico, bien conocido en todas las *Montañas*, y *Payſes* del Vascuence, donde ha ſembrado la *palabra* Divina con tanto fruto, como es notorio, y *Perfecto* actualmente de la *Eſcuela* de *Maria* en la Ciudad de *Pamplona*? No ha hecho toda ſu vida ſu eſtudio principal en la *Ciencia* de los *Santos*, eſto es, en el conocimiento de las coſas Santas, ò de los miſterios de Dios, como lo interpretan los Expoſitores literales *Alapide*, y *Tirino in* Sapient. cap. 10. ℣. 10? O, ſi queremos entender aquella ciencia practica, con que debemos ſervir, y agradar à Dios en todo, teniendo por regla de nueſtras operacio-

cio-

ciones la Divina Voluntad, quien no vee, y nota en este *Jesuita* una exacta puntualidad en todo lo concerniente à su Sagrado *Instituto*, nacida sin duda de esta verdadera ciencia? Pues que otra cosa podia salir de un sugeto adornado de estas prendas, sino una obra *piadosa*, *sòlida*, *util*, y *conducente* para el camino de la verdadera salud? Y en verdad, que no me engañò mi pensamiento; por que, viendo la materia, que trata en todo su Libro, he notado una uncion propria de su espiritu, que enciende al lector en aquel fuego sagrado del *amor* de *Jesus*, que vino el *Salvador* à traer al mundo, y deseaba tanto prehendiese en los Corazones de los hombres; en especial en el libro quarto, donde hay veinte Meditaciones sobre el adorable mysterio de la Eucharistia.

Aqui, parece, que quiere introducir las almas hasta el gavinete del *Corazon de Jesus*, abriendoles el passo con la llave de sus fervorosas, y sòlidas reflexiones; de las quales, me parece, se puede decir lo mismo, que dijo el Author del Eclesiastès en el cap. 10. ℣. 10. *quæsivit sermones rectissimos, ac veritate plenos*; por que cada Meditacion es un sermon rectissimo, y lleno de verdades: ò sino, segun el comento del Doctissimo *Alapide* à este lugar, dirè, que son unas Meditaciones, que contienen unas *palabras rectas*, esto es conformes à la *recta* razon, à la *verdad*, à la *Justicia*, y à la *Divina Voluntad*, como norma, y regla directiva; *non obliqua*, *non torta*, *non perversa*, *ut sunt verba impiorum*, conforme aquello de la misma Sabiduria, prosigue el citado Expositor; todas sus palabras son justas, no hay en ellas cosa alguna mala, ni perversa. Proverb. cap. 8. ℣. 8. Assi que dicho se està quanta utilidad traerà este Libro, si se leyere por modo de leccion espiritual, ò platica; pues, como se lea con pausa, y sentido, cada Meditacion suya serà una platica muy instructiva, afectuosa, y servierte. Y espero, lo haràn los Señores Parrochos Vascongados; que tendràn en èl à poca costa, y trabajo un gran socorro para el cumplimiento de su alto ministerio. Y de aqui resultarà otro beneficio y utilidad à favor de la Lengua Vascongada; que en varios parajes se halla muy desfigurada, y aun como sepultada entre locuciones nada propias à ella, y con muchos terminos del todo estraños; que serà resucitarla, digamoslo assi, à la vida de su antiguo candor, y pureza, y dejarla surtida de voces nativas, tersas, y propias; pues todo ello se encuentra en este Libro, à una con una expresion airosa, natural, fluida, y suave.

Por

Por tanto, y por no contener cosa contra las Regalìas, y Pragmaticas de su Magestad, lo califico segunda vez por *Obra* en su genero *grande, augusta, y digna* del nombre de su Author; y que merece la licencia, que se pide para la pùblica utilidad. Assi lo siento, salvo meliori, en Pamplona. à 8 de Enero de 1759.

Don Juan Joseph de Amezqueta.

CErtifico yo el Secretario, que por el Real Consejo se ha concedido Licencia para imprimir, y vender à precio de seis maravedis por pliego el Libro intitulado *Jesusen Amore Nequcei dagozten, cembait Otoitz gai*, ò Meditaciones sobre el Amor, Penas, y Trabajos de Jesus, escrita por el Padre Maestro Sebastian de Mendiburu de la Conpañia de Jesus, como todo consta por extenso en original, que con fecha de 24 del presente mes pàra en la Secretarìa de mi Oficio. Pamplona, y Julio 26 de 1760.

Nicolás Fermin de Arrastia. Sec.

NEre alde dira (dacusazun bezala), erdaraz emen zuc ecusten dituzun, gauzac. Orre gatic, bada, ta Iracurleari azquen lecuan adirazten diodana gatic, gordeac neduzcan nic; eta iduqui ere uste nituen, vici nintzaño. BAñA nic an diodana, banatu diran, Libruetan (ta banatu dira sei zati-etatic bat, eta erdi, ta gueiago) ecusi duten, cembaiti ez diet (aditu dudanaz) zor izandu, uste nuen, siñiste gucia; ta, orien ecusi-naiari atseguin eguitea gatic, eta beste edoceinen gogamber etor--quizunari vidèac galerazteco, aguerteen ditut orain; ta ezar-eracico ditut, banatceco dauden, beste gucietan. BARCATU arren lembicitic hau nic ez eguiña.

upna

quin arquitzen diranac ecus bitzate, Jesusen Bihotzaren devocioco Libruan arquitzen diran, Erregla luceac.

JESUS AGUERTU-ONDOAN FRraten diran Otoitzac.

CARGU-D. Alabatua izan dedilla, Aldarean dagoen, Jesus-en Bihotz maita--garria.

GUCIAC. Orain, ta beti.

C. Bai ta, becatuaren loiric ecusi etzuen, Jesusen Amaere.

G. Alaber.

C. Jesus gurea, galduac izan ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Gu-gatic Guizon eguin ciña, vici gucian, neque-icerdia baicic, ecusi etcenuena, ta, odola ceriezula, Gurutze batean josiric guelditu ciñan, Jesus maitagarria, galduac izan ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Gu gana aserre dagoen, Aita pa-lacatzeco, ta, gure becatuac gatic zor dioguna-ren alde, Aldare orretan guelditu zaran, Jesus maitagarria, galduac izan ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Gure bihotzac, zureari dariozcan, graciazco arguiz, ta amorezco suz bete naiez zauden, Jesus maitagarria, galduac izan ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Gure becatuen gurutceac, eta culpen arrantza gogorrac zure Bihotzari eman cioten neque, ta estu-tasunaren damua escatcen dezun, Jesus maitagarria, galduac izan-ez gaitcen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Indartsuen janaritzat, eta anima eriei indarrac emateco, Aldarean guelditu zaran, Jesus maitagarria, galduac izan, ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Artu nai zituzten-enrzat, Aingueruen ogui, ta, edaten dutenac Virgin eguiten dituen, ardo eguiñic, Mai orretan zauden, Jesus maitagarria, galduac izan ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Amorezco labe, ta sutegui eguiñic cere Bihotza daducazuna, ta gurearen amodioa escatcen dezun, Jesus maitagarria, galduac izan ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Itsasoac are adiña becatu dituen gaistoarentzat, eta arse-

guin

guin guciac or arquituco ditien, onarentzat Bihotza zabaldua daducazun, Jesus maitagarria, galduac izan ez gaitecen

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Virtute guciac, eta lenenic, berach izatea, ta humiltasuna cere Bihotzean eracusten dezun, Jesus maitagarria, galduac izan ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

C. Eriotzac lurretic bota nai gaituenean, Ceruco hostaturaco behar dugun, ondasuna, ta gracia Bihotz orretan dacartzula, gu gana etorceco zauden, Jesus maitagarria, galduac izan gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu, cere Bihotzaren erdian.

C. Sacramentu andi orretan, munduaren vicitza, vicitzaco arbola, gaistoen Bitarteco, onen viztura, ta seculaco vicitza zaran, Jesus maitagarria, emendic ateratcen garanean, seculaco galduac izan ez gaitecen,

G. Gorde gaitzatzu cere Bihotzaren erdian.

Aña. IMPROPERIUM expectavit cor meum, & miseriam, & substinui, qui simul contristaretur, & non fuit, & qui consolaretur, & non inveni.

℣. Discite à me, quia mitis sum, & humilis corde.

℟. Et invenietis requiem animabus vestris.

Oremus.

DOmine Jesu, qui ineffabiles Cordis tui divitias Ecclesiæ Sponsæ tuæ singulari dilectionis beneficio aperire dignatus es, concede propitius, ut gratiis Cœlestibus, ex hoc dulcissimo fonte manantibus, corda nostra ditari, ac recreari mereantur. Qui vivis, & regnas in sæcula sæculorum. Amen.

NERE JESU-CHRISTO erran ondoan erran behar den-

O T O I T Z A.

Jesusen ANIMA, virtutez bete nazazu. Jesusen BIHOTZA, amorez erre nazazu. Jesusen GORPUTZA, salvanazazu. Jesusen ODOLA, amorez zora nazazu. Jesusen Bihotzeco URA, garbi nazazu. Jesusen ICERDIA, graciazco viciz bete nazazu. Jesusen PASSIONEA, indartsu eguin nazazu. Nere JESUS ONA, adi nazazu. Zure LLAGUETAN, zure BIHOTZAREN erdian gorde nazazu. Ez nadilla ni etsaien escuetan ERORI. Nere ERIOTZECO horduan dei nazazu. CERE gana eraman nazazu. Zure SANTU-EQUIN alaba zaitzadan beti secula gucian. Bai arren, bai.

upna

JESUS BIHOTZ MAITEAREN CONGREGACIOCO Erregla laburtuac.

§. .

NOLACOAC IZAN BEHAR DUTEN *Congregacio-onetan sartzen* DIRANAC.

CONGREGACIO onetacoac amorez, ta damuz erantzun behar diote, Aldareco Sacramentuan Jesusec aguertzen digun, bere Bihotzeco amoreari, ta guri ongui naiac emen eram-arazten diozcan gaistoen vide-gabeei; baña erantzun behar diote, gañeraco Christioac, edo Christavac baño, zucenago, ta obequi. Orregatic:

1 Izan behar-dute Congreganteac vicitza garbicoac, eta erran-videric ematen ez dutenac:

2 Izan behar-dute, Jesusen Bihotzeco escolatic ateratzen ez diranac, edo ango humill-era, ta manso-tasuna icasten dabiltzanac:

3 Izan behar-dute, Congregacioneco gauzac zucen eguiten dituztenac; naiz Jesus berari dagozcanac izan, naiz lagun urcoari dagozcanac; naiz beren animaco onguiari dagozcanac.

§. II.

CONGREGANTEAC EGUIN BEHAR *dutena* URTE ORO.

1 Congregacioan sartzen diranean, ta guero urte oro eguiñen-dute beren confesione generala; baña aldian aldicoa, edo onguien dagoquiena:

2 Igaroco dute, alic onguiena, Jesusen Bihotzeco Besteguna. Fest onetan eguiten dira, Erregla luceac bereisten dituzten, gauzac.

3 Ez dute guelditu behar Exercicio-etara bague, oriec dirauten egunetan.

4 Eguiñen dute urte oro Jesusen Bihotzaren Bederatz-urruna.

ILL ORO.

Confessatu, ta comuniatuco dira ill oro gutienean; bai-ta, Confessari onac bereisten diezten, egun-etan ere.

Elizan arquituco dira Jesus Sacramentatua aguertzen zaien arratsalde-etan; ta an egoin dira Erregueen Erregue andiarequin daudenac bezala.

HASTE ORO.

1 Igandeac dira Jangoicoaren egun bereciac; eta egun, Jesusen Bihotzaren Congreganteac, Elizan, ta gauz onetan eraman behar ditutztenac. Bere-bat eguin behar dute Jaiosoetan.

2 Aisa vici diranac, eta osasun ona dutenac atera dezaquee baruren bat, edo beste; ta

¶ Con-

Congregante guciac eguin dezaquee oituralean, edo beste egunen batean jun-edian labur, hildura, edo nequezco cerbait beste gauza.

EGUN ORO.

1 Jaiqui-orduco CIñATU, Jangoicoari ESQUERRAC EMAN hordu-rañoco bere ontarte guciac gatic; ESQUEñI egun gucico beren gauzac, eta nequeac; eta ESCATU, guciraco behar duten, bere lagunza, ta gracia, AITA GUREA ta AVE MARIA erraten diotelà. BESTE Aita gurea, eta Ave Maria Aingueru zaitzen dituenari; beren iceneco Santuari BESTE BAT, eta irur AVE MARIA Jesusen Amari, ar ditzaten egun gucico, onec, Aingueruác, eta beren Santuac beren contura.

Entzun behar dute beren Meza,al dutenac.

2 Aldare-etaco otoitzac eguitea, ta Errosarioa Elizan, echeco-quin, edo bacarric erratea Congregante onen egun oroco eguitecoa da.

3 Egun oro, al ba-dute, edo, al duten, egun-etan iracurri behar dute libruren batean cerbait dembora zatiz.

4 Elizara ditezquenac, bidoaz, an Jesus ecustera, Mezaric ez den, horduren batean bada ere.

5 Ecin joan diranac', billa bezate, gogoz bada-ere, beren Jesus Sacramentatua; ta echetic, menditic, videtic, edo, dauden toquitic argana beren Bihotza zucentzen dutela, erran bezate bortz aldiz goizetic arratsera : ALABATUA IZAN DEDILLA ALDARECO SACRAMENTUA, TA,SACRAMENTU ARTAN AQUITZEN DEN, JESUSEN BIHOTZ MAITA-GARRIA; ta guero, AITAGURE BAT, eta AVE MARIA.

6 Ciña bitez ichetic ateratzean, lanean asitcean, ta edocein beren perell etan; aldi orietan, ta, hordua aditcen dutenetan, erraten dutela AVE MARIA.

7 Etzin baño, len ecus bitzate, eguin dituzten, lan on, ta gaisto guciac; gaistoez damuturic, eguiteco beren ONEZDAMUA, edo CONTRICIONEA; ta eguin bezate, goizetaraco bereci den, otoitza.

8 Elizaco-equin arquitzen den, Congregante eriaren alde erran bezate Errosario bana. Itzen denean beste bana; ta horduan entzun behar dute Meza bana; ta eguin behar dute BORTZ Aldare-etaco otoitza.

Congregacioco cargudunac, eta icheco cargua-re

quin

CEIN GAUZ ERRAZA DEN, TA CEIN ONDASUN-DUNA gogozco Otoitza.

§. I.

GAUZ-ERRAZA DA GOGOZCO OTOITZA.

ANitcec uſte dute, ez dela gucientzat gogozco otoitza; ta, guizon jaquintſuac, eta virtutetſu cembaitec ez-pa-da, ecin daguiqueela, ongui beintzat, otoitz-era hau; ta gañeracoac, ALTA GURE, ta AVE MARI cembait erran ezquero, eguin dutela beren eguitecoa, edo beren otoitz gucia. Baña uſte orretan daude gaiſoac, jaquin baguez cer den, ta cein erraza gogozco otoitza, ta cein andiac diran, otoitz onetatik datocen, ondaſunac: bada, hau gucia ba-lequite, beſteric ertain luquee, ta pocic ſaiatuco liraque otoitz erraz ondaſundun hau zucen eguitera. Artara ditecen uſçaldun onac, eracuſtera noaquie, otoitz-gaiac zabaltcen aſi baño len, eguiteco onetan jaquin behar dutena; ta lenenic otoitz onen erraztaſuna.

Cer dela, deritzazu, gogozco otoitza? Urrutico gauz errebes gaitz-gogorren bat? Ez bada: bada San Juan Damaſcenoc dionaz (ta berebat diote gañeracoac) gogozco otoitza da „ Gogoz ta „ bihotzez gure Jangoicoari be„ guiratcea „ (1). Eta ecuſten dezu, ez dela gauza gaitza beguiratcea, eguiten bada beintzat, beguiratcen duenaren oneraco; ta otoitz-guillearen oneraco da, ta on anditaraco, ecuſico dugun bezala, onec Jaunari eguiten dion beguiratcea, edo onen gogozco otoitza.

Nai dezu ecuſi cein aiſa daguiquezun gogozco otoitz, edo cere Jaunari beguiratce hau? Aſqui da orretaraco icaſtea cembat aldetara, ta cer eran eguiten den. Anitz aldetaracoa da gogozco otoitza, edo anitz aldetara beguira daquioque gogoz, ta bihotzez gure Jangoicoari; bada beguira daquioque, gure eguilleari bezala; beguira daquioque, gu gatic guizon eguin ta gurutze batean ill cenari bezala: beguira daquioque gure emalleari bezala, gure eracuſleari bezala, gure paga-leari bezala, gure barca-lariari bezala, gure ſuſten-garriari bezala; bai ta gure Jaun ecin-obeari, ecin-urricaltſuagoari, ta ecin-maita-garria-goari bezala, ta orrelaco beſte anitz aldetara ere: ta, orrelacoari bezala, Jangoicoari gogoz ta bihotzez beguiratzea, beſteric ez da, baicic era artan zu gandic artec eſcatcen duena haſtiz ecuſtea; ta eſcatcen duena, naiez ta bihotzez zuc eguiten

tea, edo eguin-asmoa bertatic artcea. Ara nola.

Beguiratu nai diozu Jangoicoari, cere eguille onari bezala? Ecartzu bada cere gogora, nor den, zu ecer-ecetic, atera cinduen, zure Jangoicoa: ta ecusico dezu, hau dela, gucia daquien, gucia daguiquen; ta, ongui baicic, gauzac ecin eguin ditzaquen, Jaun, asieraric, bucaeraric, eta bazterric bagueco bat. Zoaz atciña, ta ecartzu gogora, cer gatic eguin ote cinduen zu cere Jangoicoac? Eta ecusico dezu, eguin cinduela, ongui-nai utiez, ta batere zure beharric etzuela; bada izandu zuen zure Jangoicoac, zu bague, leneco bere eternidade gucian, ba-zuen, zu eguin cinduenean, ta izain zuen, zu ez eguina gatic, secula gucian izan-al adina on, ondasun, ta atseguin. Ori ecusi-ondoan, ecartzu gogora certaco eguin cinduen zu, zure beharric bague, zure Jaun andiac; eta ecusico dezu, eguin cinduela cere oneraco, edo, vicitz on batequin, irabaz cenezan eternidade gucico at seguin-contentua, ta Ceruco gloria.

Beguira zazu guero cer ote den zuc cere Jangoicoari zor diozuna, cereri eman cizun, dezun, izatea; ta eman cizun, dezuneraco; ta ecusico dezu, Jangoicoarena zarala zu, zaran gucia, ta zor diozcatzula, beguiz, gogoz, behitzez, ta alde gucietara daguizquetzun gauza guciac; eta behartua atquitcen zarala, cere zorrari eranzun nai ba-diozu, guciac ongui ta zucen eguitera: ta ori ezagutu-orduco, asico zara bihotzez apa, ta muñ eguiten Jaun beraren escu eguilleari, ta esquerrac ematen, eman dizun, izatea gatic, eta ceren eman dizun, Ceruua irabazteco: asico zara bera maitatcen, eguite onetan aguertcen dizun, bere amore andia gatic; eta cere zorren alde, ta glorian beti, bera maitatcen dezula, egon naiez, emanen diozu hitza, vici zaraño, cere gauzac zucen eguiteco; ta escatuco diozu, lenago ori ez eguinaz, barcamentua; ta, bertatic eguiten asteco, behar dezun, laguntza, ta gracia. Orra, zuc, eta norcnai daguiquen gauza; ta orra gogozco otoitza.

Era berean eguin dezaquezu, beste edocein aldetara beguiratcen diozunetan. Barcatzalleari bezala beguiratcen ba-diozu, ecusi behar dezu bein nor zaran zu, becatu-guille charra, ta nor den, zuc cere becatuequin aserretu dezun, cere Jangoicoa. Ecusi behar dezu guero cein gauz itsusia den, zu bezain gauza char batec, eta bere izatea, ta gauza guciac Jangoicoari zor diozcanac, Jangoicoa bezalaco bati becatuz erantzutea, ta charqueri arrigarriz beguitan ematea. Ecusico dezu azque-

quenean, becatu baceitza-lequin galdu dituzula, gracia, Anima co edertasuna, ta Ceruco gloria; ta irabaci dezula, betico sulecea, ta an erretcen secula gucian egon beharra ere.

Onelaco ecusteac, arrizcoa ez-pa-da, beratuco du zure bihotza, ta beteco du beldurrez, ta icaraz; ta eramain zaitu Jaunaren oñetara, an humilqui cere gaizqui izugarriac aitortcera; an ari esquerrac ematera, ceren bota etzaituen seculaco sutara, zure gaizquiac escatzen zuten bezala; ta ceren, ori eguin lecuan, ara etzindecen, eguin cen bera guizon; ta, anitz neque gogorren buruan, ill cen Gurutze batean; ta, damuz beteric cere lengo eguiñaz, escatuco diozu gaizqui gucien barcamentua; emain diozu (ta cinqui ala ere) gaizquiric berriz ez eguiteco, ta gaizqui-vide guciac uzteco hitz osoa; ta escatuco diozu, orretaraco, ta cere gauzac zucen eguiteco, behar dezun, bere laguntza, ta gracia.

Hau eguiten ba-dezu, eguiten dezu gogozco otoitza; ta otoitz ederra. Eta ba-daguiquezu, dacusazun bezala, aiz-asqui, edo anitz necatcen etzarala; bada hau gucia, besteric ez da, baicic gogoz, ta adimentuz hastiro ecustea cere zorrac eta beharra; ortic atera zaitzaquen, cere Jaincoa gana Animaco oñac zucentceco, ta bihotzez humilqui, len bera gandic artuen esquerrac eman ondoan, escatceco behar dezuna; videnabar erraten diozcatzula cere icenean, ta nai dezunen alde, hume onac, maite duen, gurasoari erran oi diozcan, gaucen eraco, gauzac.

Ah! baña (errain dezu nosqui) nic ez asmatuco, ecuste orietaraco, hebar diran, gauzac; eta, gogozco otoitza eguiten asia gatic, bereala igues-eguinen niri nere gogoac, echeco behar-etara, edo, behar ez diran, beste gaucetara! Ba-lizaque ori ere: ta orre gatic moldatu ditut Libru oietaco otoitz-gaiac. Oriec adituz (iracurtcen ez-pa-daquizu) congregationeco egunetan, ta beste cembaitetan, naiz Elizan dela, ta naiz ichean, icatico dituzu, orretaraco behar diran, gauzac; eta eguin dezaquezu cere gogozco otoitza.

Hau errazago daguizun, artaratcen zaranean, belaunicatu-orduco, eguinen diozu, bertan dezun, cere Jangoicoari, buruz, ta bihotzez agur andi bat. Escatuco diozu bere arguia, ecusi nai diruzun, gauzac garbiro ecusteco, bai ta bere laguntza ere, ongui ta behar bezala, cere gogozco otoitza eguiteco. Asico zara guero beguiac bilduric, gogoz, ta adimentuz ecusten, ecusi behar dezuna: ta, ecusi behar ba-dezu,

urruti guertatu-ricaco gauzaren bat, naiz dela Jesusen hitz-eguitea, Jesusen miracullua, Jesusen nequea, edo beste edocein, beguiratuco diozu, bertan, edo zu zauden toquian guertatcen ba-liz bezala; bada orrela beguiratceac anitz laguntcen dio bihotzari, Jaunaren amorearen sua artcen, ta, eguin behar dituen, gauzac eguiten.

Gauza ongui ecusi-orduco, asico zara cere Jangoicoari bihotzez hitz-eguiten, ta eramazu orretan otoitz-demboraco zatiric andiena: orretaraco da alabaña lenagoco ecustea. Cerbait escatcean, obequi erdisteco cere Jauna gandic, esca zagozu, batzuetan bere ontasuna gatic, bere urricaltasun andia gatic, edo, eracutsi dizun, bere amore bazterric ez duena gatic. Esca zagozu beste-etan Jesus maita-garriaren neque ta tormentuac gatic, edo Jesusec gure gucien alde eguin, ta eraman zuena gatic; eta, nai dezunean, esca zagozu Jesusen Amaren icenean, edo cere Aingueruaren, cere Santuaren, edo cere devocioco edoceinen icenean: ta esca zagozu, emain dizulaco uste osoarequin. Buca zazu cere otoitza, emequi mintzatcen zarela cere Jaincoa-requin; ta mintza zaquiotza, batzuetan hume ona Aita maiteari bezala, besteetan behartusa emalle onari bezala, ta besteetan zorduna artceco-dunari bezala, gaista-guiña Juez berachari bezala, edo otoitz-gaiac dacarren eran.

Otoitza bucatcean ecusico dezu, cer izandu den gueienic zure bihotza berotu duen gauza; ta noicean-bein ecarrico dezu guero egunaz berriz ta berriz cere gogora, sendor dedin, arc ar-eraci dizun, asmoa; ta lagun-daguizun cere gauzac zucen eguiten, ta, Jaunari emanicaco, hitz onac ateratzen, edo betetzen. Ori da, baratcetic ateratcean, lore eder bat artu, ta ari usai-eguiten zaiola eguna ederqui eramate bat bezala. Videnabar ecusico dezu, contuz eguin dezun, edo nagui, ta lasai cere gogozco otoitza; eguin dezazun, urrengo artaratcen zaranean, orrelaco utsic bague, edo ciñez, erne, ta behar bezala.

Iracurtcen ba-daquizu, ta gogoac iguesi-eguiten ba-dizu beste gauzetara cere otoitz-demboran, ar dezaquezu librua; ta zoaz andic ecusiz, ecusi nai dezuna. Arquitcen dezunean, bihotza uquitcen dizun, gauzaren bat, utzazu librua; ta, beguiac bilduric, adi zazu, Jaincoac adiratcen dizuna, ta errazu, erac dacarren, bihotzezco on gucia. Zabal zazu guero librua, ta zòaz iracurriz gueldi-gueldi bihotza beratcen dizun, cerbait arquitu artean. Hau arquitcean, eguizu, len adiraci duguna; ta era berean gañeracoa; ta

egui-

eguizu beti, bihotzez erraten dezula, beguiac libruan ecusten, ta iracurtcen dutena. Orrela zuc, edo libruric bague, otoitz hau eguitea, gauz erraz bat eguitea da, dacusuzun bezala; ta eguitea gauz, ecustera zoacen bezain, ondasun-duna.

§. II.

GAUZ ONDASUN--DUNA DA gogozco Otoitza.

BAi, gauz ondasun-duna; bada ongui, ta maiz zuc otoitz eguitera, maiz berrituco dituzu Ceruco siñisteac, Ceruco ichedateac, usteac, edo esperantzac; bai ta Jaunaren maitatceac ere. Berritce bacoitcean irabacico dituzu Jaunaren graciaren zati berriac, eta Ceruco glori-gaiac. Oriec berritcean, berrituco da zure bihotzean Jaunaren beldurtasuna, edo becaturatceco, Jauna aserretceco, ta sulecea irabazteco beldurra. Oriec berritcea-requin, oituco zara, behar orduan cere Jauna billatcera; ta, becatu-vide bat ecusi-orduco, ar ganaco zara, beldurtcen den, aurra Ama gana bezala; ta artuco zaitu cere Jaincoac, bere etsaiaren iguesi doaquion, hume maitea bezala; ta, zuc nai dezula, berequin iduquico zaitu, andic etsaiac iguesi-eguin artean; ta etzaitu utcico, gracia, ta laguntza berriric bague.

Oriec berritcean, sartuco zaizquitzu ondu, edo obetu-nai berriac, eta, orretaraco behar diran, gauzac eguiteco, gogoa, edo asmoa; ta, gauzac eguitean, aciko dira zure virtuteac, zure irabaciac, zure Animaco ondasunac, eta edertasuna; ta egun oro eguin ditzaquetzu irabaci andiagoac, eta andiagoac; eta egun oro neque gutiago-requin: bada cembat bat gogozco otoitcera gueiago oitcen den, ambat arintcen zaio bere Legueco carga, ta ambat aisago eguiten ditu Ceruco videco gauzac; eta, ibilliaren eran, acitcen dira ibill-eraco irabaciac.

Eta, beste alde, otoitz-onetara oitcen ez-pa-zara, guertatuco zaitzu, guertatu oi dena, edo Profetac diona. Cer? Lur, maneatcen ez denari, guertatcen zaiona, edo becatuen osinez, laarrez, cardo galduz, belar gaistoz, ta sasiz zure bihotza betetcea: bai, dio Jeremias Profetac; bai, galduac daude lurrecoac, ceren sartcen ez diran beren barrumbean, gogoz ecustera, ecusi behar lituzqueen, videac, eta gauzac; eta bihotzez escatcera beren Jangoicoari, behar dutena, vicitz on bat eguiteco, ta, ongui dàbiltzala, Ceruan sartceco (2).

Ecusi zazu bada, onen caltear ez guelditcea gatic; eta, caltear guelditu lecuan, adiraci ditugun, ondasun guciac irabaztea gatic, oitu nai dezun, gogozco otoiz on erraz onetara. Artara zaitez ar-

ren

ren, Jesusi zor diozun amorea gatic, eta gal ez-ditzatzun, ortic datocen, ondasunac, hordu laurdencho batez bada-ere egun oro. Ez da anitz, ez, Anima gaisoari orrembat ematea, egun gucia gorputzari, ta oni dagozcan gauzei ematen diezun ezquero. Badagui-quezu cere egun--oroco otoitza Elizan, echean, edo al-dezun lecuan; ta, bestela ecin dezunean, videz zabiltzanean, gueldicho zabiltzala, ta begui alic bilduenequin. Jai-egunetan, edo hasti gueiago dezunean, ba-zaudezque cerbait gueiseago cere gogozco otoitzean: zuretzat izain da orretan eguiten dezuna; ta aldian badagui quezu, Indietaco urre-cillar, diamante, ta perla guciac baño, gueiago valio duen, gauza bat. Ecusi zazu cein ero galgarria zu, ori, dagui-quezula, eguiten ezpa-dezu!

Lasterrago oi zaitecen gogozco otoitz ondasun-dun erraz onetara, ba-darama-quezu, Mezara zoazenean, Libru chiquietatic bata, edo bestea, beintzat azquenecoetatic; eta Mezacoan ba zaudeque artan issillic iracurtcen, ta adiraci dudan, eran cere gogozco otoitza eguiten; bada Meza da Jesusec gu gatic eguin, ta eraman zuenaren berritcea, ta bere beico, ta orain ere digun, amorearen aguertcea: ta, libuchoetan arquitcen diran, gauza guciac dira Jesusen amore-nequei dagoztenac; eta bere amore-nequeac gatic Jesusi zor diogunari, erantzun-videac; eta orre gatic dira Mezaraco ere behar bezalaco gauzac. Azquenecoan arquituco dezu Meza berari dagocan otoitz gaia; bai ta Mezaren enzun-vide labur erraz bat ere.

Jesusen Bihotzaren devocionea da, gu Elizara zucen-erazteco, an Mezac entzunez, ascotan comuniatuz, ta bihotzeco, ta gogozco otoitzac eguiten dirugula, aguer dezagun, maite dugula, gure amoreac gatic Eliz berean gau ta egun dagoen, gure Jesus maitea; ta damu dugula, gu gatic len ecusi zuenaz, bai ta amore-toqui berean orain ere ecusten dituen, charqueriez. Eta, jaquinaren gañean, daguizun, eguiten dezuna, contuz ta maiz iracurri behar dituzu bostgarren Libruco otoitz-gaiac; baña gañeracoac aldebat utci bague; bada edocein-etan arquituco dezu Jauna ganaco amore-gai andia, ta Jesusi zor diozunaren eranzun-videa; ta vid-erraz-ondasun-duna. Jesus-berac dizula, hau artceco, gogoa, or irauteco gracia, ta, orretan irabaicico dezun, seculaco bere gloria. Bai, arren, bai.

(1) *Ascensus mentis in Deum.* lib. 3. de fid. orth. cap. 23. (2) *Desolatione desolata est terra, quia nullus est, qui recogitet corde.* c. 13. 11.

LEM-

LEMBICICO

LIBRUA.

GUZTIZ andia da, munduco gucioc Jesusi zor dio gun, amorea, ta ongui--naia; bai-ta ongui--nai--amore onec gu gatic Jesusi eraguin ciona ere. Hau gucia guri adiratzteco, dira, ta adiraciz, guri ar-erareci naiez Jesus bera ganaco amore alic andiena, ta oni dagozcan, gautzac, emen ecusico dituzun, otoitz-gai guciac. Gure zor andi hau guc obequi ezagutceco, ta gueren zorraren alde gogoz-ago daguigun al duguna, anitz lagunduco du lenic ecusteac nor garan gu, ta nor den Jesus gure ain maitari maita-garria: orre gatic lembicico Libru onetaco otoiz-gaietan aguertuco dugu, bein gure ecer-eza ta charqueria; ta guero Jesus Jangoicoaren izate, ta ontasun ecin andiagoa.

LEMBICICO OTOITZ-GAIA.

NOLACOAC DIRAN GURE GORPUTZ-ANIMEN ASIERA, ta gure jaiotcea.

§. I.

BERRIA, TA CHAR-ITSUSIA DA GUREGORPUTZAREN ASIERA.

ASi-berriac diran, ta, asiorduco ciquinduac arquitcen diran, gauzac, nai-ta-ez demboraz laburrac dira, ta asiera char itsusia duten, gauzac. Orrelaco-etatic gara gu gucioc; eta orre-gatic labur-char itsusia da gure asiera. ORRELACO--ETATIC GARA, bai, munduan garan gucioc:

cioc : bada ecin uca dezaquegu, asi-berriac garala gu ; ez-eta ati-orduco alde-gucietatic ciquinduac gueun-dela ere.

Ez, ecin uca dezaquegu, beinic-bein ASI BERRIAC GARALA GU. Errazu ezperen; munduan noiz aguertu ciñan zu, edo noiz izandu cen lurreco zure asiera? Ba ciñan zu, orain zazpi milla urte, edo Adanen demboran? Ba ciñan andic bi milla urtetara, edo Jangoicoac mundua ubeldez bete, estali, ta ito zuenean? Baciñan zu Jesusen jait horduan? Ez oraindic. Ba-ciñan S. Ignacio Loyolan jaio cenean? Ez ta orduan ere. Ba ciñan orain eun urte? Ez eta gueroz, ta gueroz ere. Noiz-danicacoa da bada zure izatea? Jaio-cinan-etic bederatci illabetez lenagocoa. Eta cer dira guerozco zure urteac, illac, eta egunac, Jangoicoaren beticó izate, ta eternidadearen aldean? Ecerez bat adiña, edo ez beintzat anitz gueiago.

Orre gatic dio, lurreco gucien icenean Job Santuac : ATZOCOAC GARA, GARAN, GUCIOC (1). Ecusten dezu cein asi berriac? Lembicitic, eta lembici aldean mundura ciran, guizonen vicitza, fit asqui, ta laster bucatu oi cen, vicitza cen ; baña aguitz lasterrago bucatcen dena da, gueroztic etorri diran, guizonen, ta emacumeen vicitza ; tã arere lasterrago, azquen alde onetan lurreratcen diranena : bada orain bacan bacanac dira, naiz guizonac izan, ta naiz emacumeac, laroguei urte taraño vicitcen diranac ; eta lembician, ta lembici aldean izandu ciran, bederatci eun urtez ta gueiagoz irauten zutenac. Orrembat ez pa cen ere, azquen aldecoac baño, aguitz gueiago iraun oi zuten Joben demboraco, guizonac eta gendeac; eta al ere, egun batecoa, edo atzo danic egun-dañocoa cirudiela, cion Job Santuac, haren-beraren, ta harequin vici ciranen vicitzac. Eta cer ote dirudi Jangoico ecuslearen begui-etan, urte gutitzco gure vicitza labur-charrac?

Ah galdu zoratuac! adiñetan guti bat sartu orduco, arrotasuna, ta antustea besteric etzarazten, guizon, ta emacumeac! Eta ez ote naz ni ere ori etatic bat? Beldur naz baietz ; bada, neronec ecusten dudan, bezain laburra da nere vicitza ; ta, norena nai adiñacoa?, nere antuste galdua, ta arrotasuna! Ni ez diñacoci, daquidan bezala, nic ez diet beguiratcen ere. Munduco guciac, nai nuque nic, leguidazten al diran ongui etorri, ta agur guciac. Erretcen nau ni gazte-agoaren edoceiñ utsec, edo ez ecusi eguiteac.

Gucia

Gucia zor zaiela, deritzat nic nere adiñari, nere urtei, ta nere izate, ta escuei: ta ecin eraman ditut bein ere, ni utci, ta besteri eguiten zaizcan agurrac, edo beguitarte onac. Ay, hau aurcontua! Oraindic ez ditu munduac zortci milla urte beteac. Cer dira, orien aldean, nic ditudanac? Eta cer nere guciac, eternidade gucitic onaraño joan diranen, ta conturic ez duten, urte gucien aldean? Hordu laurden bat bezala, ta arere aguitz eta aguitz gutiago!

Ecusten dezu cein asi-berria, cein laburra den, munduan arquitcen den, zarren-zarrenaren vicia? Ezagu ba ceneza berandu, edo orain bad-ere, aurrac garala, zu, ta ni bioc, bai-ta mundu gucian arquitcen diranac ere; ta asi berriac izanen garala, Munduan garaño; bada hau guc behar den eran ezagutzera, aur batez baño, caso gueiago gutaz ez eguiña gatic, gurequin vici diranac, ez guenuque guc asaldacioric, ez eta sumintzeric ere; bada aurrac orrelaco gauzac gatic, ez dira sumintcen, ez eta asaldatcen ere; ta aurren guisa utci beharco ditugu guc emengo eraqueriac, igan nai badugu Cerura, Aingueruen lagun izatera. Jangoico maiteac digula, ecuste on hau eguiteco, on den, arguia, ta laguntza. Bai, arren, bai.

§. II.

CIQUIN ITSUSIA DA GURE GUcien asiera.

AIsago zuc escura dezazun, lurreco gauza galdu-etaraco cere gogo galgarri eroa, cere asiera charraren berri--tasuna ecusi ondoan, ecusi zazu asiera beraren ciquin-tasuna; bada orretaraco, asieraren ecustea bezain, ona da, ta aguitz ere obea, cere asieraco ciquin-tasun loi galdu onen ecustea. Ez dezu siñisten? Beguira eguiozu contuz; ta ecusico dezu.

Cembat ondasun cenituen zuc, cere ecer-eza utzi, ta izaten asi ciñanean? Edo cembat gauza cirala, deritzazu, zuri cere Jangoicoac emanicacoac, eman cizunean, dezun, izatea? Orain elcar aturic arquitcen diran, baña site, ta laster elcar uzteco dauden, zure gorputz animac. Bietatic cein cen lembicicoric zuri cere Jangoicoac eman cizuna? Gorputza, edo anima? Gorputza.

Certazcoa cen zure gorputza hau, edo cer oialez, edo cer gaiez eguinicacoa? Etcenequien? Autsez, ta loiez moldatu-ricacoa, edo lur utsez eguina; bada gai onequin eguin zuen gure Jangoico iaquintsuac lembicico guizon Adanen

nen gorputza (2); ta Adanen gorputza baño, segai obezcoac ez dira zurea, ta nere gorputzac. Eta, hau ongui da juiciac bezala, Elizac erraten digu bacoitzari austerri egunez, edo Garizumaren lendabicico goicetic, len Jangoico berac Adani esan izandu ciona; edo; AUTSA ZARA, TA AUTSETAN GUELDITU BEHARRA (3).

Baña cer autsetan? Aldia datorrenean, aguertuco zaitzuna bezain, ciquin loi itsusi galduan; edo bere gaiari dagocan bezalacoan. Orain zuc, cere gogoeta arin galduac gal erazteco, eguin behar dezuna da, cere gorputz usteldu-beharraren asiera ustel ciquinari, edo auts, edo lur loituari beguiratcea. Hordu oro zuc, edo egunean cembait aldiz bad-ere beguiratcen ba-diozu, ez dizute necatuco, ez, necatu oi dizuten adina zure gogo char ori cere barreneco antuste arro galgarriac. Eta arere gutiago necatuco dizute, gorputzaren asiera ciquinari beguiratcean, beguiratcen ba diozu cere animaren asierari ere.

Nolacoa cela, uste dezu, cere gorputz orretan arquitcen zaitzun, anim orren asiera? Gorputzarena baño ere aguitz ciquin-loi itsusiagoa. Ori ere artu cenuen zuc, gorputza bezala, cere Jangoicoaren escu emalle on etatic. Eta zori onecoa zu, zuc artu orducò ori, ez egotera, cegoen eran, edo egondu ba-liz ori, egoin cen bezala, vicitcera Adan becataria, vicitu cen ez bezala!

Ecer--ecetic eguina, ta espiritu uts berez garbia cen, gure Jangoico ecin-ahaltsuagoac guri emanicaco gure anima. Ba-du gure anima onec bere adimentua, edo gauzac ezagutceco burua; badu bere naimendua, edo nai duena maitatceco, edo ez-maitatceco, ta bere Jagoicoac laguntcen diola, gauz anitz-on--eder eguiteco, behar den, indar ta escu gucia. Jangoicoac eman dio gure animari hau gucia, gorputz berean vici den artean, zucen eguiteco gure Legue onac eracusten diguna; ta guero eternidade gucian dagoen, Ceruan, Jangoico berari beguira, amorez, atseguin, ta contentuz betea. Eta hau gucia deus--ez bat bai-liz bezala, eman cion Jangoicoac gure animari bere iduna, ta antz-ederra.

Baña (gauz arrigarria!) Jangoicoac eguin orduco, arquitcen cen gure anima, cembat-ere berez ederra den, ciquin-queriz, ta itsustasunez betea; bada arquitcen cen gorputcean sartua; ta, gorputcean sartu ceneco, bere becatu etorquiarequin, edo Adane--gandic datorquigun, becatu originala-requin; ta orre-gatic arquicen cen bere Jangoi-

goico eguillearen etsai eguina (4).

Baña cein ciquin itsusia utzi ote zuen orduan zure anima bere becatu etorquiac, edo originalac? Norc hau adiraci? Ongui beintzat ez niorc. Guc daquiguna da Jeremiasec diona, edo gau illuna baño, illunagoa dela, ta icatza baño beltzagoa uzten duela edocein becatu larric anima (5). Cer? Beltzagoa baicic ez? Icatzac elurra dirudi, ta illumberic andienac Eguzquiaren arguia, animaco illumbe, ta belztasun onen aldean; ain ciquin itsusia da, becatuan arquitcen den anima! Hau badaquit nic; baña nere jaquite hau gucia deus-ez jaquite bat bezala da, itsusqueri galgarri onen gañean jaquin ditequenaren aldean. Alacoa da gure asiera! Ain loi ciquin beltz izugarria!

Nola ere-bait hau barruntatceco, zaude emen apurcho bat, eta erra-dazu, cer eracoa, edo norañocoa ote cen zure gorputz ori, cere Jangoicoac eman cizunean, orain dezun, anima? Guelienaz ere ocabil bat adiñacoa, ta ori ere baldan, loi ichura gaistozcoa. Eta, gorputz char orretan sartu cenean, zure anima (ta anima orren ciquin loi beltz itsusia) nolaco ecuscaria guelditu ote ciñan zu cere Jangoicoaren beguietan?

Bil bitez lecu zabal batean lurreco mamorro ciquin, armi-arma beltz, apo begui-gorri, zacur ustel, dragoi andi, sugue, basurde-tzar, ta gañeraco animal izu-garri guciac. Be biltza gainbera: urra-bezate elcar-atzaparortcequin: bete bezate lurra icerdiz, ta odolez, ta aicea auncaz, orroz, marrascaz, ta chistuz. Cer deritzazu? Ez lizaque hau ecuscari ederra? Bada anitz, eta ascoz itsusiagoa ciñan zu cere Jangoicoaren beguietan, zure anima-gorputzac elcar-gana ciraneco. Orra nolacoa den zure asiera! Orra cein ederra!

Ah nere Jangoico maita-garria! Onen itsusia nintzan ni zure beguietan lembicico nere asieratic; eta al-ere ez ninduzun ito, ez ninduzun bertan ill, ta ondatu, orrela iltcen diran entzat dagoen, Limboan! Cein ona zaran zu, ta cein maita-garria! Ah zori gaistoco Adanen bocadu, nere becatu etorqui galgarria! Ah bocadua, cere ialea, ta gure animac onen ciquinduac, onen loituac, onen belztuac, ta onen itsusiac utzi cenituena! Etciñan nombait usteldu beharra, Adanen ortcetara baño len! Usteldu ba-ciña, etcen arquituco, ez gure anima, arquitu den-bezain itsusi galdua, ez eta gure Jangoicoa-ere icuscai onen itsusi-ciquin gaistoa-requin!

Beguiratcen ez panio, zure ondoren, zu ni gandic quen-

cera, etorri zaidan, nere salvaltzalle Jainco-maita-garriari, asqui ciñaque zu, bocadu loi, becatu beltz itsusia, niri ez-ecic, bihotcic andiena duenari ere vicia quentceco! Ez zuri esquerrac, ceren bataioan utci nazun! Esquerrac, bataioco iturrian zure beltz tasun loi galdua quendu cidan, nere Jesus maita-garriari; ta esquerrac orain, ta beti, ta seçula gucian!

§. III.

CHAR ITSUSIA DA GURE JAIOTCEA.

GOacen asieratic jait-hordura; ta ecusico dugu zein elcarren iduricoac diran bata, ta bestea. Bai asieraren eracoa izandu cen gure jait-era, edo gure jaiotcea: char-ciquin-loi-galdua cen hura; ta hau ez bat-ere obea! Becatu etorquia-requicoa, ta loiez betea izandu cen gure asiera; ta becatu-loi-odol artecoa gure jaiotcea!

Guizaquiac, eta emacumeac dira jaiotcen diran gucien artean, beren jait-egunean becatuz loituric arquitcen diranac; bai ta nequeric gueiena izan oi dutenac ere. Arraiac ezcatatuac jaiotzen dira, ta animaliac beren soñecoa-requin; gu gara, gu bacarric larru gorrian, edo soñecoric bague jaiotcen garanac. Animaliac jaio bezain laster oin gañean daude; ta ba-da-biltza batetic bestera oriec, eta itsasoco, ta edocein urpeco arrai jaio berriac: baña gu jaio guiñanean, norbaitec ez jasotcera, ecin iguituz lurrean etzain guiñan, ill artean. Aiec bertatic daquite nola billatu, viciceco behar dutena: aur jaio berriac, jaio berrian ez-ecic, guero ta guero ere ez daqui billatzen, behar duenic; eta artaz urricalduric garbitzen ez-pa du norbaitec aur jaio berria, darion loiac, eta duen, beharrac an bertan laster bucatu beharra da. Orra cer den mundura datorrenaren jaiotzea, naiz izan dedilla guizonic aberats andienaren semea.

Eguia hau aitortu zuen lurrean izandu den Erregueric andienac, eta guizonic jaquintsuenac. Ba-daquizu cein den hau? Salomon. Jaio cen Salomon bere Aita Erregue Daviden Echean. Aguertu--orduco, eguin cioten, eguin ala emaguiñac, eta Erreguin-darrac; izan etcezan, aur jaio berriac izan oi duten, nequeric, edo haren orduco nequeac arindu naiez: „ Baña lur loiezcoa izan ni „ (dio berac) besteac bezala; ta „ asi behar nic ere, nai, ta—ez, ga„ ñeracoen eran. Orre gatic ar„ tcen asi--orduco ni, guciac ar-

„ tcen

„ tcen duten lurreco, aice hau, asi „ nintzan ni ere negarrez, ta car- „ raiſiz, beſteac bezala: orduan „ nic ecin neguiquen hau beſte- „ ric; hau da alabaña Erreguen, „ ta gañeracoen aſiera. Ez da cer- „ tan ibilli (dio azquenean,) one- „ tan ta bucaeran bat diſa, ta ber- „ din batac, eta beſteac „. *Sapient.* 7.

Ah cein char-itſuſia cen (erran dezaquegu orain guc) gure jaio berrico ecer-eza, ta aurqueri loia! bada, naia gatic, ecin eguin guenuquen, ezcalu jaio berriac, eta mamorroac ere bertatic eguiten dutena! Eta ah cein andia den (erran dezaquegu dembora berean) Jangoicoari gure jaiotcetic guc zor diogun, amorea! Ecuſten zuen, cein ecer-ez galduac guiñan gu, jaio guiñanean: ecuſten guinduen loiez, ta ciquin-queriz beteac: ez guinduen deuſ-etaco ere behar gu: ta gauza andiren bat ba-guiña bezala, edo gure beharrean egon ba-liz bezain, begui onequin beguiratu cigun gure Jangoico maiteac gueren jaiotce charrean ere!

Nor-nai arritcecoa da (ecin uca dezaquegu) gure Jaunari guc ordutic zor diogun, beguiratce ona, ta amorea. Ez lizaque orren gauz andia gure Jaunaren beguiratce on hau, ecuſi ez-palu, gure jaiotcean, ecuſi zuen, gure gorputceco ciquinqueria, ta loia, beſte loiric: baña ecuſi cituen, gure gorputceco ciquinqueri-equin batean, gure Animaco loiac, ta becatua ere; ta, ciquinqueri gucien artean, becatuarena da, Jangoicoari gueienic beguitan ematen dion, ciquin-queria. Orre-gatic, arrituac baño, arrituagoac utci behar gaituen, gauza da, Jangoicoac guri gueren jait-orduan, beguiratu cigun bezain ongui beguiratcea; ecuſiric orduan ecuſi zuen bezala, gure animac zuen, ichura gaiſto-beltz-izu-garria.

Quen dezoque bere emaguiñac aurrari, aurrac dacarren, gañeco printza, ta ciquin-queria; ta utci dezaque, arpeguira beguira daquiqueon bezala; baña bere garbitce, ta apaintce gucien ondoan, uzten du Jauna-requico len bezain beltz-ciquin-itſuſia; bada uzten du bere becatu etorquia-requin; ta hau quendu artean, guztiz arrigarria da Jaunarenzat aurraren itſuſqueria. Alere urricaldu cen gutaz gure Jangoico maitea; ta utci cigun, quendu gabe, nai izaſera, quenduco cigun, vicitza; ta hau da, gure gauza gucien artean gu gueienic arritu behar guinduzquen, gauz icuſcaria.

Cer-gatic uſte dezu, onen itſuſiac gu ecuſi-ta ere, utci cigula gure Jangoicoac, oraindic irau-

tèn

ten digun, gueren vici hau? Ceren, cembat-ere andi-galdua cen orduco gure itsus-queria, andiagoa cen Jangoicoac guri cigun ongui-naia, ta amorea: ta amore onec garaituric gure Jangoicoa, itzul-eraci ciozcan gu-gana bere begui onac, urrical cequigun, ta utz guintzan viciric, edo gueren vicia quentcen etcigula.

Ongui: ta ez ote da asqui gure bihotzac garaitceco, Jangoico gucia garaitu duen, beraren amore-bazterric bagueco hau? Asqui ez-ecic, sobera, ta sobera da! Bada noiz garaitu behar ote ditu gure bihotzac? Noiz zucen-eraci gure-asmo-gogo-beguiac Jangoico maita-garria-gana? Berandu nosqui, ta behar bada seculan ez, orain dañocoan baño, gueiago beguiratcen ez-padiogu, ta orain artean bezain anteiac vici ba-gara gueren asiera charraz, ta jaiotce galduaz. Lembaitlen bada zucen ditzan nere beguiac, eta bihotza zure amore bazterric baguecoac, indazu, Jesus maitea, amore beraren ecuste vici argui bat; bada, ongui-ongui ecusi ezquero, batetic nere ecer-eza, ta charqueria, ta bestetic, zuri zor dizudan, amore ecinandiago hau, asico nazala, deritzat, behar den, era zucenean, ta zuc esatcen, dezun guisan eguiten, zure hume on batec eguin behar duen guci-gucia. Ala guerta dedilla. Bai arren, Jainco maitea, bai.

I.

PUTREDINI DIXI... MATER MEA, ET soror mea vermibus. Job 17. 14.

Autsa, ustel-tasuna, ta loia da nere gurasoa, ta arrac dira nere Senideac. Autsloietic eguiña da, ta autsetan, ta arretan guelditu beharra nere gorputza. Gorputz charra, beguira zagozu cere asierari; beguira cere bucaerari! Maiz beguiratcen ba-diozu, aisa utcico dezu cere antustea, ta arrotasuna: aisa artuco dituzu, zuri dagozquizun, asmo, ta gogoeta humil-garbiac. Artu-izquitzu bertatic, gueiago luzatu gabe. Prest dago bai, zure Jangoicoa, zuri laguntceco, cembatere loitsu ciquiña zaran, ta usteldu beharra.

II.

NUNQUID POTEST ... APPARERE mundus natus de muliere? Job 25. 4.

Gueren asitcean artu guenuen, loia-requin jaio guiñan gucioc. Loi-utsa cen gure orduco asiera; ta loi odoltua gure jaiotcea. Orra, guc gueren Amaren sabeletic atera guenuen, eder-tasuna! Orra, Jauna, guc gueren jaiotcean aguertu guenizun ecuscaria!

Onen

Onen char loi--itsusia izanic ere, beguiratu cenion, zuc bai, gure Jangoico maitá garria! Baña nola ote? Urrical--tasunez, ta amorez betericaco begui--equin! Zori onecoac gu, amore onen ondasunac galtcen ez--paditugu! Ez ditugu galduco, garbituz ba-goaz egun oro, ta virtutez apainduz gueren Animac. Ala guerta dedilla, gure, Jesus maitagarria, bai arren, bai.

III.

ECCE ENIM IN INIQUITATIBUS *conceptus sum, & in peccatis concepit me Mater mea.* Ps. 50. 7.

Ciquin-queriz, ta becatuz betea nengoen ni nere anima--gorputzac elcar gana ciraneco. Bacarra cen, orduco nere becatu etorquia, edo becatu originala; baña beste anitz becaturen sustrai gaistoa cen, orduco nere becatu hau. Onec nastu cituen nere oroimentua, nere adimentua, ta nere naimendua, edo vorondatea: onec asaldatu, ta berotu cituen nere passioneac; ta becatu galgarri onen ciquintce, naste, asaldatce, ta berotce gaistotic asicen nere malur, ta neque gucia! Zori onecoa ni, asi ba--nintz nere vicitzan obenic gabe, ta becatu etorquiaren cutsuric ez nuela! Charra izain cen al--ere, bai nere asiera, charra nere jaiotcea; baña etcen izain, izandu den bezain beltz--itsusi arri--garria!

Ah! baña etcen orduan aguerico, orain adina, nic nere Jangoicoari zor diodan, amore andia, ta bazterric bagueco onguinaia! Besteric ecin dudanean, elduco natzaio nere Jangoico maitatzalle maita--garriari; ta errain diot: JAUNA, ez beguiratu nere asitce loi, beltz gaisto galgarriari; beguira zagozu cere izate eder andi bazterric baguecoari; beguira eguiozu, izandu didazun, cere amore ari; ta, amore one--gatic, indazu arren, onguivici--nazaño, vicitceco, ta obequi nere egunac bucatceco, behar dudana. Damuz nago bai; ta ciñez al--ere, orain-dañoco nere charqueriez; ta escatcen dizut gucien barcamentua, erraten dudala hitcez, ta biotcez: NERE JESUCHRISTO, &c.

Hesterni

(1) *Hesterni quippe sumus. c. 8. v. 9.*

(2) *Formavit... Deus hominem de limo terræ. Gen. 2. 7.*

(3) *Pulvis es, & in pulverem reverteris. Gen. 3. 19.*

(4) *Omnes enim peccaverunt. Rom. 3. 23.*

(5) *Denigrata est super carbones facies eorum. Thren. 4. 8.*



BI-

upna

BIGARREN OTOITZ-GAIA.

GURE CORPUTZAREN ACITCEA, TA BUCAERA.

§. I.

CHAR ITSUSIA DA LURRECO GURE ACITZEA, TA IZATEA.

CEin gauza charrac garan, obequi guc ezagutceco, beguiratu behar diogu, jaiotcetic obirañoco, gure ibill-erari ere. Jaio, ta bereala trosatu guinduzten, ta lotu ezur atera-ricaco, edo autsi bat lotu oi den bezala. Lotu, edo trosatu guinduzten, elbarriac, edo galduac gueldi guindecen beldurrez; ain mimbereac ceuden orduan gure ezur-araguiac. Locarriac quendu, ta illa bete, ta ill osoac joan ondoan ere, ecin valiatu guiñan gu gueren oñ-escuz. Asi guiñan noizbait iguitcen, baña lau oinca edo arrastan; ta, ezurrac autsiac daduzcan, suguea bezain, nequez ta nagui.

Urtea, ta illac betea gatic, abel gorriac bezain, mutu gueunden gu: ta, erausia gatic cerbait guc orduan, etzuen niorc aditzen guc guenion, edo gueraufana. Orduan, ta gueroz, ta gueroz ere guc guenequiena cen, oialac, eta soñecoac ciquintcea, ta bazterrac marrascaz betetzea. Eguiten ez-pa-ciguten, nai guenuena, marrasca; ta negar. Gose ba-guiñan, edo egarri, negar, ta marrasca. Lotatic guentocenean, negarrez. Bacarric uzten ba-guinduzten, negar, ta negar. Echean, campoan, ta bazter guci-etan escambilla, ta negar. Amac, echecoac, eta zaitcen guinduztenac, erdi-etan beintzat, ecin burutu zuten gurequin. Gucia gatic ere gure Jauna guri beguirà, ta guri onguiac, eta onguiac eguiten! Noiz pagatuco diogu, zor diogun, amorea? Noiz

ezagutu ere guc amore hau?

Aurtasun gucian ba guenuen cer, edo cer. Ba-guenuen, bein ortz-aguinen aguertcea; bein Baztanga, edo Navarreria; gaur chisarriac, bigar gornia, ta egun oro, edo beintzat ardura, ta maiz, buruco, sabeleco, ezur-etaco, ta gorputz gucico miña, ta oñacea. Bitartean ematen guenien echecoei, norc daqui cembat eguiteco; ta gurasoei berei, gurequin zuten nequea-requin, aitcen citzaien, ascotan beintzat, gu ganaco naia, ta amore gucia. Ambat ciran orduco gure ecin-egonac, gure quezcac, gure negarrac, eta aldarteac. Jangoicoaren amorea da, bein ere aitu ezten, amorea! Jangoicoa da bacarric, gure charqueri dollorrari, asaldatu gabe, beguira cegocana. Zori onecoac gu, orain bad-ere, asitcen ba-gara gure Jaun maita garriaren amore oni gure al eguin gucian, amorez erantzuten!

Atera ciñan aurtasun-etic; baña ez miñen, oñaceen, ta gaitcen azpitic. Gazte sendorra ciñanean ere, izandu cenuen egun oroco, edo bitic beingo sucarra, saietz miña, odol-issurtcea, tabardilloa, edo, zuc daquizun, eritasuna. Garbitu, edo ill ez pa cinduen ere, utci cinduen, cembait egunez, arguizagui oriaren ichuran, edo carea, edo galcina bezain erre-zuria. Gaitz bat aitua gatic, etzaizquitzu aituco guciac. Bein joan cena, itzulico da aguian; ta, onec ez-pa da, besteren batec utcico zaitu, bai, eriotzaren sabel ustelean.

Noiz ore? Ez daquigu. Cembat beranduago, ambat obequi aguerico da gure deus eza, ta charqueria. Adiñ onaren muga uquitu orduco, aguertuco da, lenago aguertu ez-pa da, ill-artean iraun behar duen, bularreco, buruco, guerrico, edo beste oñace, miñ, edo gaitcen bat. Gaitz onec ecarrico ditu egun-oroco aldarte charrac, indarren galtcea, zañen gogortcea, ta beguien itsuera, edo ecuste laburra. Gueroz urratuco gaituzte aldapac, necatuco gaituzte videac, eta ecin eguiñen degu, eguin oi guenuen, lanaren erdiric ere. Asico dira erortcen ortz-aguiñac, eta buruco illeac. Macurtuco zaicu lepoa, astunduco dira oñac, eta belaunac; eta joain gara meartuz, galduz, ta bucatuz.

Hau gucia ongui ezagutua ceducan, Gorgias ceritzan, guizon jaquintsuac, eta jaquiñac bezala, eman cion gure gorputzari, behar bezalaco icena. GORPUTZA, cela cion, URRATUZ, TA ERORIZ DOAN, ECHE CHAR USTELA. Eguicion; bada, oartu ezquero, ecusico degu, olac, eta zuagea ustel-

teldu zaizcan, echea bezala, eroriz doala, ta puſcaca galduz gure gorputza.

URRATUZ DOA, bai; ta viciro al-ere gure gorputza; bada egun oro ez-onguitcera, edo egun oro ematen ez-pa-cenio, behar duen, jan edana, zortci baño len lurrean letzaque ill-otza, ta animaric gabe. Echolaric charrenac ez-du ongui-guilleric behar, urte aſcotan; ta hafle batez ere ecin iraun dezaque gure anima ren eche char, gorputz uſtelac, eſtaltcen ez-pa dira egun oroco jan-edana-requin, icerdiz, ta beſtela galtcen denac uzten diozcan, zuloac.

URRATUZ doan, echechar, gorputz hau eche uſtela da; orre gatic uſtel-taſuna, ta loia dariola dago hordu oro, ta lenago ere. Oartu ez-pa-zara, beguira zagozu contuz ezpañ-belarri-etara, ſudur-etara, ta beſte edocein aldetara; ta ecuſico dezu dariona. Cein loia, cein ciquiña gucia! bada icerdia bera humore liquits zorrizua da; ta icerdia da, darion gauzaric uſteldu gabeena.

Gaztean, ta ſaſoi onean eſtaltcen da arpeguico printza-requin, ta ſoñeco apaindua-requin barreneco uſtel-taſuna, ta loia; baña nequeac, eta urteac macurtcen dituzte zañ-ezurrac, galtcen dute ſoñecoa, ciquintcen ta cimeltcen dute larrua, ta eracuſten dute barrenean dagoena. Barren loi hau arpeguira aguertu ezquero, izutcen du, beguiratcen diona, ta nequez arquituco da orrembat-orrembat naico dionic

Gure Jangoicoac ezagutua daduca gure ecer-eza, ta loiqueria. Eguin guindueneco, ta eternidade gucian ere ba-cequien, cer guiñan gu, ta nola egon behar guenuen vicitza gucian. Eztu izutu izandu gure Jangoico maitea, gu gan ecuſten zuen gure loitaſunac. Lagundu dio irauten gure izate char loiezcoari; ta, lagundu ez-ecic, eman ere diozca indarrac bere lan onequin irabaz dezan ſeculaco gloria. Zori onecoac orretan hari diranac! Orain ez-pa-da-ere, egunen batean ezagutuco dute, Jangoicoari, beren char taſun, ta loi-queri gucien artean, zor diorena, ta pocic, eta pocic egoin dira ſecula gucian hari eſquerrac, eta eſquerrac ematen. Ah! nere Jeſus maitea! izan ba-nendi ni ere languille on, eſquer emalle orietaric bat! Izain naz, bai, nerotac hau ciñez nai dudala, ta, artaco zu gandic ure dituda, lagunza, ta gracia requin batean. Indazu bada ere lagunz andi ſendor, ta gracia hau; baita nere lan on onec eguiten lembaitlen aſitceco gogo

bortitz batere. Bai arren, bai.

§. II.

CHAR ITSUSIA DA GURE ERIOtza, ta ill-ondoa.

ECusi-ondoan, ecusi dituzun, ganzac, beguira zagozu, irrista batean bad-ere, cere eriotceco, ta ill-ondoco izatearri ere; ta ecusico dezu cein charra den, ta cein izu-garria! Gañeracoac garaitua gatic, etorrico da, zuc garaituco ez dezun, azquen eritasuna. Onec batetan quenduco dizu vicia, edo luceenaz ere quenduco dizu, nequezco egun gutiren buruan. Cerbait luzatcen duen, eritasunac bucatcen ba-ditu zure egunac, egun oro urtuz joanen da, ta galduz, ta galduz zure izate charra, edo gorputza. Azquen alderaco indarric gabe utcico zaitu, cere eritasunac; eta aguian erdi-aur biurtua.

Gueroz ez du eriac jaquiten guertatcen zaiona. Galtcen ditu, dituen, maindireac, eta tresna guciac. Zaitcen dutenac ecin eraman dute, era onetaco eriac uzten duen, urrin, edo usai gaistoa. Ondatcen zaizca eri berari bere beguiac; zorrozten zaio sudurra; oritzen zaio arpeguia; gorazten zaio bularra, ta nequez artcen du, vicico bada, behar duen asnasea, edo cerbait aice. Gueroz ez du aditu oi ere erraten zaionic; eta, anitz neque, ta quezcaren artean, illtcen, da tristea! Orra cein icuscari andi-ederra den, illtceco dagoen, edocein! Ez daquit bada, ill ondoan bat ere derragoa guelditcen ote den. Goacen ecustera.

Ill-orduco betetcen du illac illun-tasunez eche gucia. Gazteac izutcen ditu illaren erioac, edo onen oroizapenac; eta zarrac ezdute urbildu nai, gorputz illa dagoen toquira. Guciac nai luquee, leramen lembaitlen Elizara, ta bere obira; ba-daquite ala baña aguerian ba-lego illa cembait egunez, zacur ustela bezain, galdua legoquela, ta aguitz galduagoa.

Galdu izu-garria guelditu oi da, ill-orduco, illaren gorputza; baña galdu izu-garriago arquitcen da, bere obian cembait egun eguin, ta ondoan; bada arquitcen da ezurra ez bestea, ar, chixari, loi, ta usteltasun--utz eguiña. Orra certara beharra den gure antuste, ta arrotasun gucia! ta orretara beharra da egun gutiren buruan! jaio-orduco artcen dugu gucioc eriotceco videa; ta, urrutitic itsaso-raño guelditcen ez den, ura bezala, goaz, bein ere guelditu ba-

bague, gueren erio garbitzallearen eſcu-etara. Illtcen dira bada, ta obira doaz guciac; ta orien ondoren araco gara gu ere, ur gueza itſaſo gaciratcen den bezala (1). Aguertcen deneco, igartcen den, lorearen vicia dirudi, gure gorputzaren vicitzac, dio Job Santuac. (2) Atzocoac gara, dio Jobec berac, lenago ecuſi dugun bezala: ta erran guenezaque noſqui guc ere, illen vicia dirudiela gure vicitza guciac? ain laburra da ala-baña hau, edo ain laſter erio garbitzallearen trantze char orretara beharrac gara, munduan garanoc.

Ongui: ta onen gauza charra; ta gauz onen labur, liquits bat cer izan diteque gure betico Jangoico andiaren aldean? Deuſ-ez bat bezala, dio Davidec. Gueiago dio Iſaias Profetac; bada dio, guizon bat ezecic, munduco guciac ere, ezpa-lira bezala, dirala, gure Jaunaren beguietan (3).

Eta ecer ez onen zati apur loi nere buruari beguiratcen dio, izatez, edertaſunez, ta eſcuz bazterrac betetcen dituen nere Jangoicoac? Bai; ta ez bein, edo berriz, baicic beti, ta beti ere. Nola, uſte dezu? Nai, ta maitce andiarequin: bada, anitz valio duen, gauza bat ba guiña-ere ecin beguira lezaquegu gure Jangoicoac, beguiratcen digun baño, begui obe-equin! Jangoicoaren beguiratce on hau azagutceco, oar zaitez, cer eguiten duen olloac chito-equin, Aurzaiac aurra-requin, ta Amac bere ſemea-reqnin.

Erne dabiltza, ta anitz beguiratcen die, daquizun bazala, olloac, acitcen dituen, chitoei, aurzaiac, beſoetan dacarren, aurrari; ta Amac, maite duen, bere ſemechoari: baña orien ernetaſun, ibillera, ta beguiratce gucia ez da deus, gure Jangoicoac gu ganaco duen, beguiratce maitearen aldean. Adi zazu onen gañean bere Evangeliſtaz, ta Profetaz Jangoico berac erraten diguna. Anitz aldiz, ta aſcotan dio bere Evangeliſtaz: BILDUNAI IZANDU ZAITUT, emacume char, edo guizon preſtu-eza; ta bildu nai izandu zaitut nere bihotcean gordetceco, OLLOAC CHITOAC EGOPEAN BEZALA; baña zuc naiago izandu dezu ibili ſulececo miruaren atzapar-etan (4).

Ba nequien, dio Jaun berac bere Profetaz, cerez, ta ni gabe ecin cembiltzquen, aur charra ciñala zu, anditu ta ere: ta zutaz urricalduric, artu cindudan nic nere amorearen beſoetan, ta belaun gañean, aurra, zaitcen duenac, artu oi duen bezala,

zala. Oni guciari guti ba-deritzazu, oraindic gueiago eguin naiez nago; bada, nai ba-dezu, maite duen, semechoa Amac palacuz, beso-bular ezpañ artean estutuz, ta buruco illea leunduz, lotara eraman oi duen bezala, eramain zaitut nic, emen behar dituzun, ta Ceruan arquitcen diran, atseguin ta contentu-etara (5). Orra cein andia den, gure chartasun guciaren artean, gure Jangoico ecin-andiagoari guc zor diogun, amorea! Orra cer gauzac eraguiten diozcan gure Jangoicoari bere guri ongui-naiac, eta amore bazter-baguecoac!

Ezagu zaitzaquedan baño, andi-ederragoa zara zu, bai, nere Jangoico-maitea; ta anitz amore zor dizut, ceren zuc, nere behar etciñala, ecer-ecetic atera, ta eguin ninduzun, eguin ninduzun bezala! Baña ez dizut gutiago zor, ez, ceren, izanic ni, nazan bezain gauza char-loi laburra, begüiratcen didazun, beguiratu didazun eran! Cer ez die zor, chitoac olloari, aurrac bere zaitzalleari, ta semeac Amari? baña orien zorrac artcecoac dira, nere zu ganaco zorren aldean! Nere ondoan zabiltza zu! gal nadin beldurrez zaude! gorde nai nazu cere bihotcean! auts eguin nai nazu cere amorez; ta eraman nainazu zuc cere erresumara, an izan nadin ni Aingueru gucien lagun, zure maitatzalle, ta secula gucian zori oneco doatsu! Gauz arri-garria!

Nondic niri, asitce loia, jaiotce ciquiña, ta vici urratu galdua izandu dudanari, onembat ondasun, ta ontarte? Zure escutic, zure amore andieguitic, nere Jangoico maitea! Semeac aurrac, eta chitoac, anditu ezquero, erantzun dezoque beren zorrari; ta eguin ditzaque artcecoac ere; baña nic, ez chiquitan, ta ez anditua gatic, erantzun dezoquet nere zor andiei: bada, orretaraco cerbait eguiten dudaneco, eguiten derozqui-datzu zuc, nere Jangoico maitagarriac, on, ta ondasun berriac, eta lenac baño ere ontarte ta favore andiagoac!

Cer eguiñen dut bada, nere onguille-andi, Jangoico maitagarria? gueldiric egon, ecer ere eguin gabe! Ez Jauna, ez: esquer gabe-tasun andi-eguia lizaque ori! Aitortuco dut egun oro nere chartasuna; aitortuco dut zuri zor dizudana, ta eguiñen dut al-eguiña, humiltasun andia--requin zu gaur guero, ta ill arte gucian, servitzatu, ta maitatceco. Indazu cerorrec, onetaraco behar dudan, laguntza, ta gracia. Bai arren, Jangoico maitea, bai.

I.

HOMO NATUS DE MULIERE; brevi vivens tempore repletur multis miseriis. Job. 14. 1.

Laburra da, bai, jaio guiñan et cill-arterañoco gure videa baña ez dira laburrac, ez eta chiquiac ere vide onetaco gure lanac, ta nequac! Gosea, ta egarria, beharra, ta premia, quezcac, aserreac, eritasun gaistoac, eta egun oroco nai-gabeac, dira gure vicitza laburraren beticо lagunac! Gucien artean aisa ta erraz galtcen dute gure osasuna, ta aisa, ta arin daramate gure gorputza lur-pera, edo bere obira! Onembat etsaien artean gure Jauna da bacarric, guri laguntceco, prest dagoena. Lagun zaquizquit bada, nere Jaun-andi-on-maita-garria, andi, ta chiqui guciac garaitcen, edo gucien charqueriac zure icenean emequi, ta behar bezala eramaten. Bai arren, ni gatic ez-pa-dere, zor dizudan, cere nai, ta amore andia-gatic, bai.

II.

OMNES MORIMUR, ET QUASI aqua dilabimur. 2. Reg. 14. 14.

Egun oro, hordu oro, ta asm-aldi oro galtcen dugu guc gueroc gueren vicitzaren zatiren bat, edo beste; bada cembat asm-aldi, edo demboraren puntu doacen, ambat gure vizitzaren zati doaz. Ill cen atzoco gure vicitza: gaurcoa ere illaz doa: ta cembat ere gueiago gabiltzan, ambat erioaren alderago arquitcen gara. Iturrico ura bezala da gure vicitza: cembat gueiago dabillen, ambat zati gueiago galtzen du; ta, bere ibillera gucia-requin, itsasoan ondatzera doa! Eriotza da gure itsasoa: Ara baño len galtzen ditugu zati anitz; eta galtcen diran, nequezco zati-equin, azquenean an ondatu beharrac gara! Zori onecoac gu vicitza char onec dirauño behar den eran eguiten ba-ditugu, beti iraun behar duen, Ceruco gure vicitzac escatzen dituen, gauz onac!

III.

SPIRITUS MEUS ATTENUABITUR, dies mei breviabuntur, & solum mihi superest sepulcrum. Job. 17. 1.

Nere ezaguera laster laburtuco da; laburtzera doaz nere egunac; eta obia da nere gorputz-char loiac izan behar duen, jaureguia, ta ondasun gucia. Ah, asmo eroac, lurreco nere asmoac! aizez betea beti gure burua, ta aizetan, ta aizetan gure asmo, ta gogoeta charrac! Ezcontzac, ondasunac, Echeverriac bazterrac, eta irabaziac gau, eta

egun

egun gure gogoaren muñ-etaraño sartuac; izanic ere guci guciac, emen, gure vicitza requin batean, ondaturic guelditu behar duten, gauzac! Ustelduz joan gure gorputza! erioaren ortzetan arquitzen gure vicitza; ta seculan vici beharrac ba-guiña bezala, gueroco neurriac, eta neuriac asmatzen gu gau, ta egun, ta beti!

Erotu zara zu? Nastu zaitzu buru char ori, edo cer guertatu zaitzu, gaur, bigar, edo dembora laburrean illtzeco zauden, guizon, edo emacume zoratua? Beude, beude alde bat, quetan guelditu beharrac diran zure asmo eroac! Etorri da zentzatu hordua! Urbil dabil bai, zure erioa! Beguira zazu, zu jaio ciñan-etiç zure beguira dagoen cere obira! Zurequin emen usteldu beharrac dira, Ceruraco valio ez duten, zure gogo-asmoac! cere Jangoicoa-requin dituzu zuc zere contuac. Ematen dizu, oriec zuzentzeco diña, dembora. Artu zazu bada vicitza berri bat. Utzazu cere gogotic, fite utzico zaituen, mundu charra! Orain daño baño, beguitarte obea daguizun zuri zere Jangoicoac ill artean, ta secula gucian, garbi zazu damuzco negarrez cere bihotza; ta esazu hitzez, ta bihotzez: NERE JESU CHRISTO, &c.

(1) *Omnes morimur, & quasi aqua dilabimur.* 2. *Reg.* 14. 14.

(2) *Quasi flos egreditur, & conteritur. Job.* 14. 2.

(3) *Omnes gentes, quasi non sint, sic sunt coram eo. Isai.* 14. 17.

(4) *Matth.* 23. 37.

(5) *Ad ubera portabimini.*, &c. *Isai.* c. 65



IRUR-

IRURGARREN OTOITZ-GAIA.

NOLACO IZAN OI DEN GURE AURTASUNECO vici-era?

ECusi dugu cein char urrical-garria den, lembicitic azquen-eraño, gure gorputzaren izatea. Ez daquit bat-ere obea ote den, dembora bereco gure vicitza! Gure izate charrari beguiratzeac lagundu digu, gure zorrac aguertzen. Aguertze berriac eguiteco, beguiratu behar diogu gueren vicitzari ere. Beguiratzen ba-diozu urratsez urrats, edo pausuz pausu, ta dabillen bezala, edo bein aur-tasunean, bein gazte demboran, bein bere sasoican, ta guero bere azquen aldian, ecusico dezu cer zorrac aguertzen dituzun, ta cein andiac! bada ecusico dituzu cere charqueriac, eta, Jaunaren escutic arturicaco, ondasunac. Asi zaitez bada lembicico cere pausutic, edo cere aurtasun-etic.

§. I.

ZORREZ BETEA DA GUIZONAren aurtasuna.

EZ dira andienac, ez, aurtasuneco gure zorrac: ez da zor-dunen zatiric gaistoena, aurtasuneco beren zatia: ta ai-ere ba-ditu aurtasunac, guiza-cumearen charqueria ongui adirazten duten, lanac, ibillerac, eta zorrac.

Barcatzen zaicu gueren bataioan becatu etorquiaren, edo originalaren zorra; ta quentzen zaicu becatu berac cecarren loi ciquin, ta beltz-tasun itiusia; baña etzaicu quentcen becatu, artatic datorren gaitzeraco griña, ta macur-tasuna: ta orre-gatic adin-etara-orduco, guertatzen zaicu, Ate egaztiari, ibiltzen asi dediñeco, guertatu oi zaiona.

Atea bere griñac urera darama, oñen gañean asi orduco; ta aurra becatuaren loi-era eraman oi du gaitzeraco bere macur-tasunac. Ateac ez du onic, urean ez dabillenean; ez eta aurrac ere, ez-pa-dabil bere gogara ta behar ez bezala. Zoaz Ateari ura utzeraztera; ta ecusicodezu nola dabiilen batetic bestera crazca, ta crazca, andic ez atera naiez, edo ater-eraci ba-dezu, ara berriz itzultzea gatic! Zoaz aurrari aur-queriac eragoztera, ecusi nai ba-dituzu orduco aren nai-gabeac. Ureraco jaioa da Atea; ta gaitzeraco eguiña dirudi aurrac; ain macurtua utzi du gaitz aldera bere becatu etorquiac, edo becatu originalac. Ah esquer gabeco macurtasuna! zu gatic ez-pa-liz, etzen izain, ez izandu den bezain galdua nere aur dembora, ez eta gañeraco nere vicitza ere! Garaituco al zaitut nic datocen egun-etan, gal ez nazazun beti ta betico!

Macurtasun hau asqui, ta sobera ez-pa liz bezala, aurra galtzeco, aurrac, Escritura Santac dionaz, bihotcean, corapilluz bezala, lotua daduca, eraqueriaren naspilla gucia (1). Urricarizco locarria! ta al-ere aurrac utzi nai ez-duen locarria! Ez daqui aurrac bere locarri onen corapillu gaistoac ascatcen; ta ez du nai ere, asca dezozcan, lan ori eguiten daquienac: orrequin aur gaisoaz eguiten du, ersai galgarriac nai-duena.

EZ DU NAI AURRAC, ez, bere eraqueriaren corapilluac bestec ascatzea: ascatzen dira alabaña adituz, ta icasiz, adituz icasten diran-gauzac; eta eracutsi naia gatic Gurasoac, edo Gurasordeac, aurrac icasi behar duena, ez du aurrac aditu nai icas-conturic. Aurrac aurdanic icasi behar lituque ongui vicitzeco diran, gauzac, eta eguitecoac. Icasi behar lituque otoitzac. Icasi behar lituque mandamentuac; bai, ta bertze anitz gauz on ere; baña ori gucia daquienac aurrari eracusi naia gatic, ez du aurrac icasi nai orrelacoric bat-ere; ta, bere jostaetac quentzen ba-diozca norbaitec orretaraco, sumintzen da bertan aur charra, ta guelditzen da negarrez, edo gutienean illun, ta zaputz.

Erran bezo nai adiña eracusle onac aurrari, sinist-erazteco, eracusten dioten, gucia dela beraren oneraco; naiz erran dezola ônez ta palacuz, ez du aurrac siñetsico; ta siñesten badu ere, ez du naico icasten asi. Aurraren nai gucia aur artean da. Ango aur gucien erausia,

ango

ango ibillera, ango joſtatzea, ango aurqueria da, aurrac jaquin nai duen gucia; ta ez du aurrac onic bein ere, bere quideen artera igues eguin artean. Eracuslearen begui-etatic gorde orduco, uzten du aurrac aldebat, erioaren, ſulecearen, Ceruaren, ta gañeraco gauzen gañean aditu duena.

Ah, cer aſiera, icaſte zucenac, eta gauz on anitz aurrac eguiteco! Ah! cer griña aurraren grin hau, aurrac, zorric gabe, bere aurtaſun-charra igarotzeco! Zori oneco aurrac, onelaco aurqueri-etara bague, beren aur dembora eraman dutenac! Egunen batean ezagutuco dute, ori eragotzi cienGuraſoari zor dio tena; bada ez eragoztera, izain ciran ſeguru ere, orietan ibilli oi diranac bezain, aur zor-dunac, edo aur gaiſtoac!

Cein gaiſtoac, ote dira nai duten eran, dabiltzan, aurrac? Erran dezala Eſpiritu-Santuac. Anditu doacenean, dio, aguerico da. Nai bezala dabillen aurrac beteco ditu, dio, alquez, daduz, ta nai-gabez bere Ama, ta Guraſoa. Gaiſtoen artean izain da, orrela dabillen, aurraren vicitza; ta cembat ere gaiſt-artean aurra gueiago ſartzen den, ambat gueiago izan oi dira, ta ambat gaiſto agoac aurraren obenac, lanac, zorrac, eta becatuac: eta arrituac guelldituco dira, ecuſten dituztenac, gaiz qui aſi cen, aurraren eguitecoac, ibillerac, eta bucaera gaiſtoac. Orra cer cion Eſpiritu Santuac bein aur-charren gaiſta-requerien gain. (2)

Anitz ote dira, onelaco vicitza char gaiſtoa dacarten aurrac? Bai eguiaqui; ta ſiheſten ez-pa-nazu, zoaz cerori ecuſiz non, ta certan dabiltzan, aur gueienac; bada, cein diran onac, cein gaiſtoac, ecuſteco, ez dezu, dio Eſpiritu Santuac, dacazten eguiteco-etara beguiratzea beſteric hehar. Beguira bequie bada aur guciei beren eguiteco-etara; ta orduan aguerico da, onac diran, edo gaiſtoac aurric gueienac. (3)

Beguiratzen ba-zaie aurren lanei, ecuſico da, orien ona dela ſagar-udarez, goiſoz, ta gaitz eguiñen dien, gauzez, edocein hordutan ſabela beretzea, ta dembora berean luez, ta becatuz anima. Aur batzuec galtzen dute berea oſaſuna, ta vicia, aurtaſuneric atera gabe; ta, vicirie guelldizen diran, aur gueienac, edo beintzat anitz, guelldizen dira, adin-etara orduco, becatuz, ta ciquinqueriz animan galduac.

Ibiltzen icaſi orduco, aſ-

ten dira aurrac calez cale, bazterrez bazter, ta zocoz zoco. Baña nola? Neica char muticoac nasteca. Ez daquite gueldiric egoten: in lar guticoac dira ta molda caitzac: erotzen dira hau, ta ura; ta, aldi onetan, ta beste cembaitez, aguertzen dituzte, estaliac egon behar duten, gauzac; eta beren griña gaistoz, ta etsaiac sua emanez, asitzen dira lan char itsusi gaistoetan; ta galtzen dute bataioco beren ondasuna ta gracia; ta guelditzen dira becatu-pean, Jangoicoaren etsai eguiñac, sulececo nequeac mereci dituztela, ta len baño gaitzeraco griña ta macurtasun aguitz gueiago-requin.

Gueroz etsaiac eraguiten diezte, bereei bezala, norc daqui cembat gaistaqueri, ta lan itsusi. Onic ez dute aurrac, gauz-onetan arquitzen diraño. Ecin bestez doaz Elizara, ta lan ônetara. Orietan daudenean, ecin egonez daude; sutan bezala daude; ta, gueldiric egon beharrean, oñez, escuz, hitzez, ta anitz aldetara bazterrac nasten dituztela. Andic atera bezain laster, beren jostatze, ta eguiteco char lizunetan dira. Gavaz loa, egunez negarra, gaistaqueria, ta vide-gabea da aur gueienen atseguin, ta eguiteco gucia. Orra cein charra, ta cein zortia munducoen aurtasuna!

Ez ote da izandu nere aurtasuna, ta asiera ere era berecoa? Joan ote dira nere Animatic, orduco nere loiac, eta becatuac? Ez ote dago oraindic confessatzeco bat, edo bat? Noiz, eta nola confessatu ote nituen gañeracoac ere? Certan arquitcen dira, orduco nere contuac? Bucatuac daude? Zordun nago? Edo nola nago, ta non? behar bezala ote, ta behar den toquian? Ez daquit nic; ez eta munduan denec ere! Jaquiñen dut egunen batean! Gaitzeraco ote, edo oneraco? Ez daquit ori ere!

Gauza gucien berria dezun, nere Jangoico jaquintsua, atera nazazu arren nere itsutasunetic, eracusten didazula!, nola arquitzen garan zu ta ni bioc. Baquean ba-gaude, barcatuac daude, bai, nere aurtasuneco gaizquiac; bai ta guerozcoac ere; ta, asserre ba-zaude zu, nerea da oben, ta culpa gucia. Cer guerta ere, ona ni prest, zuc nai dezuna gaur eguiteco. Baña daguidan zure gogara, zuc ni gandic gaur nai dezun hau, eguin ditzagun bioc berriro, edo bertatic baqueac. Urriquituric nago nere Jangoico maita-garria, nere aurtasuneco eraqueriez! Beguitan artuac daduzcat, guerozco nere aurqueriac; guciac ema-

ten

ten didate damu, ta pena; ta barcatuac ez-pa-daude, barcatu behar dituzu diranac. Orretara co ez da cer niri beguiratu: beguira zagozu zere prestu-tasunarita, zor dizudan, amoreari. Bai, arren, Jangoico maitea, bai.

I.

Tumultuabitur puer contra Senem. Isai. 3. 5.

Ecusi bide cituen Isaias Profetac nere aurtasuneco gogortasuna, ta charqueriac. Asaldatuco zela, zion, aur charra zarren contra; ta, orien erranac Jeguin beharrean, beteco zituela bazterrac negarrez ta escambillaz. Ez da hau nic nere aur demboran eguiten nuena? Zembat naigabe ni gatic orduan nere gurasoac! Zembat quezca ta gau illun! Eta guratso utsac dira, ni gatic nai-gabetu ciranac? Nere aideac, nere auzocoac, eta nerequin ciarduqueten gueienac, nere aurtasunean ez ote zuten izandu ni gatic cer ecusi zer edo zer? Baña nor etzuen mindu orduco nere muquer-queriac, eta gogortasunac? Nor etzuen illuntasunez, ta tristuraz bete noiz edo noiz?

Zori onecoa ni lurrecoac baicic aserretu ez-pa-nitu orduco nere aurqueriequin! Bazíran orien artean, nere Jangoicoa aserretu zuten, char-queriac ere; ta Jangoicoaren aser-erac dira, orain ni beldurtzen nautce nac; bada oriec dira betico nere negar-damua, ta sulececo erretze, ta urratze gogorra dacarqueen aser-erac! Ez arren nere Jangoico maitea, ez! Ez dedilla orrelacoric guerta! Damuturic nago eguiñaz; ta, eguinquìzunac ba-leude, orduco nere char-queriac, etzenuque ecusico, ez nere aurqueri gaistoric! Zuri zor dizut damu hau ere, oraingo nere ondu-naia-requin batean: ta zorco al-ditut, hau bezala, nere gaizqui-gucien barcamentua, ta berriric ez eguiteco, gracia? Bai arren, Jangoico maitea, bai!

II.

USQUEQUO, PARVULI, DILIGITIS infantiam? Prov. 1. 22.

Aurrac, noiz artean izain zarazte aur char-eroac? Noiz artean ibilli beharrac zarazte ceren aurquerietan? Noiz daraño iraun behar ote dute zuen gogortasunac, eta loiqueri galduac? Hau da nere Jangoicoac bein baño gueiagotan nere bihotzari adiraci ziona. Baña Jaunaren adirazte on onec izandu zuen enzuleric? Eguin nuen nic, bein batean ere, nere Jangoicoac aldi-

orie-

orietan adirazi zidana? Utzi nituen nic orre gatic nere gogorerac, nere aurqueri charrac, eta ibiltze ziquiñac? Utzi izandu banitu bein, betico utziac guertatuco ziran aguian, ta onduco nintzan ni bertatic, edo batere luzatu gabe, ta gaur arquituco ñintzan, ditudan, aztura gaiftoac, eta obenac bague.

Ez ote dit orain ere erraten niri nere Jangoicoac, aurtasunean erran oi zidana? Ez ote dira, lengo aurqueriac bezain, aurqueriac oraingo nere gauz-etatic gueienac, edo beintzat anitz? Noiz artean iraun behar ote du era onetaco nere aurtasunac? Guztiz maitagarria den, nere Jangoicoa nic aldebat utziric, maitatu behar ote dut gaur-guero, beguitan artu behar nuquen lenen eraco, nere aurqueria? Ez, ongui izatecotz! Ez Jangoico maitea, ez! Ez zure grazia-requin batean! Zori gaiftoan maitatu dut orain-dañocoan ere! Ez nuen maitatuco, ez, lenago ezagutu ba-nu, orain bezala, gaizqui eguiñaren itsusqueria! Ezquerrac zuri, palacuz, argui-eguiñez, escua emanaz, ta daquizun, guisan, onetara nazun, onguille maitea! Ez dezazula utzi, artu dezun, videa. Vide onez eraman nazazu, zu ciñez emen maitatzera, ta emendic atera orduco, cere Cerura. Bai arren, bai.

III.

FILI MI, INCLINA AUREM TUAM, & audi verba Sapientum.

Proverb. 22. 19.

Nere semechoa, cion bein Jangoicoac, eta orain ere dio; nere semechoa, adi zazu cer diodan; ta adi zazu, nere ordez dauden, jaquintsuac erraten dizutena. Nic Escrituran, ta jaquintsuen ezpañez erraten dizudana, ecin obea da, ta guztiz ederra. Eguiten ba-dezu, etzaitzu, ez, damutuco. Nic eraguin dizudalaco, ta zuc cerorrec eguin dezulaco atseguin andiac mintzarazico diza, ezquerrac esquerren gain niri emateco. Zori oneco semea zu, finqui, ta zucen eguiten ba-dezu, adirazten zaitzuna, edo eguitē ba-dezu gogoz, hitzez, ta escuz, eguin behar dezun gucia.

Maite nazun, Aitac bezala, hitz eguin didazu gaur nere Jangoico maitea! Erdiratu didate zure hitz leunac nere bihotz gucia; ta ez daquit cer neguiquen, seme onaren eran, zure erranic chiquiena ere ongui ta zucen eguitea gatic! Lenago ori eguin-bagueac ematen dit neque ta damu! Guel bitez barcatuac, orain.

n-dañoco nere aurqueri eroac, eta gañeraco utſac ! Barcatu dituzulaco pozarequin , ſaiatuco naz edocein gauz-etara ; ta den gogorrena izana gatic ere, eguin uſte dut , zuc lagüntzen didazula. Ni onetara ecarri naiez zabiltza zu gau , ta egun , ta beti, nere Jangoicomaita-garria ! Ona bada ni, naidezun, guciraco preſt , zuc barcatu ezquero , orain-dañoco nere utſac , eta obenac. Barcatuco al-dituzu , nere Jaun maite , urricariz betericacoa ! Bai arren ! Ori da nic orain , nere gaizqui eguiñen damuz , ta zuc nai dezuna eguiteco gogoz beteric eſcatcen dizudana ; bein ta berriz erraten dudala:

NERE JESU CHRISTO JAUNA, &c.

(1) *Stultitia colligata eſt in corde pueri. Prov.* 22. 15.
(2) *Prov.* 29. 15.
(3) 20. 19.

LAUR-GARREN OTOITZ-GAIA.

NOLACOA IZAN OI DEN MUNDUCOEN Gaztetaſuna.

§. I.

ZORREZ BETEA DA GUIZONAREN GAZTE DEMBORA.

CEmbat ere gaiſto zortiac diran Aurren egunac, ez dira izan oi, gazteen egunac bezain , zortiac , eta gaiſtoac: bada , lar chiqui berritic anditura doana , ba-doa aurren zor-etatic gazteen zorretara. Larrac , aſi berrian , arantz bacanac ditu,

ta,

ta, dituenac ere, min-guti ematen dutenac dira, ta berachac: baña, anditiuz doan bezala, beteteen da larra arantcez; ta orduco gogortcen dira guciac, eta odoltcen, ta urratcen dute, uquitcen dutena. Aurrac ere, aurdemboran ez du gazteac adiña arantz, edo oben, ta culpa; ta dituenac ere, ez dira, guerocoac bezain oben-culpa gogorgaistoac.

Gazteen becatuac, ezaguera osoagoa-requin, ta gaistaqueriz eguiten diran, becatuac dira; ta orre gatic dira becatu gogor itsusiac: baña aurren becatu-obenac, larrienac diranean ere, aurrenac dira, ta adimentu-laburrarequin eguiñac; eta zulatua gatic, edo damu, ta atsecabe Jangoicoari emana gatic, ez diote, gazteen becatu-obenac bezalaco, damuric eman oi.

Aurrenac baño, gogor itsusiagoac ez-ecic, gueiago, ta gueiago dira gazteen obenac, edo culpac. Cer gatic ote? Ceren aurrac baño, su, ta indar andiagoac dituen, gaiz-eraco, gaztequiac; eta, urte-tan sartuz dijoan eran, arquitu oi den gaztea, odol, aurtasunean baño, berotuagoa-requin, ta gaistaqueri etaraco griña, ta escu, lenagocoa baño, aguitz andiagoa-requin. Este alde anditcen asi orudco, emen, ta an, ta bazter gucietan dabil gaztea; ta, cembat gueiago dabillen, ambat vide, ta zoco gueiago arquitcen ditu bere gaista queri-etaraco. Eguiten dituen, gaistaqueriac anditcen diote gaitceraco bere griña, ta macur-era: ta, oni su emanez, eraguiten diozca guero bere bacar-tasunean, beti darraicon, etsaiac, al dituen, gaista-queri berriac. Lagun-arteratcen ba-da, batzen ditu gazteac an, su-lececo bere etsaia bezain, etsai gaistoac; eta batac irriz ta farraz, edo bere hitz lizunequin: besteac bere escuz eguiten duenarequin, onec alde batera, ta bertceac bestera, eracusten diote norc daqui cembat gaista-queri, edo gaista queri vide.

An bertan ez eguiña gatic gazteac, an ecusten, ta icasten duen, gaista queria, eguin oi du guero, bacartcen denean; bada, bacartu ezquero, galtcen du, lagun artean artaraco izan oi duen, alque, ta lotsa gucia; ta eguin oi du bacartcen denean; ceren lagun-arteco gauza gaistoen oroitzapen lizunac nasten dion batetic bere barren gucia, ta bestetic, etsai gaistoac ematen dion, suarequin, iraquiten dion odolac, eta garaitcen duen, atseguin ciquin-etaraco bere naicunde, ta griña galgarriac: eta, bein orretara ezquero, gazte becatariac,

pre-

presa urratu duen, uveldea dirudi; bada uveldea ur gaciraño bezala, guelditu bague, joan oi da gaztea becatuz becatu aztura gaistoen osin andira, edo itsasora; ambat dira artara oitcen denetic hitcez, escuz, beguiz, bihotcez, ta bertce anitz aldetara eguiten dituen, gaistaqueriac.

Ah gazte-dembora zoratua! Obenez ta culpaz beteric arquitcen zaran, gazte dembora! Zori gaistoan icasi nuen nic, adin orretan icasi oi den, atseguin-gaisto-placer-lizun-etaraco vide loi liquits hau! Nic neronec daquizquit guerozco nere ibillerac, eta becatu ciquiñac! Baña ote daquizquit ere? Beldur naz, ez-etz: ibilli naz alabaña ni ambat demboraz, itsu baten eran, edo non, ta certan nembillen, behar bezala beintzat, ezagutcen ez nuela. EGEO deritzan, ta gueienean asaldatua dagoen, itsasoa bezain, asaldatua egondu da nere bihotz hau, eta orretan ni nembillen demboran; ta, aurtasuneco nere obenen vagac gazte-tasunaren ondarrera ciraneco, aguertu ciran nere bihotz char galdu onetan, gazte--tasun bereco nere oben-culpen vagac; baña vagac, orducoac baño vicigaistoagoac; eta arriz arri, ta perellez perell nere animaren ontci erdi-urratu hau eraman oi zuten, vagac.

Ontci gaisoa! ta cer eguin ciran zuc cere bataioco Indian artu cenituen, gracia, ta Ceruco ondasun eder-andiac? eta cer cere Jangoicoac gueroztic eman dizquitzun, gogargui, ta naicunde onac? Ay ene! gueiago ta gueiago izan ba-lira ere, galduco nituen nic ero tzarrac, bein ez-ecic, anitz alditan ere, edo becatu larriren bat eguiten nuen aldi gucietan! eta eguin dut nic becatu, norc daqui cembat, eta cembat aldiz, ta bider.

Siñisten zaitut bai, gazte char centzu gabeco galdua; indar gutizcoa da alabaña lurrecoen gaztetasuna; conselluric baguez eri dagoen sasoia da gaztetasuneco sasoia; becatuaren sucarrac erretcen daducan gauza da gaztetasuna; onez erraten zaionic ere ontzat artcen ez duen, adina da gazte-tasuna: ta orregatic gaztetasuna da atseguin galgarrien izurrizco iturritic edaten, ta edaten hari den egartia. Cer anitz bada, becatuz becatu, malurrez malur, ta gaitcez gaiz gazte bat, beti ez-pad-ere, gueienean, edo maiz ascotan beintzat ibiltcea!

Irur gauza dira gauza gucien artean, erraten du guizon jaquintsu Erregue Salomonec,

ezagutceco gaitzac; eta laur-garrena nic ez daquit, dio, nola den ere. Irur gauzac dira Arrano aren, edo Aguilaren aice-gañeco egoa, edo egaca; lurreco suguearen ibillera; ta itsasoco Onciarena: laugarrena da guizonaren gaztetasuneco vicia. Ezagutcen dituzu, zuc? Beguira zaiezu nola dabiltzan, dabiltzanean. Suguea ez dabil zucen bein ere: ibillico bada, giraca dabil, ta alde bat burua, ta buztana beste darabillera. Gueienean inguruca dabil Arranoa: ta itsasoco Oncia batera darabilte, ta bestera bein vagac, bein aiceac. Orra cein macurra orien iruren ibillera.

Zucenagoa ote da gaztearena? Cembat aldiz ateratcen dute Ceruco videtic gaztea bere griña gaistoac, atseguin-naiac, eta gaitceraco macurtasunac? Non dabil gaztea gueienean? Elizan? Eriac ecusten? ta dovociozco gaucetan? Ah cein guri! Non bada? Jan-edanean; ongui ez dirudien bazterretan, dantzan, jocoan, hizqueta, ta escuca ciquiñetan, ta behar ez diran lanetan! Cer ateratcen du gazteac bere eguiteco, ta lan orietatic? aldi oro, edo ascotan beintzat anima galtcea; ta dembora berean oroitzapen, ta gogoracio ciquiñac, naicunde loiac, beguiratce liquitsac, eta asm-al adiña gaistaqueri, ta zor!

Atocea orain: cer du cer ecusi Arrano Sugue-Oncien ibillera macurrac, era onetaco gaztearen ibiltce macurra-requin? Ecin-bestezco macurtasuna da suguearena; ta nai ta ez ateratcen dituzte beren videtic, aiceac Arranoa; ta aiceac edo itsasoaren vagac Oncia; ta orregatic iruren macurtasunac, ecin bestezco, edo borchazco macurtasunac dira. Berariazco macurtasuna gaztearen macurtasuna da; bada, nai ba du, ba debilque gaztea bere Ceruco videan zucen-zucen, edo bat ere gaitz aldera macurtu gabe; ta orre gatic gaztearen macurtasuna da esquer gabeco macurtasuna; ondotic darraicon, sulecea gatic, arritcecoa den, macurtasuna! ta macurtasun, Salomon jaquintsuac ecin adiraci zuen bezalacoa.

Bein edo berriz baicic macurtcen ez-paliz bere gaistaquerietara, gaistaquerietan dabillen gazte charra, noiz bait aguian centzatuco lizaque, eta eguiñaz damuturic, itzulico lizaque, eraman behar den, Ceruco vide zucenera; baña macurtcen asitcen denetic, izan oi da, aldapa gogor garbi baten erpiñetic erortcen den, zumbil edo aitz biribil bat bezala. Gain orrelacotic amiltcen den zumbil andi, edo zur, edo aitz biribilla, erortcen

bein

bein asi ezquero, ez da guelditcen azpico erreca, lecu celaia, edo beste cerbait arquita artean; ta, atseguin-gaistoen menditic malcortcen den, gazte charra guelditu ez oi da, sulecean sartu arteraño, baldin eritasunen batec bere osasuna, edo ezcontzac, eror videac, eta gaitceraco behatz topac quentcen ez pa-dioza; edo Jangoico maita-garriac eguiten ez pa dio, noiz edo noiz eguiten dituen animaco gauz andi etatic bat, edo bertce.

Ecusten dezu cein zortzua, cein oben-dun galdua den, mundura dotocen, gueienen gazte dembora, edo gaztetasuna? Ez ote cen era berecoa zurea ere? Cer gatic guertatcen dela, deritzazu, gazte zoratuen onembat itsumen, ta onembat oben culpa? Atoz ecustera.

§. II.

NONDIC DATOCEN GAZTEAREN *gaista queriac?*

GAztearen gaista-queriac datoz Jangoicoaren beldurtasunari lecuric gazteac bere bihotzean ez eguitetic. Atseguin loien aldapan limurtcen, ta irristan asi ezquero, ez du becatariac, guelditceco, Jangoicoaren beldurra, ta humiltasuna bertze toquiric; eta gazteac, osasuna duen artean ta indarrac oroac ba-daduzca, ez du quezcaric, edo beldurric bat ere S. Ambrosioc dionaz, ez eta humiltasunic ere. Antustez, ta erataisunez beteric daduca bere burua; odolac iraquiten dio bere zañetan; ta orrela dabillen artean, ez du gazteac, atseguin-josatceac, eta aragui ciquiñaren loiqueria baicic, bere gogoan, ez eta bere bihotzean, ere. Orien ondoren dabil gazte-charra gau ta egun, ta aldarteac ematen dionetan, edo beintzat anitz, eta asco aldiz; ta dabil, bere Jaincoaz, ta sulecean aisolaric etzaiola.

Hau daquienac bezala, oju eguiten die S. Agustinec gazte guciei; ta erratên die: gazteac, beguira ongui, nora zoazten! Adin gucien artean, zuen adiña da, adiñic ederrena; ori da alabaña adin gucien lorea: baña da dembora berean adiñic izugarriena, ceren den adiñ, animac errazquien gal eraci ditza quena.

Ala da, Doctore andia, ala da; eguia diozu! Adin onetan ill ba-guiña gu, non arquitcen ciran gaur gure anima gaisoac? Arquitcen ciran nosqui, orduan guc, anitz aldiz, ta aldetara-iñabacia gueneducan, sulecean! Bada, Jangoico gureac guri orduan

Ez ema-

emana gatic, orduco gueren gaizquiez damuturic guelditceco lecua, ez daquigu, behar den damuric artuco guenuen guc orduco gueren eritasunean; ez eta ezagutuco, edo siñestuco ote guenuen ere, aldi artan ill beharrac guiñala: behar-bada vici-usteac, eta sendatu-naiac quenduco ciguten, ill guindez quelaco uste ta beldur gucia. Eta siñetsia gatic, guc ill-vide zucena gueneramala, eguiñen ote guenuen behar den eran, iltcen diranac, azquen horduan eguiten dutena?

Ah nere Jangoico maitea! beldur naz, ezetz! sartueguia cegoen nere gogoan adin artaco eraqueria, ta atseguin ciquiña, niri orduan orren lan andi on bat eguiten uzteco! Beguiz, escuz, ezpañez, belarriz, ezur-zain aragui-larruz eguinac neduzcan, norc daqui cembat oben, ta gaistaqueri; ta guciac, lotua nenducaten burutic oñetaraño! Nondic nuquen nic, ordu ain estuan, behar cen indar gucia, locarri, orren sendoac an bertan urratceco? Zu ciñan bacarric, nere Jangoico maitagarria, lan onetan niri lagun cenizaque-dana? baña behartua cenduzcadan nic zu orduan orre taraco? Zure gogarguiari beguiac itsiric, eta zure deitce maiteari ez aditu eguiten niola, eguiñac ciran nere orduco ciquinqueri, ta culpa guciac! Eta cer culpac? Damuz, ta atsecabez zu, Jesus maitea bete cinduzten cuipac! Bada cer laguntza ichedan nezaquen zu gandic nic, guisa onetan nic zu cenduzcadala.

Zuri esquerrac, esquerren gain nic, nere Jangoico maita garria, ceren nere gazte dembora zorti, vicitza loi, adin obendun artan igorri etcenidan nere eriotza! Bada orduan zuc hau igortcera, galdua nintzan ni, bai segurqui; ta galdua secula guciraco! Ez al naute galduco azquenean, orduco nere eraqueriac, eta urrats, edo pausu gaistoac? Ez baldin bere! Ez arren, nere Jesus maitea, ez! Gal ez nazaten, eman behar didazu orain, orduco, nere, ta gueroztic nic eguin dituidan, utsf-eguite guzien ciñezco damu bat, eta barcamentua. Ori da beharren dudana; ta gogo gucia-requin gaur nic escatcen dizudana. Ez arren ucatu hau, ez nere Jangoico maita-garria.

I.

SENSUS, ET COGITATIO HUMANI cordis in malum prona sunt ab adolescentia sua. Gen. 8. 21.

Gure gazte tasunetic gaitzera macurtuac dira gure beguiac, gure belarriac, eta gañe-

raco

raco gure animaren leio, edo sentidu guciac; bai ta buruco gogoracio, ta bihotceco asmoac ere. Malur doacabe hau Adanen bocadutic datorquigu; ta malur onetatic datoz gazte demboraco gure loiqueri, ta oben guciac! Zori oneco gazteac, malur onen etorquera, edo onetaraco griñ gaistoa garai onean garaitu zutenac! bada garaitu zuten, gogo macurra zucenduz, ta gauza onetan beren egunac ceramaztela: ta, orrela gaztetasuna eraman dutenac, anitz necatcen ez dirala, izan dezaquee zartce zucen virtutetsua, ta Ceruco bucaera.

Oriec baicic ez? Bai ta gañeraco nai duten guciac ere; bada virtuteraco asqui da, aztura charrac utci, ta lan on-etan ibiltcea, ta hau, ta hura eguiteco, prest dagoen, graciaren laguntzaz valiatcea; ta laguntz hau ez dio Jongoicoac ucatcen, ongui ta ciñez escatcen dionari, gaisto-gaistoa izandu bad ere, bere escatce on hau eguin arteco dembora gucian.

Ori orrela bada, ona ni, nere Jangoico onguillea, ta ona ni, gazte dembora galdu bateco nere zor guciequin! Orduco nere aztura gaistoac anitz gueiago gaistatu dira gueroztic: eta, galdua baño, galduagoa dago orain oriequin nere anima gaisoa! Zu gana nator ni, nere Jangoico maitea, zucendu naiez nere orain-dañoco utsac, eta gauza macurrac; eta nator, emain didazulaco uste osoa-requin, lan onetaco behar den indar, ta laguntza gucia. Ciñez escatcen dizut, eta leneco nere gaizqui guciez ongui damuturic. Erdisten ba-dut gaur orien barcamentua, ta orain escatcen dudan zure laguntza, ta indar hau, eguin uste dut gaur guero, beren gazte-tasuna ongui eraman zutenac eguin oi duten gucia, edo vicitza on-garbi, virtutezco bat. Ala, guerta dedilla, Jangoico maitea, bai arren, bai.

II.

MEMENTO CREATORIS TUI IN diebus iuventutis tuæ, antequam veniat tempus afflictionis. Eccle. 12. 1.

Oroi zaitez, erraten dizu cere Jangoico maiteac; oroi zaitez cere eguilleaz, cere gaztetasunetic, eta nequezco zure egunac etorri ditecen baño len. Oroi zaitez, bai; cere Jangoico eguilleari, eguin cinduen egunetic, egungo eguneraño zor diozun guciaz. Oroi zaitez certaco eguin ote cinduen zu, edo nora eraman naiez, eguiña zaduzcan emen cere Jangoico

mai-

maita-garriac. Baña oroi zaitez, diodan bezala, bertatic, eta guerorace utci gabe, oroitce on, gauz onen eraguille, hau. Oraingo zure otoitz onec (bein ta berriz, ta ascotan oroitcen zarala) urrundoco zaitu cere eguillea berriro aterretcetic, edo becatutic; eta zucenduco zaitu, eguille berac emain dizun, gracia-réquin, eguin behar dituzun, gauza onac eguitera, ta azquenean, oriec cerequin dituzula, cere Cerura. Zori oneco oroitza, onetan guelditcen den, oroitza! Orain ba dere nere gogoan far ba-ledi oroitz on eder onguille hau!

Esquer gabe charra! Oroitcen zara zu gavaz, egunez, ta horduan anitz aldiz ere, zure anima galtceco diran, gaucez; ta ez dezu gogoan artu nai, gogotic utci behar etcenuen, cere Jangoicoaren oroitza! Gauz arrigarria! Ez dezu gogoan artcen, gauza gucietaraco behar dezun, cere Jangoicoa; ta, nai dezu, eraBil zaitzan zu cere Jaun andiac, bere gogotic utci bague beinere! Zure Jangoico eguilleac ez du zure beharric bat ere: hura bague ezin daguiquezu zuc, eguin ditequen, gauzaric chiquiena: ta ala ere zure Jangoicoac, oroitu behar du zutaz, ta zuc zere Jangoicoaz ez? Ecusi dezu onelaco eraqueiric? Utzico dezu? Bai baldin bere, nere eguille, Jaun andia! Lenago ez utziaz dut damu; ta ciñez al-ere! Etzait-zadala zu gaur guero nic nere gogotic iutzi! Ez, nere Jangoico maitea, ez! daguidan gaur danic, all artean beti eguin behar nuquena, ta zuri zor dizudan gucia. Ala guerta dedilla, bai arren, bai.

DELICTA IUVENTUTIS MEÆ, ET ignorantias meas ne memineris: secundum misericordiam tuam memento mei tu, propter bonitatem tuam. Ps. 24. 7.

Ez da, Jangoico maitea, ez da cer beguiratu, nere gaztetasuneco oben-eraqueriei! Gaizqui eguiñac dira; ez dut ucatcen; baña eguiñac dira, gaztearen eraqueriz, ta oarcabean bezala: ta orre gatic, gaistaqueriz eguiten diranac baño, aisago barca direzqueenac dira. Barcaditzatzun bada guciac, nic nai, ta behar bezala, beguira zadazu urricarizco beguiz, ni gatic ez-pad-ere, cere bazterric bagueco ontasun ederra gatic.

Gal nazaquezu noiz-nai, orduco nere charqueri loiac gatic: eta etzenuen orain artean cer ichedan orretaraco: baña cer irabazico dezu ni bezain gauza

chdr

ehar errumes bat gal-eraztea-requin? Gueroz ecin eguinen liquet onguiric bat ere zure urrical-tasunac, edo misericordiac. Ea da bada obe izain, nere Jangoico maitea, zuc cere urrical-tasun on guilleari, ni gazte dembora eroco oben petic atera navelaco, atseguin andi bat eguitea? Eguiozu bada bertatic; eta videnabar egui-dazu niri ere, nic ar dezaquedan, atseguinic andienetatic bat: bada, nic lur gañean ar-dezaquedan, atseguinic ba-da, da becatuen barcazioa, ta, orrequin datorren, zure gracia, ta adisquidetasuna. Indazu arren bata ta bestea; ta indazu, bat ere luzatu gabe; bada escatcen dizut damuz beteric; eta bihotcez, ta hitcez erraten dizudala: NERE JESU CHISTO JAUNA, &c.

BOST-GARREN OTOITZ-GAIA.

NOLACOA IZAN OI DEN GUIZATASUNECO GURE ibillera.

§. I.

ZORTI ITSUSIA DA GUIZONAREN VICITZA, TA IBILL-ERA.

GAztetasuna-requin bucatcen ba-lira gure obenac, edo adin onean sartu orduco, uzten ba guenitu guc ordurañoco gueren eraqueriac, aztura charrac, eta, behar ez diran, gauzac, iltcen diran gueienac, arquitu oi diran baño, zor gutiago-requin arquituco liraque beren eriotceco azquen asnasean. Baña gaztetasuneco asiera charrari ascotan dacheco andi-demboraco ibillera charragoa; ta, lenac utci beharrean, arquitcen dira guizonac,

eta

eta emaztequi eguinac zor berriz, ta becatu-culpez beteac: guertatcen zaie alabaña lar berriari, anditu ondoan, guertatcen zaiona.

Larrac anditcean, ez du, zotz, edo cigor zucen bat, eta cembait arantza-punta besteric, aguertcen, edo eracusten; baña bein anditu ezquero, abiatcen da adarrac, eta adarrac botatcen; ta, botatcen dituen, adar guciac datoz arantza gogorrez beteac: eta urte oro arquitcen da larra adar-arantza, ta sugai guiago-requin. Guizonac ere ba-ditu bere gazte-demboran oben-culpen arantzac; baña gueienean beintzat, era bateco arantzac, edo culpac; eta culpa-arantz ez orren gogorrac. Anditu ta ondoan betetzen da guizona aztura gaistoen adarrez, ta oben-culpen arantcez, ta elorriz: edo su-gai zorrotz-igartuz. Ez da hau eguia? Beguira eguiozu cere buruari, ta ecusico dezu

Atocea; arquitcen ciñan zu, gaztea ciñanean, oraingo culpen erdiequin ere? Urte berrietan bezala, etzara sartu zu zor berti-etan, ta oben gaistoetan? Bai eguiaqui; ta orre gatic egunez egun, ondu beharrean, gaistatu izandu zara zu; ta, eguin dituzu daquizun bezala, lenen gain, norc daqui cembat culpa, oben, becatu, ta zor berri! Ori da zuc, cere zor-petic ateratcec, arquitu izandu dezun, videa? Zucen zabiltza; bai segurqui! Obe lizaque, bacarric ba cembiltza: baña anitz dira zurequin batean vide berez dabiltzan guizonac!

Ba-daquizu zuc, vide galgarri orretan cembat zabilzten? Jeremias Profetac ecusi cituenac adina ba-zarazte, ez da erraz, ori zuc siñistatcea. Cembat cirala, deritzazu, Profetac ecusi cituenac? Adi zazu gauz onen gain Jangoico berac erraneraci ciona. EZ DA BAT, (1) dio, eguia dionic: ez da bat zucen, ta behar bezala mintzatcen denic. Gaizqui dabiltza guciac; gaistoac dira; ta gaizqui eguiñaz etzaie urriquitcen bein ere, behar bezala beintzar; eta ecer ez bat dela, diote, eguiten dutenc, edocein charqueri, oben ta culpa. Ecusten ba cenitu cembait aldiz, usteco cenuque, damuturic daudela beren gaizquiez: baña ez da ala: bada site itzultcen dira beren lanetara; ta, zaldi berotua arm-artean, bezain itsuac sartcen dira beren vide gaistoco locatcean, ta becatu artean.

Aice gañean dabillen, miruac ezagutcen du, dagocan dembora; ta ona ez pa da, datorquiona, uzten du bere egaca, ta

ta gordetcen da nombait, batere tricatu gabe. Otzaren beldur diran egaztiac, etortceco dagoela otz-dembora ezagutu orduco, igueſi doaz bazter bero-etara; ta bazter otcetan guelditu baño, lenago joain dira itſaſoaren alde artaco-etara, edo edocein beſte lecu urruti-etara; ta ez dira itzulico, itzuli artean dembora bero epela: baña munducoac ez diote beguiratu nai beren Jangoicoari; ta, ez-pa-liz baño, gueiago anſiatcen ez dira, onen eſcutic datorren, ſeculaco nequeaz. Chiquitic aſi ta andirañoco guciac lurreco atſeguin ta gauza charren ondoren dabiltza. Orra cembat ciran, Profetac vide gaiſtoan ecuſi cituenac; edo orra cein guti vide gaiſtotic campoan arquitcen ciranac. Eta non arquitcen ote zara zu? Cerorrec daquizu; edo icas dezaquezu. Icaſi zazu videnabar, nondic datocen, adin onetaco becatu gaiſtoac.

§. II.

ADIN ONETACO BECATUEN *SUSTraia, edo zaña.*

Oartu zara noſqui Profetac dionara, edo lurrecoei orren gaizqui, ta becatuz becatu ibiltce hau, non dabiltzan, ez ezagutcetic datorquiela? Ezagutcen ba-lute lurreco gaiſoac, cein gaiſtoa den, ta cein ciquin-itſuſia, becatuz becatu dabiltzanean, berac daramaten videa, laſter utcico luque, bai: ta artuco luquee, ongui dabiltzanac eraman oi dutena: ta an artean gaiſtotic dabiltza, nondic dabiltzan, ezagutu gabez. BEGUIRA niri, nere gandeac; adi zazue cer diodan, dio Jangoicoac, Davideri ezpañez: aditcen ba dituzue zuec nere hitz onac; eta oartu ezquero nora zoazten, ortic zabiltztenac, laſter ateraco zarazte, bai; ta etzarazte ſartuco ez, eſquer gaiſtozco vide macurretan: ta orietan berriz eguiñen ez dezue, nic nai az dudan, pauſuric chiquiena.

Baña gauza arrigarria! dio Jangoico berac; ez dute aditu nai gaizqui dabiltzanac, nic erraten diedanic: begui bat goratceari ere, cer nai dudan nic ecuſteco, gueiegui derizte. Guelditu gabe, ta laſterca bezala doaz beren videz. Utci diet nic, dabiltzala nai duten eran. Beren naicunde gaiſtoac arraſtatu dirú; ta egun oro ibillico dira gaizqui baño gaizquiago, ta lan loi ciquin gaiſtoagoac eguiten dizutela. (2)

Orra gure Jangoico maiteac, Davidez diona, edo aditce-

ra ematen diguna: ta orra nondic datorren gaistoen becatutic becaturaco, ibillera galdua: beren berariazco itsuera gaistotic. Berequin dacarren, itsuera galgarri hau baicic ez pa-lu ere becatu gaistoac, becatua lizaque, dio San Joan Chrisostomoc (3), gauza gaisto gucien artean, gauzaric gaistoena. Eta eguia dio; bada itsuera hau da, len guenuen, Ceruco arguia guri quentcea, edo aguitz laburtcea; ta, argui hau guri quentcea-requin, edo aguitz laburtcen digula, uztea gu, bururic edo adimenturic bagueco eroac bezala. Eta cer ichedan diteque, adimenturic ez duen, edo bururic bagueco bate-gandic? Bere griña gaistoac eraguin dezoquen, gucia. Eta non arquituco dezu, hau baño, gauza gaistoagoric?

Anitz al-eguin eguin oi du gure Etsaiac, erraten du Alexandriaco Clementec, gazteei gaizquiac eraguitea gatic. Eraguiten diezte gazteei beren gaizquiac laur gauz etaraco; bada, eraguiten diezte, beinic-bein, Jangoicoari atsecabe ori eman naiez; ba daqui alabaña, guztiz maite dituela Jangoicoac bere gazte-ongarbiac. Eraguiten diezte, guero, lembaitlen, ta aisa gazteac beretu naiez; ceren daquien, aisa sar ditzaquela bere cateetan; ta, bere catean bein gazteac sartu ezquero, nequez andic, ateratcen dirala. Eraguiten diezte, gazte berac errazquiago gaistaraci naiez; ba-daqui alabaña, gaistaquerian asitcen diran, gazteac ibilli oi dirala gaizquiz gaizqui loiez loi, ta becatuz becatu. Baña, guciac gatic baño, gueiago (ta laur-garren lecuan) eraguiten diezte gazteei gazte-danic beren gaizquiac, ceren gazte demboraco gaizquiac eguiten duten, vicitza gucico becatu-etaraco, vide zabal erraz bat. (4)

Bai, dio Espiritu Santuac, bai; gazteac ez anditcen denean, ta ez zartua gatic, utcico ditu bere gazte-tasuneco oitura gaistoac: eta, besteric ecin duenean, bere gazte-tasunean gaistoa izandu cen, zarrac, ezur-muñetan erabillico ditu orduco eraqueriac, eta aztura gaistoac; eta berequin eramain ditu guciac bere obira, edo lur-pera. (5)

Gazte-tasuneco becatuac, bada, sartcen dute bat becatu-videan, ta uzten dute erdi-itsutua. Urteetan, ta becatu-etan sartuz bezala, itsutuz, ta itsutuz doa gazte-tasun gaistotic atera-ricaco guizoña; ta, animaco ecustea laburtcen zaionetic izucen ez dute bere becatuac, itsusiac izana gatic oriec, eta guztiz arrigarriac; eta orrequin eguiten ditu becatu

tu berri andi itsusiac, egarri andia duenac. ur otza edan oi duen bezain aisa (6). Itsuera, ta illumbe hau ez-pa-lecarte becatu gaistoac, becatu artean nola leudeque becatariac, dauden bezain lasai, ta ansia gabe?

Guizon batzuec ez dira jai-igandeetan, ta al-duten gucian, jocoa, ta jan-edana besteric. Beste batzuec ez diote mihiz, niori barcatcen, beren eraco jolas-dunequin arquitcen diranetan. Cembait ez dira voto, juramentu, ta maldicionea bertceric. Bertce batzuec galtcen dituzte Mezac, urratcen dituzte jaiac, eta baruac, edo eguiten ez dituzte, eguin behar diran, beste gauzac. Cembaitec ez dituzte eguiten Amarren-Primiciac, edo gaizqui, ta charqui eguiten dituzte, eguiten dituztenetan. Loitcen dituzte beste cembaitec beren gauza liquits ciquin anitz-equin beren anima-gorputzac; ciquintcen dituzte era berean beren escontzac, edo escontzaraco videac. Echean, langubietan, gend-artean, ta nonnai ereintcen dute bertce anitcec jolas liztunen bihia, ta alea. Beguiratce liquitsac dituste, orietatic ez gutic, eta gog-asmo, oroi tzapen, ta naicunde ciquiñac. Loiez loi dabillen animalia baño, galduagoac daude beste anitz, eta asco. Beste anitz ez dira bein ere zor-petic ateratcen: ta ortic atera lecuan, ebasten dute al dutena, beren saldu-erosietan, ta beste anitz aldetara. Confessatcen diranean era orietaco guizon ta emacumeac, confessatcen dira, elurra bezain otza daducatela beren bihotza, edo ontceco asmoric bague; ta al-ere, beren ustez, ongui ta behar bezala, confessatcen dira; ta orre gatic dira, frenesiz, edo berac ezagutcen ez duten, gaitzez iltzen diran, erien eraco becatariac.

Cembat, behar ez den, apaintze ez da arquitzen Andre arro ero-charren artean? Cembat arrotasun, ta antuste? Erriertac, escambillac, eta gorrotuac daramate, orrelacoen artean norc daqui cembat hordu, ta dembora. Elcar ecin-ecusia, gucia beretu-naia, ta gañeracoac azpian iduquitzea da, Lurreco anitzen eguitecoa, edo beintzat naia, ta gogoa. Cargu-dunac, carguric bague ba-leude bezain aisa vici dira asco lecutan beintzat, eta aguian gueienetan: ta vici dira orren lasai, ta aisa, ceren ez duten uste, erricoen, edo beren menecoen gaizquiez eman behar dutela bein ere conturic bat-ere beren Jangoicoaren aitzinean. Beren naiezco itsu gaisoac!

Jai-

Jai-igandeac, gure Jaunaren egunac izana gatic, urteco egunic loituenac, eta galduenac dira gueienen-daco, edo anitzentat beintzat; eta, cembat ere andiagoac diran egun oriec, ambat galdu-loituagoac dira orien artean. Orduco dantza ciquiñac, gazteen jan-edanac, nastecac, eta gañeraco gaizqui dabiltzanen gaistaqueriac quendu naia gatic Eliz-Artzai contuzco cembaitec, eman nai ez die, eman behar liequen escua, ta laguntza errico cargudunac, Nagusiac, edo Gurasoac; eta guelditzen dira gauzac, len ceuden, toqui ber-berean, edo aguitz gaistoagoan.

Norbaitec erraten ba-die, onela da-biltzanei, ez dabiltzala, ibilli behar duten eran; ta, zucen ibiltceco, eguin behar dutena, ez-aditu eguiten dute, edo irri, ta farra. Berriz ori bera, edo beren oneraco den cerbait, erraten ba-zaie, sumintzen dira; ta iru-garren aldian aditua gatic ongui dagotena, guelditcen dira len bezain itsu-gogor-gaistoac. Ba-daquizu zer-nola? Ceren oriec eta gu oituac gauden chiqui danic, dio San Agustinec, gaistoen lanac ecustera, ta ematen ez diguten beguitan bat-ere, beintzat orietara oituac gaudela, urteetan sartu ezquero. Orre gatic bada cembat ere zarragoac diran gaistoac, ambat zor-dun itsuagoac izan oi dira, vici diraño.

§. III.

GAISTOAC, BEREEN GAIN, ARtcen ditu besteren becatuac ere.

GAitcera oitcen diranac, ez dira, ez, devocionezco lanetan anitz necatcen; ta lan ori-etaratcen diranean ere, an-ez-paleude bezala, daude, edo gogo gucia barraiaturic daducatela, ta nagui-tasunez beteac. Orrelacoac, berequico diranac, izan oi dira bertce equin ere, ta eracutsi ez oi die echecoei, ta gañeraco beren menecoei jaquin behar dutenaren laurdena. Eracustean diranac, dira gañeraco gauz-etan: ta, eraguin behar liqueena baño, anitz gutiago eraguiten die beren escu-pean, edo menean dituztenei. Eta berac gaistoac izatea, ta ichecoac, eta gañeraco bere menecoac gaistatcea asqui ez-pa liz bezala, gaistatcen dituzte auzocoac, eta berequin diarduquetenac ere hitzez ta erranez; eta, orien begui-etaratcen diran, gañeracoac lanez, ibilliz, ecuscariz, ta exemplo gaistoz; ta ez doaz berac mundutic, mundua ondorengo gaistoz beteric utzi artean.

Ah gurasoac, gurasoac! ah, gurasorde, buru, edo zenzu-

ga-

gabeac! Egunen batean ecusico dituzue, zuen naguitasunac, eta aisola-gabeac dacartzien, malurrac, eta calteac! Zaitu, ta maneatu gabez, galdu dituzue Jangoicoaren minteguico landareac, edo icheco humeac, età errico gazteac; bada utzi dituzue guztiz macurtuac, edo gaitzera oituac; eta oitura gaistoac, eta gazte-tasuneco macur erac ez oi dacar seculaco su-gaia, ta su-gai arrigarria besteric!

Errazue ezperen: zuec ceroc dituzuen, oraingo culpac nondic dacarte beren asiera? Ez ote dacarte aurtasuneco, edo gazte-demboraco zuen asitze charretic? Cembat icusi dituzue, anditu-ondoan gaistatu diranac, gaztetasuna ongui, ta garbiro eraman ezquero? Cer nai dezue bada guerta daquien, zuec bezain, gaizqui aciac dauden, zuen gaztei? Anditu-orduco gaistatuco dira nosqui zuen erara; ta ôrien orduco gaistaqueriac ere zuen gain izain dira. Cer zorrac orduan zuenac!

Arrigarriac, nere Jangoico maitea, ta bertatic ni icara naducatenac! Orain, bai, orain asitcen naz ezaguzten, cein andia den, zor dizudan, ni ganaco zure amorea! Ni naz autsetic eguiña, ta autsetan guelditu behar duen, gauza charra! Ni naz nerez betazal bat ecin gora dezaquedana! Ni naz becatu etorquian jaioa! Ni nere naiez becatura, ta gaizqui-etara anitz aldiz macurtu nazana! Aur danic asi nintzan ni nere gaistaqueri-etan! Aguiz gueiago gaistatu nintzan gazte demboran; ta gaitz-etic gaitzera ibilli naz ni vicitu nazan dembora gucian

Cembat ote dira, nere Jangoico maitea, cembat aldetaracoac, eta cein itsusi andiac aurtasunetic orain-dañoco nere obenac, eta becatuac? Beguiz ezpañez, escuz, hitcez, belarriz, bihotcez, cembat becatu-falla ez ditut eguin izandu nic, sortu nintzanetic orain artean? Aurtasun loiaren ondotic etorri cen nere gaztetasun loiagoa; ta biei darraizte guerozco nere urte galdugalgarri-ciquiñac!

Hau gucia ba-dacusazu zuc nere Jangoico maita-garria? Ongui contatuac daduzcatzu, bai, nic orain-dañocoan eguin dizqu tzudan, charqueri andi-chiquiac: bacoitzac aguertzen dizu nere es quer-gabetasunaita guciac escaze dizute pagu gogorra; bada c catzen dizute, aurriqui, edo bo nazazula, aspaldian nic ongui ir bacia neducan, cere su-lece an beti ta beti nequez, ta r garrez beteric zuc iduquitzeco ta al-ere, ori eguin lecuan v

ric naducazu, ta, ori eguin lecuan, eguiten dizquidatzu, niri nere, Jainco maitagarria, norc daqui, cembat ongui, ondasun, favore, ta ontarte!

Cer gatic ote? Cere beharrez, edo ceren ni gandic cerbait uste dezun? Bat ere! Nioren beharric ez duena da gure Jangoicoa; ta, eguiten digun, guzia ongui naiez eguiten diguna.

Ba-daquizu zuc hau, errebes char esquer gabea, ta alere etzara bertan iltzen alquez, damuz ta naigabez? Oneguia zurequico, zure beharric ez duen, zure Jangoicoa; ta zu ecer-ez behartsu char bat izanic ere, nioren beharric ez-pa-cenu bezain cere galgarri gaistoa. Esquerrac Jangoicoaren amore andi-eguiari; bada, onelacoa ez izatera, oroituco ciñan zu gaur-ez-ecic, secula guzian ere. Ezagu zazu bada, berandu bad-ere cere eraqueria, ta vicitza gaistoa! Zoazquio, orrembat maitatu zaituen, cere Jangoicoari; ta, negarra dariezula, bihotz, damuz erdiratua requin, esca zagozu orain dañoco utsen barcamentua; ta, berriric eguin bague, ta cere naguitasun, uts gucien sustrai galgarria, cere gandic ateratcen dezula, beraren amoreari, vicitz on batez, ta amore andiz erantzuteco gracia,

I.

VÆ NOBIS, QUIA PECCAVIMUS propterea mæstum factum est cor nostrum, ideo contenebrati sunt oculi nostri.
Thren. 5. 16.

Ah, gure Jangoico maitagarria, ta nola galdu ditugu guc gueren buruac? loitu dugu beca. tuz gueren anima, ta damuz, ta tristuraz bete ditugu gueren bihotzac! Cer gatic hau? Ceren, zure erran errazac eguin beharrean, eguin ditugun aurqueri ero batzuec! Orretan ari guiñanean, gauz-andiren bat eguiten guenuela, uste guenuen guc: baña azquenean eroen ustea cen gure uste gucia! Eguin orduco, ezagutu guenuen gueren eraqueria; bada etzigun utci gueren eguin-galgarriac, eguin guenuelaco damua, ta nai-gabea beste gauzaric! Berriz, ta berriz ere artara guiñan gu, ero char galduoc; baña, gueren buruac gueiago galtzea, ta zuri atsecabe andiagoac ematea beste ondasunic atera gabe. Orra gure ibillera galgarriac! Orra zori gaistoco gure ibillerac!

Onetan galduac dira, ongui vicitceco, niri nere Jangoicoac emancizquidan, egun ederrac!

rac! Ah nere egun, damu gaiſtoan nic neronec gaizqui galduac! galtzeco ba cendeuzte, etzinduzquet, ez galduco, galdu zaituztedan bezain, aiſa! Zuec galtzeco, eguin ditudan, charqueri loiac illundu didate nere barren gucia, ta alquez beteac utzi dituzte gaur nere beguiac! Nola nic gaur-guero beguiratuco diot, onen charqui eranzun diodan, nere Jangoico maite onguilleari? Cer daquit bada! Urricalduco al-zait, alquez ta damuz beteric ecuſten navenean, orain ecuſten na-ven bezala! Bai baldin bere! Bai, nere Jangoico maitea, bai; urrical zaitez gaur errumes char becatari gaiſto galdu onetaz. Eguinaz damuturic nator ni, dacuſazun bezala; ta berriz lengo gauza charretatic batere eguiten ez dudala, ta al ditudan, on guciac eguiten ditudala, zucen vicitzeco gogoz ta aſmoz beteric nator. Zuri zor dizut oraingo nere gogo-aſmo hau ere. Bete dezadan oſoro, edo daguidan zucen, eguin uſte dudan, hau gucia, indazu bertatic nere orain arteco gaizquien barcamentua, ta cere laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

II.

LÆTANTUR CUM MALEFECERINT, & exultant in rebus peſſimis, quorum viæ perverſæ ſunt, & infames greſſus eorum. Prov. 2. 14.

Gaiſtoen on gucia gaitzean da, ta, gaiſta-querietan (ala izandu da beintzat nerea, ta zori gaiſtoan al-ere!). Cembat andiagoa den, gaiſtoac eguiten duten, gaiſta-queria, ambat gueiagocoa gaiſtoen atteguiña-contentua!

Gaiſtoen videac vide macur, galdu, galgarriac dira; Orietan dabilizanen, pauſuac pauſu loi beltz-itſuſi gaiſtoac dira; ta ſu-lezeco urcabera, edo neque arrigarrira daramaten pauſuac! Ara ninjoan ni ere nere pauſu, ta becatu gaiſtoequin; ta, den bezain, ona ez izatera nere Jangoico maitagarria, an nintzan ni, norc daqui cembat urte onetan; ta an urratua nintzan ni, ta urratu beharra beti ta beti ſecula gucian!

Hau ba-daquit nic: eta etzait al ere damuz lertzen nere bihotz hau? Lertu citzaien, edo damuz ill ciran, ni bezain obendun etciran, cembait beren becatuen, ta Jangoicoaren cerbait ezaguera artu zuteneco. Etzait niri lertcen nerea, edo iltcen ez naz ni, ezagutu gabez cein izu-

garri-galduac diran nere becatuac, eta cein andia, Jangoicoari zor diodan, amorea! Ezagu ba nintza orain bad-ere! gueroz pausu garbi-equin ibillico nintzaque ni, ta Ceruco vide zucenean: gueroz maitatuco nuque nic, guztiz ni maite naven, nere Jainco maitagarria, ta azquenean izain nintzaque ni zori oneco doatsuetatic bat. Ala guerta dedilla: bai arren, bai.

III.

INIQUITATES SUÆ CAPIUNT IMPIUM, & funibus peccatorum suorum constringitur: ipse morietur, quia non habuit disciplinam, & in multitudine stultitiæ suæ decipietur.
Proverb. 5. 22.

Gaistaqueriac, eta becatuac dira gaistoaren arrapatzalleac. Onec dira onen soca-locarriac. Cembat becatu gaeiago dituen becatariac, ambat obequi estutcen dute hau bere becatuac, eta uzten dute era, ta trance aguitz gaistoagoan. Garai onean urratzen ez-pa ditu, edo oitzen ez-pa da becataria, gaistoac utziric, gauza onac eguitera, mundutic ateraco da, bere becatuen soc artetic atera gabe, ta arquituco du bere burua eraqueriz, obenez, ta becatuz bete lotua. Ah cer arquiera!

Orduan errain du, bai, becatariac; eta errain du, damuz, urriquiz, ta nai-gabez beteric arquitzen dela: ona certara nauten ni nere aisa vici naiac, eta nere ibillera galduac! Ona cer dacarren, onez erraten diran, gauzac ez artu naiac! Ez aditu eguiten nien nic nere Gurasoei, Predicariei, ta behar bezala hitz eguiten cidaten, guciei! Nere gogo gaistoa cen, esquer-gabeco lanac niri eracusten cizquidan, nere Maisu-nagusi-galgarria! Maisu-nagusi onec aguintcen, edo manatcen cizquidan, gauzac ciran, nic pocic eguiten nituen, gauzac; eta, gauz orietara oitu nintzanetic, beguitan artuac neduzcan barurac, otoitzac, confessioneco lanac, lagun onac, eta, vicitza onera eraman nintzaqueen, gauza guciac: eta Christau artean vici ba nintzan ere, Gentil, ta Turco bat bezain gaizqui vicitu nintzan, Maisu onē escolan nembillen demboran! Ona, orain nic ezagutcen, ta borchaz bad-ere aitortcen dudan, nere contraco eguia!

Eguiaren arrigarria! Ez al dezu zuc ere, nere eraco becatariac, ill artean utzico onen aitor-era! Ez nuque nai beintzat, nere Jangoico guztiz maitea: ta orain--dañocoan urriqui--damu hau artu-baguez nago orain, na-

goca

gòen adiña becatu-requin! Becatuz beteac daude nere beguiac; becatuz beteac nere oñac, becatuz beteac nere escuac, nere ezpañac, nere belarriac, nere mihia, ta nere bihotz guci-gucia! Becatuz becatu nabillela (ta ala gaizqui) joan dira orain-dañoco nere egun guciac! Nic urratu alac baño, sendor-agoac dira, era orretan ibilli nazan demboran, eguin izandu ditudan, nere becatuzco cateac! Quendu behar diz-quidatzu, nere Jangoico maitagarria, zu gana nadin damuz, ta urriquiz, ta negarra darieda-la, zu gandic uste dudan barcamentuaren, ta zure graciaren esque; ta bata ta biac erdisi ondoan, bien esquerrac ematera. Ah! cein gogo betez, cein ciñez emain nizquitzu-quedan esquer oriec! Eguizu ambeste, gueiegui ni gatic eguin dezun, Jaun on maitagarria. Bai arren, bai.

(1) c. 8. 6. (2) *Ps.* 8. *à v.* 9. (3) *Homil.* 18. *in Genes.* (4) *Pedag. c.* 5. (5) *Prov.* 22. 6. (6) *Job.* 16. 15.

SEIGARREN OTOITZ-GAIA.

NOIZCOA DEN GURE JANGOICOA, TA noiz-danicacoa, Jangoico berac digun, amorea.

ORain dañoco bortz otoitz-gaietan ecusi dugu gure ezer-eza, ta charqueria; oraingoan, ta urrengoetan ecusi behar dugu Jangoicoaren izatea, ta ontasuna; ecusiric, bein gu gandic Jangoicoa gana dijoana; ta guero gu gatic Jangoicoac eguiten duena, ecus dezagun azquenean, cein andia, ta cein bazter baguecoa den, guc gueren Jangoicoari zor diogun, amorea; bai-ta amore onec ordez gu gandic escatzen duena ere;

gure

gure ecuste ta ezagumentu onec ...raman gaitzan, eguin behar duguna, zucen eguitera.

§. I.

BETI-BETICOA DA, TA BETI BAT *gure Jangoico maitaria.*

EZ da Jangoicoa, ez, gañeraco gauzac bezalacoa: berez dabilleu gauza da, ta pareric ez duena. Gañeraco gauzac asi berriac dira; bada, gueiena duenac, ez ditu oraindic zortzi milla urte; ta Jangoicoa, urteac-baño, lenagocoa da; asieraric ez duen, Jauna da; beti ta beti dena da, ta eternidade guci gucicoa. Orre gatic, bere icenaz galdeguin cion batean Moysesec, erantzun cion Jangoicoac; NI NAZ BETI-BETI NAZANA. (1)

Jangoicoac eguiñac dira, guc ecusten ditugun, ta zure beguietatic gordeac dauden, gauzac; eta gauz oriec Jangoicoac eguin artean, etzen munduric, etzen munduco gauzaric, ez eta besteric ere: baña ba-cen Jangoicoa; ta Jangoicoa cen, orain den, ber-bera, ta orain bezalacoa; ta cen gaucen eguillea, edo nai zuenean, nai cituen, guciac eguin citzaquena. Oraindic munduac beteac ez ditu zortzi-milla urte; ta beste zortzi milla urtez lenagotic ere, ba-cen gure Jangoicoa; ba-cen Aita eternoa: ba-cen Seme Jangoicoa; ba-cen Espiritu Santua: edo ba cen, irur Persona den, Jangoico bacar bat.

Baña ote cen Jangoicoa, berac mundua eguin zuenetic eun milla urtez lenago? Bai ta lenago ere. Eun milla milloi urtez lenagotic ote cen gure Jangoicoa? Bai ta orduan ere. Eta Ceruan izar, lurrean belar, itsasoan are-picor, ganadu-etan ille, aritzetan osto, itsasoan ur tanta adiña milloi urtez lenagotic ere ba-cen gure Jangoicoa? Bai ta lenago ta lenago ta lenago ere.

Asima ditzaquezu, asm-al adiña milloi ta milloi urte: beste ambesteca eguin ditzaquetzu cere contuac, edo asmacioac; baña zure era orretaco asmacioac, eta contu guciac ez dira pits bat adiña Jangoicoaren egunen aldean. Ez du alabaña Jangoicoac asieraric; eternidade gucicoa da gure Jangoicoa; ta conturic baguecoac dira eternidaderen urteac, milloica, ta eun milloica, ta milloi milloica, ta nai den eran aterea gatic: bada Aingueruac bezain contari onac ba-lira ere munduco guciac; eta Aingueru, ta guizon guciac aria gatic, Jaunaren urteac sumatzen ta sumatzen; ta aria gatic bere lan orre-

orretan eun milla-milloi urtez; ta aria gatic, bein ere guelditu bague, orien gucien sumacioac elcarri iratzia gatic, sumacioco urte gueiac, ecer-ez bat bezala, liraque, Jangoicoac iraundu duen urteen aldean; bada urteen sumacioac, naiz liza quela sumacio, lizaquen baño, andiagoa, ta andiagoa, izain luque bere asiera, ta bucaera; ta Jangoicoaren urteac ez dute asieraric, ez eta bucaeraric ere; beti beticoa da alabaña gure Jangoico maitaria. Izatearen lucea! izatearen icara-garria!

Baña nola egondu ote cen gure Jangoicoa orrembat urtez, edo eternidade gucico urteetan? Orainche bezala, ta beti-beti bat. Ez du Jangoicoac eritasunic, ez du aldarteric, ez du zartzeric. JANGOICOA NAZ NI, dio berac Malachias Profetaz, TA ez NAZ MUDATZEN BAT ERE (2). Beti beti arquitzen da Jangoicoa era, ta guisa batean; beti beti, berac nai bezala; ta beti-beti atseguin contentuz betea. Etzen Ceruric, etzen, Jangoico bera beste gauzaric, berac eguin cituen, gauzac eguiten asi artean, ta eternidade guci gucian: ta ala ere, orain Ceruan, bezain aisa, ta ongui cegoen orduan gure Jangoicoa: cegoen alabaña bere baitan; ta Jangoico bera da bere toqui, bèra egolle, bèra da bere atseguin; ta atseguin garbieder ecin andiagoa; ta bera da, den, ta asma ditequen, guci gucia baño, anitz, eta anitz gueiago, ta aguitz obea.

Etzuen Jangoicoac Ceru beharric, ez eta gure beharric ere, ecin-gueiago-rañoco, doatasunez, ta atseguin contentuz beteric vicitzeco. Eguin ba guinduen gu, gure ona gatic eguin guinduen, ta gu atseguin contentuz beteric secula gucian iduquitzeco; ta, ori guri irabaz-eraci naiez, Jangoico berac eguiñac dira Ceru-lurrac, eta gañeraco gauzac ere. Hau ongui, ta den bezala, ezagutzen dute, bai, orain Ceruan arquitzen diranac, eta, ecusiaz arrituric, cer eguin ez daquitela daude, onembat eguite, ta ontarte gatic esquerrac Jangoicoari emateco. Ecin quendu dituzte Jangoico bera gandic beren beguiac; eta beti daude Jauuaren laudarioca, ta esaten dutela; guztiz ONA, guztiz ONA, ta SANTUA zara, nai dezun gucia daguiquezun, ta BETI ciñan, gaur ZARAN, ta eternidade gucian IRAUTECO zauden, gure JAUNA, ta Jangoicoa (3).

Orra; gure JANGOICOA da bacarric, bere izatea besteri zor ez diona; ta gañeraco gauza guciac Jangoicoari zor diote beren izatea. Bai; Jangoicoac egui-

eguiñac dira, dio Davidec, hurra, ta mundua, beste gauza guciequin; ta Jaunaren escuetaco lanac dira Ceruac; bai ta, Ceruan arquitzen diran, izarrac, eta edertasun guciac ere. (4)

Orra: gañeraco gauza guciac, zartzen diran, gauzac dira; ta berèz bucatu beharrac; eta, irauten duteño ere, diraute, ceren Jangoicoac daduzcan bere escuz; bada, Jañgoicoac escuric uztera, bertan guelditaco liraque ecer-ez eguinac? eta, izandu ezpa-lira baño, guenago agueri ez dirala. Ecin buca ditequena, ta BETI-BETI bat dena, ta era batean BETI arquitzen den, gauza Jauna da, dio Davidec berac, edo haren ezpañez Espiritu Santuac (5). Ala da, dio San Pabloc ere; ez da, ez, Jangoico bera baicic, ecin buca ditequen gauzaric (6). Gañeraco gucioc Jangoicoari zor diogu gueren izatea, ta gueren irautea. Ez guiñan izaten asico, Jaunac gu gueren ecer-ecetic ez-pa-guindu atera izandu; ta ecer-ez bereraco guiñaque, escutic Jaunac utzi ezquero.

Hau hitzez aitortzen du becatariac, dio San Pabloc; baña esquer-gabe gaistoa da becataria; ta eguinaz, lanez, ta ibilleraz ucatzen du gucia; ta vici da, bere escucoa bai-liz bezala, ta Jaunaren beharric ez duenaren eran (7). Jesus! cein guti dion orretan Apostoluac, dio San Bernardoc! Bacarric nai luque vici, edo Jangoicoric bague, becatariac, gaizqui ta bere gogora vicitzea gatic; eta ecin eraman du Jaunaren betico-tasuna, etorquizunaren beldurrez: ain galdu amurratua da becatuaren gaistaqueria! (8)

Orrelaco-etatic ote naz ni ere? Izandu naz beintzat, becaturatzen nintzan gucietan; ta ala naz orain ere, orain ere ni becatutan, arquitzera, ta Jauna-requin baqueac eguin baguea. Hau ba-daquit; eta ez naz negarrez urtzen orain-dañoco nere eraqueriac gatic? Becaturic eguin ez duten Ainguruac, eta bereu Jauna beti ta beti maitatu dutenac, icara daude, ta beguiac ecin jaso dituztela, Jaunari beguiratzeco! Cer gatic ote? Ceren ecusten duten batetic beren ezer-eza, ta asiera berria; ta bestetic Jaunaren izate andi eternidade gucicoa; ta nic, gauza cirtzill, becatari loiac, becaturatzen nazan aldi oro, oin pean bezala dacart eta beguiratzen ere ez diodala, eternidade gucico nere JANGOICO bera!

§.II.

§. II

BERA DENETIC, EDO ETERNIdade gucian bere gogoan iduqui guitu, ta gaduzca gu gure Jangoicoac.

CEre charqueria, ta esquergabe-tasun hau obequi ezagutuco dezu, oartzen ba zara, secula gucian zuc cere Jangoicoari zor diozun gauza batera. Cer gauza ote da gauz orren argui-gaille ori? Iduqui zaituen bezala, zu cere Jangoicoac beti bere gogoan iduquitzea. Bai; eternidade guci gucian, edo asieraric bague, ta beti ta beti gogoan iduqui zaitu zu cere Jangoico beti-beticoac, bein-ere-bein ere bere gogotic utzi bague.

Jangoicoa Jangoico denetic, ni nere Jangoicoaren gogoan? Bai; ta dembora pits batez ere haren gogotic atera bague! Ez bide cequien Jangoicoac, cein charra, cein galdugaistoa izain nintzan ni, berac eguin ondoan? Bai; ba-cequien ori gucia; ta ba-cequizquien, eguin ditudanean bezain ongui, eternidade gucian nere gaistaqueri guciac, nere oben-culpac, eta nere uts andi ta chiquiac! Eta alai ere bere gogoan nenducan ni nere Jangoico maita-garriac? Baietz. Certaco ote? Dembora cetorrenean, niri emateco, eman cidan, osasuna, ta gracia: becaturatzen nintzanean, andic lembaitlen irteten, edo ateratzen niri laguntzeco; ta, gauz onac eraguinez, ta eguiten lagunduz, ni azquenean bere Cerura eraman naiez.

Baldin ba-cenequi, gogoan zaduzcala zu cere Erreguec gau ta egun, goiz arrats, hordu oro, ta beti ta beti; ta gogoan zaduzcala, bere demboran ondasunez zu betezeco, cere gaizquiac zuri hitzez ta bihotzez barcatzeco, gaizquien barcamentua zuc ciñez escatu-orduco, oriec zuri barcatzean ondasun-berriac zuri cerorri emateco, ta azquenean, zu nor ba-zara, bere Erreinuco Zaldun, ta Principe eguiteco: baldin hau gucia ba cenequi, cer agurrac eguinen cenizque Erregue onen onari? Cein ciñez servitzatuco cenuque? Eta cembat eguinen cenuque, nai-gaberic chiquiena hari ez ematea gatic, eta nai duen gucia, nai duen lan-duan, ta alic zucenena eguitea gatic?

Eta cer lizaque zure Erregueren oroitze on gucia, ta ongui naia, zuc cere Jangoicoari zor diozun, eternidade gucico zutaz oroitze, ta ongui naiaren bazterrean? Ceru guciaren

aldean amets bat, edo pitsic chiquiena baño, anitz, eta aguitz gutiago. Bada ambat zorco bacenioque zuc cere Erregueri, orren gauza chiquia gatic, cer zor ez diozu cere betico Jangoicoari, adiraci dugun, bere ontart andia gatic; eta eternidade gucian zu, iduqui zaituen bezala, bere gogoan iduquitzea gatic? Munduan denec ecin adiraci dezaquen adina!

Ah, betico nere Jainco onguille maita-garria! Ni gogoan naducazula zu beti, ta secula gucian, beste eguitecoric ez-pa-cenu bezala! Eta ez-pa-ciña baño, gueiago zuri beguiratu bague ni, gueienean beintzat! Gogoan arturic zuc ni, bein ere gogotic ez uzteco, ta noizbait nic zu nere gogoan artua gatic, artu oi, oztasun andia-requin, ta bertan edo laster gogotic uzteco! Zure asmo, ta eguite guciac ez naute ni atera izandu zure gogotic eternidadean; ta ni, zu gogotic uzten zaitudala, edocein ciquinqueri, edo cirtzilleria nere gogoan erabiltzea gatic! Zuc ni cere gogoan beti, niri ongui naiez; ta nic zu ez erabilli nai nere gogoan, nere ona gatic, eta esquerdun onaren leguez bada ere! Ecusi du niorc oraindic onelaco eraqueriric?

Ni ba-nintz ere beti-beticoa, Jangoicoa den bezala; ta Jangoicoa ba liz ere ni bezain urte guticoa, eraqueri andia lizaque, ni artaz, oroitzen nazan baño, gueia gotan ez oroitzea. Ecus zazu bada, cer eraqueri den, izanic ni, nazan demboracoa, ta Jangoicoa Jainco denecoa, edo eternidade gucicoa, Jangoicoac ni, narabillen bezala, ta beti gogoan erabiltzea, ta nic hura, da rabildan bezain bacan, ta charqui erabiltzea!

Bucatu al da nere oraindañoco eraqueri galgarri hau? Artuco al dut gaur-danic gogoan maiz, ciñez, ta behar bezala nere betico, ta beti ni gogoan iduqui naven, Jangoico maitagarria? Bai; nai-ez-pa-dut, aren gogotic laster atera, ta galdu nazan, nere esquer-gabetasunac, edo oni darraicon, vicitza gaistoac! Ala izatera, eguin du nereac; eta gueroz niri nere Jangoicoac beguiratua gatic, beti ta beti beguiratuco dit beguirune gogorra-requin, ta nequez ta tormentuz beteric sulecean iduquitzeco.

Ez, nere Jangoico maitea, ez! Orrela zu nic ez ecustea gatic, artuco zaitut alic maizena nere gogoan: emain dizquizut alic onguiena nere esquerrac: escatuco dizut cere leguearen, ta, eguin behar ditudan, gau-

gauzen berria : escatuco dizut, oriec escatzen duten, laguntza, ta gracia ; ta onequin batean eguiñen dut al-eguiña, guci-guciac, zucen eguitea gatic. Ala guerta dedilla ; bai arren, bai.

I.

APUD QUEM NON EST TRANSmutatio, nec vicissitudinis obumbratio. Jac. 1. v. 17,

Lurreco gauzac gauza charrac dira, ta ez daude luzaro, ez, era batean. Gaur loretan bezala arquitzen diran, gauzac bigarco, edo laster igartuac daude, ustelduac daude, illac dautza, edo ez dira arquitzen leneco eran. Gaur nai dugunaz aspertuac gaude bigar ; orain ongui deritzagunari, ecin guero beguiratu diogu ; ta ascotan beguitan arturic daducagu, len ecingueiagoraño maitatzen guenuena. Eritasunac, edo nai gabe batec illuntzen ditu egunic argui-eriac, edo quezcaz betetzen ditu bihotzic ariñenac. Aurtasunari darraico gaztetasuna, oni urrengo sasoia ; sasoiari zartasuna ; ta zartasunari eriotza ; ta ascotan eriotzac urratzen ditu, zartasuneraco, sasoieraco, edo gaztetasun-eraco videac : eta vici dedilla bat luzaro, edo ill dedilla lenago, beti dabil aldarteca, ta era edo estadu batetic bestera. Asieraric baguecoa, aldarteric ez duena, ta beti ta beti era batean, ta nai bezala arquitzen dena, Jauna da bacarric, dio Santiagoc.

Zori oneco humeac gu, onelaco Jaun baten Leguean vici garanoc ; bada, legue hau zucen gordetzera, edo eguiten badugu, bere Leguean Jaun onec manatzen diguna, eramain gaitu bere Erreinura, ta an iduquico gaitu bere eran, edo eritasunic, zartzeric, eta aldarteric bague, ta atseguin — conzentuz beteac eternidade guci gucian ! Uste onequin norc ez ditu pozic artuco Jesusen Legueco nequeac, eta naigabe guciac ? Ni beintzat prest nago, nere Jaun eternidadecoa, zuc nai dituzunac artzeco ; ta eraman uste ditut guciac cerorrec laguntzen didazula. Ala guerta dedilla, seculaco nere Jangoicoa : bai arren, bai.

II.

COGITAVI DIES ANTICUOS, ET annos aeternos in mente habui. Ps. 76. 6.

Jaunaren lenagoco egun urrunac, eta beraren eternidadeco urte luceac goiz asqui barraiatzen zuten Daviden beguietaco lo gucia ; ta orien oroitzapenac,

eta iraute arrigarriac ceducaten gau gucian, non arquitzen den, ez daquienaren eran. Guisa berean iduquico ninduque ni ere, haren eran nic oriec gogoan erabiltzera, edo urte orietara, ta orietan Jaunac eguin duenari beguiratzen niola, nic erratera: eternidade guci gucian nere Jauna ni beiñ-ere bere gogotic uzten ez navela! Eternidade guci-gucian, ni bague, nere Jaun andia, ta ecusten duela ere, ez orduan, ta ez bein ere beharco navela ni pits bateraco, ni gandic beguiac ecin quenduz bezala, ta ni guero, eguin ondoan, ondasunez ta ondasunez betetzeco asmoan! Eternidade guci-gucian ecusten ta ecusten nere Jangoicoac, nic nere demboran eguinen niozcan, charqueriac, eta vide-bagueac, edo nere vicitzaco oben-culpa andi ta chiqui guciac; eta al-ere uzten etzuela, ni eguiteco, asmoa, ta ni ondasunez beteric utzi naia! Eternidade guci-gucian Jaunaren gogoan nere berarequico esquer-gabe-tasuna, nere artaz ez oroitzea, nere antuste galdua ta arrotasuna; ta guci-arren asaldatu bague nere Jangoicoa, ta, asserretu beharrean, nondic niri eguinen cizquidan, escura nintzaten, onac, onguiac, eta ondasun andiac! Ez da hau gucia nor-nai, Daviden eran arituric uzteco diña, ta anitz gueiago! Ala da, bai, nere Jangoico maitea! Baña ez ni orain-dañocoan orretara oartu! Ni nere eraquerietan orain-dañocoan gogoz ta bihotzez ibilli izandu! Eta ni lotan egondu gau ta egun ta nere vicitzan, edo bein ere gogan artu bague, behar bezala beintzat, nere Jaunaren eternidadea, ta eternidade gucian zor izandu diodan, ongui-naia ta asmoa! Gaur-danic bad-ere ar banitza, ez uzteco nere vicitzan, ez eta eternidadean ere! Ala guerta dedilla. Jangoico maita-garria; bai arren, bai.

III.

ECCE MENSURABILES POSUISTI dies meos, & substantia mea tanquam nihilum ante te.
Ps. 38. 6.

Ongui ezagunac dira, eran dezaquet Daviden eran, ta ongui laster bucatu beharrac, nere egunac; bada, gueien gueinaz ere, ez dira eun urte betetzeco diña: ta millaren betegarriac izan atren, cer liraque guciac, eternidade gucico Jaunaren egunen aldean? Ez eta hordu-laurden baten millagarren zaticho bat ere. Eta ala ere nere gogoan nic nere egunac: nere

go-

gogoan nic nere eguneraco lan charrac, eta asmoac! Eta ez gogoratzen ere nioiz niri eternidade gucico Jaunaren egunac, eta, egun orietan izandu dituen, nere oneraco asmoac, eta asmoac!

Ecer-ez bat izan ni Jaunaren beguietan; ta gauz andi bat ba nintz bezain arroa ni nere beguietan, ta nere ustez! Ez da hau, ecus dezaquedan, eraqueriric andiena? Noraco nau ni nere antuste tzarrac? Cer billatzen ote dut nic onen ibillera macurra-requin? Cer billa dezaquet? Beti-betico nere Jangoicoa betico galtzea! Eternidade gucico nequeac nere gain ditudala erretzen, ta urratzen beti ta beti egotea! Hau da nic billatzen dudana nere ibillera galdua-requin. Nere eroeguia! Ez, nere Jangoico maitea; ez gaur guero nic onelacoric! Nic bertan artuco dut beste videric. Nic artuco dut zure mandamentuen videa, bai ta lenagoco nere ibillera gaistoen damu, ta urrriquimentua ere, erraten dudala: NERE JESU CHRISTO JAUNA, TA JANGOICOA, &c.

(1) *Ego sum, qui sum. Exod.* 3. 14.

(2) *Ego enim Dominus, & non mutor. Malach.* 3. 6.

(3) *Sanctus, Sanctus, Sanctus Dominus Deus Omnipotens, qui erat, & qui est, & qui venturus est. Apoc.* 4. 8.

(4) *Initio tu, Domine, terram fundasti, & opera manuum tuarum sunt Cæli. Ps.* 101. 26.

(5) *Ipsi peribunt, tu autem permanes, & omnes sicut vestimentum veterascent... tu autem idem ipse es, & anni tui non deficient. Ps.* 101. 27.

(6) *Solus habet immortalitatem. 1. Timoth.* 6. 16.

(7) *Confitentur, se nosse Deum, factis autem negant. Tit.* 1. 16.

(8) *Omnino execranda malitia, quæ Dei potentiam, iustitiam, & sapientiam perire desiderat. Serm.* 2. *de Resur.*

ZAZPI-GARREN

OTOITZ-GAIA.

NORAñOCOA DEN JANGOICOAREN IZATEA,

CEmbat ere andiagoa den ontarte-guillea, ambat gueiago valio du haren escutic artzen den, ontarteac: orre ga-

tic

tic aguitz naiago du batec, zaldun batena baño, Emperadorearena, edo, munduan den, guizonic andienarena. Ecusteco bada, norañocoac diran, Jangoicoari zor diozcagunac; eta, oriec dacazten, zorrac, ecusi behar dugu, norañocoa den Jangoico beraren izatea.

§. I.

ECIN NEURRI DITEQUENA DA, ta ecin andiagoa Jangoicoaren izatea.

NAi bezain hastiro, ta nai adiña demboraz aria gatic gu Jauna neurritzen, edo, norañocoa den, ecusten ta ecusten, pits bat bezala izain da ecusten dugun-gucia, ecus-quizunaren aldean; ain andia da alabaña, ta ain bazter baguecoa gure Jangoico ouguille-maitagarriaren izatea. Eta ecusten duguna ere, ecusi beharco dugu, bein Jangoico berac eguiñicaco, ta eguin lizaqueen gauzen arguiarequin; ta guero fedez ta sinistez. Ar dezagun lembicico lecuan, Jaunac eguiñicaco gauzac ematen digutena.

Andiac dira, daquizun bezala, itsasoaren oiñac, eta bazterrac; andiac dira lurreco navac, edo celaiac, bai ta aldapac, eta mendiac ere: andiac dira Aiceco odeiac; andiac izareguzquiac, eta Ceru guciac. Eta Jangoicoa? Oriec guciac baño andiagoa. Bai: dio Job Santuac; CERUAREN ERPIñA BAñO, GORAGOCOA DA JANGOICOA; INFERNUAREN ONDOA BAñO, ONDORAGOCOA DA: GARAITZEN DITU LURRAREN NEURRIAC, ETA ITSASOA BAñO, ZABALAGOA DA (1). Ecusten dezu, norañocoa den Jaunaren izatea, berac eguiñicaco gauzac adirazten dutenaz. Bai? Bada zure ecuste ori gucia guztiz laburra da, Jangoicoac eguinquizun daduzcan, gauzen ecusteac adiracico dizunaren aldean. Adi zazu, ta gogoz ecusi, gauz onen gain erratera noana.

Ceruaren gañean, edo, Ceruac bucatzen diran, lecutic goiti eguin litzaque Jangoicoac toqui berriac; eta toqui orietan eguin litzaque, Ceruan, lurrean, Itsasoan, ta bazter gucietan arquitzen diranac, adiña gauza, ta gauz-etatic bacoitza, oraingoac bezain andia, ta oraingoac adiña bazter, ta toqui dituena. Eguiten ba-litu gauza, ta toqui oriec, guciac beteco lituque gure Jangoicoac, oraingo toquiac, eta gauzac betetzen dituen

tuen bezala. Berebat guertatuco lizaque, oraingo, ta orduco mundu, toqui, lecu, ta gauza guciac baño, eun milla milloi aldiz, ta asim-al adiña bider andiagoac, eta andiagoac eguiten ba-litu ere; eguin litzaquen bezala; bada guciac beteco lituque; ta, bat ere bete ez-pa-lu bezain betetzallea guelditzen lizala gure Jangoicoa.

Hau ezaguturic, Baruch deritzan, Profetac, galdetzen du: ta, NORC ARQUITUCO DU, (edo neurrituco) JAUNAREN TOQUIA (2)? Niorc ere, Jangoico berac baicic: bada Jangoicoaren izatea ez da, gañeraco gauzac bezala, besoz, beguiz, edo gogoz neurri diteguena; ta, gauzac neurritzeco, ez dugu guc oriec beste videric. Ez da ez, gure Jangoicoaren izatea, gañeraco gauzen izatearen eracoa. Jangoicoac eguiñac dira izarrac; Jangoicoac eguiñac eguzquia, ta itsasoa; Jangoicoac eguinac lurra, mundua; bai ta, munduan arquitzen diran, gañeraco gauzac ere. Eguin-quizunac, edo Jangoicoac eguin litzaquenac, eguiten ba-litu, izain liraque, oraingoen eracoac: bada izain liraque gauz eguiñac, eta cein bere neurrian sartuac; eta orre-gatic izain liraque, oraingoac bezain neurri-garriac. Baña Jangoicoa ez da eguiña: eguiñac baño lenagocoa da; ta beti ta beti, ta eternidade gucian berez izandua: ta orre gatic da, neurri guciac baño andiagoa, luceagoa, ta zabalagoa. Orrela ez izatera, edo neurri garria ba-liz, ez lizaque gure Jangoicoa Jainco; bada Jaincoa da asm al ditequen baño, gauz añdiago bat; eta neurri ditezquen gauzen artean ez da orrelacoric bat ere.

Hari zaitezque bada nai adiña demboraz Jangoicoaren izate andi-luce-zabala neurritzen, ta neurritzen; baña eun, ta eun milla bider milla urtez orretan zu haria gatic, asi ciñanean bezain, berri egoin ciñaqne cere neurri-contuetan; ceren ez asieraric duen, ez bucatzeric, eta ez bazterric gure Jangoicoaren izateac; eta asieraric, bucaeraric, eta bazterric bagueco gauza, secula gucian orretan, hari-alac haria gatic, ecin neurri ditequen, gauza den. Orra norañocoa den gure Jangoicoa, edo Jangoicoaren izatea! Ecin andiagoa, ecin neurri ditequena, ta bazterric baguecoa! Baña, cein ere ona den neurri-vide hau, obea da fedezcoa; ta, ori bucatu ondoan, goacen emendic ere gure Jaunaren izate berari neur-

aldi

aldi, edo beguir aldi bat eguitera.

§. II.

NON NAI ARQUITZEN DA JANgoicoa, non nai, ta beti gu centzarati naiez.

ALdebat utziric, ecin atera ditezqueen contuac, eta, Jangoicoac eguin litzaqueen, lecuac, beguira dezogun orain gure Jaunaren izate andiari, eguiñic dauden toqui, edo gauzetan; ta ecus dezagun, certaco den orren orco egoera. Beguira dezogun, bai: bada cembat ere gorde-estalia dagoen gure Jangoicoa, ecus dezaquegu fedearen, edo Ceruco siñistearen arguia-requin. Onela ecusi zuen Moysesec, San Pabloc dionaz (3); ta guisa berean ecusi zuen, beste anitzen artean, Erregue Davidec ere. Zoaz bada, argui hau arturic; zoaz, oñez ez-pad ere, gogoz: zoaz, zoaz Cerura, zoaz Lurpera, zoaz Itsasora, zoaz Munduaren bazter gucietara: guci-etan idiroco dezu, Davidec bezala, cere Jangoicoa; ta errazu onequin batean: „ Cerura ba-noa, an zaude zu (nere Jangoico maitagarria:) Infernura jaisten ba„ naz, an arquitzen zaitut; eta „ egaztia bezala, goicean, egoac „ arturic, joaten ba-naz itsasoaren „ urruti-eneco bazterrera, anche „ arquituco dut nic, niri lagutze„ co, prest zure escua. (4)

Guero erran dezaquezu: ta ah! cein bazter gabecoa den, ta cein andia, gure Jangoicoa! Nabillela, nai dudan, toquian, ecin nabilque, ez-pa-da Jangoicoac artua daducanean: bada Jangoicoac artuac daduzca lecu guciac, eta gucietan egon behar du beti, ta beti! Erne dabiltza, ta guztiz oartuac, lurreco Erregueen echean, edo guelan dabiltzanac! Bururic gabea bear dut izan nic, ez pa-nabil ni ere era berean non-nai, ta beti: bada nagoela ni, edo nabillela, beti arquituco naiz Erregueen Erregue, nere Jangoicoac beretzat artua daducan, toquian, ta guelan!

Siñisten ba-dut hau, ta al ere ba nabil, siñisten ez-panu baño, gueiago nere Jangoicoaz oroitu gabe, ta, orain-dañocoac bezalaco, charqueriac eguiten ditudala, gure Jangoicoa Jangoicotzat artu nai etzuten, cembait. Indietaco gaisto baño, aguitz gaistoagoa naz ni: bada oriec baño gueiago deshonratzen dut nic nere Jangoicoa! Indietar cembaitec, aditu

zute-

zutenean, arquitzen dela, Ceruan ez-ecic, Munduco bazter gucietan ere, gure Jangoicoa, etzutela nai hau, erran zuten, beren Jangoicotaco „ bada Jaincotzat artu ezquero (cioten) „ bazter guciac betetzen dituen, „ Jangoicoa, ez da non eguin „ guezur-ezco juramentu bat, „ non edan behar baño, gueiseago, edo non artu, cillegui „ ez-diran, atseguin, edo gustoac; eta ez gaude gu gauz „ oriec, eta orrelacoac uzteco „ asmoan.

Hau cioten Indietar gaistoac. Eta cer ote da zuc cere siñeste gucia requin erraten dezuna? Zuc diozu, nai dezula cere Jangoicotaco bazter, ta toqui guciac betetzen dituen, zure Jaun andi hau: ta, Indietarrac erran zutena ba-cenio baño, gueiago beguiratzen ez diozu zuc cere Jaun andi oni! Bada, zu zauden, lecuan ez-pa-lego bezala, eguiten dituzu, Jaun oni beguitan ematen dioten, anitz gauza char itsusi, ta orre gatic zuc hau cere Jangoicotzat artzea da, cere alque-gabe-tasuna obequi eracusteco, ta, beren Jangoicotzat artzen ez dutenac baño, gaistoago izateco: ceren gaistoago den, arrotzari baño, ezagunari edocein charqueri eguitea; ta arere gaistoago beste edoceñi baño, Jangoico berari ori eguitea.

Ala da, nere Jaun andia, ala da, bai! Nere ezaguna ez-ecic, nere Jangoicoa zara zu; ta nere Jangoico, servitzu, agur, ta maitatze gucia zor zaitzuna; ta zutaz, deus zor ez-pa-nizu, bezain anztua vicitu naz ni orain-dañoco guecienean, edo beintzat anitz demboraz! Eta, hau guti ba-liz bezala, eguin dizquitzut nic charqueri anitz, lenagoco nere charquerien gain; ta izandu naz ui Indietaco gentilac, eta alderagoco Turcoac ere baño, gaistoagoa! Hau, adimentu-dun edocein arritzeco den, gauza da; baña, onec baño, gueiago arritzen nau ni, orain ecusteac, ecusten dudan eran, eguin ditudan, adiña gauza gaisto-itsusi eguin ondoan, viciric naducazula ni zuc!

Certaco ote naducazu zuc viciric ni, nere Jaun-andia? Gauza gaistoagoac eguiteco lecua niri ematea gatic? Ez, baicic, ezagu dezadan orain arteco nere eraqueri zoratua. Ah! orain bad-ere sar-ba- nendi ni, ain ongni dagoquidan, ezaguera onetan! Gueroz, uste dut, ez nuquela charqueri berriric eguiñen; ta charqueri lecuan, eguiñen nituquela, zure legue

garbiac escatzen dituen, gauzac. Lenago hau eguin bagueaz dut damu; ta ciñez al ere. Barcatu arren nere Jangoico, maita-garria; barcatu niri orain-dañoco nere utsac, eta oben-culpa guciac. Eta indazu, utsac, eta culpac ni gandic urrun aienatzeco, nic eguin beharrac diran, gauza guciac zucen eguiteco, ta, cein andi-ona zaran zu gogoan dudala, beti vicitzeco gracia. Bai, arren, bai.

I.

MAGNUS EST, ET NON HABET finem, excelsus, & immensus.
Baruch. 3. 25.

Andia zara, bai; ta guzriz al-ere nere Jainco maitea; bazterric gabecoa zara, bai ta neurri guciac baño, luce-zabalagoa. Bazter guciac betetzen ditu zure Jangoico-tasunac; eta non nai arquituco zaitu, zucen billatzen zituenac. Arritzen nau, bai, zure izate ecin andiagoac; eta, izateac ere baño aguitz gueiago, zor dizudan, zure amoreac! Zure amore, ta izate andi one gatic escatcen dizut, non nai, ta beti, zuc nai eran nic vicitzeco behar dudan, zure laguntza, ta gracia. Indazu bada, lutzatzeric bague; bai arren, nere Jaun andia, bai, bai.

II.

ECCE DEUS MAGNUS, VINCENS scientiam nostram: numerus annorum eius inæstimabilis.
Job. 36. 26.

Cerorrec daquizu, gure Jangoico maitea, cein andia den zure izatea; gure jaquite gucia ez da araño erdisten. Izatea diñacoa da zure irautea. Urtez ecin neurri ditequena da, iraute hau: beticoa da alabaña ta asieraric baguecoa. Ecin besarca ditzaque zure izat--irauteac nere adimentu char cirtzillac; ez eta bihotzac ere. Cer eguiñen dut bada, ceretzat eguin ninduzun, seculaco nere Jangoico-andia? Beguiratuco dizut noicean bein ba-dere; ta beguiratuco dizut, arrituaren eran, ta alic humilquiena. Maitatuco zaitut al eguiñean, edo nere bihotz-anima guci gucia requin: baña cerorrec artan lagutzen didazula; bada zuc ez laguntzera, ecin daguiquet nic orrelaric, ez eta aguitz gutiago ere. Lagun zaquizquit bada, nere Jaun audia, nere lan on han zucen eguiten: bai arren, bai.

III.

III.

NUNC ITAQUE DEUS NOSTER magnè... custodiens pactum, & misericordiam, ne avertas à facie tua omnem laborem, qui invenit nos. 2. Esdr. 9. 32.

Aitortzen dut nere Jangoico maitea, ta pocic al-ere, izatean ez-ecic, gañeraco gauza gucietan ere andia zarala zu, ta guztiz zucena. Zucen gordetzen dezu beti, bein eman cenuen, cere hitza: ta emana daducazu, lagunduco didazula, nere lan, ta neque gucietan, zu ganatzen ba-naz humilqui, ta behar bezala. Ona bada non nazun ni cere oñetan. Urrical-tasuna, ta misericordia da zure escuetan gueienic ecusten dudan, eguitecoa. Ez dezazula utzi bein ere cere eguitèco hau cere escu urricalti-etatic. Beguira-zadazu gaur, ta beti zuc cere begui onequin: beguira zagozu, nic eraman oi dudan, nere nequeari ere; bada nequez betea vici oi naz ni ascotan, dacusazun bezala: nequeac arquitzen ditut echean, nequeac echez campoan, ta non-nai ere!

Baña nere neque gucien artean, eguitecoric gueiena ematen didaten, nequeac dira barreneco nere nequeac. Batzuetan beintzat aguitz necatzen naute nere barrengo aztura gaistoac, nere ecin-egonac nere bihotzaren erre-egosteac; maiz asqui etortzen zaiz-quidan, nere erraien dardariac, eta, behar ez diran, gauzen oroitzapen lizun ta su-gar gaistoac. Urrical zaquizquit bada, nere Jangoico maita-garria, ta cen zaie prestu andia gatic, atera nazazu, animaco calteric gabe, nere neque, ta estu-tasun gucien artetic. Bai arren, bai: esgatzen dizut, lenaz damuturic; eta cinciñez erraten dudala: NERE JESU CHRISTO, &c.

(1) *Excelsior Cœlo est... profundior inferno... longior terra mensura eius, & latior mari Job. 11. 28.*

(2) *Quis inveniet locum eius. Baruch. 3. 15.*

(3) *Fide... invisibilem, tanquam videns sustinuit. Heb. 11. 28.*

(4) *Si ascendero in Cœlum, &c. Ps. 138. 8.*

ZOR-

upna

ZORTZI-GARREN OTOITZ-GAIA.

NORAñOCOA DEN GURE JAUNAREN EDERTAsuna; ta cembat gure oneraco.

§. I.

ECIN ANDIAGOA DA JANGOICOAREN EDERTASUNA.

ANdia bezain, ederra da gure Jangoico maitea. Izatez ecin neurri ditequena da, ta ecin andiagoa, ecusi dugun bezala, gure Jangoicoa; ta guisa berecoa da beraren edertasuna; edo, ecus ditequen baño, ecus garriagoa. „ Erregueen „ Erreguea da gure Jangoicoa, „ dio San Pabloc: manatzen „ dutenen manatzallea da, ta „ emengo batec ere ecusten ez „ duena, ta ecusi-ere ecin de„ zaquena, ecusi ditequen adiña, „ ta duen ecusgarri-tasunari da„ gocan bezala. (1)

Eta Ceruan arquitzen diranen ecustea, onen ecuste laburra bada, cer-nolaçoa izan diteque lurrean arquitzen denarena? Aguitz laburragoa, ta guztiz illuna; bada lurrecoac ez dute beren Jangoicoa ecusten, emengo figuren, ta gauza charren ispilluan ez-pa-da (2). Baña cein ere labur illuna den emengo gure beguiratze hau, asqui, ta sobera da, guri adirazteco, guztiz andia dela, ta ecin andiagoa gure Jangoicoaren edertasuna.

Nola ecusten da emen (erran behar didazu) gure Jaunaren edertasuna? Ecusiz lenic lurreco gauzac, eta andic guero beguiac zucenduz gure Jauna gana. Ala dio San Pabloc (3). Adituz guero sule-

cc-

cecoac diotena edertasun onen gain; ta azquenean edertasun berarequin Ceracoei guertatzen zaiena.

I.

Atozea: ez dira ederrac arrosac, clavellinac, eta gañeraco loreac? Ez dira ederrac itsasoco perlac, mendico diamanteac, eta, meatze-etan arquitzen diran, urre-cillar, topacio, ta beste arri fiñac? Ez dira ederrac Ceruco Izarrac? Eta ez da ederra, Izarrac berac beren Erreguetzat ezagutzen duten, Eguzquia? Ederrac dira (ecin uca diteque) hau, ta gañeraco, erran ditugun, gauzac. Baña ez du cer ecusi orien edertasunac Jangoicoaren edertasunarequin; ta Jangoicoaren edertesunaren aldean gauz orien eder-tasunac itsus-tasuna dirudi, ta illumbea: aiñ andia da gure Jangoicoaren edertasuna.

Hau ezagutzeco, asqui lizaque, ez-da—bai-da batean guc ecustea gure Jaunaren edertasunaren zatiric chiquiena. Bein Christo Jaunac aguertu ciozcan Santa Theresari bere escuac. Escuac ecuste hau ecuste laburra izandu cen; ta ala ere zoratuaren eran ibilli cen Santa, egun artan, ta beste anitz, eta anitz egunez ere. Etzitzaion orrelacoric guertatu, ecusia gatic, ecusi cituen bezala, bein ta guiagotan ere Ceruco izarrac, eta Eguzquia, itsasoco perlac, lurreco loreac, eta Mendi-etaco diamanteac, eta gauzac: eta ori guertatu lecuan, guertatuco citzaion San Ignacio Loyola-coari guertatu oi citzaiona; ta errain zuen onen eran: „ah, „ cein ciquin-itsusia iduritzen „ zaidan Mundua bere gauz„ equin, Jesusen escuac ecusi „ nituenetic!

Ongui: ta onen ederrac ba-dira Jesusen escuac, cein ederra izain ote da Jesusen guiza-tasuna? Eta onembat edertasun ematen ba-die Jesusen escuei, gorderic daducan, bere Jainco-tasunac (4), cein ederra ote da Aita Eternoaren, Semearen, ta Espiritu Santuaren Jangoico-tasuna? Ori ba-guenequi, arrituco ez guiñaque, arritu oi garan bezala, aditzen dugunean sulececoac edertasun onen gain adiraci dutena.

II.

Conjuro-etan ciarducala Frayde batec, galdetu cion bein Infernucoari, cein andia den, edo nolacoa gure Jangoicoaren edertasuna? ta sulececoac erantzun cion; „ ecin „ adi-

„ adiraci ditequeña. Galdetu cion
„ berriz. Fraydeac; eta cer egui-
„ ñen cenuque zuc edertasun hau
„ ecustea gatic? Begui-iste-ide-
„ quitze batean beguiratu nion
„ bein. Jangoicoari, erantzun
„ cion sulececo etsaiac; eta ber-
„ riz alaco beguiratze bat egui-
„ tea gatic, artuco nuque zurea
„ bezain, gorputz mimbere bat:
„ eta, arquitzen ba-nu, vide
„ lecuan, lurretic Ceru-rañoco
„ pillare bat, gucia canibet zor-
„ rotzez, lantzez, ta ezpataz
„ ingurutua, asico nintzaque
„ bertatic oñ utsac ezartzen
„ orien puntetan; ta puntaz pun-
„ ta joain nintzaque Ceruraño;
„ tricatu gabe, ta viciro al-ere.
„ Ceruan sartzeco nengoenean
„ amiltzen, edo malcortzen
„ ba-nintz, naiz dela mundu
„ onetaco errecaraño, urratuac
„ guelditua gatic, lurrera baño,
„ len ere nere ezur-zañac, eta
„ orduco nere gorputz gucia;
„ ta guelditua gatic ni milla za-
„ ti, ta odol eguiña, berriz, osa-
„ tzen ba-nindute, asico nin-
„ tzaque au bertan igaten; ta ez
„ nintzaque guelditucо, vide
„ gucia eguin, ta Jangoicoa
„ ecusi artean; jaquiñic-ere, ecu-
„ si orduco ondatuco nindue-
„ la nere sulecean, ta leneco ne-
„ què tormentu-etan. (5)

Orra gure Jangoicoac, guri bere edertasuna aguertu naiez, Infernucoari idaroquia! Orra Infernucoac edertasun one gatic eguin nai zuena! Eta orra zuc ere eguiñen cenuquena, harc bezala, ezagutzen ba-cenu nolacoa den zure Jangoicoaren edertasuna. Eta cer etzenuque eguiñen zuc, ezagutzen ba-cenu eder-tasun hau, ez Infernucoa-ren eran, baicic dena den bezala? III

Infernucoac etzuen ecusi bein-ere gure Jangoicoaren edertasuna, orain Cerucoac ecusten duten bezala; ta alere, eramain zuela, cion, aditu dezun, gucia, lenaren guisaco ecuste illun labur bate gatic. Cer eramain ez luque Cerucoen ecuste argui beticoa gatic? Eta cer ez dezu eraman behar zuc, ez ecuste bate gatic, baicic Ceruan beti, ta beti Jangoico-tasun ederrari beguira-beguira egotea gatic?

Baña cer guertatzen zaie Cerucoei, Jaunari onela beguira egotea requin? Gauza arrigarria! Gau-egunac ez-ecic, hasteac, illac, urteac, eta urteac ere joaten zaizte, oartu gabe bezala: ain andiac dira, Cerucoei Jangoicoaren edertasunac ematen diezten; arseguin-contentuac. „ Milla urte Jangoi-
„ coari beguira dagoenarentzat,
„ joan

„ joan den atzoco eguna baza-
„ la dira, dio Davidec (6).

Ecusi zazu, nolacoa izan ditequen milla urte, igaro den, eguna adiña, laburtzen dituen, edertasuna! Ori da Jangoicoarena: ta ori da oraindic zure gogoan, behar bezala beintzat, sartu ez den, edertasuna.

§. II.

GURE GOGOA CERURA ZUCEN-erazteco da gure Jaincoaren edertasuna.

JAngoicoaren gauza guciac andiac dira, ta ecin-obeac gure gogoa Cerura zucen-erazteco, ta beste anitz gauz-etaraco ere; baña gucien artean Jangoicoaren edertasunac orretaraco eguina dirudi; ta, zure gogo char ori Ceru berera zucen-erazten ez-pa-du, hari zuc beguiratu baguez da, ta ceren gueiegui beguiratu oi diezun, liluratzen zaituzten, lurreco gauzei. Bai, centzu gabea, bai: ichura cerbait duen, lurreco gauzaren bat ecusi orduco, an dira bereala zure beguiac; an da zure gogoa; an da zure bihotza, ta an bertan dira zure oroitzapen, gogoracio, ta naicunde guciac; eta, orrequin ez dituzu goititzen ere cere beguiac cere Jangoicoaren edertasuna ecusteco! Emengo gauzaric ederrenac itsusia dirudi, ta guztiz loia, Jaunaren aldean; ta ala ere emengoei beguira zaude erdi choratu liluratua, ta cere Jangoicoaz casoric eguiten ez dezula! Asma zazu asm-al adiña, adituez osterontzean, Jaunaren edertasunaren gain; baña ez dezu, ez, asmatuco, zure Jangoicoaren edertasunac dituen, milla milloi zati-etatic erdi bat ere. Eta zuc ecer ez asmatua gatic gure Jaunaren edertasun onen gain, adiraci zaitzuna bera asqui ez-ote da, edocein bihotz, Jaun eder maita-garri onen amorez urtubetea bertan uzteco? Baña aditu dezunac orretaratzen ez padu zure bihotz char ori, adizazu orain aguertzera noana.

Zauden toquian aguertzera zuri cere Jangoicoac bere izate ederra, edo, duen izateaven edertasuna, hau zuc ecusi orduco, guelldituco ciñaque, non ceunden etzenequiela; guelldituco ciñaque contentu, ta atseguin utsez betea, ta guelldituco ciñaque Jangoico beraren amorez urtua. Aldamenecoac orduan zuri cere belarrian oiu, ta oiu eguiña gatic, arriac baño, caso gueiago eguiñen etzenie-

hieque orien oiu guciei. Baña oriei baicic ez ? Lurreco Cantari, ta Musica guciac elcar arturic baleraufate ere zure aldamenean, emendic Indiac bezain, zu gandic urrun ba-leude baño, gueiago adituco etzenuque orien erausia, ta canta gucia.

Nai dezu gueiago ? Ori bada. Jangoicoaren eder tasunari beguira ceunden demboran, sartzen ba cinduzte zu, oguia sartzeco punturaño berotua dagoen, labe batean, edo egun ta erdi sutan dagoen carobian, an zure gorputz gucia quisquildu, ta errea guelditu gatic, arrizcoa ba ciña baño, gueiago etziñaque oartuco, zure gorputzac orduan lerama quen, neque arrigarrira. Ba daquizu cer gatic ? Ceren, ecusten ceunden, cere Jaunaren eder-tasunac itoa, ta urtua bezala iduquico cinduzquen bere amorearen Itsasoan. Aditzen dezu orain nolacotsua den zure Jaunaren edertasuna ? Bada guci-gucia zuri eracusteco daduca zure Jangoico maita-garriac ; eta zuri eracusteco, ez bein, edo berriz, baicic secula gucian ; ta onembat atseguiñezco ecuste onen berri hau aldi onetan ematen dizu cere Jangoico maiteac, zure gogo char ori bertatic bera gana zucen-eraci naiez.

Zori onecoa zu, hau orain, ta vici zaran arte gucian eguiten dezula, ill ondoan bein edertasun hau ecusten ba-dezu! Ba-da bein Ceruan hau zuc ecusi ezquero, ez dizu cere Jangoicoac cere begui-etatic bein ere quenduco, ta hordu beretic berico quenduco dira zure ay quezcac, zure neque-icerdiac, zure naigabeac, zure otzicarac, zure gos-egarriac, eta munduco lan, ta atsecabe guciac! Ez da, ez, gure Jangoicoaren edertasuna, emengo edertasun charrac bezalacoa. Emengoac laster igartzen diranac dira ; ta igartu baño, len ere beguiratzcen dienac asperturic utzi oi dituzten, edertasunac ; bada, den andiena, izana-gatic lurreco edertasuna, etziñaque egoin hari beguira gau ta egun haste batez, jan, ta edan gabe, ta lo ric eguiten etzenuela ; ta Jangoicoaren edertasuna ecusten duten Cerucoac, hasteac ez ecic, illac, eta illac, urteac, eta urteac, berico demborac, eta eterenidade guci-gucia eramain dute Jangoicoari beguira, ta beguira, bein ere beguiratzez aspertu gabe, ta beren beguira aldi bacoitzean, lembicicoan adiña contentu, ta contentu berriac, eta gustoac artzen dituztela ; ta beti beti egoin dira deusen ere beharric

gabe

gabe, ta bein ere den naigaberic chiquiena ecusten ez dutela.

Onembat atseguin, ta contentuz animac betetzen dituzun, gure Jangoicoaren edertasuna, noiz ecusico ote zaitugu, emen neque-ta-neque gabiltzan, gaisooc? Baña ecusico ere ote zaitugu nioiz? Nioiz ere, orain-dañocoan adiña arrastatzen ba-gaituzte gueren gogoeta charrac, eta lurreco gauzac! Gauz orietan ongui nastuac iduqui gaituzte ascotã,ta luzaro gueren etsaiac; eta iduqui gaituzte, bere sarean armi-armác euliac dauzcan bezala. Ez ote gara gauz orien sare galgarritic, eta gure leneco naspill-etaric orain badere ateraco? Ez ote gara salatuco, etsaiaren escuac garaituric, eta lurreco edertasunac, eta gauza charrac gogoz badere aldebat utziric, Ceruco videa artzera, ta Jangoicoaren arpegui ederra billatzera? Gure gan-dago ori gucia; ta, nai dugula, ba-da guiquegu guc, gure Jaunac ematen digula bere laguntza ta gracia; ta Jaunaren laguntza hau, ta gracia prest daude, behar bezala, escatzen dituen doceiñen-daco. Nai dugu bada guc; eta nai dugu bertatic, eta luzatu bague, lan hau eguiten asi; ta iguzu gure Jangoico emalle maita-garria, prest daducazun, cere laguntza ta gracia. Bai arren, bai.

I.

BEATI, QUI HABITANT IN DOmo tua: in sæcula sæculorum laudabunt te. Ps. 83. 5.

Zori onecoac, gure Jangoico maitea, zori onecoac, zure echean, zure jauregui eder, edo zure Ceru orretan vici diranac: bada ba-dute or nai duten guci gucia; ta ecusten ez dute, [illegible]seguin ta contentu ematen ez dien, gauzaric bat ere! Bai, ba-dute nai dutena; bada or ecusten dituzte zure Aingueruac, ecusten dituzte Santuac, eta ecusten dute Santu-Santen, ta Aingueru gucien Erreguina; ta ez da gucien artean bat-ere, doaiez, ta edertasunez betea ez dagoenic. Baña cembat ere ederrac diran; or ecusten dituzten, guciac, ecusten dute videnabar, deus ez bat bezala dela orien edertasuna, zure edertasunaren aldean gure Jangoico maita-garria! Oni beguira daude beti, liluratuen eran: beti daude laudatzen zu, ta bedeicatzen; beti ta beti zu maitatzen, ta onesten. Ah ni

ere

ere or berean ba-nengo orien Jagun eguinic! Araco al naz egunen barean! Ongui vicitzea da araco videric zucenena; ta, orretaraco, maiz gogoratzea Jangoicoaren edertasuna. Hau da nic gaurguero eguin uste dudana. Indazu, Jaun ederra, indazu cerorrec, orretaraco behar dudan, laguntza ta gracia. Bai arren, bai.

II.

CONCUPISCIT, ET DEFICIT ANIma mea in atria Domini. Ps. 83. 1.

Ah cein maita-garriac diran, dio Davidec, Aingueruen vici toquiac! Ara naiez nago, nere Jangoico maita-garria! Noiz ezarrico ote ditut nere oñac orien Jauregui, ta Palacio ederreco atari orretan! Ara behar dudalaco oroitza-penac berac urtzen dit bihotza, ta uzten nau naiez ta amorez betea. Orra Davidec diona! Baña cer diogu guc, edo zuc, eta nic? Ez ote da noiz-ere bait sartu behirra gure bihotzetan ere onelaco naicunde ta Ceruraco gogo sendor, ta nai vici-vici bat? Aisa, ta lasterfartuco lizaque, guc emen gauza bat zucen eguitera. Cer? Noicean bein bad-ere oroitzea, Jangoicoa dela, nai duten, guciac Cerura daramatziena; ta, aratzen diran, guciac bere edertasuna-requin beti ta beti atseguin contentuz betetzen dituena; ta nai ba-dut, ni ere era berean eramain navela atseguin contentu bèrez beteric uzteco. Non arquituco dezu zuc oroitz hau baño, oroitz-erraz leun asegarriagoric? Non behar-ago dezun oroitzaric? Eta al-ere, ez pa-liz baño, gueiago etzara oroitu cembait egunez, ta gueiagoan ere cere Jaun andi eder maitagarriaz! Ez al zaitzu berriz onelacoric guertatuco? Ez arren, nere Jangoico maitea; ez, ez.

III.

HEU MIHI, QUIA INCOLATUS meus prolongatus est! habitavi cum habitantibus Cedar: multum incola fuit anima mea. Ps. 119. 5.

Ay ene! dio Profetac; noiz artean vici behar ote dut nic nere Cerutic erbestatua! Aguitz luzatu da emengo nere vicitza! Vicitzaren chaira ta

nequezcoa! Ez nago ni emen, ez, niri dagoquidan, toquian. Gain orretaco Ceruа da nere erri ona, ta betico nere egontoquia. An ecusi artean nic nere Jaun maita-garriaren arpegui ederra, edo edertasuna, ez dut nic, ez onic uste! Illumbean vici diranen artean vicitu naz ni, orain-dañoco nere urte guci-etan: ba-da illiumbea da lurreco egunic arguiena, Jaunaren edertasun arguiaren aldean! Edertasun hau ecusi naiez berandetsia dago, bai, nere Anima! Noiz-noiz bada, ecusi behar ote dut nic, arpeguiz arpegui bezala, ta deusec eragozten ez didala? Zori onecoac, gorputzeco preson-deguitic iguesseguinic, Ceruan arquitzen zarazten, Animac; bada ba-dituzue zuec, nic nai nituqueen, ecuste garbiac! Noiz artean luzatu behar ote du zuen arteraco nere aldiac?

Hau cion, edo, cionarequin, hau adirazten cigun Profetac. Eta orobat errain, edo adiracico nuque nic ere, baldin ba-nu, harc adiñaco Ceruaren, edo Ceruco gure Jangoicoaren edertasun ecin ederragoaren cerbait berri. Ah Ceru ederrac, nere beguiac ecusten etzaituzten, Ceruac! eta ah Ceru orretan, ta mundu gucian arquitzen zaran, nere Jangoico, ederra baño, ederragoa! noiz-noiz ecusico zaitut nic arpeguiz arpegui! Orain ecusten ba cindut nic, bertan ni atseguin, ta contentuz illen nintzaque! Zori oneco eriotza, zure edertasunac, eta, onen ondoren etorrico lizaquen nic zu maitatzeac lecarquen eriotza! Ah, baña ez dut hau nic mereci! Irabacico al-dut, zu beti gogoan erabiltzea-requin, ta, erabiltze onec eraguiñen didan, vicitza on garbia-requin, zori oneco eriotz on hau ez pa-dere, ill ondoan zu, cere edertasun gucia-requin ecusteco gracia! Bai, nic nai dudala. Nai dut, bada; nai dut orain ba-dere nai hau zuc emanic, nere Jangoico-eder-maita-garria! Nai onetan nai dut iraun ill arte gucian: indazu arren orretaraco behar dudan, laguntza, ta escua; bai ta orain hitzez ta bihotzez erateco ere: NERE JESU CHRISTO, &c.

(1) *Rex Regum, & Dominus dominantium... quem nullus hominum vidit, nec videre potest.* 1. Tim. 6. 15

(2) *Videmus nunc per speculum in ænigmate* 1. Cor. 13. 12.

(3) *Invisibilia enim ipsius à creatura mundi, per ea, quæ facta sunt, intellecta conspiciuntur.* Rom 1. 20.

(4)

(4) *In ipso inhabitat plenitudo divinitatis. Coloss. 2. 9.*

(5) *P. Euseb. Niremberg. Aprec. de la div. gra.*

(6) *Mille anni ante oculos tuos tanquam dies hesterna. Ps. 89. 4.*

BEDERATZI-GARREN OTOITZ-GAIA.

NOLACOA DEN GUREQUICO GURE Jangoicoa.

AZqueneco irur otoitz-gaietan ecusi dugu nola-ere-bait NOIZCOA DEN IZATEZ gure Jangoicoa, NORAñOCOA den, ta NOLACOA. Urrengo irur-etan ecusi behar dugu NOLACOA den gurequico Jangoico bera; CER DEN Jangoico berac gurequin eguiten duena; ta NOLA eguiten duen, eguiten duena; hau ecusi ondoan nol-ere-bait ezagu dezagun cein andia den, guc gure Jangoicoari zor diogun, amorea. Asi gaitecen lendabicicotic; eta ecus dezagun; NOLACOA DEN gurequico gure Jangoicoa, edo NOLACOAC diran, guri beguira dagozquigun, Jaunaren JAQUIUNDEA, Jaunaren ONTASUNA ta Jaunaren ESCUA.

§. I.

LUCE-ZUCEN-BETICOA DA GURE Jaunaren jaquiundea.

EZ guizónac daquite, ta ez Aingueruac, jaquin ditezqueen, gauz etatic bat, edo bertze besteric; eta ori ere etzequiten, eracusle-etatic, edo Jauna gandic icasi artean: baña Jangoicoac ba-daqui, jaquin ditequen guci-gucia; ta gucia daqui lemdabicitic, edo joan den Eternidade gucian. Guizonei demboraz azten zaizte, jaquin

quin izandu cituzten, gauz etatic gueienac, edo beintzat anitz, eta, daquiztenez ere, ez dira beti oroitzen. Etzaio Jangoicoari orrelacoric guertatzen, ez: gucia daqui beti, ta beti; ta beti beguira dagoca jaquin ditequen guci guciari, naiz dela berezcoa, naiz Jaunac eguiña, naiz eguin-quizuna.

Beguira dagoca beti, bai, gure Jangoicoa bere berezco izateari, edo bere izate-andion-maita garriari; ta, izate batean dituen, atributo, ta perfeccione guciei. Beguira dagoca beti, ta beti bere adimentuari; beguira dagoca beti-beti bere ontasunari; bai ta bere ahalari, edo gauza guci-etaraco duen, bere escuari ere. Ecusten, ta ecusten dago beti gure Jaunaren jaquiundea, nola diran Jangoico bat, eta berdiñ berdiñac Aita, Semea, ta Espiritu Santua. Ecusten du nola den Aita gandic Semea, ta Aita ta Semea gandic Espiritu Santua; ta al-ere ez dela Aita, Semea baño, lenagocoa; ta, Espiritu Santua baño, lenagocoac ez dirala Aita, ta Semea. Ecusten du, gauza bereciac dirala Aita-tasuna, Seme-tasuna, ta Espiritu-Santu tasuna; ta al-ere Jaincotasun bat baicic ez dela irurtasun, edo Trinidade hau gucia.

Ecusten du gure Jangoicoaren jaquiundeac, edo Jangoico berac bere jaquiundez bazterric bagueco bere izateas ecusten ditu, chiquiagoac ez diran, ta izate bera-requin bat diran, bere atributo, ta perfeccione guciac; ecusten du, guciac diñaco den, ta ecin galdu ditequen, bere edertasuna: ta ecusten du certan dagoen edertasun hau, ta nola bere naiez, ta amorez betea daducan bere bihotza, bere naimendua, edo bere vorondatea. Etzaio gordetzen Jangoicoaren jaquiunde ecusleari bere gauz-etatic bat ere; ta ecusten ditu guciac, eta ecusten du bacoitza ecin gueiagoraño.

Bere burua, edo bere gauzac onela ecustean, ecusten ditu Jangoicoac gañeraco guciac ere; ta ecusten ditu guciac ecin ederquiago. Ecusten du, bera gandic datocela, diran gauza guciac; eta ez dela eguinquizun gucien artean bat, Jangoico berac nai ez pa-du, edo hura gueldiric dagoela, eguin ditequenic. Ecusten du nolacoac diran, gauz oriec; bai, ta cembat diran ere, izana gatic, Aingueru ta guizon guciac conta ala baño, gueiago, ta gueiago, ta contu gucien gain.

Ba-daqui Jangoico berac

rac, cembat diran, len izandu ciran, ta oraindic dirauten, gauzac. Ba-daqui noiz artean iraun beharrac diran, dirautenac: ba-daqui cein, ta cembat diran, azquen juicioco egun-eraño, ta eternidade gucian berac, eta gañeracoac eguinen dituzten, gauzac. Orain diranac, bezain ongui ecusten ditu etor-quizunac; etor-quizunac bezain ongui, bein ere etorrico ez diranac; eta, oriec bezala, etorriric, urratu, ta aitu ciranac. Gure Jangoicoac zabalduac daduzca beti bere beguiac. Beti, beti, ta batetan ecusten ditu, dio Escriturac, eternidadetic eternidade rañoco gauzac, edo gauza guciac; guciac alabaña arquitzen dira eternidadeen artean; ta ez da laburragoa Jangoicoaren ecustea, ta vista. (1)

Bai, bai: gauza guciac ecusten ditu gure Jangoicoac, bacoitzari emateco, behar duen, era, ta videa; ta gureei seculaco sua, edo seculaco gloria. Bai, ero charra; gañeracoen artean, ecusten gaitu gure Jangoicoac, zu, ta ni bioc; eta ecusten gaitu, gueren gauza guciequin batean. Ecusten ditu, bai, gure asmoac, ecusten ditu gure gogoetac, gure lanac, gure eguitecoac, gure gauz on ta gaisto guciac. Gorde ditzaquegu guc, emen vici diranen begui-etatic gure oroitzapenac, eta gauza goisto-itsusiac; baña, gend artean, ta egunaz eguiten diran, gauzac baño, agueriagoan daude gure Jangoicoa rentzat zure, ta nere gogoracioric estalienac ere. Zoaz mendi-etara, sar zaitez lur-pean, zabiltza zocoz zoco, ta nai dezun, sasi-zulo-etan; an izain dezu, bai, zuc cerequin cere Jangoicoa; ta, orain zauden, lecuan arquitzen ba ciña, bezain ongui, ta claro ecusico zaitu zu harc an.

Ah nere ero char zoratua! Onetara oartu gabez eguin ditut nic, bein, ta berriz, ta ascotan ere, orain alquea, ta damua baicic, ematen ez didaten, anitz gauza, ta gaizqui! Galtzez galdua dago mundua, dio Profetac, ceren ez den bere buruari, ta zuri, bere Jangoica-ecusleari beguira dagoenic (2). Ni beintzat zutaz ez-oroitze onec galdu nau orain-dañocoan, nere Jangoico maita garria! bada nic, ongui oartuz ecusi ba-nu noraño-coa den zure beguiratze zucen ecuslea, ez nuen, ez arpeguiric izain, eguiteco, eguin ditudan, utsac, eta charqueriac. Nereen guisacoac, edo lurrezcoac ba-lira baño, caso gueiago

go eguiten ez nuen nic zure begui-ecusleez; ta, uste nuen, lurrecoen begui-etatic gorde ez quero, ez nuela zu gatic cer beldurtu. Zoratua ni berriz ta berriz ere; ta seculaco galdua, oartzen ez-pa naz emendic aitziña zure ecuste, ta beguiratze zucen-garbi-lucera!

Centzatuco al-naz orain bad-ere? Ez al dut eguiñen berriz zuri ongi idurico etzaitzun, gauzaric bat ere! Oroituco al-naz ni gaurguero gauza bacoitza eguitera noanean, zu beguira zogozquidala! Ori da, bai, guciac ongui eguiteco, ta zure aserre gogorrean ez erortzeco videa.

Beguira bada, nere Anima gaisoa; beguira; ez da cer itstutu; ez da cer uste cabetu; zuc eguin orduco, zure Jangoicoaren beguietan daude zure gauza chiqui ta andi guciac. Beraren Tribunalera beharrac dira, diranac. Jangoico berac izan behar du zure testigu; ta ber-berac zure juzgalari (3). Ez dizu barcatuco ez, cere Jangoicoac deus ere, cere vicitzaco contu guciac artzen dizquitzunean. Cere zor, ta uts guci-guciac aguertuco dizquitzu, izandu diran bezala. Gauz on-etatic bacoitzari (on-equin zu orduan an aguertzen ba zara) emain dio, bai, zure Jangoicoac, dagocan pagu gucia; bai ta gueiago ta gueiago ere. Baña, goisto-equin zu an aguertzera, betico, preson-degui gogorrean, ta sulececo etsaien artean izain da, eternidade gucico zure vicitza.

Onela nori berea emateco, beguira dagoquie beti gure Jangoicoa ònen, ta gaistoen gauza guciei. Ez daguizula bada gaur guero, mundu gucia beguira dagoquizula, eguiñen etzenu-quenic: bada munducoac, Aingueruac, eta Eguzquiac berac baño ere, begui arguagoac, eta ecusleagoac ditu zure Jangoicoac; eta ez ditu bein ere zu gandic quenduco, zu emendic quendu artean. Zori onecoa zu, eguia hau gogoan daducazula, eguiten badituzu cere gauza guciac; bada eguiñen dituzu, Jaunaren laguntza requin batean; eguinen dituzu, behar den eran, ta ongui garbiro: eguiñen dituzu baque ona requin, ta gueroco gloriaraco irabaci andiac eguiten dituzula. Orrela daguizquitzun, oroi zaitez orien asieran, bucaeran, ta eguiten ari zaranean, cere Jaunaren jaquiundea, jaquiunde luce zucen beticoa dela; bada ecusten ditu zure gauzac, eman da-

qui-

quien bere demboran, dagoten, Cerua, edo su-lecea!

§. II.

ECIN ANDIAGOA DA, TA GUZtiz zucena gu ganaco gure Jaunaren ONTASUNA, ta ongui-naia.

ECin obea da, daquigun bezala, bazterric ez duen, gure Jangoico maitagarria; ta orrelacoaren ontasuna, ta gu ganaco ongui-naia, edo naicundea, nai-ta-ez, beraren jaquiundea diñaco ongui naia, naicundea, ta ontasuna da; ta orre gatic da guztiz zucena, edo ecin-zucenagoa. Ala ez izate ra, ez lizaque gure Jangoicoa Jangoico, edo ez lizaque ecin-obea, ta bazterric baguecoa. Orra bada ecusia, ecusi nai guenuen, eguia. Baña ecuste hau ecuste labur illuna da, gu esquer-dun-on-beroac eguinic uzteco. Orretaraco, ecusi beharco dugu, cer videz, edo cer gatic den onen andi zucena gure Jaunaren ontasuna ta gu ganaco beraren naicundea, edo ongui-naia.

Gure Jangoicoaren aldean charrac dira gañeraco gauza guciac. Gauzen eracoa da orien ontasuna; ta orre gatic da ontasun char guztiz laburra; ta, gañeraco gauzac duten, ontasun labur-char ori ere, gure Jangoicoarena da, edo Jangoicoac bere naiez gauzei emanicacoa. Gure Jangoicoac duen, ontasuna da Jangoico bera bezalacõa, ta berezco ontasuna; hau da alabaña asieraric ez duena, ta bucãeraric, eta bazterric bagueco ontasuna; ta ontasun, izandu diranac, etorquizunac, eta asma-al-ditezqueen, ontasun guciac garaitzen dituena; da alabaña Jangoico bera diñacoa; ta orre gatic da ontasun ecin andiagoa, ta ontasun utsi-utsa, edo utsen nasteric baguecoa. (4)

Aguertzen ba-litzaigu guri gueren Jangoico, onembat ontasunequin arquitzen den hau, erdizca ba-liz ere, edo Moysesi mendian bezala (5), nola ere bait ezagutuco guenuque beraren ecin gueiago-rañoco ontasun eder hau! Baña ez izan virtutez ni Moysesen eracoa, onembat ontarte ta mesede nic nere Jauna gandic emen artzeco. Iganen al-naz egunen batean Ceruco mendira, an Moysesi-equin, ta gañeraco guizon on, ta Aingueru guci-equin, ez erdizca, baicic arpeguiz arpegui, ta oso-osoro nere Jaun on maita-garri hau ecustera; ta

nolacoa, ta noraňocoa den Jaun onen ontasuna, ta beraren, gu ganaco ongui-naia, ezagutzera! Bitartean eguiten ditudan, aguertze, ta icaste guciac, eta Jaunaren ontasunaren gañeco ezagumentuac, ongui laburrac izain dira, ta aguitz illunac!

Nic ba-daquit, bai, ez duela lurrean pareric, ez eta Ceruan ere, gure Jaunaren ontasun onec, eta Jaun beraren gu ganaco naicundeac, edo ongui-naiac. Lurrecoen ontasun, ta naicunde gucia, ontasun, ta naicunde laburra da; ta ez da anitz andiagoa Cerucoena, gure Jauna-renaren aldean. Gure nairic andiena, ta gure ontasun gucia ez da, ez, gauz on anitzen eguillea; ta gauz on cembait eguiten ditunean ere, eguiten ditu, uts-eguite anitz-equin nastuac. Jangaicoaren ongui-naia, edo ontasuna da nai adiña on, ontarte, ta favore eguin ditzaquena; ta da ontasun, eguiten dituren ontarteac, ongui ta zucen ez-pa-da, ecin daguizquena: bada bat bacarric eman al-ba-leza, behar ez bezala, ez lizaque izain gure Jangoicoa Jangoico; edo ez lizaque izain, Davidec dion bezala, ona, ta virtutez betea (6): bada ematen duen ganzaric chiquiena gaizqui eman al-ba-lezá, izain lizaque, izan gabez, ongui gauzac emateco, behar den, zucen-tasuna, ta virtutea: ta, gañeraco virtuteac izana gatic, hau ez-pa-lu, ez lizaque izango virtute gucien Jauna, ta Jabea. Ba-du, bai, virtute hau, gure Jangoicoac: ba-ditu, bai, gañeracoac ere; eta ecin eman ditzaque gauzac, ez-pa-da behar bezala, edo utsic gabe, ongui ta zucen; ta orre gatic da, ontasun-gucia-requin arquitzen den Jangoico maita-garria, gure Jangoicoa.

Bai: ba-ditu hau, ta gañeraco virtute guciac ere gure Jangoico maita-garriac. Nola, uste dezu? Santuen, ta Aingueruen eran? Ez, baicic, berac bezala, ta neurriric gabe. Santuen, ta Aingueruen virtute andienac ere, virtute laburrac dira; ta dira, Jangoicoaren virtute-equin ecustecoric ez duten, virtuteac: bada Jangoicoaren virtuteac bazterric gabeco virtuteac dira; ta orre gatic dira pareric ez duten, virtuteac.

Beguiratuac dira Aingueruac, zucenac dira, emalleac dira, urricaltsuac, maitatzalleac, eta humillac dira Aingueruac: baña ez Jangoicoa bezala; bada ecin -gueiago-raño-

ñocoac dira, orretaraco, ta gañeraco gauza guci-etaraco Jangoicoac dituen, virtuteac; eta Aingueruenac, orien aldean, agueri ere ez diran, virtuteac dira. Aingueruen virtuteac ez dira berdiñac; baña berdiñac dira Jangoicoa-renac; eta bacoitza andiagoa baño, andiagoa da, ta neurri guciac garaitzen dituena. Hau gucia ba-daquit nic; eta hau da nic daquidan gucia Jangoicoaren ontasunaren gañean. Berac naramala, hau obequi ezagutzen den, toquira, edo bere Cerura! Eitartean asqui da guc hau ezagutzea, ezagutzeco, onembat onguiz ta virtutez betea dagoen, Jangoicoaren bihotza, vorondatea, edo naimendua, naimendu, edo bihotz onguille zucena dela; ta dela, bihotz, eta naimendu, edo vorondate, cerbait nai duenean, ongui ez dagocan, gauzaric naico ez duena.

Ez Jangoico maitea, ez; ecin daguiquezu zuc, zure, bazterric gabeco, ontasunari dagocana baicic; eta, nic nai ez nuquen, gauzaren bat noizbait zuc eguiten ba-didazu, izain da, ceren hura den zure ohoreac escatzen duena, ta niri aldi artan dagoquidana. Orreacoac gatic ere apatu, edo muñeguin uste diot zure escu leun, zuri, onguille ederrari.

§. III.

ECIN GUEIAGO-RAÑOCOA DA gure Jangoicoaren ahala, ta escua.

I.

GAuza gucietaraco du Jangoicoac bere ahala, ta escua; ta du ahal-escu bere Jaquiundearen, ontasunaren, ta naimenduaren, edo vorondatearen eracoa; ta orre gatic du escu-ahal ecin gueiago-rañocoa. Hau ezagutzeco, asqui da Jangoico berac eguin dituen, gauzetara beguiratzea; ta certaco, ta certaz eguiñac diran, contuz ecustea. Zoaz gucia ecustera; ta lembicico aldian ecusi behar dituzu, Jangoicoac eguinic daduzcan, gauzac berac.

Cer gauzac dirala, uste dezu, Jangoicoac eguinicaco gauza oriec? Ceruaren erpiñetic asi, ta lurraren ondoraño-co guciac. Goacen orietatic cembait ecustera. Jangoicoac bacarric eguin zuen, guc ecusten dugun, araco Ceru hura; ta eguin zuen, ecusten dugun, bezain andi eder-zabala. Ceru berean eguin zuen egun-oro aguertzen zaicun, Eguzquia; ta era berean, edo berez eguin cituen, Ceru be-

bera betetzeco diña izar, beren Illarguia-requin batean. Jangoico berac daqui, cembat diran izar oriec; eta ez da gucien artean bat, cegocan icenarequin arqaitzen ez denic (7). Guciac eguin cituen gure Jangoicoac cein bere neurrian; ta, eguiñ-orduco, ezarri zuen bacoitza bere toquian, edo bere videan. Ceruac, eta Ceru-etaco gauz oriec eguiteco, asqui izandu zuen gure Jangoico eguilleac, EGUIN BEDI HAU, EGUIN BEDI HURA, errate bat: Eta oriec bezain aisa, ta erraz eguin cituen Itsasoco, ta iturrietaco urac; eguin cituen aisa--tasun bera-requin sua, ta aicea, mendiac, celaiac, eta lurra; edo eguin zuen mundu guci-gucia bere bazter gucietaco gauza guciequin; ta eguin zuen bacoitza, cegocan, anditasunean, ta, behar zuen, pisuan, ta neurrian (8). Orra noraño-coa den gure Jaunaren ahala, ta escua: ta orra ecusten dezu cembat diran, cein andiac diran, ta cein aisa ta erraz eguiñac, Jangoicoac eguiñicaco gauzac?

II.

Baña cein ona dembora berean, ta cein maitagarria gure Jangoico egillea! Hau guc nol-ere-bait ecusteco, ecusi beharco dugu, certaco eguiñac diran, gure Jaunac eguiñicaco gauzac. Ez daquizu? Bada guciac dira gure oneraco eguiñac: eta orretaraco Jangoico berac eraguiten dio bacoitzari, nai duen gucia. Ez daduca, ez gure Jangoicoac gueldiric bere Eguzquia; ez daduzca gueldiric, ez izarrac; inguruan darabiltza gau, ta egun guciac; eta era berean erabillico ditu, munduac dirauneño.

Orra; zu lotan zautzanean ere, ez datza lo zure Jangoico eguille maita-garria. Zu cere jan-edan-etan hari zaranean ere, zure osasunari, zure lur-celaiei, zure sagardiei, ta gañeraco zure gauzei laguntzen ari da zure Jangoicoa; bada zure, ta orien gañean, ta zuen oneraco darabiltza beti, berac eguiñicaco izarrac, eta eguzquia; ta oriec beren beroarequin, arguia-requin, ta beste antz aldetara laguntzen dizu zuri, ta laguntzen die zure gauzei ere beren eguiteco-etan, ta ibill-era gucian.

Ori eguiten duen, dembora berean, AICEZ ingurutua zaduzca cere Jangoicoac; ta asnasea-requin sar daquizun cere barreneraño, eman dio bere astuntasuna, ta pisua (9). Aice be-

berean darabiltzi bere odeiac, zuc behar dezun, ura-requin. Neurrituac daduzca odeietaco ura, ta itsasoaren bazterrac; eta ecin ar dezaque elementac, Jangoico berac eracusten diona, beste videric.

Itsasoaren erraietan darabiltza, guc behar adiña, ta anitz arrai gueiago: ta itsaso beraren bizcarrean emendic Indietara, ta batetic bestera Ontziac, eta Ontziac; eta Ontzietan oialac, perlac, eta ondasunac. Lurrari eracartzen dio, guc behar dugun, jan-edana, ta soñecoa: ta suari eraguiten diozca, echeac eguteco, janaria maneatzeco, ta vicitzaraco bear ditugun, beste anitz gauza. Orra cembat gure on-etaraco diran, Jangoicoac eguinicaco gauzac; eta orra cein onguille maitagarria, gure Jaunaren escu-ahaltsua.

III.

Baña obequiseago ecus dezagun norañocoa den gure Jaunaren ahal andi hau; ta, onequin eguin duena gatic, zor diogun, amorea, ecusi behar dugu, certaz eguinac diran, gure Jangoico alsuac eguinicaco gauzac. Certaz eguiñac? Ecertaz ere: ta gairic bague; bada ecer-ecetic atereac dira, gure Jangoicoac eguinicaco gauzac. Eta ori da, Jangoico berac baicic, ecin daguiquen, gauza bat. Aingueruac eta guizonac eguin dezaquee lorerem baten, edo cerbaiten ichura, zurean, olean, urrean, cillarrean, edo beste edocein gaietan; baña, ez ori, ta ez besteric eguiñen dute, eguin-gaia arquitu artean.

Jangoicoa da bacarric, gairic bague, gauzac eguin cituena, ta, nai duen, aldi gucietan eguiten dituena, ta eguin ditzaquena: ta eguin ditzaque nai-adiña, hitz bat esan, ta besteric bague. Ala eguin cituen, eguiñac ecusten ditugun, gauzac, eta anitz gueiago ere; bada, ecusten ditugunac baño, aguitz gueiago dira, ta anitzez andiagoac, Escriturac dionaz, gordeac dauden, gauzac (10). Ecusten dezu, nolacoa den, ta norañocoa Jaunaren ahala, ta escua? Baña ichozu; ez erantzun, ecusi artean ecusquizuna; bada, ecusi dezuna baño, aguitz, eta aguitz andiagoa dalen, uquituz adiraci dudana, ta orain, nic aguertzen dizudala, zuc ecusi behar dezuna.

Cembat ere anitz, eta andiac diran orain dañocoan gure Jangoicoac eguin dituen, gauzac, gueiago, ta gueiago, ta, suma al-adiña baño, gueiago dira

dira eguin-quizunac; eta ez da eguin-quizun gucien artean bat, Jangoicoac ecin eguin dezaquenic. Nai ba-lu, eguiñen lituque gure Jangoicoac izar berriac, Eguzqui berriac; eta bacoitza, oraingoac baño, eun aldiz argui gueiagocoac. Nai ba-lu, eguiñen lituque Ceru berriac, mundu berriac, gauza berriac, eta berriac: eta, egun oro eguiña gatic, orain daño eguin dituen adiña gauza, ta guciac oraingoac baño, andi-ederragoac; eta orretan aria-gatic beti, ta beti, ta secula gucian, ez liraque aituco gure Jangoicoaren indarrac, ez eta necatuco ere beraren escuac: bada, necatzen ez den, escua du gure Jangoicoac, eta, Escritura Santac dion bezala, nai adiña gauza eguiña gatic, eguin-garri gucien eguille guelditzen den escua (11): eta escua, ecer-ecetic eguin-quizunac eguiteco, eguinac eguin cituen bezala.

Gauza berriac eguiteco ez-ecic, nai duena, len berac eguinez eguiteco ere, ba du Jangoicoac, nai duen, escua; ala dio Jangoico berac bere Escrituraz (12). Aiceari, ta aiceco odeiei eraguiten diezte gure Jangoicoac, nai dituen, gyrac, eta inguruac. Nai dueneau isilerazten du Jangoicoac, orroz dagoen, itsasoa; ta bere vaguequin odei-etaraño igan nai duela, dirudienean, ta bazterrac iritsi naiez dabillenean, uzten du Jangoico berac, asaldatu ez paliz, bezain gueldi palacatua. Suari Jangoicoac nai duenean, quentzen dio, erretzeco indarra; guelditzen du videan Eguzquia, edo ar-erazten dio guibelat bere videa; ta eraguiten diezte gañeraco gauzei, nor nai arritzeco diran, gauzac. Eta oro bat eguiñen luque, berriro eguiten lituquen, gauza guciequin ere. Orre gatic dio Escritura Santac, arrigarria dela gure Jangoicoa; guztiz dela izatez, ta eguitez andia; ta asm-al ditequen baño ere, gueiago, ta gueiago dezaquen, escua-requin arquitzen dena. (13)

Ecusten dezu orain, nolacoac diran, Jangoicoaren indarrac, edo cein andi-arrigarria den, nai duen, guciraco gure Jangoicoac duen, ahala, ta escua? Non arquituco da gure Jangoicoa bezalacoric? Non hau bezain jaquintsuric? Non hau bezain on-maitagarriric? Non onen erdiric, non onen laurdenic, eta non onec eguiten dituen, gauzaric chiquienaren zati bat ere eguin dezaquenic? Nion ere, nere Jangoico altsu maita-garria! Zu zara bacarric,

zu,

zu, gucia dezaquezuna: zu zara, zu, jaquin ditequen, gucia daquizuna: zu zara, zu onac, eta onguiac baicic eguiten ez daquizuna: ta zu zara gure Jangoico zucen, on maitagarri eſcudun indartſua.

Oraindaño zuri nic zor dizudanaz, ta zutaz ere azturic vicituaz dut nic pena, ta damu! Ez behar adiña! Gaurdanic nere naiez, ta uſtez bertzeric izain da, zure laguntz eſcu-dun-altſua-requin batean. Bai arren, nere Jangoico maitea; eman behar didazu cere laguntz onèn indartſu hau, nic zucen eguiteco gaur-danic eguin gogo dudana.

Ni bezala vicitu zarazten, lurreco ero-galduac, atozte zuec ere nerequin batean, lan hau eguitera. Atozte, gure Jangoicoari zor diogunaren berriac icaſtera: ta atozte, nora beguiratzen duten, Jangoicoaren jaquiundeac, naimenduac, eta eſcu altſuac, ecuſtera. Ecuſico dezue, bai, nai ba dezue (ta aiſ-aſqui al ere) nola dauden gau, ta egun, ta beti guri, ta gure gauzei beguira beguira. Ecuſico dezue, guri beguiratzea, ta guri onguiac, eta onguiac eguitea, beſte eguitecoric ez-pa-ſu, bezain, ongui ta zucen eguiten dituela Jangoico gureac, guri dagozquigun, gauzac: eta ecuſte onec behartuco gaitu, bai, arrizcoac ez-pa-gara, gure Jangoico beguirune onezco indartſu-onguille hau cinez, ta cinez maitatzera.

Maita ba-cintzat bada, nere Jaun eguille-maitagarria, behar bezala ez izan-arren, nere al eguiñean, ta beti-beti vici-nazaño! Ez nuque nic beſteric behar, zori oneco vicitzan emen, ta guero, ta Aingueru-artean beti vicitceco! Vicitz onetaraco eguin ninduzun zuc, nere Jaun andia; ta onetan guelduco naz, bai, nor ba naz ni, edo era onetan nic maitatzera zu, nere eguille ona, ta emalle obea! Cer maitatu behar dut nic, ero galdu zoratuac, zu ciñez maitatzen ez-pa-zaitut? Ez, nere Jangoico maitea, ez; aſqui da, aſqui oraindañoco nere eraqueri galdugalgarria! Zurea da gaur-guero nere bihotza; ta, beſte maitatze char guciac utziric, zu maitatu uſte zaitut, gau, ta egun, ta nere ill arte, edo vicitza gucian. Maitatze onari maitatzez erantzuten zaio. Beti zuc gogoan nazu ni, nere Ontaſun utſa; ta beti zuc maitatzen nazu ni. Nere gogoantza gogoantza charra da: gogoantzaren eracoa da nere

mai-

maitatza : ez dut oberic, daquitzun bezala : dudana-requin bad ere erantzun uste diet zure gogoantza, ta maitatze andiari. Erantzute char hau ere ecin daguiquet nic, zuc laguntzen ezpa-didazu. Indazu bada cere laguntza, ta escua. Ba-dacusazu, gauz oneraco escatzen dizudala. Ez arren ucatu, ez, nere Jangoico maitea, ez.

I.

COGNOVIT DOMINUS OMNEM scientiam, & inspexit in signum ævi, annuntians, quæ præterierunt, & quæ superventura sunt: non præterit illum omnis cogitatus, & non abscondit se ab eo ullus sermo. Eccl. 42. 19.

Ba-daqui, bai nere Jangoico maiteac, jaquin ditequen, guci-gucia. Gauza guciac ecusten ditu Jangoicoac eternidadeco bere ispillu ederrean, edo bere Jangoico-tasunean. An aguerian daduzca, oraingoac ez-ecic, lenac, eta etorquizunac ere. Orietatic cembait aguertu dizquigu guri ere. Aguertu ditu batzuetan, izanduricaco gauz-etatic; baña gueiagotan oraindic etorri ez diranac. Etzaio gordetzen, ez, gure Jangoicoari, den, gauzaric chiquiena; ta badacusatza orain dañoco gure hitz asmo gogoracio guciac; eta ez daduzca, ez, beti gorderic iduquitzeco.

Eguin ditzagun ba-da, eguin-quizun arquitzen diranac, norc nai ecus ditzaquen eran, ta certan hari garan, daquigunac bezala. Eguin ditzagun bada, gogotic utzi bague, beguira dagoquigula gure Jangoicoa, gu oriec eguiten hari garanean, ta daquigunac bezala, egunen batean aguertuco dizquigula, beguira dagoquigun, Jangoico berac, Aingueru, ta guizon gucien artean, naiz onac izan, ta naiz ez, orain, ta gure vicitza gucian guc eguiten ditugun, gauzac. Cein andia, gaizqui vici diranen, orduco lotsa, ta alquequizuna! Cein andia, baña cein esquer-gabecoa, orduco gaistoen damu-urriquia! Oraingo urriqui damua da, orduan valio duen, damu urriquia. Ar dezagun bada gaur bertatic; eta ez dezagun gaurguero eguin gure Jangoico jaquintsuari atsecabea, ta gueren burnei alque-quizuna eman dezoquen, gauzaric chiquiena ere ta eguin ditzagun, eguin behar diran, gauz on guciac. Iguzu arren, gure Jangoico

ecus

ecusle gar-bia, orretaraco behar dugun, cere laguntza, ta gracia: bai arren, bai.

II.

GLORIFICANTES DOMINUM quantumcumque potueritis, supervalebit adhuc, & admirabilis magnificentia eius... maior est enim omni laude... Ne laboretis, non enim comprehendetis. Eccl. 43. 32.

Eman daquizquiola gure Jangoicoari eman-al adiñ esquer, laudario, ta alabantza; ori gucia eman ta ere, ecer ez bat bezala izain da, ematen zaiona, zor zaionaren aldean; ceren zor zaion munduan den gucia; bai, ta ori gucia baño, gueiago, ta gueiago valio duena ere; bada zor zaio ori emanerazten dion, gu ganaco bere ontasuna, ta amorea, edo ongui-naia: ta ongui-nai, emaneraciaz content ez dagoena; bada deus-ez-bat bai-liz bezala, eman diguna, izanic hau, dacusazun adiñacoa, prestaracia daduca gure Jangoicoa, bere horduan guri emateco, guc vici garaño behar duguna; ta guero, harc emanaz gu ongui valiatzera, seculaco doacundea, edo Ceruco gloria. Ecusten dezu norañocoa den, cere Jangoico maita-garriac eracusten dizun, ontasuna, ta naimentua? Atotzea; ez da, eguin dizquitzun, gauzac baño, milletan, ta milletan gueiago valio duena, ta, zuc ezagu dezaquezun baño, aguitz, eta aguitz andiagoa? Bai; andiagoa da, ta Jangoico berac baicic ongui ecin ezagu dezaquen diñacoa, Jangoico beraren gu ganaco ontasuna, ta ongui-naia.

Utzazu bada cere Jangoicoa-rentzat bere ontasunaren ezaguera, edo ezaguntz andi ori; ta, zuc dezunác escatzen duen diña bad-ere, maita zazu zuc, Jangoico bera, bere ontasun andi-onguillea gatic gaur, ta bigar, ta beti. Ez dezu maitatuco, ez, bihotz obeco, ta gueiago nai dizun, gauzaric bat-ere; ez eta beharrago dezunic ere; bada behar dezu vicitzan, behar dezu eriotzan, ta behar dezu zuc eternidade gucian cere Jangoico maita-garria; ta, hau ba dezu, besteric ez izan arren, ba dezu betico behar dezuna.

Ah! nere Jangoico, guztiz onguille, ecin maita-garriagoa! ta noiz asi behar ote dut nic, nere al-eguiñean, zor dizquitzudan, esquerrac zuri

ematen, ta biotzez zu, ta ciñez maitatzen? Noiz guelditu behar ote dezu orretaraco nere gogoan sartu sartua? Izan bedi bertatic, eta gueldi bitez bat eguiñac zurea, ta nere gogoa. Ay, hau ala guerta ba-ledi! gueroz ez nuque naico nic, zuc nai ez dituzun, gauz-etatic bat ere: naico nuque zuc nai dezun guci-gucia, ta guelduco liraque zurearen-eracoac nere naimentua, ta gogoa, edo guelduco liraque, behar den, aldera zucenduac, eta zure gauzei beguira. Ala guerta dedilla, nere Jangoico maitea; ta ez dezatela gal bein-ere, beiñ artzen duten, zucen-tasuna, ta gracia. Ez arren, ez, Jangoico virtutetsu on maita-garria, ez.

III.

QUONIAM IUDICANS DAS LOCUM in peccatis pœnitentiæ... & debitos morti... liberasti, dans tempus, & locum, per quæ possent mutari à malitia. Sap. 12.

19.

Becatu bat eguin orduco, ondatu cituen su-lecean millaca, ta milloica Aingueruac, gure Jangoico, beren eguilleac. Aiec bezala ondatu beharrac guiñan gu ere lembicicoa eguin guenueneco; ta oraindic vicieric gaduzca, ta lur gañean gu, eguin ditugun, guci guci-equin. Ambat zucentasun, ta Justicia Aingueru edear-equin gure Jangoicoac; eta gu bezalaco loiez jaunciac gauden, gauza char-equin, onembat urricaltasun ta lecu? Bai, eguiaqui! Orra cembat hasti ta epe zor diogun, Aingueru-etatic bati ere eperic eman etzion, gure Jangoico maita-garriari!

Adanen becatua gatic erio gaistoc garbitu beharrac guinan gu gueren Amaren sabelean, edo andic sortu, ta laster! seculaco su-gar-etaraco gueunden gu, gueroz gueroc eguin ditugunac gatic! Ba-zuen gure Jangoicoac, ara gu botatzeco, behar zuena, ta aguitz escu gueiago; ta ala ere, an gu ondatu lecuan, eman digu gure Jangoico maiteac, damuz, ta negarrez gueren bihotzac garbitzeco, behar den, berria, ta toquia! Aingueru becatariac bezain aisa, ta laster onda guintzaquen gu gueren Jangoicoac bere gaista-tegui sulecean! Ondatu cituen an Aingueru becatariac, orien beharric etzuenac bezala! Ez gaitu gu, Aingueruac baño, bat ere beharrago; ta al-ere ondatzeco gaduzca gu: ta ez gaitu, ez, ondatuco ere,

ere, oartzen ba-gara, behar den, garaiean, ta eſcatzen ba diogu gogoz, ta ciñez, eguiñen barcamentua. Ori eguin ezquero, gu ondatu lecuan, emain digu guri gure Jangoico maiteac bere gracia, ta ; adiſquide-taſuna; ta, oriec ez galtzera becatu berri-equin, ſeculaco doacundea, ta gloria.

Baña, ſaiatzen ez-pa-gara, gueren lan hau, behar den demboran, ta eran, eguitera, beldur izan gaitezque, gira dedin gure contra gure Jaincoaren eſcu indartſua, gurequin eguiteco, orain-daño eguin ez duena, edo gu Aingueru gaiſtoen artera aurti-quitzeco. Ez arren, ez, gure Jangoico maitea, ez; etzaitezela izan gurequin Juez caſtigu-guillea; izan zaitez on-beracha, ta urricaltſua. Ez dezazula erabilli, cere eſcu altſua, ez-pa-da gure bihotzari urriquizco croſcadac, edo uquierac emateco. Indazu orain andi-andi bat, aſi nadin erraten damuzco hitzez, ta gogoz:

NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.

(1) *A ſæculo in ſæculum reſpicit. Eccl.* 39. 25.

(2) *Deſolatione deſol. &c. Jerem.* 12. 11.

(3) *Ego ſum Iudex, & teſtis. Idem* 29. 23.

(4) *Nemo bonus, niſi ſolus Deus. Luc.* 18. 19.

(5) *Exod.* 33. 19.

(6) *Dominus virtutum. Pſ.* 23.

(7) *Numerat multitudinem ſtellarum, & omnibus eis nomina vocat. Pſ.* 146. 4.

(8) *Omnia in menſura, & numero, & pondere. Sap.* 11. 21.

(9) *Qui fecit ventis pondus. Job.* 28. 25.

(10) *Multa abſcondita ſunt maiora his. Eccl.* 43. 36.

(11) *Subeſt enim tibi, cum volueris poſſe. Sap.* 12. 18.

(12) *Ipſe enim omnipotens ſuper omnia opera ſua. Eccl.* 43. 30.

(13) *Terribilis Dominus, & magnus vehementer, & mirabilis potentia eius. Eccl.* 43. 31.

upna

upna

AMAR-GARREN OTOITZ-GAIA.

GUREQUIN GURE JANGOICOAC EGUITEN duena.

§. I.

EMAN DIZQUIGU JANGOICOAC, CERUAREN BERRIA; CERUA IRAbazteco dembora, ta toquia: ta vicitzeco behar duguna.

I.

GAuza guci-etaraco da gure Jangoicoaren letarta, edo providencia; baña, gure ona baicic, gogoan ez-pa-lu bezala, artuac daduzca bere neurriac, eta eguin izandu ditu, ta eguiten hari da, guri dagozquigun, gauzac. Eguin guintzaquen gu, berac nai izatera, emen beti vicitzeco; ta eguin izandu gaitu bere Ceruraco. Ara igaten garanean, arqui ditzagun guc gueren gogara, edo ongui-ongui, ta gueroc nai bezala, ecin-obequi apainduac daduzca ango toqui guciac; edo apainduric daduzca, guc asmal baño, aguitz eta aguitz ederquiago. Araco gogoa guri sareraci naiez, eman digu Jangoico berac Ceruco gauzen cerbait berri: ta, Jaunaren berriac dionaz, ta eguia dio, urrea, cillarra, christalac, perlac, eta diamanteac gauza loi itsusiac dira, ango gauz ederren aldean.

Ceruari, ta Ceruco apaintz ederrari dagocan, bezalacoa da Ceruco maia. Baquea, atsedetea, atseguin, ta contentu utsa da ango janaria, ta edaria. Maiaren eracoa da echecoen vicitza; bada da ecin obea. Ez da an otzic, ez da an beroric, ez da eritasunic, ez da nequeric, ez da quezcaric; ez eta iltzeric ere. Betico vicitza, betico osasuna, ta gau, ta egun, ta beti nai bezala, bat an arquitzea da Cerucoen lan gucia. An ez da ecusten, beguitarte-ona baicic:

ez

ez da alabaña, Ainguertuac, Santuac, Jesusen Ama, ta Jangoico bera, beste-ric. Beren bihotza bezain, maite dute elcar, ango guciac; eta al-ere oztasuna da ango gucien elcar maitatzea, Jangoicoac bacoitzari dion, maitatze, ta amorearen aldean.

Ecusten dute Cerucoac elcarren, ta beren Jaunaren maitatze hau. Ecusten dute cein ona, cein ederra, cein maitagarria den gucien Jangoicoa. Jangioco berari beguira-begura daude, liluratuen eran, ta amorez urtuac beti, ta beti; ta berebat egoin dira beti-beti, ta secula gucian. Ceruraco bada, ta Ceruco vicitza naigarri onetaraco eguiñac gara, lurrean garan gucioc. Eguin guintzaquen gu gure Jangoicoac gauz obetaraco? Ah, Jaun onguille nere maitari ecin andiagoa! Zori onecoac gu, utsf-eguiten ez-pa-dugu, eguin diguzun, araco videan!

II. Gauza andieguia, ta valiotsua da, gure Jangoicoac eguin digun, ta apainduric daducan, bere Ceru, ta Ceruco vicitza zori oneco hau, guri doairic emateco. Nai du, irabaz dezagun, an guc gueren oñac sartu baño, len. Baña ba-daqui, ecin irabaz-dezaquegula guerez, ta berac laguntzen ez digula; ta, irabaz dezagun, eman digu irabaz toquia, vicitz-araco behar ditugun, gauza guciequin batean.

Eman digu, bai, beiñicbeiñ irabaz-toquia. Baña nolaco toquia? Cerorrec ecusico, dezu, cere beguiac cerbait zabaldu ezquero. Zabal izquitzu bada, bat ere luzatu bague, ta beguira zazu, Eguzquira, beguira ill-arguira, beguira, izarrez betea dagoen, gañ orretara: beguira zazu lurreco laur bazter-etara: beguira aicera; beguira itsasora; ta beguira alde gucietara. Orra zure IRABAZ-TOQUIA! Orra cein galanta, cein betea!

Eche onen TELLATUAC, izarrez beteac dauden, CERUAC dira. ECHAZPIA da, cere oin-pean daducatzun, mundu gucia; PARETAC, elementuac dira; ta GUELAC erriac. Eche onetaco CRISELLUA, edo ARGUIA, egunaz EGUZQUIA da, ta gavaz ILLARGUIA, Ceruco izar guci-equin. TELLATUAC ez dira bein ere urratzen; chutic daude beti paretac; eta echeco arguia, Jangoicoaren contura dago. Ez dezu ecusten cein ederqui apaindua eman dizun cere Jangoicoac,

coac, Cerua irabazteco, eman dizun, toquia?.

Noren contura ote dago, edo norc zaitzen ote du toqui galant, ederqui apaindu hau? Beraren eguille, gure Jangoico maiteac. Bai; Jaun onec, Isaias Profetac dionaz, airean bezala daduzca irur heri-requin, eguiac, aldapac, mendiac, itsasoac, eta mundu guci gucia. Mundua bezala, daduzca Eguzquia, Izarrac, bazter guciac, eta Cerua. Berac daduzca, ceren berac eguiñac diran, eta berarenac: eta daduzca bere heri, edo behatz eguille equin: ta Jangoico eguille berac ez iduquitzera, ta harc utzi-orduco, autſ, edo ecer ez eguiñac liraque guciac. Orra orretan ere cere Jangoicoari zuc zor diozun ondaſnna.

Cer dirala, uſte dezu, Jangoicoaren heri, edo behatz oriec! Oriec dira, ecuſi ditugun, Jaunaren JAQUIUNDEA, ONTASUNA, ta ESCUA. Noiz, nola, ta certaco gauzac eguin, bere JAQUIUNDEAC eracutſi cion gure Jangoicoari. Bere ONTASUNAC, bere NAIMENDUAC, edo ongui-nai zucenac eraguin ciozcan behar cen garaiean; ta eguin cituen, behar bezala bere ESCU indartſu-on-guillea-requin; ta utzi cituen gure onari beguira. Jangoicoaren behatz oriequin eguiñac dira gauza guciac: oriequin eguin zuen gure Jangoicoac, zor diogun, munduco eche galant hau. Bai, ta gueren izatea ere; bada gu ere gañeraco gauzac, bezain ongui, gure Jangoicoac eguiñac gara. Ecuſi zazu cembat-eraňocoa den, cere eguite one gatic, eta, Cerua irabazteco eman dizun, toquiaren alde zuc cere Jangoicoari zor diozun, amorea! Baña, hau ezagutzeco, ba-da oraindic beſte videric ere. Atoz ecuſtera. III.

Eguin guindueneco, ecuſi dugun bezala, Jangoicoac eguinic apaindua ceducan munduco eche andi eder hau; ta onetan ſartu guiñan gu, jaio guiñaneco. Baña ez guiñan ſartu, ez, eche apaind-utſean. Echea, ta gu eguin guinduen, gure Jangoicoac ba-cequien, ezur-araguiz jauntziac eguin guinduela gu, ta echea ez beſte gauz anitz ere beharco guenituela, luzaro vicico ba-guiñan gu eche onetan, ta Ceruraco irabaci andi onac eguiten guenituela. Orre-gatic, echea eguin orduco, eguin cituen lur-pean urre-cillarrac, diamanteac, eta arriſiñac; lur gañean beiac, ardiac, eperrac, ollaſcoac, eta, illez,

illez, ta lumaz jauntziric dabiltzan, egaztiac, eta gauzac. Eguin cituen iturriac, eguin cituen ibaiac, eguin zuen itsasoa; ta hau, ta ibaiac, edo ugaldeac ere eguin cituen, ez utsac, baicic arraiez beteac.

Hau gucia ecer-ez bat bai-liz bezala, eman cien gure Jangoicoac lurrari, aiceari, suari, ta urari behar adin indar, berez edo laguntzen zaiela, eguiteco, gueren jan-edan-etaraco, gueren soñeraco, ta bertze gueren gauz-etaraco behar dugun, guci gucia. Emen gure bazter-etan arquitzen ez diran, ta, Jaun berac eguiñac daduzcan, gauzac, arquitzen dira beste-etan; ta, andic ecartzeco, idorrez ecarri beharrac diranean, ba-dira videac, ba-dira zaldiac, ba-dira Mandoac, eta ba-dira gurdiac; eta itsasoz ecartzecoac diranean, ba-dira ontziac, eta ontziac. Beharrèan arquitzen ba-da norbait, izain-da, berac eguin gabez eguin behar duena: edo ceren ori den orduan hari onguiena dagocan, Geruraco videa: bada, orre gatic ez-izatera, ez die gure Jangoicoac ucatzen, Ceruraco eguiñac daduzcan, bere humei, arrei, choriei, ta mamorrei ere ucatzen ez dien, jan-edana, ta soñe coa.

Idiquitzatzu bada noiz-bait-noiz-bait cere beguiac, eta beguira zaiezu, lotan bezala zauden, guiza charra, edo emacumea, emen, vici zaran arteco, cere Jangoicoac eman dizun, echeari, echearen apaintzari, ta eche onetan, edo mundu gucian, zure oneraco, eguin dituen, gauza guciei: ta, orien izatea, egocura, ta edertasuna ecusi ondoan, igan zaitez, naiez, ta gogoz Ceruraño, angoac ere, al dezun, eran ecustera. Artzen ba-dezu vide hau, vide-nabar ezagutuco dezu, ecin obea dela zure Jangoicoaren letarta, gobernua, ta providencia, beste gatic ez-pa-liz ere, ceren eman dizun, mundu hau, bezain Ceruaren irabaz-toqui ederra; ta toqui, onec adiña apaintze, ta onec bezalaco gauzac dituena: bada ezagutuco dezu, zure Jangoicoac adiña, ontasun ez duenac; ecin lequizquela onelaco toquia, ta toquiraco gauzac; ezagutuco dezu, ongui siñets-garria dela Apostoluac diona, edo asm-al baño, gauz andi eder-apainduagoa dela Cerua; bada emengo, onen irabaz toqui andi, edo beteari ez dagoca gutiago: ta dembora berean ezagutuco dezu, eroàc baicic, ecin utz dezaquela, eguin, gabe, onelaco gauza bat, edo

Ge-

Ceruá irabazteco, eguin behar diena.

Ezagutzen dut, bai, nere Jangoico maita-garia, ezagutzen dut nic hau gucia; ta orre gatic, bat ere luzatu bagué, asi nai dut (eta ciñez alere), zure Ceru ondasundun hau irabazteco, eguiten diran, lan-etan. Artuco dut orretaraco, zuc cerorrec, Maisu onac bezala, eracutsi cenigun, vide zucen, behar den, eracoa. Vide hau artu, ta nere lan orietan nabillenean, ecusico dut, ecin-zucenagoa dela, ta ecin obea zure gobernua, zure letarta, edo zure providencia. Ecuste, ta ezagutze onec berotuco didala, deritzat, orain ozturic arquitzen den, nere bihotz char esquer-gabe hau; ta, bihotzaren berotze ona-requin asico nazala nere gauzac zucentzen, ta maitatzen zu alic cinquiena, edo orain-dañocoan ez bezala. Indazu cerorrec, nere Jangoico maita-garria, lan on onetaraco behar dudan, cere laguntza, ta gracia. Bai arr en, bai.

§. II.

BA-ZUEN ADANEC; ETA BA-DUte gañeracoac ere, gure Jangoicoac emanicaco videa.

ECusi ditugun baño, obequi ecusteco, gure Jangoicoaren letartari, edo gobernuari guc zor diozcagun ontarteac, beguiratu behar diogu, Ceruaren irabaz-toquiari bezala, eman digun, irabaz videari ere; bada Ceruraco irabaz-videa, emengo vici toquia, bezain ecustecoa da; ta, toquiac baño ere, aguitz obequi, gure Jangoicoari guc zor dioguna, aguertzen digun, gauza: bada vide hau ere, vici-teguia bezaia, gure Jangicoaren escucoa da; ta videnabar da guztiz zucena; ta nai duenarendaco aguitz ondasun-duna; bada igui-asdi oro edo ortic dabillenac eguiten dituen, gauz etatic bacoitza-requin, Ceruraco bil dizaqué ondasun andiac, edo irabaciac.

Gure Jangoicoac eman izandu cion Adani, gurea baño, Ceruraco vide leun errazago bat; eta ori Adanec ez galtzera, edo Adanec eguin izandu ba-lu, bere vide leun orretatic atera gabe, Jangoico beraren erran-manua, aisa, ta nequeric gabe sartuco cen Ceruan, artaraco hordua etortzen citzaionean; ta, hura an orrela sartzera, haren vide bera izain cen gure gucien Ceru bereraco videa; ta gu ere an bertan sar guindezquen, haren eran, ta, hura bera, bezain errazqui, edo aisa; bada jnioco guiñan gu gucioc

cioc Ceruco graciaz, ta doaiez beteac; jaioco guiñan gaitzeraco tirriaric bat ere gabe, ta oneraco guztiz jaioac, edo egoquiac. Baña etzuen Adanec eguin izandu bere Jangoicoaren errana, edo manua; ta, utseguin orduco, galdu zuen berea, ta guretaco, gure Jangoico maiteac ceducan, gracia: bai ta Ceruco vide erraz hau ere. Orrequin asaldatu ciran Adanen araguia, ta pasione gaistoac; baita gureac ere; ta asi ciran ocabilca bezala, anima gaisoa-requin; ta ala dabiltza, aldarteac ematen dien, gucietan.

Andic datoz, izan oi ditugun, gure eritasunac, nequeac, eta gaistoen tentuac. Andic artu zuen sulececoac, gu garaitzeco, len zueña baño, aguitz escu, ta indar gueiago; ta Adan, ta gu guelditu guiñan Paradisutic seculaco erbestatuac, eta dombora berean, behartuac, Ceruaren billan, negarrezco vide latz batez ibiltzera: ta; etsai hau, ta neque andiac garaituz ez-pa-da, ez da gueroz guretzat Ceruan sartzeric: ala dio, eguia baicic, ecin erran dezaquen, gure Jesus maita-garriac (1). Ay, hau nequea! Ay hau galtzea!

Orduco vide leun errazaren ordez da, orain guc dugun, Jesusen Legue berrico vide hau. Hau ere gure Jangoico maiteac emana da. Vide onetan zucen, ta, erori gabe, ibilli nai dutenac, garai onean artu behar dute beren pausua, edo dagoten, vici-modua. Orrela ibiltzea gatic, guelditzen dira batzuec ezcondu gabe; ta sartzen dira bertze anitz paret artean, edo Conventuetan, aragui gaistoz jauntziac daudela, an eguiteco, araguiric ez duten, Aingueru garbien eraco, vicitz on-eder bana. Zori onean jaioac, Jangoicoac deitzen dituela, vici modu hau artzen dutenac, eta onetan garbiro beren egunac bucatzen dituztenac! bada orietatic izain dira, bildots eder Jesus-maitagarria-requin Ceruan ibilli behar duten, Anima garbi, ta virginetatic gueienac, edo beintzat anitz, eta asco!

Guisa berean, edo zucen ibilli-naiez Ceruco vide berri, Jesusen videan, eguiten dira beste anitz Eliza-guizon, edo Apez. Orien ibillera, edo viciora (behar bezala vici dirala) guztiz ederra da, ta Jaunari atsegnin anitz eguiten diona. Gañeraco guciac artzen dute ezcontzaco, edo alargun tasuneco vici modua. Bata, edo

bes-

beſtea artu duenac, eguin behar du, Ceruan ſartzeco, bere vici moduari dagocana; bada ez da beſtela an ſartuco ſeculan, eguin behar diran-etatic cembait gauz on, edo anitz eguina gatic.

Baña oraño artu ez duenac, contuz beguira beza, cein ote den, ari dagocan, videa, edo vici-modua; bada vici-modu, edo Ceruraco videguciac, cein ere zucenac diran, ez dira gucientzat; eta, ez dagocan, vici modu ona artu, ta ſuleceratzea baño, obe da, ezcondu, ta Ceruratzea. Ez daquienac cer eguin, orretaraco, edo cein ote den, hari dagocan, vici-modua, bijoa bere Jangoicoa gana; bada Jangoico berac dio; atozte ni gana, nondic artu ez daquizuenac; nic aguertuco dizuet etorquizuna, ta bacoitzari eracutſico diot, dagocan videa, edo vici-modua. (2)

Gure Jangoico maiteac, borcharic gabe, eraman nai gaitu gucioc bere Ceruco atſeguin-contentu-etara. Orretaraco adirazten dio bacoitzari, cein den, gucien artean, hari dagocan araco videa; ta adirazten dio, berez datorrela, dirudien, naicunde batequin, edo bertzearequin; ta, naicunde hau harc ez-aienatzera, artzen du, Jangoicoac bereiſten dion, bere Ceruraco videa; ta, hau harc artzea requin, behartua bezala uzten du bere Jangoicoa, bere videaren aſieratic vide beraren buca-eraraño, eguin behar dituen, gauzac nola eguin eracuſtera, ta gaucac berac eguiten ſendorqui laguntzera. Baña ez dute orrelaco irabaciric eguiten, bere gogara dabiltzanac; eta, beren bihotzean hitzeguiten dien, Jangoicoari ez aditu eguin, ta gogo gaiſtoac eracuſten dien, videren batean ſartzen diranac. Or barrena igan uſte dute gaiſoac Ceruco atſeguin cotentu-etara; baña ez da erraz, Jangoicoac eracutſi etzien, videz, edo vici moduz oriec ori erdiſtea.

Jangoicoac eguiten dien, bihotzeco, edo Animaco hitz eme hau aditzen ez dutenac; edo hitz onen berri guti dutenac, bijoaz, Jangoico berac bere lecuan daduzcan, guizon jaquindun virtutetſu-etara: Oriec eracutſico die, cein den, artu behar duten, videa, edo vici modua. Hau eguin gabez, galdu ciran, Iſaiaſec dionaz, Iſrael-darrac. Beren buruz, ta Jangoicoaz caſoric eguiten etzutela, artu zuten oriec beren videa; baña alaco videa! gogo gaiſtoaren videa! vide macur-

gal-

galgarria! vide onèz erditii uste zuten, nai zuten, gucia; ta erditsi etzuten, ezagunen hista, ta beren lotia, ta alquea beste ondasunic. (3)

Cembati, ta cembati guertatu oi zaie ori bera egungo egun-etan ere? Gazte ariñac arquitu uste du Ceruraco bere videa, ez dagocan, edo Etsaiac zucentzen dion, ezcontzan. Ez du aditzen, ezcontzari dagozcan, gauzetan, guratsoen, ta ongui nai diotenen erranic bat ere. Eguiteco berean Jangoicoac eguiten diozcan, hitz onac itotcen ditu bere barrenean. Jangoicoaren lecuan daudenen igueti dabill beti, bere burutic quen ez dezoten, gogoan sartu-zaion, bere ezcontza galgarria. Sartzen da azquenean contraco bere ezcontzan, ta ez du guero bere ezcontzan arquitzen, quezca, negarra, damua, ta loia, besteric.

Aberatsf videa da, diruzalearen iduriz, Ceruraco videric zucenena. Orabat guertatzen zaio ohorezco videa-requin, antustez, burua beteric daducan, guizon arroari; baña vide oriec bien gal-videac dira, ez Ceruraco vide-zucenac.

Ez dela vide zucena, uste du behartsuac, beharrez, nequez, gabez, lanez, ta icerdiz betea dagoen, videa; ta ori da vide bat, humilqui artzen dutenac, zuten-zucen Cerura daramatziena. Jangoicoa da, siñis nazazu, Ceruraco videen, ta gure gucien behar bezala co berria duena. Icas zazu bada bera gandic otoitzez, erreguz, vicitza garbiz, ta gald-eguinez, cein den zurea, edo zuri dagoquizuna; ta, beste guciac utziric, artu zazu hau, artu nai ba-dezu berez bucaera on bat dacarcen, videa, edo vici-modua.

Nai dezu zuc erditsi vide on onen bucaera on hau? Bada zabiltza ortic zucen; edo zabiltza, cere beguiac quendu gabe, Ceruco cere Legue garbi argui-eguilletic. Eguizu beti Legue bereco mandamentu guciac diotena; artu-izquitzu Jaunac gogarguiz adirazten ditzquitzun, gauzac, eta Jaun beraren ordez emen daudenen erranac, edo consejuac; eta azquenean zuc erditsico dezu cere Ceruco videaren bucaera.

Emengo vide-etan, edo eguiteco-etan elcar engaña dezaquee guizonac, edo gendeac; baña ez du nior Jangoicoac engañatuco Ceruco videaren gañean; ez da alabaña Jangoicoa, guizonac bezala, gauza baten lecuan, bertzea erran dezaquena:

ten ordez emen daudenen erranac, edo consejuac; eta azquenean zuc erditsico dezu cere Ceruco videaren bucaera.

Emengo vide-etan, edo eguiteco-etan elcar engaña dezaquce guizonac, edo gendeac; baña ez du nior Jangoicoac engañatuco Ceruco videaren gañean; ez da alabaña Jangoicoa, guizonac bezala, gauza baten lecuan, bertzea erran dezaquena: dena den eran eracusten dio gure Jangoicoac, icasi nai duenari. Artzen ba dugu guc esquer gabeco vide macurren bat, ez da ori izain gure Jangoico maita-garri zucenac eracutsia; eracutsia izain da, edo gure Etsai galdu amurratuac, edo gure gogo, edo naigabe galgarri gaistoac.

Ez al naz sartuco ni orrelaco vide galgarri errebes-etan? Ez, nic neronec nai ez-pa-dut, edo ni ba nabil Ceruco arguiari beguiratuz, ta Jaunaren lecuan daudenen erranac eguiten ditudala. Orrela dabillenari Jangoicoac ematen dio, behar duen, vici-modúa, ta Ceruco videa. Bai-ta bere escua, ta laguntza ere. Indazu niri ere, Jaun onguille-maitaria. Bai arren, bai; ta ibillico naz, gaistoac utciric, zuc eracutsi didazun, videz; ta bein-ere ori uzten ez dudala.

§. III.

EMATEN DIGU JANGOICOAC (eta anitz aldetara) gueren videraco behar duguna.

BA-ditu Ceruco videac bere sasiac, ba-ditu bere aldapac, ba-ditu bere mendi gogorrac, edo ba-ditu bere nequeac; eta ascotan neque gogorrac. Indar laburrac dira berez gure al-eguin, ta indarric andienac orrembat nequetaraco. JESUS bat, behar, bezala errateco diña ez gara gu guerez, dio San Pabloc, Adanen beeatuac azpira guinduenetic; eta azpira guinduen, vicitcen asiorduco (4). Ez gara indartsuagoac guelditu guerozco gueren vicitza charra-requin; bada, Ptofetac dionaz, guelditu gara carga-tzar andi baten azpian datzan bat bezala, edo erdi lertuac, eta zauriz, ta aztura gaistoz beteac. Gure zauriac, guc artara beguiratu gabez, ditituz, ta ustelduz joan izandu diran, zauriac dira. Eraqueriz bete da gure burua. Tirricacio gaistoen suác artu ditu gure guiltzurriñac, eta bihotza; ta laceri uts-eguiñac, eta gaitzera, agurea lurrera bezala, macurtuac guelditu gara (5). Orra nolacoac guelditu garan gu gueren becatuac gatic! Eta orra cein charrac

rrac guerozco gure indar guciac!

Nola guc onen indar guti requin, ta lagunic bague guene-ramaque, gueren legueco uztarri aituna, ta carga gucia? Nola, ta noiz guc eguin guenezaque, Cerua irabazteco, eguin behar den, eguiteco nequezcoa? Ez eta secula gucian vici ba-guiña ere. Baña, guerez ecin daguiquegun, lan andi, ta eguiteco gogor hau, aisa eguin dezaquegu, gure Jaunac laguntzen digula, ta beraren gracia-requin batean. Ala dio Jaunac berac: atozte, dio, nequetan zabiltzen gaisoac; atozte, nic emain dizuet, ceren lanean iraunteco, behar dezuten, janari indartsu, nere gracia. Onen indarra requin, ariña idurico zaitzue, berez aituna den, ta ceren soñean daramazuen, nere legueco carga; ta, carga-pean ibillia gatic, ibillico zarazte atseguin, ta contentuz beteac (6). Ala guerta daquigula, gure Jangoico maita-garria.

I.

Ba-daquizu non, edo noiz ematen duen gure Jangoicoac Animaco janari indartsu hau? Ematen du Elizaco Sacramentu-etan; bai ta beste anitz aldi, ta lecutan ere. EMATEN DU, bai, ELIZACO SACRAMENTUETAN; bada, edocein Sacramentutã, behar bezala, artzen duenari, ematen dio Jangoicoac, artze berean, bere gracia; eta guero behartzen denean, otamen indartsu, edo graciaren laguntza, AUXILIOAREN icena duen bat; eta, onen indarra-requin, nai ba-du, garai ditzaque bere Etsaiac; eta bere carga requin, anitz necatu gabe, ba dabilque Cerurañoco bere vide gucian. Cembat gueiagotan, ta obequi confessa-comecatzen den bat, ambat laguntza gueiago, ta indar andiagoac irabazten ditu, ambat lasterrago doaz, dituen, animaco zauriac, edo aztura gaistoac; ambat indartsuago arquitzen da, ta ariñago dabil Ceruco bere videan. Orretaraco da, Sacramentuetan Jangoicoac ematen duen, Animaco janari indartsu hau.

II.

Janari onen, edo Jangoicoaren laguntzaren behartzen garan gucietan, ecin goazque confessa-comecatzera; ta, ori daquien, gure Jangoicoac, ematen digu, escatu ezquero, bertze anitz aldiz, ta lecutan ere; bada ematen digu libru onac iracurtzean, ta predicuetaco demboran; ematen digu ill-berria, ta ill-ezquilla aditzean; il-

iltzen dagoena nequez, quezçaz, ta icerdi otzez bètea ecustean; ill mezan, ill-ortzietan; erraietaco, buruco, ortz-etaco, sabeleco, edo bertze edocein miñ dator-quigunean; escuetaco gauza gaizqui ateratzen zaicunean: nai-gaberen batequin arquitzen garanean, beguitarte charra eguiten zaicunean; esquer gaistoac, eta arpegui illuna baicic, ecusten ez ditugunean, ta onelaco bertze anitz alditan: bada aldi-orietan eman oi digu gure Jangoicoac bere inspiracionea, edo gogarguia. Gogargui onec ematen digu batzuetan ondu-nai on bat; eta gueienetan beldurtzen gaitu. Eguiten du gure Jangoicoac bata, ta bertzea, guri escaraztea gatic, eman nai digun, bere janaria, edo graciaren laguntza; ta ematen digu beti, guc hau ongui escatu ezquero.

III.

Orrelacoric ez izan-arren, ez dago, ez, gueldiric gure Jangoicoa: billatzen ditu, bai, eman vide berriac. Ba daqui gure Jangoicoac, bihotza noizean-bein illuntzen, edo berotzen ez-pa digu, joain zaizquigula horduac, eta horduac ere, Ceruraco deus eguiten ez dugula, ta Jangoicoric den ere, oroitu gabe. Ba-daqui Jangoicoac, bai, gu guerez, ta arc cerbait eguiten ez pa-digu, oituco garala alferquerira, ta zabartasunera; ta, orietara oitu ezquero, aisa garaituco gaituela gu, gu galdu naiez dabillen, gure ersai amurratu gaistoac. Gal ez gaitecen bada, ta erne, ta viciro gabiltzan Ceruraco gueren videan, ematen digu batzuetan bera maitatu-nai andi bat; eta bertze cembait aldiz illuntzen digu bihotza, ta uzten gaitu carga-pean, edo nai-gabez itotzen bezala: ala bad ere daguigun, eguin behar duguna, edo daguigun, urean itotzen dabillenac, eta carga pean lertcen dagoenac eguin oi dutena.

Ba daquizu cer eguiten duten oriec? Oiuz, ta deiez daude, bazter aietan dabillena, berei laguntcera, eracarri naiez. Escatcen diote negarrez, ta humilqui, lagun daquiela escuz, igueriz, ta alde gucietara; ta ez ditzala utzi, arri-petic bata, ta bestea uretic atera artean. Orra oriec eguiten dutena; ta orra, zuc daguizun, zure Jangoicoac nai duena.

Animaco premian arquitcen zaranean, ots-eguiozu cere laguntzalleari, ots-eguiozu cere Jangoicoari. Ez dezu arquitu-

co, ez, hau baño, alderago daducazun, laguntzalleric; ez eta oberic, eta urricaltsuágoric ere. Ez dizu niorc ere, onec bezain ongui, ta lafter quenduco cere barreneco pisutasuna: etzaitu, onec bezala, batec ere ateraco cere neque-quezqueen ur-peric. Ortic ateratcea gatic zu, ta videnabar zuc ar dezazun, Ceruco videan irauteco, behar dezun, janari indartsu, graciaren laguntza, ematen dizquitzu aldi orietaco berriac, nai gabeac, eta bihotzaren uquierac; orrela bad-ere zoazquio, videraco janariaren, edo graciaren esque; ta, escatu ezquero humilqui, ta behar bezala, emain dizu, gutienean, behar dezun, gucia.

Orra cembat aldiz Jangoicoac eman oi duen bere gracia, ta laguntza. Ba-da cembat ere anitz diran, aguertu ditugun, aldiac, ez dira, orretaraco bereciac daduzcan, guciac; ez eta erdien laurdenac ere. Guciac banàca aguertcea gauza luzea lizaque: hitz bian adiracico dizquitzut nol-ere bait.

Non-nai arqui dezaquegu guc gueren malcor-teguia, edo amildu-lecua; non-nai urrats, edo pausu gogorren bat, non-nai etsaiaren tentacionea, ta Cerua galtceco videa: baña an bertan arquituco dezu, nor bazara zu, cere eracusle zucena, escu emalle ona, ta, etsai guciac garaitzeco diña den, Laguna; bada bertan, ta bazter gucietan arquitcen da, gure Jangoicoa; ta Jangoico, escatcen dionari, arguia, escua, ta laguntza bertan emateco, prest dagoena.

Malcortcen ba-zara becatuaren errecara, itotzen ba-zara tentacioaren urean, uzten ba-dezu eguin gabe, eguin behar cenuen, gauza, izain da, artu nai gabez zuc, cere Jangoicoac esqueintzen dizun, janaria, escua, laguntza, ta gracia; bada esqueintcen dizu echean, esqueintcen dizu mendian, esqueintcen dizu videan, sasian, auzoan, urrutian, lanean, atseden-teguian, gavaz, egunaz, goicean, arrats-aldean, ta hordu, ta puntu oro; ta, behar adiña zuri emateco, ez dizu, bihotzez escatzea, besteric escatzen. Escatze hau ascotan zuri cere gogora eracartea gatic, bereci dizquitzu Jangoico berac, beste anitcen artean, milla aldetara, ta maiz asqui eguin ditezquen, urricarizco, edo misericordiazco amalaur gauzac.

Non arquituco dezu onen usu, ta merque videzcoei behar duten, janaria, ta edaria prestatu dien, Erregueric? Non, be-

berez, beharrean dauden, guciei laguntzen dienic? Nion ere! Ez da misterio: ez da alabaña, gure Jangoicoa bezalaco, Erregueric; ez da, hau bezala, bazter gucietan arquitcen denic; nai duen gucia eguin dezaquenic, eta escatcen zaion, ta gure oneroco den, gucia eguin naiez dagoenic.

IV.

Nai hau aguertzen digu, erran diran, gauz-equin ez-ecic, eguiñac daduzcan, munduco guciequin ere; bada guciequin deitzen digu, beti beti prestaturic daducan, bere graciaren maiera. Choricho cantariac, aritz mutuac, loreac, iturriac, belarrac, oin-peco arriac, izarrac, eguzquiac, eta gañeraco gauza guciac adirazten digute beren moduan, Pròfetac diona. Beguira, dio Profetac; beguira, guizona, beguira emaztequia; ez zara cerez etorri zu, ez mundura: cere Jangoicoac eguiña zara (7). Orretan erraten digu: ez zara etorri, ez, cere eguille ônaz azturic vicitzera. Jangoicoac eguiña zara. Eguin cinduen, Cerua irabazteco. Eman cizun irabaz-teguia. Eracutsi dizu irabaz videa; ta ematen dizu, irabazteco, behar den, indarra, laguntza, ta gracia.

Etzaitzala izutu mandamentuen cargac, eta cere legueco gurutzeac. Graciaren janari indartsua-requin, ta Jaunac laguntzen dizula, arinduco da gucia; fite, ta laster bucatuco dira zure munduco lanac, eta videac; eta ez da bucatuco bein ere, vide onèz, irabacico dezun, doacundea, edo beti iraun behar duen, Ceruco atseguiña, ta contentua. Zoaz bada zucen cere videan; ta zoaz, noicean-bein cere eguille on Jongoicoari agur eguiten diozula. Zoaz, ta zabiltza, Jauna servitu-naia, ta, zor diozun, maitatcea gogotic utzi gabe. Orrela ba-zabiltza, sartuco zara zucen, ta anitz necatu gabe, zu cere Ceruan.

Hau gucia, ta anitz gueiago adirazten dizu hitz bian Profeta Davidec; eta hau berau adirazten dizue, berac eguiten dutena-requin, munduco gauzaric mutuenac ere; bada bacoitzac eguiten du gau, ta egun, ta beti Jangoicoac nai duena, edo bere eguitecoa; ta eguiten du, edo Jangoicoac eraguiten dio, guri eraguin naiez guerena, edo eguin behar duguna. Gu, ez-beste gauzac zucen dabiltza, cein bere videan dabiltza, astunac izana gatic, eta pisuac. Eguzqui bera,

ra, ta izarretatic anitz astun-asgunac dira, edo lur-mendiac, eta itsaso gucia baño, anitz andiagoac, dira; ta, luma bat bezain, ariñac ba-lira bezala, dabiltza, Jangoicoac bacoitzari eman dion, videz, bein ere guelditu gabe, ta egun oro millaca, ta milloica legoac eguiten dituztela. Iturri-etaco, ta Ibaietaco, edo ugalde-etaco urac ez dira guelditcen, itsasoan sartu artean, quentcen ez-pa-zaie, beren araco videa. Batetic bestera dabill itsasoa, bere ur, ta vaga guci-equin, Jangoicoac nai duen bezala: ta ez da munduan gauzaric, Jangoicoac nai duena, ta Jangoicoac nai duen, videz eguiten ez duenic.

Guciac bada beren hitz-eguite mutua-requin, erraten digute, Apostoluaren ezpañez: eguizue, Guizonac, eguizue zuec ere ceren eguitecoa (8). Zoazte, tricatu gabe, ceren videan, doatsuac izan nai ba-dezue secula gucian; zabiltzte zucen, ceren Jangoicoa ecustera Ceruan sartu artean. Orretaraco eguiñac zarazte, zarazten guciac. Ongui zucena da Ceruco videa; videzcoac behar dituzten, janariz, ta gauzaz ongui beteric dagoen, videa da zuen Ceruraco vide hau: Ecin jaquintsuagoa da, ecusi dugun bezala, ecin-eguilleagoa da, ta ecin obea, gure Jaincoaren gobernua, letarta, edo providencia: providencia onequin gucia requin artu ditu Jangoicoac, gure oneraco diran, vide onetaco neurri guciac; eta prestatu ditu, jaiotcetic Ceruraño behar ditugun, gauzac: orre gatic zor diogu guc gueren Jangoicoari, al dugun, beguiratze on, agur, esquer, ta maitatce gucia.

Beguira zagozu bada, esquer utsez betericaco beguiequin, gauza guciac, zure onari beguira utci dituen, zure Jangoico beguiratuari. Eguiozu agur, ta agur, beguiz, buruz, bihotzez, ta alde guci-etara. Zure Jangoicoa, ecer-ecetic atera cinduen, ta Ceruraco zaduzcan, Jaun, ta Jabe ecin-andiagoa da. Emaz-quiotzu bada, eman al adiña, esquer, ontartez, ta mesedez bete zaituen, ta ontart berriac, eta berriac zuri eman naiez arquitcen den, cere onguille, ecin-onguilleagoari. Maita-zazu; baña maita zazu al eguinean; bada beti ónac maitatcen dagoena, gaisto guciac ondu nai lituquena, ta guci-guciac Ceruan sartu naiez dabillena da zure Jangoico ecin-maita-garriagoa.

Ecin

Ecin daguiquezu, maitatte hau baño, gauza obeagoric; ez eta beharrago-dezunic ere. Zori onecoa zu, zucen, ta behar den, eran hau eguiten ba-dezu! bada videnabar eguiñen dituzu, Ceruco videan zucen ibiltceco, eguin behar diran, gauzac: eta egunen batez sartuco zara Ceru berean, an zure Jaunari zu ganaco bere gobernu, ta letart onesgarria gatic, emen ez-bezalaco, esquerrac ematera; ta, emen baño, aguitz, eta aguitz garbiroago, ta obequi, zor diozun gucia gatic, bera maitatcera. Eta non arquituco dezu gauz obeagoric? Non, hau baño, beharrago dezunic? Ez al dezu cere eguiteco hau utzico aldebat, orain-dañocoan bezala? Ez baldin-ere? Ez arren, ez! Ez dagoca esquer--gabetasun char ori, bere letarta, ta providencia gucia-requin zure onaren billa dabillen, zure Jangoicoari: ez, eta zure onari ere: esquergabe-tasun orretan bucatcen bacenitu cere egunac, zu izain ciñaque zori gaistoco malurus, doacabe bat; bada, Ceruan egon lecuan, egon beharco cenuque beti ta beti usteltzen, ta erretzen sulecean.

Ez, nere Jangoico maitea, ez da neque arrigarri hau niri ongui dagoquidana; ez, eta onara daraman vide zabal gaistoa ere! Niri dagoquidan, videa, zuc eracutsi diguzun, videa da. Hau da nic gaur danic artu nai dudana. Hau da nic orain nai dudana, naiz dela, berequin dacartcien, bere lan, ta gurutce guciequin. Guciac eraman uste ditut, zure graciaren indarra-requin batean, ta zuc laguntcen didazula. Indazu cere laguntza, indazu cere gracia; ta goacen, nere Jangoico maitea, nondic nai, ta zuc nai dezun bezala. Atsecabeen mendiac, nai-gabeen aldapac, asmacio gaistoen larreac, gorrotuen sasiac, eta gañeraco, urrats--pausu gaistoac, ez naute izutcen, zure gracia nerequin dudaño, ta zuc escutic naramazula. Goacen, goacen bada, nere Jaun escudun maita-garria; goacen nondic nai: bada ecin eraman nazaquezu zuc, ez-pa-da vide zucenez. Zure letartac trazatu duena da nerezat videric onena. Hau nai dut nic ere. Zurea da oraingo nere nai hau, ere, nere Jangoico maita-garria; bada nere bihotz charrac ez luque berez artuco onelaco asmoric. Nai onequin nai dut ibilli, nabillen artean; ta, nai hau utzi gabe, nai dut sartu, zure providencia

cia zucenac apaindua daducan, zure Ceruan. Ala guerta dedilla, nere Jaun on-andia; bai arren, bai.

I.

TUA AUTEM, PATER, PROVIdentia ab initio cuncta gubernat. Sap. 14. 3.

Zure gauzac ecusteco, gure Jaun andia, itsuac gara munduco gueienoc. Berez ba-lebiltza bezala, beguiratzen diegu, ecusten ditugun, gaucei. Guciac dabiltza zure letartaz, ta providenciaz, edo zure providenciac daramatcien moduz, ta videz; ta ez-pa-liz baño, gueiago ez gara oroitcen gu zure providenciaz! Artitcen gara mun duco bazterrac, eta Ceruco izar-eguzquiac ecusten ditugunean; ta ez dugu beguiratcen ere, guciac eguin cituen, ta escutic daduzcan, zure letarta gobernarira. Hau guertatuco ote da emendic aitziña? Ez, zuc nai ba-dezu, esquer gabe charra. Nai hau gogoan far daquizun, beguira zazu, guizon dongea; beguira zazu emacume, centzu gabea, beguira zazu non arquitcen zaran, ta certaco zauden, zauden toquian? Arquitcen zara, Jangoicoac eguin cizun, ta bere letartaz ongui zucendua daducan, munduco echean. Eche, edo toqui onetan arquitcen zara, doacundez betea dagoen, gain artaco toqui ederra irabazteco. Esquerrac emanez, ongui viciz, ta lanac zucen eguiñez irabazten da, zori oneco toqui hura.

Ay ene! ta nere zoratu galdua! Ni gatic eguiñac, Ceru-lurrac, eta Munduco gauzac! Jangoicoaren escuan gauza gucien gobernua! Nere Aita on maitari eguinic nere Jangoicoa! Niri beguira; niri Ceru gucia eman naiez Jangoicoaren letarta, edo providencia: ta ecer zor ez-pa-nio, bezain aztua ni nere Jangoicoaz, ta Jangoicoa gandic arturic daducadanaz! Ceruraco jaioa ni! Ceruа irabazteco, Jangoicoac ecarria ni, nagoen toquira! Ongui vici beharta ni! lan on anitz eguin beharra ni! ta alferqueria, gaizqui vicitcea, ta Ceruа galtcea bai-liz bezala nere eguiteco gucia, lotan ni gueienean, becatuaren loican ni, ta Cerutic urruntcen nauten, gaizquiac, eta gaizquiac eguiten ditudala ni! Non dut nic, non burua? Non dut nic, non ezaguera? Ez ote naz ni, noizbait-noizbait nere contura beharra!

Baldin-bere bai, nere oneraco, letartaz, ta providenciaz betea zauden, nere Jangoico mai-

maita-garria! Ezagutu dut bai, berandu bad-ere, artaraco ecarri ninduzula zuc, nagoen lecura! ta ezagutu dut, bai, certaco darabiltzan zure providenciac, dabitzan, bezain ongui, ta zucen, munduco gauzac! Guciaz valiatu uste dut gaurguero nere oneraco. Vici uste dut bein-ere nere beguiac quendu gabe, zure gobernu zucen-onguilletic. Orri onela beguiratce onec eraguiñen al-dit, Ceruraco ba-naz, eguin behar dudana? Behartuco al-nau, esquerrac zuri ematera; ta, Cerua irabazteco, eguin behar den, gucia eguitera? Ori da nere eguitecoa. Hau neguien, eguin ninduzun zuc, nere Jangoico-eguille-gobernari maita garria. Eracus zadazu, zucen eguiteco, artu behar dudan, videa. Bai arren, bai.

2.

MISERICORDIA, ET VERITAS præcedent te. Psalm. 88. 16.

Jangoicoac eguin litzaque gurequin ere, beste anitzequin eguin dituen, castiguac: bai, ta andiagoac ere: bada culpa andiz, ta obenez, oriec ez bezala, ta ascotan loitu diogu guc, Cerua irabazteco, berez eguin, ta ônez eman cigun, munduco bere eche galant hau. Baña urricari-egui gaitu gu gueren Jangoicoac, eta gueiegui nai digu, ori arc gurequin eguiteco; ta, era orretaco castigu-ac eguin lecuan, eracutsi digu castigu guci-etatic igues eguiteco videa: bada eracutsi digu, nola gueren loiac quendu, ta nondic artu, Cerua zucen, ta utsʃ-eguin bague, irabazteco.

Quentcen dira gure loiac (gure Jangoicoac guri eracutsi digunaz), gaizqui eguinen damuz, ta urriquiz: bada gaizquiez urriquituric, eta eguin ditugun, charqueriez damuturic, ecusi orduco gu, gueren Jangoicoac, urricaltcen zaicu, ta ematen digu, becatuaren loiac quentceco, behar den, ura, ta gracia. Gu becatuen loiera orduco, andic atera gu, ta garbitu naiez dabil gure Jangoico urricaltsua. An sartuàz, damutu daquigun, zulatcen dizquigu bere beldur santuz gueren bihotzac; eta adirazten digu cer videz artcen den, gaizqui eguinen, behar bezalaco, urriqui-damua, ta laguntcen digu artcen ere. Atocea; ta ez da gure Jangoicoaren eracuste hau eracuste ecin-urricaltsuagoa? Orra bada zuc cere Jangoicoari zor diozun, eracustea!

Baña ez azquenecoa : bada loietic ateratcen ez-ecic; eracusten dizu zuri cere Jangoicoac , nondic behar den artu ere , Cerua irabazteco ; bada bein Predicariz , bein libruz, ta ascotan gogarguiz aguertcen dizquitzu bere Legueco Mandamentuac , eta, zuc goiz-arrats, eta egun gucian eguin behar dituzun , gauzac. Zori oneco humea zu , zucen ba-zabiltza, ta , vide hau galdu bague, ta zuc eguitera , icasten dituzun, gauzac ! Ala guertatcera , etzara zu ez berriz becatu larrien loieraco ; choil , edo chit urrunduco zara cere Jaunaren castiguetatic ; irabacico dezu zuc Cerua ; ta an egoin zara beti, Jangoicoari , bere urricarizco eracustea gatic , esquerrac , eta esquerrac ematen. Ala guerta dedilla , nere Jaun maita-garria : ta , guerta dedin , indazu videa bezala , videraco behar dudan , indarra , ta laguntza. Bai arren , bai.

3.

VIRTUTI BRACHIJ TUI , QUIS resistet ? ... Sed misereris omnium, quia omnia potes. Sap. 11. 22.

Gure Jangoicoa ba-liz, guiza charren eracoa , gaizquibat eguin orduco , galduco luque gaista-guillea , naiz lizala den andiena. Bai , dio Escritura Santac ; ez da Jangoicoac ecin daguiquenic ; eta nai balu , bidal litzaque gaista -guiña gana , onec becatu bat eguinorduco , nai-adiña artz , eta otso , nai adiña leoi , oraingoetatic ; edo , oraingoac baño, ausardi , ta irain gueiagocoac: bidal litzaque , oraingo basurde , ta larretiar izugarriac baño , aguitz izugarrigoac ; bada bidal litzaque , aicezcoaren lecuan , suzco atsa edaten dutenac , sudur-etatic quea , ta beguietatic sua darienac , eta bere itsus-tasuna-requin , beguiratcen liena ill-otza utcico luqueenac. Ez du orrembat behar gure Jangoicoac, nor-nai, ta Munduco guciac illac uzteco ; bada guciac daduzca escutic ; eta , utzi ezquero , illac dira diranac. Ez da , ez , gure Jangoicoari besoa biurtuco dionic : ez da , ez , eguin nai duena oni eragotcico dionic : eta al ere ez da , bera bezalacoric : bada bere besoa , ta besoco indarrac gure oneraco daduzca , ez gu galtceco.

Gaistoac gara gu , daquizun bezala ; gaizquitic gaizquira gabiltza aspaldico demboran : sulecea maiz asquitan ira-

ba-

bacia daducagu gueren--obenculpequin : utz guintzaque gu gure Jangoicoac bertatic an ondatuac. Ondatu gaitu ? Ez eguiazqui ! ta, ondatu lecuan, lagundu nai digu gueren eguitecoetan, ta Ceruco vide gucian. Urricari gaitu alabaña, ta, vide hau utziric, sartcen ba-gara becatuen sasian, luzatcen du bere beso altsua, andic ateratcen guri laguntceco, ta gu gueren videra itzul-erazteco. Ori ez-ecic, prestatua daduca, guc gueren videraco behar dugun, jan-edana, edo Ceruco gracia. Videratcen garanean gurequin da bai, gure Jangoicoa; ta escatcen diogun, aldi gucietan, ematen digu bere escua, ta bere laguntza. Escu oni ongui itsatsi ezquero, ez da errortceric, ez da, garaitcen ez den, pausu gaisto, edo al dapa gogorric.

Andia da bai, gure legueco gurutzea : baña andiagoa da gure Jangoicoaren laguntza, ta graciaren indarra. Quezcaz, ta nai-gabez beteac ecusten gaitueneco, ematen digu guri gueren Jangoicoac atseden toquia, ta gueren barreneco sosegua: bada sartcen digu gueren bihotzeraño, ez-pa-diogu guc gueroc eragozten, bere gogarguia, ta uquiera leuna, gure gaizquien damu beroa, Ceruan sartu-naia, ta Jangoico bera ganaco amorea. Curi gueren illun-tasunetan, ta eguiteco bacoitcean laguntceco dago gau, ta egun, ta beti, gure Jangoicoa; ta laguntcen digun baño, gueiago laguntcen ez-pa-digu, gure naigabez da, ta guc ori ari escatu faltaz : bada gucia dezaquena da gure Jangoicoa, ta, gu escalle baño, emalle obea.

Ala da, nere Jangoico maita-garria : ala da ! Eguin ditudan, gauzac, zure laguntzari zor diozcadan, gauzac dira ; ta, eguin bague daudenac, eguinquizun arquitcen dira, nic eguin nai-gabez; bada, nic nai izan banu, zurequin batean, aisa eguin nitzaqueen ; zu prest ceunden alabaña, nic escatu ezquero, guciac eguiten niri laguntceco. Laguntz hau escatu gabez, eguin ditut nic orain-dañocoan, eguin ditudan charqueriac; eta, zuc escutic iduqui ez pa-nindu zu, eguiñen niruen, eguin ditudanac baño, aguitz, eta aguitz andiagoac eze. Iduqui nazazu, utzi gabe, ill arte gucian, ez daguidan berriric, nere Jangoico maitea; lagun zaquizquit eguiten, Ceruarabazteco, eguin behar ditudan, nere eguiteco guciac ; eta, ariña-

go noan nere Ceruco videan, quen zadazu, eguin ditudan, becatu gucien carga. Damuzco naiez beteric escatcen dizut graci hau, ta, hitcez bezala, bihotzez erraten dizudala: NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.

(1) *Regnum Cælorum vim patitur, & violenti rapiunt illud.* Matt. 11. 12.

(2) *Ventura interrogate me.* Isaì. 45. 11.

(3) *Væ filii desertores, &c.* Isaì. 30.

(4) *Nemo potest dicere* Dominus Iesus, *nisi in Spiritu Sancto.* 1. Corinth. 12. 3.

(5) *Quoniam iniquitates meæ supergressæ sunt super caput meum, &c.* Psalm. 37. 5.

(6) *Venite ad me omnes, qui laboratis, &c.* Matth. 11. 28.

(7) *Ipse fecit nos, & non ipsi nos.* Psalm. 93. 3.

(8) *Rogamus vos, ut vestrum negotium agatis.* 1. Thesal. 4. 10.



AMAI-

upna

AMAICA-GARREN OTOITZ-GAIA.

NOLA EGUITEN DUEN JAUNGOICOAC GUrequin, gure oneraco, eguiten duena.

NOr garan gu, ta nor den gure Jangoicoa; ta Jaunarequico gure charqueriac, eta Jaunari guc zor diozcagun, ontarteac ecusi ezquero, ecusi ditugun bezala, ecusia dago, ecin gueiago-rañocoa dela guc gueren Jangoicoari, zor diogun, amorea. Ala ere, obequi hau ezagutceco, ecusi behar dugu, nola eguiten dizquigun gure Jangoicoac, eguiten dizquigun, ontarteac, eta favoreac; eta hau ecusico dugu, ecusiz, NON ARQUITZEN DEN, TA CER ERAN gure Jangoicoa, oriec guri eguitean; cer ASMOAC diran, orduco gure Jaunaren asmoac; eta CER GATIC EGUITEN dizquigun, eguiten dizquigun, onac.

§. I.

GUREQUIN DAGO BETI, GU DIñacoa baicic, ez pa-liz bezala, gure Jangoico onguille maitagarria.

EZ da gure Jangoicoa, gu bezala, gorputza-requin arquitcen den, gauza. Espiritu utſ-utſa da gure Jangoicoa; ta orre gatic ſar ditequena da, gu, gueren gorputzac gatic, ecin ſar gaitezquen, lecu-etan, toqui-etan, ta gaucetan ere: bada gu ecin ſar gaitezque, Jangoicoaren milagroric bague, zuloric ez duen, arri-oſo, edo aritz batean; ta gure Jangoicoa ſarturic dago aritz-etan, arrietan, ta arquitcen da edocein gauza chiqui, ta andi, laſai, eſtu, zabal, mear, berà, ta gogorren barranean. Onguiiza-

izateco, behar du non-nai gu re gorputzac, bera diñaco, toquia; ta behar du toqui, beste gauzaz beteric arquitcen ez dena: bada oin bat ere ecin ezar dezaquet nic, zuc cerea daducazun, toquian. Or nerea nic ezartceco, lenic quendu beharco dezu zuc ortic cerea.

Gure Jangoicoac ez du behar, bera, beste toquiric, ongui, aisa, ta, nai duen eran, egoteco, egondu den bezala, joan den eternidadean, edo Ceru-lurrac, eta munduco gauzac eguiten asi baño, lenagoco demboran, ta secula gucian; bada orain amar milla urte, ta gueroz ere etcen oraindic Munduric, ez, eta Jangoico bera beste gauzaric ere: ta bera baicic etcen, lenagoco demboran, ta eternidade gucian, arquitcen cen gure Jangoicoa, guerozco urteetan, ta orain ere arquitcen den bezain, ongui, ta aisa.

Baña, berac guero eguiñicaco, lecu, ta bazterren beharric ez izana gatic, ongui, ta behar bezala egoteco, ba-dagoque gure Jangoico maita-garria, gauza, ta toqui edoceinetan; ta, toquiac, bazterrac, eta gauzac eguin cituenetic, guci-gucietan dago. Bai; berac eguin cituen, ta diraucten, gauza gucietan arquitcen da gure Jangoico-maita-garria; bai, ta gure baitan ere; ta emen arquitcen da, gure Anima bere gorputcean, bezain barren, ta barrenago ere sartua. Zatiric ez duen, espiritu uts osoa da gure Anima; ta, gure gorputcean dagoeño, sartua dago, gure ezur muñ-etan, ta gure gorputzaren gauza, ta lecu gucietan. Nola uste dezu? Oso-osoa.

Bai; zure Anima gucia dago zure buruan; gucia dago edocein zure escutan, gucia zure oñ-etan, ta guci-gucia zure oñ-escuen, buru-besoen, ta zure gorputceco gaucen zatiric chiquien-chiquienean- ere. Luzatcen, ta zabaltcen da zure Anima, zure gorputza luzatcen, ta zabaltzen denean; ta zure gorputza noizbait meartcen, edo laburtcen ba-da, an bertan biltcen da zure Anima ere; ta arquitcen da beti zure Anima, zure gorputzac, adiña toqui baicic ez-duelá. Orra gure animaren gorputceco egoera: ta orra urrutitic, eta gaizqui ba-dere, Jangoicoaren gure gango, ta ganeraco gaucetan duen, egoera adirazten duen, egoera bat.

Bai; gure Jangoicoac mundu guciaren anima dirudi; ba-

bada, gure animac gure gorputza, bezain ongui, ta aguitz obequiago ere betetcen ditu mundu gucia, ta munduco gauza guciac. Ez da, ez, Ceruaren gañetic lurraren ondorañoco gucian gauzaric bat-ere; ez da itsaso gucian, ez da iturrietan, ez da ibaietan, ez da nion ere ur tantaric; ez, eta den pits chiquienic ere, bere izate andia-requin Jangoicoac betetcen ez duenic; bada ez du uzten bat ere, naiz dela, den charrena, den chiquiena, ta den itsusiena, bere gana artu, ta bere izatez, ecin-gueiagoraño, bete gabe.

Gauza arrigarria! Ecusi dugun diñacoa, ecusi dugun, bezain andia izaqui, edo ecin andiagoa gure Jangoico maitagarria; ta ala ere Jangoico, den, guci-gucia nere Animan! den, guci-gucia nere gorputcean; ta dena, den bezala, ta deus ere guelditu bague, nere bihotzaren erdi-erdian! Jangoico gucia, bai: Aita, Semea, ta Espiritu Santua emen nere gorputz char onetan, nere anima onetan! nere bihotzean! ta emen nerequin Jangoico, den, gucia, bestetan arquitcen ez-pa-liz bezain, osoro! ta, hau gucia deus-ez bat ba-liz bezala, Jangoico guci-gucia nere buruan, nere escuan, nere ezur zañ-etan, ta nere gorputceco zatiric chiquienean; ta, den, gucia nere zati, edo gauz orietatic edocein-etan, besteetatic batean ere arquitcen ez-pa-liz, bezain osoa! da alabaña gure Jangoicoa, zatiric baguecoa; ta, non nai arqui dedilla, egon behar du oso-osoa, ta, den, gucia.

Ez dezu ecusten cein aldean daducazun zuc cere Jangoicoa? Ez dezu ecusten, cere aldean ez-ecic, cere gan, edo cere baitan daducazula zuc cere Jangoico gucia? Ez dezu ecusten, guci-gucia daducazula cere Animan, ta guci-gucia edocein zure gorputceco puscan, ta zatitan? Zu, ta Jangoicoa bioc bat ez izatera, ecin dagoque zure Jangoicoa, dagoen baño, zure alderago: ta orrela dago, alderagotic zuri ontarteac, eta favore andiac eguin naiez.

Ah, nere Jangoico onguille maitagarria! Galdu ez nadin ni, ta niri bertatic lagundu naiez, nerequin zu! nere Animam zu! nere gorputcean zu! nere bihotz char onen erdi-erdian zu beti, ta beti! ta dembora berean (daqui, zun bezala) zure iguesi ni! becatuen ondoren ni! ta etsaien

tza-

atzaparretan ni! Non nuen nic orain-dañocoan nere burua? Non adimentua? Adimenturic ez duen, baten eran, edo, bururic gabeco bat bezala, vicitu naz ni oraindañoco nere demboran! Ay nere Jesus maitea! Orretaz dut damu, ta ciñez al-ere! Ez al naz berriz sartuco ni era bereco eraquerietan! Ez nuque nai beintzat, nere Jangoico maitagarria! Nic orain, ta beti, ta guero nai nuquena da, zu nere bihotzean, bezain barren ni zure gogoan, edo amorean sarturic vicitcea!

Oraingo nere nai on hau nic ez galtcera, ez dut becatu berriric eguiñen, ez, vici nazaño; ta lenic eguinac daduzca-danac zuc niri barcatu ezquero, zurea izain naz ni, nazan gucia. Ni zurea naz izatez, daquizun bezala; ta, ongui izateco, zurea behar dut izan alde gucietara. Jabetu zaitez, bada nere bihotzaz, nere Animaz, ta, nazan, guci-guciaz, bihotz nerean, nere Animan, ta, ditudan, nere zati guci--etan sarturic arquitcen zaran, Aita, Semea, ta Espititu Santu, nere Jaun andia: bai arren, bai.

§. II.

GUREQUIN DAGOEN, GURE JAUnaren asmoac, gure oncrace asmoac dira.

GUre Jaun andiac etzuen toqui beharric, ecusi dugun bezala, nola nai, ongui, ta aisa beti vicitceco. Berac ala nai izanic, eguin izandu guinduen, garan gucioc. Bere gana artuac gaduzca, eguin guinduenetic; eta gurequin arquitcen da bera, guri ongui naiez, ta guri alderagotic beguiratcea gatic; eta beguiratcen digu, Animac gorputzari baño, aguitz zucenago, ta ecinobequi. Anima berandu asten da gure gorputza zaitzen; asten da alabaña, gorputz-duna adiñetan sartu ezquero; ta gure Jangoicoac zaitcen gaitu gu, eguiten gaituen, puntutic. Bere eguitecoac eguiñen ba-ditu gure animac, behar du, gorputcean dagoeño, gorputz beraren laguntza, ta escua, ta al ere ez du zaitcen, behar bezala, beti beintzat gure animac bere gorputza. Gure Jangoicoac ez du deus-etaco ere gure beharric; eta, gure behar ba-liz, bezain ongui, ta cõtuz gau, ta egun, ta beti zaitcen gaitu gu gueren Jangoicoac. Naia gatic, ez daqui asco-

cotan animac cer eguin, gorputza sendatceco, edo, eritcen zaionean, gal-ez-dezan, duen, osasuna: ta cembait aldiz, jaquiña gatic, ez du eguin nai orretaraco eguin behar luquena. Ecin jaquintsuagoa da gure Jangoicoa. Ba-daqui gure oneraco, ta gaitz-eraco den, gucia: ta, izandu ez--pa--da cembait aldiz, izandu den baño, obea gure osasuna, gure culpaz izandu da ori; edo gure oneraco; bada onetaraco ematen dizquigu guri gueren Jangoicoac, ematen dizquigun, gauzac, naiz leunac izan, ta naiz latzac; jaquintsua, bezain ona da alabaña gure Jangoicoa, ta, guri dagoquigun eran, bere gauzac eguiten dituena. Hau onela dela, den bezala, ez da anitz, gu gueren Jangoicoac zaitzea. Animac bere gorputza zaitzen duen baño, obequi, ta obequiago ere.

Obequi hau zuc ezagutceco, jaquin behar dezu, Escritura Sanctac dion, gauza bat: Eguzquiaren arguia baño arguiagoac dira (dio Escriturac) Jangoicoaren beguiac; eta ecusten daude beti begui oriec gure videac, eta itsasoaren osiñac (1). Bai: bertatic ecusten ditu gure Jangoicoac, non-nai arquitcen diran, gauzac, eta edocein bazter-etan guertatcen den gucia; arquitcen da alabaña gauza, ta bazter guci-etan; ta beguira dago beti-beti gauza bocoitcera, hura baicic, ez-pa-liz bezala; ta ez da, gure Jangoicoaren ecuste garbia eragoz dezaquen, illumberic.

Gauaz bada, ta egunaz, beti, ta beti beguira dagoquie zure Jangoicoa zure gorputzari, zure animari, zure escuari, zure oñari, zure bihotzari, ta zuri zaran, guci-guciari. Ecusten du zure Jangoicoac gaitceraco zure macurtasuna; ta ecusten du, cere vide-chàrrac berac gal-erazten ez-pa-dizquitzu, bilduco dituzula zuc queñada ciquiñac, gogoeta lonac, asmo lizunac, eta, behar ez diran, lanac, obenac, azturac, eta gaizquiac.

Zure gaizquiac bezala, ecusten ditu Jangoico berac, zuc eguin ditzaquetzula, nai ba-dezu gauz onac, eta irabaciac ere. Guciei zure Jangoicoac beguiratcen die, zure gaizquiac eragotci naiez, ta on anitz zuri eraguitea gatic. Orretaraco sasoiaren, ta horduaren beguira dago zure Jangoicoa, beguiac bein ere zu gandic quentcen ez dituela. Ala dio berac; bada dio: beguieratic, eta gogotic utz dezaque Amac;

besoetaco bere humechoa, baña nic etzaitut utcico zu bein ere, nere gogotic, eta beguietatic. (2)

Bai: beti, ta beti dago gure Jangoicoa guri beguira; ta beti dago gure ona zaitcen bezala. Guc gueren esquer-gabez, edo charqueri-equin eragozten ez diogun-etan, zucentcen ditu gauza guciac gure onera, gure onguira, ta gure doacundera. Hau da orain-dañocoan guc ecusi duguna, edo, oartu baguiña, ecusico guenuena, ta orain ere ecusi dezaqueguna. Beguira zazu, siñesten ez--pa--dezu nic orain adirazten dizudana; beguira zazu, guertatu zaizquitzun, gauz-etara; ta ecusico dezu cer erraten dizun zure Jangoico maita-garriac cere bihotzean; bada errain dizu: *ATOZEA*: ta cembat aldiz adiraci dizut nic, eguin ditzatzula gauz hau, ta hura, edo besteren batzuec? Baña zuc ez aditu eguiten cenuen, ascotan beintzat: eta ala ere ez ditut nic zu gandic quendu bein ere nere beguiac. *NIC* nai nuena, ta zuri cegoquizuna cen zuc bere hordu-etan eguin behar cenuena: baña zu, ori eguiteco iratzarria, ta erne egon beharrean, egondu zara guelen-etan, edo anitz aldiz beintzat, lo-ta-lo cere becatu galgarrien oatce gaistoan: ta, an bertan nic, zuri vicia quendu lecuan, eman izandu diozcat croscadac, eta croscadac zure bihotz charrari; ta croscada oriec ematen niozcan, esna cindecen lembait-len; ta, iratzartcen zu, edo conturatcen asi orduco, zuri sartu naiez nembillen ni su-lececo nequeen beldurra, ta Cenuco atseguin-contentuen gogoa: gogo onèc, eta Cerua galtceco beldurrac atera cintzaten zu cere oatze loi gaisto, galgarri orretatic. *AL ERE* etciñan zu ortic ateratcen; edo, atera ondoan, itzultcen ciñan berriz, ta berriz, ta ascotan ere ara bertara, ta cere becatuen lo gaistora; ta orre gatic ere etzaitut quendu izandu nic nere gogotic; ez, eta nere beguietatic ere: zure barrenean arquitcen nintzan beti; ta beti nengoen ni zuri beguira-beguira, noiz conturatcen ciñan zu; conturatcen ciñanean, ondu-videan zu sar-eraci-naiez.

ORRETARACO eman izandu nizun (dio orain-dic ere zure Jangoicoac), dezun, Anima, dezun, gorputza, ta, dezun, izate gucia. *ONETA*-raco nic orain-dañocoan iduqui zaitut, eta orain ere zaduzcat vi-

ci-

ciric. Nic ez-pa-cindut eguin zu, etcinan vicitcen, asico seculan; ta, uzten ba-cindut, orain bertan, bertan illen ciñaque; ta, ill ez-ecic, izandu ez-pa-lira baño, gueiago ez liraque gueroz aguerico zure gorputza, ta anima: bada biac, sua, que-aicetan bezala, ecerecean guelldituco liraque. *EGUIN* dituzun, charquerien ondoan, vici ba-zara, niri esquerrac; bada vici zara, ceren zurequin nagoen, ta, escutic bezala, daducadan, bein eman nizun, cere vici ori. *ZABILTZANEAN*, nerequin zabiltza, ta ceren nic, escutic bezala, zaramatcidan, bada bestela bertan ill otza erorico ciñaque. *EGUITEN* dituzun, gauza gucietan hari zara zu, ceren zurequin nagoen ni; ceren nerequin zaduzçadan zu, ta ceren nic zuri quentcen ez dizquitzudan, bein eman nizquitzun, izatea, vicia, ta indarrac. ORIEC zure onera zucendu naiez nago beti zurequin ni; ta nago, zu zucenteeco, sasoi on baten beguira. Orra Jaincoac issil issil-choric zure barren orretan diona.

Ez dezu ecusten cein erne dagoen, ta cein ona den, cerequin daducazun, zure Jangoico maita-garria? Oartu zara bein ere zu, betico Jangoicoaren zure zaitce, zure onari beguiratce onetara? Ez dut uste; bada, oartu ezquero, etcen erraz, Jaun onequico izatea zu, izandu zaran bezain, esquer gabe gaistoa! Ba-dezu nombait zuc cere Jangoico iduquitzalle, erne, onari adiña, zor diozunic? Ba-dezu, hau baño, beharrago dezun, gauzaric? Eta al-ere gavac, eta egunac, hasteac; eta illac, urteac, eta urteac doazquitzu, cere Jangoicoari zor diozun, betico beguiratce onèz, ta ontasunaz oroitu ere gabe? Edo burutic iraucia zaude, edo arrizco bihotza dezu, edo ez daquit cer dezun zuc! Ecusi zazu zuc cerorrec; eta, gaistoac utciric, artu zazu onguien dagoquizun, videren bat. Orretaraco da, zaduztcatcien bezala, cere Jangoicoac zu, bere escutic iduquitcea, ta, beguiratcen dion, bezala, zure onari beguiratcea; bai-ta ematen dizquitzun, indar berriac ematea ere.

§. III.

GURE ONA GATIC DA, GURE Jangoicoac gurequin eguiten duen, gucia.

BAI; izatez, ta beguiratzez bezala, escuz, ta indar-

rac emanez ere, zurequin da beti zure Jangoicoa ; ta zure oneraco da , Jangoicoac zurequin eguiten diuena. Jangoicoac eguin ez-pa-cindu , ecer-ecean egoin ciñan egun, ta eternidade gucian ere ; ta orobat guertatuco cen , utci ba-cindu zu, eguin ondoan , edo edocein horduz , ta demboraz. Ba-darauzu oraindic , eta vici zara zu, ceren cere Jangoicoac zaduzcan, bere escutic, iutci gabe. Certaco eguin ote guinduen zu, ta ni bioc gure Jangoico maita-garriac? Certaco ote gaduzca gu Jangoico berac viciric gaur? Anitz gauz on eguiten ditugula, Cerua irabazteco. Gauz oriec ecin ote gueneguizque gueren indar utsequin ? Ez. Norc emain digu bada , orretaraco falta zaicun , indar--escua? Bere barrenean , ta escutic gaduzcanac , edo gurequin arquitcen den , gure Jangoicoac. Bai ; guri, behar ditugun, indarrac emateco , ta , eguin behar duguna , guri eraguin naiez arquitcen da gurequin gure Jangoicoa : ta arquitcen da gu-requin, gure anima , gure gorputzaren baño , gure on aguitz andiagoraco.

Gorputzac deus-bat ecin daguique , ez-pa-da Animarequin batean ; ta , animac gorputza iutci ezquero , lurrean datza gorputza ; ta lurrean datza , datzan lecutic, arri bat baño, gueiago iguitcen ez dela. Gueroz ba-doazque gorputza gana zacurrac ; bai-ta arranoac ere , nai dioten gucia eguitera; bada oriec hari bere tripaco esteac, bere-guibela , bere bihotza , ta beguiac ateratcen aria gatic , ez die, ez, gorputzac escuric goratuco ; ez , eta queñatuco ere ; ta , cer-nai oriec hari eguiña gatic , issill-issill egoin da ; ta , choriaren oin-pean dagoen , aitza , edo zura baño, gueiago iguitcen ez dela. Eguiñen ba-du bada cerbait gure gorputzac, behar du bere Anima , ta Animaren laguntza : ta onequin batean eguiten ditu, eguiten dituen , gauzac.

Hau gucia zor dio zure gorputzac zure animari. Zor andia dela, deritzazu ? Bada aguitz andiagoa da , zuc cere Jangoicoari diozun , zorra. Bai; aguitz andiagoa ; bada zuc cere anima cere gorputcean iduquia gatic, ecin daguiquezu queñu bat ere , edo den gauzaric chiquiena , orretan Jangoicoac ez-laguntcera zure gorputz-animei. Berebat guertatuco litzaioque, bacarric egona gatic, zure animari ; bada animaric gabeco gorputza , bezain gueldi

egoin

egoin lizaque horduan zure anima, Jangoicoac laguntcen ez-pa-lio bere gauzac eguiten; ta, animac eguiten duen, gucia, bere gorputcean arquitcen den demboran, ta guero gorputz hau ill ondoan, eguiten du, ez bacarric, baicic bere Jangoicoa-requin batean.

Jangoicoac laguntcen ez-pa-lizu, ez luque maitatceric zure bihotzac, ez luque ezagueraric zure adimentuac; ez, eta oroitzapenic ere zure gogoac. Dituzun, oroitzapenac, ezaguerac, eta maitatce guciac, cere Jangoico onac laguntcen dizula, eguiñac dira. Oroitcen ba-zara noizbait, aditu cenituen, gaucez; ezagutcen ba-dituzu, len ecusiricaco gauzac, eta gauzac maitatcen ba-dituzu, eguiten dezu zuc hau gucia, cere Jangoicoac emanicaco, indarra-requin, ta berac laguntcen dizula.

Cerbait ecusico ba-dute zure beguiac, behar dute zure Jaunac emanicaco, indarra, ta laguntza. Jaunaren indar hau, ta laguntza bague, ez dezu adituco hitzic, ez dezu adituco otsic; ez, eta soñuric ere. Jaun berac laguntcen ez-pa-die, ez dute artuco zure sudurrac loreen usairic, edo bertce urriñic; ez dute ortzac chiquituco jatecoric; eta uquituco ez dute zure escuac, munduan diran, gauz-etatic bat ere. Guciraco behar dezu zuc cere Jangoicoaren laguntza, ta indarra; ta, indar hau datorquizun artean, úra aitu zaion, errota bezala, gueldi-gueldiric egoin zara.

Behar dezu, Jangoicoaren indar hau, ta laguntza, asnasea artceco, lo eguiteco, ta oarturic, eta oartu gabe eguiten dezun, gauza bacoitz-eraco. Amets bat ere izain etzenuque zuc, cere Jangoicoac laguntzen ez liola, lotan nastua dabillen, zure buruari. Ez lizaque zure barrenean janaria bein odol, ta guero ezur-zain, aragui, printz, larru, ezcazal, edo ille eguiñen, zurequin batean, hari ez-paliz orretan ere zure Jangoicoa.

Hau gucia deus-ez bat dela, deritzat nic, orain erran nai dizudan, gauza baten aldean. Orain-dañocoan ecusi ditugun, ta, zuc eguiten dituzun, gauz onetan ez-ecic, gaistoetan ere behar dezu zuc cere Jangoicoac emanicaco, vicia, ta indarra; bada, hau bague, ecin daguiquezu becatu bat ere. Ez die Jangoicoac gaistoei quentzen indar hau, ta vicitza, gauza gaistoren bat eguin nai dutenean: lendabicitic eguin

guin-

guinduen gu gueren escucoac, nai dugula, irabaz dezagun gueren Cerua; ta ez da bere escucoa, nai duena eguiteco, behar duen, indarric bague arquitzen den, guizona.

Ez luque nai gure Jangoico maiteac, ez, eguin cenezan zuc becaturic bat ere: baña, eguin behar dituzun, gauz onac utzi, ta gaisto-etara macurtzen ba-zara, gogoaren contra bad-ere, ta, vide onean zu iduquitzeco, eguin behar duen, gucia eguin ondoan, uzten dizu, gauz onetaraco eman cizun, indarraz gaizqui, ta beraren contra zu valiatcea.

Idiquitzatzu noizbait cere beguiac, eta ecusi zazu cere Jangoicoari alde onetatic ere zor diozuna! Aingueruei, Guizonei, ta gañeraco gauza guciei laguntcen die Jangoicoac bere eguiteco andi, ta chiqui guci-etan; ta, zu baicic munduan ez pa-liz, bezain hastiz, ta contuz laguntcen dizu zuri cere-etan. Guciac, nai luque gure Jangoicoac, izan litecen onac, eta Ceruaren irabazleac; baña, eguiten dituzunac, eguin ditzatzun bihotzez, ta nai dezula, ez dizu borchaz eraguiten bat ere.

Adirazten dizu, ongui dagoquizuna; adirazten dizu aldi oro cer, ta nola eguin behar cenuquen. Alde orretara zucentcen zaitu, bihotza uquituz, videa eracutsiz, ta utsvide-etaraco beldurra cere gogoan sartzen dizula; ta, oneraco naicunde bat zuc aguertcen asi orduco, ematen dizu bertan, ta gogoz al ere, hura eguiteco behar dezun, indarra, ta laguntza. Hau eguin orduco, ta puntu oro ecusia gatic zu zure Jangoicoac naicunde on berria-requin, ez dizu ucatuco guci-guciraco behar dezun, indarra, ta laguntza: an bertan emain dizu, bai; ta ori eman ondoan, arquituco dezu zuc cere Jangoicoa, gracia, ta laguntza berriac, eta berriac eman naiez betea. Necatcen ez diranac dira Jangoicoaren indarrac; ecin-emalleagoa da gure Jangoicoa; ta ematen digun baño, gueiago ematen ez-pa-digu, izaten da, guc escatu gabez, ta ceren gure charqueriac eragozten dioten ematea.

Arquitcen ba-lu diruzaleac, nai duen guciraco, gure Jauna bezalaco, indar emalle, ta lagun on bat, aisa asqui, ta laster aberastuco lizaque: bada emallearen indarequin ateraco litu ue lur-peco urre-cillar, ta diamanteac; bai ta,

ta, itsasoan ondatuac dautzan, ondasunac ere, an acitcen diran, perla guci equin batean; ta, oriec bildu ezquero, Españaco, Franciaco, ta munduco Erregue, Emperadore, ta gañeraco guizon aberats guciac baño, aberatsago izain lizaque diru zalea.

Ez da munduan orrelaco indar-emalleric, eta bere indar-laguntzac, artzallearen oneraco, besteric bague, ematen daquienic. Ez da, gure Jangoicoa baicic, behar den, guciraco indarrac orrela ematen daquienic. Munduco ondasun guciac baño, gueiago valio du *AVE MARIA* bat ongui errateac. Goicetic arratsc-eraño erran ditezque, daquizun adiña; edo, orien lecuan, eguin ditezque, oriec adiña, ta aguitz gueiago valio duten, bertce anitz gauza. Egunaz bezala, gavaz ere hari zaitezque gauz onac, eta onac eguiten. Orretan hari nai ba-dezu gau, ta egun, ta beti, cere ill-arte gucian, emain dizu zure Jangoicoac, eta pocic al-ere, guciguciac eguiteco, behar dezun, gucia: ta, Ceruco zure doacunderaco behar ba-liz, lurpeco, itsasoco, ta bazter guciataco ondasunac biltcea, oriec bildu naiarequin Jangoicoac zu ecusi ezquero, emain liquezu, orretaraco beharco cenuen, indarra, ta laguntza; ta emain liquezu zure oneraco; bada ez du Jangoicoac zure gaucen beharric bat ere.

Orra certaco dagoen zurequin zure Jangoicoa: eguiten dituzun, cere gauza gucietan zuri laguntceco dago, naiz charrac izan ditecela, ta naiz andiac. Ez luque nai zure Jangoicoac, eguin cenitzan zuc, onac baicic. Eguiten du, eguin behar duen gucia, gaistoac eragoztea gatic; baña adirazten dizunari, belarriac itsiric, sartcen ba-zára zu cere gauza gaistoetan, etzaitu uzten zu bacarric, ez: zurequin da orduan ere zure Jangoicoa, ta escutic zaduzca, ta laguntcen dizu, eroturic dabillen semeari Amac bezala, edo damu, ta neque andia-requin, Profetac dionaz (3): ta ala ere dembora berean, edo laster ematen dizquitzu gaizqui eguiñaren damua, bihotzaren illuntasuna, ta bere gogarguia, edo inspiracionea, ezaguturic cere eraqueriac, eta gal-videa, itzuli zaitecen gauz on-etara; ta, orietaraco behar dituzun, indarrac eman naiez-ta naiez dago zure Jangoico maitea.

Nai onec daduca Jangoicoa zure bihotcean, zure ani-

animan, ta zure ezur, zain, ta zatiric chiquienean. Nai onec daduca alerta, erne, ta beti zuri beguira, zuri ongui hau, ta beste anitz gauz on eraguiteco, aldi onac, eta sasoia galtzeco beldurrez bezala. Ondasun-zaleac ez dio bere aberasteari, Jangoicoac zuri adiña, beguiratcen. Lo datzanean, ta beste cembait aldiz uzten ditu arc, begui-etatic ez-ecic, gogotic ere diruac, gauzac, ondasunac, eta aberatsc-contuac: baña Jangoicoac ez du looric, ez du, beguiac zu gandic quentzeco, horduric: beti dagoquizu beguira, beti zaduzca escutic; eta beti dago, nondic ar-eracico dizquitzun, eere gauzetaraco behar dezun, indar sendoa, ta laguntza.

Zori onecoac gu, ta doatsuac, gure Jangoicoac guri bezala, guc beguiratcen ba-diogu gueren Jangoicoari! bada ez da erraz gure Jangoicoa guc ciñez ez maitatcea, ecusi ezquero, nola dagoen gurequin gure Jangoicoa, cein ongui beguiratcen digun guri, gueren Jangoicoaç; eta gurequin gure Jangoicoac eguiten duena: ez eta, eguin behar ditugun, gure gauza guciac ere zucen ez eguitea, Jangoico berac, gure oneraco, eman nai dizquigún, indar, ta laguntza requin batean.

Indarrez, ta ondasunez ni beteteco, prest zauden, nere Jangoico maita-garria, noiz artean izan behar ote dut nic, eroa baño, eroagoa? Eroàc pocic artcen ditu, ongui dagozcan, gauzac, gauza dagozcanac esqueintcen zaizcanean; ta ez ditut nic artu nai, zuc esqueintcen dizquidatzun, ta onguien-onguien dagozquidanac: bada urtean, illean, hastean, ta egun oro; ta, egunean anitz aldiz ere, uzten ditut, nic, eman nai dizquidatzun, indarrac; eta, emen, ta bertce manduan animac beharren dituen, gauzac. Ez da hau, ni, eroa baño, eroagoa izatea?

Ala da, nere Jangoico maita-garria; ecin uca dezaquet hau nic! Baña ez da izain, ez, oro-bat emendic aitciña, ta datorren demboran. Nic utzico ditut emendic abrera, orain-dañocoan itsutu, edo liluratu nauten, nere eraqueriac. Nic artuco ditut, bai; ta bat ere galdu bague, zuc eman nai dizquidatzun, indarrac, laguntzac, eta ondasun guciac. Ez ditut, ez, nic zu-gandic quenduco, nere beguiac, orain-dañocoan quendu izandu ditudan, bezain aisa. Ezaguturic vicico

cico naz gaur-guero nere egunetan, nerequin zaitudala zu, ta zureac dirala nere izatea, nere vicia, ta gañeraco nic ditudan, nere gauza guciac. Noicean-bein bad-ere ſartuco naz ni, naiez, ta gogoz nere bihotzean, an zuri agur humillac eguitera: ſartuco naz, bai, an zuri zor dizudanaren alde, al ditudan, eſquerrac ematera; behar dudana, ta zu ganaco amore andi bat zuri eſcatzera; emen bertatic eguiten aſitzeco, zure Ceruan beti eguin gogo dudana. Indàzu nere aſmo on onetan, ill arte gucian irauteco gracia; bai arren, bai.

1.

DOMINE DEUS VIRTUTUM, QUIS ſimilis tibi? Pſ. 88. 9.

JAuna! ta non arquituco dugu guc, zu bezalacoric? Zuc eguiñac dira Iſarra, ta beſte aiceac, zuc eguiñac itſaſoac, eta zuc eguiñac Munduan arquitzen diran, gauza guciac. Guciac dira zureac. Zureac dira lurreco toqui, ta bazter guciac; zureac dira Ceruac; eta zurea da azquen Ceruco Tronua, edo egon toquia. Baña cer egon toquia, ta nolaco Tronua! Eguzquia, ta ill-arguia, ta izar guciac baño, milla bider ederragoa. Hau gucia dezula, ecer ez duen, ta, non egon ez daquien, Errumes bat baciña bezala, zaude nere bihotz char onetan! ta emen zaude, gau, ta egun, ta beti! Aſqui lizaque, ni amorez choil urtua, edo ni bertan zoraturic uzteco, zure ontart andi hau guti bat ezagutcea. Eguin didazun ere ez nequiena bezala, vicitu naz ni orain-dañocoan; ta, zure barrenean nengoela, ta zu nere bihotzean arquitcen ciñala, oroitu ere gabe! Orre gatic vicitu naz ni, vicitu nazan guiſan, ta eran. Ez berriz, nere Jangoico maitea, ez onelaco dongue-queriric! Ni vicico naz ni, nere Jaun on maitagarria, zu gogoan zaitudala, ta zu bein ere nere viſtatic utci gabe. Nic eguin uſte ditut gaur-guero nere gauzac, zure gogara, edo alic onguiena. Indazu arren orretaraco behar dudana: bai, Jaun andi on--onguillea, obrari.

2.

QUIS TIBI IMPUTABIT, SI PErierint Nationes, quas tu fecisti? non enim est alius Deus, quâm tu, cui cura est de omnibus. Sap. 12. 12.

GAl ditezque, nere Jangoico maitea, bai, gal ditezque, zuc eguin cenituen, guizonac, eta bazterrac: baña ez dira galduco, ez, ceren zu izandu zaran orien galtzallea. Ez da alabaña nion arquitcen, zu bezalacoric, edo, zuc bezala, gauza guciac zaitzen dituenic. Bai, nere Jangoico maitea, bai; eguin ninduzunetic, orain artean, ez dituzu zuc bein ere ni gandic quendu cere beguiac, eta asmo zucenac! Zure beguiatce onari, zor diot nic, eguin ditudanac baño, becatu gueiago orain-dañoco gucian ez eguitea; bada, zuc zucendu ez-pa-ninduzu, macur ibillico nintzan beti, ta becatuz becatu! Noiz ezagutu behar ote dut zuri nic onetan, ta gañeraco gauza gucietan zor dizudana? Noiz beguiratuco ote dizut nic zuri, zuc niri bezala? edo noiz guel dituco ote náz ni vicitz on batean, ta nere gauza guciac zu gana zucentceco, ta zure gogara eguiteco asmoan? Izan bedi beratatic, nere Jangoico maita-garria

Ay! hau guertatcen baliz, orain diodan bezala! Ah! cein doatsua ni hordutic, eta cein zori onecoa! Norc niri eragotcico dit doacunde, ta zori on hau, nic nai izatera? Sulececo nere etsai gaisto galgarriac? Onen lagun mundu eroac? nere aragui loi berotuac? Ez, eta, nic nai ba-dut, irurac elcar artua gatic ere; bada zurequin batean, irurac ezecic, irur eun ba-lira ere, aisa garai ditzaquet nic, zurequin batean, nere lagun on Jangoico maitea. Garaitu naiez nago, ta orretaraco nere aldetic eguin behar den, gucia eguiteco asmoan. Zuc emana da, bai, oraingo nere asmo hau ere, nere Jangoico maitea: lagun zaquizquit bada, gal ez dezadan, len galdu ditudanen eran: edo lagun zaquizquit, hau gal eraci nai didaten, nere etsaiac garaitcen: ta videnabar zai nazazu, orain daño bezala; ta adiraci zadazu bere aldietan, nic eguin behar dudan, gucia.

Bai arren, viciric naducazun, nere zucentzalle on-maitagarria: bai.

3.

3.

IN IPSO ENIM VIVIMUS, ET movemur, & sumus. Act. Apos. 17. 28.

AH, nere Jangoico andi-on maita-garria! becatuan nengoen guci-etan (eta ez ote nago orain ere?), ni nintzan zure beguietan, munduan den, gauzaric itsusiena; ni nintzan zure etsairic andiena; ta al-ere nerequin ciñan zu! nere anima ciñan zu! nere gorputzean ciñan zu! bai ta nere bihotz ustel gaistoan ere; ta emen arquitcen ciñan zu, beste gauz-etan, edo toquitan arquitcen ez--pa--ciña bezala; ta emen arquitcen ciñan, ta arquitcen zara, zaran guci-gucia. Hau cer da, nere Jaun andia? Etsaien iguesi dabiltza Guizonac: eta zu cere etsairic andienaren barren barrenean sartua? Certan zaude, ta certaco emen, nere bihotz char onetan; edo cer billatcen dezu emen nere Anima?

Cer billatuco du, gueiegui nai digun, gure Jangoico maita-garriac, ez-pa-da gure ona, ta ondasuna? Gure bihotcean dago gure Jangoico maita-garria; ta gure anima dago, ta bietan dago, gure zai-ta zai bezala; ta, gure oneraco diran, naicundeac guri gogoan sartcen dizquigula; ta dembora berean dago, sasoiaren beguira bezala, guri ontcen laguntceco, gauza bacoitceraco behar ditugun, indar guciac guri emateco; ta, eguiten ditugun, gauz onac gatic Ceruco ondasunez beteac gu iuzteco. Zori onecoac, sasoi naigarri onetaratcen ba-gara gu! Ez du, ez galduco sasoi hau, gueiegui nai digun, gure Jangoico andiac, guc gueroc gal-erazten ez pa-diogu: erne dago alabaña; nai duena daguiquena da; guc behar ditugun, indarrac eman ditzaquena da; ta bere jaquiunde, ta indar gucia-requin guc artu-al adiña ongui eguin naiez dagoena da. Ongui eroac gara gu, onelaco sasoi-etatic bat ere gal-erazten ba-diogu gueren Jangoico ecin-onguille-agoari!

Ez arren, nere bihotcean arquitcen zaran, nere Jaun andia! orrembat orain-dañocoan zor dizudan ezquero, ez nazazula erortcen iutci, eraqueri onen galgarrian! Indazu, gaur-guero zutaz maiz, ta behar den, eran oroitceco, gracia. Indazu nere oneraco nai andi indartsu-bero bat; eta

lagun-zaquizquit, ongui, ta zucen eguiten, orretaraco diran, nere gauza guciac; eta inindazu videnabar, orain-dañocoan ori eguin ez dudalaco, damu, ta urriqui ciñezco bat. Urriqui-damu, ta zure laguntz onen esquean nator hitcez, ta bihotcez erraten dudala: NERE JESU-CHRISTO, &c.

(1) *Occuli Domini multò plus lucidiores super solem, circunspicientes omnes vias hominum, & profundum abyssi.* Eccl. 23. 28.

(2) *Etsi illa oblita fuerit, ego tamen non oblibiscar.* Isai. 49. 16.

(3) *Præbuisti mihi laborem in iniquitatibus tuis.* Isai. 43. 24.

BI-

upna

BI-GARREN LIBRUA.

JANGOICOAREN GUIZON EGUITEA, TA Aur-dembora.

NOl-erebait ecusi dugu, batetic gueren charqueri galdua, ta bestetic gure Jaunaren betico izate ecin-andiago-eder betea; ta al-ere Jaun berari guc zor diogun, onguinaia, ta amore bazterric baguecoa. Orain, hau obequi ecusteco, ecusi behar ditugu, Jangoico berac, gure oneraco guizon eguin cenetic, eguin dizquigun, cembait gauza, ta ontarte, ta lembicico lecuan, edo oraingo bigarren Libru ontan Jesusen guizon eguitea; ta, guizon eguin cenetic, oguei ta amar urteta-rañoco demboran gu gatic eguin izandu zuena. Asi gaitecen guizon-eguitetic; eta ecus dezagun, certaco cen gure Jaunaren guizon eguitea.

AMABI-GARREN OTOITZ-GAIA.

ADANEN UTSAC ATERATZEA GATIC, EGUIN cen guizon gure Jangoico maita-garria.

ADanec bere gaizquia-requin, edo, Jaunaren Leguean eguin zuen uts arrigarria-requin galdu zuen bere on

on anitcen artean beretzat, eta guretaco, gucioc (Ceruraco bagara) behar dugun, Jaunaren gracia, ta adiquide-talina: ta Adanen uts hau ateratcea gatic, edo guretzat irabazteco, ar gatic guc galdu guenuen, gracia, ta graciac dacarren, escua, ta derecha, eguin cen guizon Jangoico Semea, ta guizon eguin cenetic ill arte gucian eguin zuen, libru onetan, ta urrengo-etan adiracico duguna. Bere lan onetan *JESUSI* zor diogun amorea ezagutcen asteco, asico gara *ADANEN* becatutic; eta otoitz-gai ontan ecusico dugu *ADANI* bere becatua gatic guertaturicaco nequea.

§. I.

ANITZ DA BERE BECATUA GATIC Adanec galdua.

ILl bague, vici beharrac ciran, gure gurasso, *ADAN*, ta *EVA*, Adan Evac eguin ez-paliote beren Jangoicoari, eguin cioten charqueria. Eguin zuen gure Jangoicoac *ADAN*, eguin zuen *EVA*, ta biac eguin cituen bere Ceruraco. Eguin horduco eman cien biei, lurrean vici ciraño, aisa, ta ongui vicitceco, behar zutena; bada eman cien lurreco Paradisua, ta Ceruco inocencia, justicia originala, ta gracia. Ba zuten Paradisuan (ta doairic al-erè) Adanec, eta Evac, jateco, edateco, ta gauza gucietaraco, nai adiña, bai-ta anitz, eta anitz gueiago ere. Etzuten horduan gaitzeraco macurtasunic bat ere; eta gauz onac aisa eguin citzaquen beren inocencian, ta zuten gracia-requin batean. Eguiten ba cituzten cembait demboraz, eramain cituen beren eguille-Jangoico berac emengo Paradisutic Ceruco Paradisura; ta eramain cituen erioaren ortcetara gabe; ta emain cien an eternidade gucico atseguin-contentua, ta seculaco gloria. Orobat guertatuco cequien bien ondorengoei, ondorengoac ere, biac bezala, ongui vicitcen ba-ciran beren aldarthorduraño; ta contatuac izain ciran ondorengoen artean, gaitcera macurtuco ciranac, *EVA*, ta *ADAN* ongui vicitcera.

Orra lendabicitic guc gueren Jangoicoari zor diogun, ontarte, ta favore arri-garria. Zori onecoac gu, lendabicico gure gurasoac ain aisa, ta ain ecer-eza gatic galdu ez-pa-ligute! Oriec ori guri galdu arren, dugu, Cerua irabazteco, gueroz guc daramagun, neque, ta pena gucia: ta on ala-ere irabaz-

bazten ba dugu azquenean, gueren neque, ta pena guci-equin ba-d-ere!

Emen vici ceño, etzuen jan behar Adanec, Jaunac bereci cion, arbola baten frutatic (*ONAREN, TA GAITZAREN JAQUIUNDECO ARBOLA* cen, arbola debecatuaren icena). *ONETATIC JATEN BA-DUC*, erran cion lendabiciric gure Jangoicoac Adani, *GALDUCO* duc, nic nere naiez eman diedan, gracia, ta inocencia; galduco duc, here graciac hiri ematen dien, Ceruraco escua, ta derecha, galduco duc hic here vicitza, ta ill beharco duc here hume, ta ondorengo guci-guciequin; ta (*JESUS*, ta bere *AMA* ez) beste guciac egoin dituc, vicitcen asi hordaco, hire becatuaren loiean itsustuac, eta galduciquinduac; eta, hic ori ez eguitera, jaioco dituc oriec inocencian, ta graciaz beteac. Beguiroc bada cer eguiten duen. Hitz bian aditaci cion gure Jangoicoac Adani hau gucia; bai ta anitz gueiago, ta gueiago ere.

Norc etzuen usteco, Jangoicoaren mehachu onec beldurtuco zuela *ADAN*; quenduco ciola arbola debecatua gana urbilteco gogoa; ta etzuela haren frutaric probatuco Mundu gucia gatic ere? Baña cer guertatu cen? Gauz arrigarri bat! Mehachu hau aditu, ta laster, Jaunaren erranaz, Jaunaren eguinaz, ta Jauna gandic uste cituen, lurreco, ta Ceruco ondasun andiez casoric eguiten etzuela, jaten du Adanec arbola debecatutic; eta guertatcen zaizca, aditu dituzun, malhur, ta calte guciac; bai ta aguitz gueiago, ta gueiago ere: bada haren jate galdutic datoz, Adanec berac ecusi cituen, ta gueroz guertatu-ricaco, ta oraindic etorquizun arquitzen diran, neque guciac.

Ah nombait, *ADAN*, *ADAN*! Orren guti beguiratuco cenien cere burruari, ta guri tristeoi! Orren aisa galduco guinduzun, ta bocadu bate gatic! Ambat costatzen cequizun, behar etcenuen, sagar, edo fruta bat uztea, escuetan cenituela Paradisuco bete guciac? Costuzco gauzaren bat izan baliz ere? ori zuc uztea, etzen asquico, ambat zor cenion, cere Jangoicoac zuri ala manatzea? Zure esquer-gabetasunaren char itsusia!

Ah nere *JESUS* maitea! ta aguitz ederragoa da, nic ascotan, ta anitz aldiz eracutsi izandu dizudana? Ez nezaque eguin

eguin nic ere, cembait aldiz beintzat, *ADANEC* bezain aisa, edo, anitz necatu gabe, cere Leguean niri zuc escatzen didazuna? Etzen asqui, ta sobera bere becatua gatic *ADANI* guertatuaren berria?, ni centzarazteco, ta Legue garbi orrec diona niri eraguiteco? Certan nabill bada, edo ceren beguira nago? Ez ote naz orain badere mudatuco? Bai baldin bere; bai, *JESUS* maitea, baizuc sendorqui laguntcen didazula.

§. II.

ANDI ARRIGARRIA DA ADANEN becatuaren castigua.

ARbola debecatutic jan horduco, ezagutu zuen *ADANEC*; bai ta, berac jan ondoan, *ADANI* jan-eraci cion *EVAC* ere bere beharra, ta eraqueri ecin-galgarriagoa; bada Ezagutu zuten batac, eta besteac, galdu zutela, beren Jaunac doaiez emanicaco gracia, ta, zuten, inocencia; ta arquitzen cirala becatu pean, ta Jaunaren etsai eguiñac; eta, oarturic, etzutela soñean deus, lotsatu ciran biac; eta, beren alquequizuna quen-eraci naiez, estali ciran nol ere-bait, picutic arturicaco, cembait ostoren soñeco cirtcilla-requin. Onetan daudela, aditcen dute, an cebillen, beren Jaunaren otsa, edo hitza; ta ematen diote bertan iguesiari, ta gordetcen dira, alduten bezala. Orra gaizquiaren lagunac! orra gaizquiaren ondorengoac! *LOTSA*, *ALQUEQUIZUNA*, ta *BELDURRA*. Ez dituzu ecusi zuc ere cere baitan noiz, edo noiz? Bai nosqui, ta gaizquiren bat eguin dezun, aldi oro ere, naiz hitcezcoa izan cedilla, edo lanezcoa, naiz gogo utsezcoa zure gaizquia, ta charqueria.

Hitz eguin cien Jaunac biei beren gorde-toquira; ta aditaci cien, eguin berriric arquitcen cen, beren utsaren itsustasuna; ta eman cion bacoitzari, cegocan, sentencia. Esan cion bein *EVARI*: *BAI? JAN* dun erorrec, eta jan-eraci dion *ADANI*, nic biei debecatu nizuen, araco sagar, edo arbolatic? Oroituco haz bada, vici-azaño. Hic izain ditun, bai, here demboran nequeac nequeen gain, quezcac quezquen ondo; ta erditce gogorrac gogorrequin: ta, ceren here burüz ibilli hazan, ta gaizqui, ta galdu dunan herequin batean here guizon hau, guizonaren escu-pean egoin haz beti, ta eguiten ditunala, nai ez-

ez-hituquen, gauzac, eta lanac.

Itzultcen da guero jaun bera *ADANE* gana, ta erraten dio oni ere: hic, nere erranac alde bat utciric, eguin duc here Andre galgarriaren errana; ta jan duc hic ere, nic hiri debecaturic, utci nien, Arbolatic? Orain artuco duc, orain, here lan eder onen irabacia. Lurrac, hi nor izatera, berez, edo maneatu, ta ondu gabe ecarri behar cien, zuec ongui, ta nola nai vicitceco, emen lurrean behar cenuzten, gucia. Ez haz izandu hi, ez, izan behar huena. Ez duc hic eguin, ez, nic manatu nienic. Eguin duc hic here gogo gaiſtoac eman diena: ta, nere gracia, ta adiſquide-taſuna galduric, eguin haz hi, here becatua gatic, nere etſai gogor beltz-itſuſi, ta galdu. Bada hic eguiñen dituc, bai, emengo aldiac; eta, Paradiſutic ateratic, nic utcico haut hi nequezco bazterrean, ta lur madaricatuan: jan-edanen ba-duc, an billatu beharco dituc here janaria, ta edaria; ta billatu beharco dituc, maiz, eta galanqui necatcen hazala. Icerditaraño harico haz, lurra maneatcen, ta al-ere cembait aldiz beintzat, arantzac, elorriac, eta videgabeco gauzac emain derozquic here lurrac, labore lecuan; eta horduan hire janaria izain duc ganaduarena, edo belarra, edo anitz-anitz obea ez den, gauzaren bat. Hire neque-icerdiac, ogui zati bat, edo behar den, beſte cerbait biltceco, iraun behar dic, ill adin artean: ill behar duc hic; eta illen dituc hire ondorengoac ere, hire jate char, ta becatu galgarria gatic. Orra Jangoicoac eguin ciezten, carguen mamia, ta ſuſtancia; ta orra Jangoicoac *ADAN* naigabetuari, ta *EVA* galgarriari emanicaco ſentencia, ta caſtigua! Ecuſten dezu cein izugarria!

Gaur aguertcen ba-liz Jangoico bera gure contuac artcerá, cer errain ote lioque gutatic bacoitzari? Cer carguac eguiñen lizquiguque, orain-dañocoan guc eguin ditugun, utſ-eguite, ta charqueriac gatic? Cembat, eta cembat becatu-requin emain lioque bacoitzari bere beguietan! Cein itſuſiac aguertuco ote liraque oriec, eta cein videgabecoac! *ADANEC* bat eguin-orduco, an zuen bere gain bere Jangoicoa, ta aditu zuen, nor-nai arritceco den, ta zuc cerorrec ecuſi duzun, ſentencia. Aguertcen ba-liz orain, guri dagoquiguna guri ematera, gutaz cer izain

ote lizaque? Bertan nolqui guel-dituco guiñaque ill-otzac, eta betico galduac. On utsez, orain issillic dago gure Jangoicoa; ta beguira bezala dago, centzatcen ote garan, gueren gauzac garai onean prestatcen ditugula, contu onac emateco. Zori onecoac, mugaz, ta luzatu gabe orretaratcen diranac! Orietatic izain gara, gaizqui eguiñaz damuturic, onguitzen ba-ditugu gueren eguitecoac. Ori da, guc emen beti eguin behar duguna. Nic beintzat eguin uste dut, eta bertatic alere, nere Jaunac artan laguntcen didala; ta erditsi uste dut, artaraco escatcen diodan, bere laguntza. Indazu bada, nere Jaun maita-garria, bai arren, bai.

§. III.

LATZ-ILLUN-GOGORRA DA ADANec bere becatua gatic izandu zuen, damu-urriquia.

MAnatcen dio bere Jaincoac *ADANI*, atera daquiola Paradisutic, eta doala bere becatuari dagocan, sentenciac diona eguitera, edo lurra maneatuz, ta nequezco icerdia--requin bere jan-edana, ta gañeraco behar dituen, gauzac billatzera. Ateratzen da andic *ADAN* issill issillic, eta berequin bere Andre Eva daramala. Baña cein illun, ta triste atera ote cen andic Adan? Cembat naigabe-requin? Ez ote cerien negar-malcoric haren beguiei? Eta cer asmoac ote ciran, haren gogoan horduan cebiltzanac? Norc hau adiraci? Jaquintsua cen *ADAN*, izandu bada munduan bat ere: ta bertatic ezagutu zuen, galdu zuen, Paradisutic, eman cioten, bazterera cijoana. Paradisua cen alabaña, Jangoicoac bere adisquide maitecei prestatu cien, toqui eder bat; eta toqui guizon batec, atseguin--contentuz beteric vicitceco, desea citzaqueen, gauza guciac cecartciena: ta, toqui onen lecuan, Adanec zuen, lurra, lur maradicatua cen; ta lur, gauz on cembait dacartcienean, nequez, ta icerdiz eracartcen zaizcana.

Ah cer trucada trucada hau *DAAN* becataria-rendaco, ta onen hume galduentzat! Ecusi zuen *ADANEC* cer cen Paradisua. Ba-cecusan, onen ordez ematen citzaion vici toquia: ta ezagutu zuen, guc ez bezala, bere becatua gaticaco trucada; ta trucad onetan harc, eta guc galtcen guenena; ta galtcen guenuela beti-betico; ta galtcen guenuela, calte arri-

gar-

garriac andic cetozquigula; bada Adañen trucada gaiſtotic datozquigu, izaten ditugun, eritaſunac, naigabeac, quezcac, eta malhurrac; bai-ta humeen eſquer-gabetaſunac, auzocoẽ, erriertac, guertatzen diran, eriotzac, eta gañeraco, becatutic datocen, videgabeac, eta, ecuſten ditugun, lan gogorrac, auciac, gorrotuac, eta neque-icerdiac. Oriec gogoan artu ezquero (artuco cituen bezala), cembat izain ciran, *ADANI* bere bihotza ingurutuco cioten, illuntaſunac, ay! gogorrac, eta triſturac? Norc hau adiraci? ta norc ezagutu ere?

Eta bitartean cer eguin ote zuen, Andre gaiſo, *EVA* mimbereac? Cer eguin cezaquen? Negar, ta negar! Ezagutzen zuen alabaña, berac zuela trucada gaiſtoan obenic gueiena: bera cela, lenenic uts-eguin zuen, becataria: bera cela, *ADAN* tentatu, ta becatari eraguin zuen emaztequi galgarri gaiſtoa; ta bera (Jaunac cionaz) neque, ta perellic gogorrenac ecuſteco cegoen, emacumea.

Paradiſutic ateratcean errain zuen *EVA* mimbereac; eta errain zuen, negarra ceriola: *NORC* arindu ninduen ni, ſenarra utci, ta bacarric an Paradiſuan ibiltceco? Egondu banintz ni Adanen beguietan, edo onen viſtan, ta bazterrean, ſuguea, edo, ſuguearen ichuran, ſulececo etſai madaricatua etcen aſico nerequin hitzquetan, aſi cen bezala; ta ni gaur egoin nitzan nere Paradiſuan, atſecaberic bague, ta virtutez, ta contentuz betea! Arindu nintzan, bacarric ibiltceco; ta, Paradiſuco bazterrac ecuſten nembillela, an aguertu cen nere etſai engañaria; ta, ongui nai cidalaco idurian, ta urricalduric bezala, gald-eguin cidan, nola bada, ta cer gatic debecatu dizue zuei ceren Jangoicoac arboletaco fruta? Arbola bacar batecoa debecatu digu; eranzun nion nic; eta ori ere debecatu digu, guerta ez daquigun andic jatetic iltcea. Eraqueria da ori, erran cidan an bertan nere etſaiac, eta engañu agueria: ori guertatu lecuan, ortic zuec jan orduco, idiquico dira zuen beguiac: icuſico dezue cer den onguia; ta cer den gaizquia; ta izain zarzte zuec, Jangoico bera bezalacoac. Orrembat zúen on ecin ecuſiz, debecatu dizue ceren Jangoicoac, zori oneco ceren jate ori; jan zazue, arduraric, edo beldurric bat ere gabe; ta guertatuco zaitzue, nic

orain zuri erraten dizudan,guci-gucia.

Ay ! etsai galgarri madaricatua ! nic horduan hari erratera ; eta eman ba-nio bertatic iguesiari, ta iguesi-eguin banu, ADAN arquitcen cen, toquiraño, etcen guertatuco, ez, guertatu zaidana, ta egoin ez ninzan gaur, nagoen, trance gogor onetan ! Baña berez arintcen denac, aitzina eraman oi bere arinqueria ! ta ongui eritzi emaztequiac laudarioari,edo lausenga eroari ! Goratcen ditut, ar gandic nic hau aditcean, nere beguiac (ez nintzan itsutuco, orretara baño len !). Ecusten dut arbola debecatuco fruta : ta, ecusi-orduco, iduritcen zait guztiz eder-goisoa. Beguien ondoren an cen bereala nere gogo gaistoa, ta jangura ; ta, biei cerraiquiela,nere escu, ara baño len, erreric guelditu behar zuquena ! Artu, ta jaten dut nic neronec ; eta neronec jan-ondoan, jan erazten diot nere senar ADAN, nerequico bera-eguiari ! Jan-orduco, idiquitcen dira senar-emazte bion beguiac. Certaco ote, baldin badaquizu? Galduac garala gueroc, ecusteco; ta ecusteco videnabar, galdu ditugula gueren ondorengo jaio-quizunac.

Norc (ecusi ez-pa-lu) erran cezaquen, nic nere eguin berrian ; nic, naturalezaren, ta graciaren doai ederrez apainduac ; nic gaitceraco batere macurtasunic gabecoac ; nic oneraco jaioac, nai nuen gucia nere escuetan nuenac ; nic, nai-gaberic etcen,Paradisuan vici beharrac, eta nic Paradisutic, ill gabe, seculaco gloriara igateco eguiñac ; norc (diot berriz ere), norc erran cezaquen, nic hau gucia, nere naiez galduric, etorri behar nuela, orain daducadan, egoera illun beltz galgarri onetara ?

Orra bada : onetara naz ni ; ta laster al-ere, edo, Jangoicoac eguin ninduenetic, horduu gutiren buruan ; bada guti dira Paradisuan nic eguin ditudan, horduac. Onetara naz ni, bai ; ta ez ecin egonez zori oneco nere Paradisuan : bada banuen nic an, behar nuena, ta gueiago ; ta ez ninduen ni nere Jangoicoac andic ateraco, utci ba-nio gueldiric, eta uquitu gabe, behar ez nuen, ta berac debecatua ceducan, arbola bacar bateco fruta. Onetara naz, bai ; ta onetan nic neronec ecusi behar ditut, nere Jaun zucenac adiraci dizquidan, neque-icerdi, erditze gogor, ta ecin erran al adiña lan,

ta

ta oñace ; ta , oriec ecusi-ondoan, ill behar dut nic nai, ta ez ; usteldu beharra da , ta, izandu ez-paliz baño, gueiago agueri ez dela , guelditu beharra nere gorputz char hau ; ta, hau erioaren ortzetan utciric , joain da nere anima...nora ote? Ay hau pena ! hau , vici nazan arteco , nere nequea! ez jaquin nic , ez-eta jaquinen ere, bere gorputz-etic hau atera artean ! Eta certara joain ote da, suleceratcen ba-da ? An quisquiltcen , ta erretcen beti , ta beti egotera. Orra EVA gaisoaren horduco quezca , ta naigabezco beldur izugarria ! Eta becatuan arquitcen den , edoceinena ? Daraman , videa utci artean, era berecoa. Utci ote dut nic, nere becatuac ar-eraci cidatena ? Bai , baldin-bere! Ala guerta dedilla , nere Jangoico maita-garria : ta guerta dedilla , nic berriz or oñic sartu gabe , mundu galgarri onen atzapar-etatic iguesi-eguitea : bai arren , bai.

I.

A MULIERE INITIUN FACTUM est peccati , & per illam omnes morimur. Eccl. 25. 3.

LEmbicico emaztequiac galeraci zuen bere senarra; ta, bere senarra-requin batean, galdu guinduen, bien etorqui gucioc ; eta aurtiqui , edo bota guinduen erioaren atzapar gaisto-etara ! Izan nai ez dutenac , lembicico galgarri onen eraco galduac , utci beharco dituzte era bereco beren ibilliac , eta beguien arinqueriac: vici beharco dute, beren toquian , edo beren Jaunaren Leguea beren gogotic uzten ez dutela. Bebiltza bada , emaztequiac ez-ecic, guizaquiac ere beren videz ; ta vide , ta lagun gaistoen iguesi. Ori ceren eguin etzuen, galdu cen ADAN lurreco Paradisuan ; ta galdu cen bere emaztearen hitz bi aditu horduco, beste tentacioric gabe. Cer guerta daquioque bada , Paradisutic urrun , ta etsai galgarriz , ta griña gaistoz inguruturic dabillenari , erne ibilliz , ongui beguiratuz , ta hordu oro escarzen duela bere Jaunaren laguntza , ta gracia, uzten ez-pa ditu Cerura beguira bere asmoac , ara cucentzeco guero bere oñac , eta gauza guciac ?

Norc daqui cer ? Arquitzen da alabaña alde gaisto-etara guztiz macurtua , ta araguiaren loiqueri-etaraco tirricacioz betea. Zori onecoac , oriec garaituz , beguiac itsiz : ocasione char-

char-etatic iguef-eguiñez, ta, atic onguiena pausuac zucenduz, garbiro vici diranac! Ah, ni, gaur-danic ba-da ere, eguiten ba nintz orietatic bat, edo orien lagun! Indazu arren, nere Jangoico maite, ni gatic guizon eguiña, orrelaco-etatic izateco, behar dudan, zure indar gucia, ta laguntza. Escatzen dizut, bai, nere, orain-dañoco, utf-eguite gucien damu andia-requin, ta uts berriric ez eguiteco asmoz, ta gogoz beteric arquitzen nazala. Ez niri hau ucatu, JESUS maitea; ez, arren ez.

2.

EMISIT EUM DOMINUS DEUS de Paradyso voluptatis, ut operaretur terram, de qua sumptus est. Genes. 3. 23.

ORra bere becatu esquer-gabecotic ADANec atera zuen ondasun gucia! Bere Jaunac on utsez emanicaco gracia, ta Ceruco doaiac galduric, errumes behartsu baten ichuran, Paradisutic hordu-gaistoan ateratcea! Certara? Lurra maneatcera! Nola, uste dezu? Ongui necatuz, ta icerditan goicetic arratseraño dabillela; ta dabillela, bere gogotic utci bague, nondic datorquion lan gogor hau: ta, bere neque lan icerdi gucien buruan, berari guertatu beharra, edo certan guelditu beharra cen, berequin ceraman, bere gorputza. Nondic zuen, baldin badaquizu, ADAN gaisoac bere gorputza? Lurretic. Eta certan guelditu beharra cen ADANen gorputz hau? Guelditu cenean; edo lurretan, ta auts eguiña.

Ay, ADAN, ADAN! Ah zori tristeco guizona! Paradisuco atseguin-gusto gucietaraco jaioa zu; ta, orco cere gusto-atseguin-contentuen artean vicitcen ba ciñan cembait demboraz, behar cen, eran, eta zure Jangoicoac escatcen cizun bezala, Cerura beharra zu; ta Cerura beharra, ill-ere bague, ta contentuz beteric arquitcen ciñala! Eta galdu zuc hau gucia, deus-ez bat bai-liz bezala; ta galdu zuc, bocadu char bate gatic! Non cenuen zuc horduan cere burua, edo non zuc cere adimentua?

Ah nere JESUS maitea! ta non nuen nic nerea, ADAnen ondoren nembillenean, edo, nere gogo galduari atseguin eguitea gatic, galtcen nuenean, ADANec bezala, Ceru bera, edo Ceruraco escua, ta derecha dacarren, gracia? Ta galdu ez-panu, ADANec baño, gueiago-

tan.

tan, edo bein baicic, etcen izain, izandu den, bezain buru baguecoa, aldi artaco nere eraqueria! Baña nic galdù dut hau, nere Legueco gauza larrietan utſ-eguin dudan, aldi oro, edo becatu larri bacoitza-requin! ta galdu dut, deuſ-ez bat baicic, galtcen ez-panu bezala, ta atſeguin-contentu, ta poz andia-requin! Ay JESUS! ez luque, ez, galduco ADAN-ec, galtzeco ba-leduca, bere Paradiſua! Ez, eta nic ere nere becatu berri-equin Ceruraco nere derecha, ta gracia! Hari urriquitu citzaion bere becatuaz; bai, ta niri-ere nere graciez. Gucien damuz beteric nator gaur zure oñetara: barcamentu eſque nator, ta ongui vici naiez-ta-naiez betea. Indazu onetaraco behar dudan, gucia; bai, ta nere orain-dañoco utſen barcamentua ere. Bai arren, Jeſus maitea, bai.

3.

IPSI AUTEM, SICUT ADAM, *transgreſsi ſunt pactum: ibi prævaricati ſunt in me.* Oſeæ 6.7.

LEn batean Profetaz erraten zuen gure Jangoicoac: ORRA Iſraelco gendeac eguiten dutena! Adanen guiſan urratu dute, ta autſi beren hitza, ta nere Leguea! Bada promiſioco bazterretan vici dira, gentil-batzuec vici litezqueen bezala, ta hitaz caſoric eguiten ez dutela! Elcar ecin ecuſi dutela daude, ta minduric, guizon odoltuen eran! Nori berea quendu naiez dabiltza; araguizco loiez ciquinduac dabiltza; ta, ni aldebat utciric, artu dituzte beren Jangoicotzat, maite dituzten, gauzac! Orra cein arritcecoa den, nere ISRRAEL-darrac eguiten dutena!

Hau da Jangoicoac horduan bere Profetari erran eraci ciona. Eta cer ote da egungo egun-etan adiraci lezaqueguna? Ez da munduan arquitzen horduco Iſrael-darren eraco genderic bat ere! Ez da gueroz gend-artean lapurreriric? Ez da aſerretzeric? Ez da gaiſtaqueriric? Ez da ciquinqueriric? Ez da beſte guiſaco becaturic ere? Aguer bitez, cerbait orrelaco beren vician eguin ez dutenac; eta ecuſico dugu, cein bacan-bacanac diran oriec, eta cembat, eta cembat, gañeraco becatari gaiſtoac! Ceñ-etatic ote zara zu? behar den eran vici diran, on-etatic; edo becatari char gaiſto-etatic? Gaiſtoetatic, Jangoico maitea, gaiſtoetatic; eta gaiſtoen artean

ere

ere gaisto-enetatic! Bada contatuac dira, zure Mandamentuetan, bein, berriz, ta ascotan nic urratu ez ditudanac!

Eta cer izain cen nitaz, edo non egoin nintzan ni gaur, ta, etorquizuna den, gueroco secula guci-gucian, zu, nere Jangoico maita-garria, ez etortcera, etorri zaran eran, edo guizon eguinic, ni, ta ni bezalaco tristeoc, gueren gaistaquerien cateetatic aterarcera! Ah baña! atera ote naz ni, alere orrelaco cateen atzaparartetic? Nere nai gabez izandu da ni ez ateratcea, orrelaco catetan arquitcen ba-naz orain ere; bada nor-nai ortic atera diteque, zure laguntza-requin batean; ta zuc, nai duten, guciei ateratcen laguntcen diezu, naiz gavaz dela, ta naiz egunaz; bai, ta edocein horduz, ta puntuz ere. Orain beintzat autsi naiez nago ni, era orretaco nere cate izugarriac. Lagun zaquizquit zu, nere Jangoico maita-garria, oraingo nere lan on onetan; ta indazu damuz, ta urriquiz errateco gracia: *NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.*

AMA-

AMAIRU-GARREN OTOITZ-GAIA

GUIZON EGUIN BAñO, LEN AGUERTU ZUEN gure Jangoicoac becatarien ganaco bere urrical-tasuna.

ANdia ba-cen ere, etzen, zucen--videric baguecoa ADANen, ta Evaren becatua. Zucen-videa cen gure Jangoicoa guizon-eguitea, ta, guizon eguin ondoan, artu cituen, neque gogor, ta odolezco eriotza-requin becatuaren zorrac ateratzea. JESUSen neque eriotz hau izandu cen, Gentilen iritziz, eraqueria, ta Judu arrotuen escandaliza: baña becatuaren zor andiac escatcen zuten, bezalaco erremedioa, edo zucen--videa. Dembora joan cen ADANen becatutic, gure Jangoicoa guizon eguin ceneco; ta, beren zucen-videaz etsiric, gal-etcitecen Adan bera, ta beraren ondorengoac, aguertu zuen Jangoico berac demboraz, edo, behar cen, sasoican, lan, edo gauz onetan eguin gogo zuena, oraingo Otoitz-gai onetan ecusico dugun bezala.

§. I.

BECATARIEZ URRICALDURIC, aguertu cien gure Jangoicoac, bein ADANi, ta guero bertce anitci, bere GUIZON eguin beharra.

URricari gaituen, gure Jangoicoac, ecusi orduco ADAN, ta gu, haren becatua gatic betico galduac, bereci zuen, behar bezalaco gure zucen-videa, edo erremedioa; hau da, adiraci dugun bezala, Jangoico beraren guizon eguitea. Gure zucen-vide hau etzuen Jangoicoac gorderic iduqui, bera guizon eguin artean: aguertu zuen aguitz, eta aguitz lenago; bai ta, bein baño, gueiagotan ere. Aguertu zuen,

bai, *AGUITZ LENAGO*; bada millaca joan izandu ciran urteac, Adanen becatutic, Jangoicoa guizon-eguin ceneco; ta becatuaren ondoren laster adiraci zuen gure Jangoicoac eguiteco andi, ta zucen-vide guztiz eder hau: adiraci zuen alabaña, EVAc, eta ADANec becatu eguin zuten-etic, Jaun bera bere sentencia, ta bien desterrua ematen asi bitartean: ta bitarte hau bitarte laburra izandu cen, Escritura Santac aguertcen digun bezala. Eta, horduan ezecic, gueroz ere, bein baño, gueiagotan aguertu cien gure Jangoicoac ADANen ondorengoei erremedio bera, edo beren zucen-videa; bada aguertu cion ABRANi, aguertu cion JACObi, ta aguertu cien anitz Erregue, ta Profeta andiri ere.

Ez dezu ecusten, cein ona den gure Jaun andia, ta cein urricaltia? Eguin horduco Jaunac ADAN, Adan Jaunaren contra; ta al-ere Jauna ADANen billan, ta ondoren bezala! Cer gatic, uste dezu? ADANen beharrez, edo bere premiaz? Ez bada, baicic ADANi ongui, ta gueiegui naiez; ADAN eroria bere becatuaren loi-etic ateratzea gatic; eta seculaco caltear gueldi etzitecen ADAN becataria, ta ADANen ondorengoac. Orre gatic bada; ta, ez Adanen, edo onen ondorengoen beharrez, billatu zuen gure Jaunac ADAN becataria; ta adiraci cion ADANi, ADAN beraren, ta gure gucien oneraco, eguin gogo zuena, edo bere guizon eguiteco gogo, ta asmo artua. Hau berau adiraci cien bein ez-ecic, ascotan ere ADANen humeei, ta humeen ondorengoei, bere guizon eguiteco hordua, ta dembora etorri artean. Cembat urtez, uste dezu, egondu çela hordu onen beguira gure Jangoiçoa, Adanec utsi-eguin ezquero? Cembat urtez? Lau millaz, ta gueiagoz. Orrembat demboraz, ta eternidade guci-gucian iduqui zuen gure Jangoicoac, bein ere bere gogotic utci gabe, guizonen zucendu naia: ta nai, JESUSen anitz neque-icerdi, ta odol issurtce eracarri beharra!

Aitu zaio gure Jangoicoari gu zucen-eraci nai andi hau, Jesus gu gatic guizon eguin, jaio, ta ill cen ezquero? Ez eguiazqui! ta, gure galduac, gu ganaco gure Jaunaren nai on ori hari aitcera! Guerozco dembora gucian, ta demboraco gau-egun, ta puntu oro ere arquitcen da gure Jangoicoa

guri

guri beguira; ta arquitcen da, gu ongui ecusi naiez ongui betea. Ongui gabiltzanean, ala gabiltza, ceren laguntcen digun gure Jangoicoac gueren eguiteco andi, ta chiqui gucieran, ta, Amac humea bezala, escutic garamatcien Ceruraco gueren videan. Quentcen badiogu guc gueren escua, vide hau utci, ta becatuaren ondoren erotu-galduac ibiltceco, gure ondotic, eta gure billan bezala, dabill gure Jangoicoa: bein, berriz, ta ascotan deitcen digu, bere amorezco hitcequin, ta adirazten digu berez batzuetan; ta bertce cembait aldiz bere lecuan daduzcan, guizon jaquintsuz, gure Aidez, Nagusiz, edo bertce cembaitez, eguin behar duguna, gueren videra berriz itzulceco, vide berean zucen ibilceco, ta doacunde Cerucoac aisa, ta erraz irabazteco. Eta aldi orietan ez adi guc eguiña gatic, ez da aspertcen bat ere gure Jangoicoa guri deitcez; ta deitcen, ta deitcen digu, berriz, eta berriro, haten erranac eguin, edo gueten buruac choil, galdu artean.

Eta ez da hau len, ta guero, ta beti guri ongui naiez beteric gure Jangoicoa arquitcea? Bazter bagueco ontasunez betea dagoen, Jaun batec baicic, ba leguique, edo eraman lezaque, gu bezain gauza char baten oneraco, era onetaco eguitecoric? Ez segurqui! Noiz quenduco diozu bada bere eguiteco arazozco hau cere Jangoicoari? Quen dezoquezu vicitza on bat artcea—requin. Bertatic artu beharra zara, nor ba-zara zu, edo burua choil galduric ez arquitzera. Artu zazu bada; ta artu zazu, ill arte gucian ez uzteco asmo osoa-requin.

§. II.

NOLA AGUERTU ZUEN GURE Jangoicoac zori oneco berri hau?

AGuertu zuen, aguer cezaquen, eraric onenean; bada aguertu zuen maiz asqui; ta videnabar aguertzen zuela, guci-gucizcoa dela guc berari beti zor izandu diogun, amorea. Ecus dezagun nori, ta nola. Aguertu cion ADANi beinic-bein berri on andi hau gure Jaun maita-garriac; eta aguertu cion, den aserreric andieneraco videa Jaun berari Adanec eman cionean; ta irabaciric ceducan demboran, bere esquer gabetasun gaisto, ta becatu ar-

rigarria gatic bertan ill, ta sulecera aurtiquitzea; ta aurtiquitzea, edo botatzea eternidade gucian erretzen, ta lertzen Jangoico berac ADAN an iduquitzeco: ta al-ere aguertu cion, urricalduric bezala; ta, al citequen guisan, ADAN beraren alde Jaun bera jartzen cela: bada aguertu cion, ADANen etsaia erriertaz, edo mehachuz betetzen zuela.

Itzultzen da, onetaraco, sugue gaisto Infernuco etsaia gana gure Jangoicoa; ta erraten dio: ah madaricatua! eguin duc hic, bai, eguin ezaquen, lanic gaistoena! Galdu dituc hic EVA, ta ADAN, beren ondorengo-gaisoequin; bada gal-eraci diec oriei biei, beti vicitzeco, Paradisuan egoteco, ta emendic Cerura bere horduz igateco, nic oriei eman nien, indarra, gracia, ta escu gucia. Content arquitzen haz, bai, here lan gaisto, ta videgabeco irabaci galgarria-requin. Baña ichoc guti bat, ichoc; ez duc hau izain, ez, uste ducan diñaco irabacia. Ba-dic, bai, orien uts onec bere zucen-videa, ta erremedioa. Andre batez valiatu haz hi, guizona galerazteco: beste Andre batec gal-eracico dic hiri here irabacia. Andre etorquizun onec izain dic bere demboran seme bat, hi, ta hire infernuco guciac baño, escu, ta indar gueiagocoa. Haren seme onec emain ciec becatari tristei behar dutena, hiri burua autsiric, beren Ceruco videan zucen ibiltzeco; ta vide onez beren demboran badabiltz, dabilzquen bezala, Ceruraco dituc azquenean; ta an izan dituc beti zori oneco doatsu, atseguiu--contentuz beteac. Hi arrastan ibillico haz bitartean; ta here eguin al guciequin ecin eragotzi duela orien ibillera: ta, cembaiti eragozten ba diec, beren naiez izain duc ori, ta beren culpaz: baña ez ecin garaituz hi, ta infernuco hire lagunac. Genes. 3. 14.

Hau beren alde Jauna gandic aditu zutenean ADANec, eta EVAC, ezagutu zuten, ta behar bada, eguin-orduco ondasunez bete cituenean baño ere, ezequi, beren Jangoicoari zor cioten, amorea; bada, hau aditzean, ezagutuco zuten, beren Jangoicoac berriro aguindu, ta esqueñi cien, favore hau, len bera gandic artuac adiña, ta gueiago valio zuen, favorea cela; ta favore, len bera gandic artuai berac becatuz eranzun ondoan, ta aserretzeco videric andiena

diena hari eman ezquero, eguinicacoa; ta ba-cequiten, onelaco horduan eguiten den, gauzaric chiquienac ere, adisquidetasun-etaco andienac baño, obequi aguertzen duela emallearen ontasuna, ta amorea. Onen ona den, ta onen emequi ADAN becataria-requin dabillen, Jauna gandic norc ez du usteco bere gaizquien barcamentua, anitz, eta andiac izana gatic, eguin diozcan, gaizquiac, bere barcamentu-hau escatu ezquero, gucien damuz, ta urriquiz, ta ontzeco gogoz beteric dagoela?

Era berecoac izandu ciran Jangoico berac eguin cituen, gañeraco berri onèn aguertzeac. Ez luzatzea gatic, aguertuco dut orain orietatic bacar bat. Iltzeco cegoenean, Patriarca JACOBec deitu cituen bere semeac; eta, guciac bildu ciranean, erran cien: ADI zazue, nere semeac, demboraren buruan, gucien onera-co, gure Jangoicoac eguin gogo duena (Jaunac emanicaco arguia-requin ecusi zuen etorquizuna, ta erran cion bacoitzari cegocan gucia). Hitzeguiten dio bein, RUBEN ceritzan, lembicico bere semearis ta erraten dio oni, oni cegocana: bere-bat eguiten du urrengo aldian urrengo bi-equin. Oriec ciran SIMON, ta LEVI. Itzultzen da guero laur-garrena gana (JUDAS ceritzan oni); ta oni, guciac aditzen zutela, ematen dio, eman cezoquen, berriric andiena; ta erraten dio: ZURE semeac, nere seme Judas, jabetuco dira noizbait Promisioco bazterretan zure iceneco TRIBU, ta ERREINU batez. ERREINU onetan iraun behar dute Erregueac Erregueen ondoren, ta Gobernari andiac, mundu guciac uste duen, erremedioa, edo zucen-videa datorren artean. Bai: zure odoletic datorrena izainda mundu galduaren zucen-videa, erremedioa, edo ERREMEDIATZALLEA. Genes. 49. 10. & 11.

Berri hau eman cien JACOBec bere Semeei, edo, orien buruan, eman cien Jangoico berac, JACOBen ezpañez, munduco guciei; ta eman cien, izan cezaten, etorquizunaren uste onetan, Adanen becatutic cetozquien, nequeen cerbait arin-garri; bada eman cien JACOBec bereei berri hau EGYPTOco Erregueen pean vici ciranean, ta beren jaitbazterratic urruti ceudela: ta orre gatic eman cien, ongui nai cielaco, ta maite cituelaco se-

ña-

ñalean; ta etorquizunaren uste onarequin eraman citzaten, behar cen, eran horduco beren lan, ta neque guciac.

Gu, Jangoicoari esquerrac, jaioac gara Jauna guizoneguin ezquerozco demboretan, ta ez gaude, lenecoac uste zuten, berri on andi onen beguira, baña ba ditugu guc ere gueren etorquizunac; eta orien berri onen beguira gaude. Lenecoa bera da, egungo gure Jangoicoa; ta, len baño ere, amorio gueiago bereei eracusten diena; ta ichedan dezaquegu guc, bai segurqui, emain dizquigula guri ere; ta lenecoei bezain, gogo osoz, uste ditugun, gueren berri onac. Eta eman ere ez ote dizquigu, arquitzen garan, egun-etaraco? Cembait beintzat, bai; ta onac al-ere: bada adiraci digu (ta aspaldi da ori) guri ongui naiez, ta obequi laguntzea gatic, guelditu dela gurequin gure Jesus, bere Redencioco lan andia bucatu ezquero: adiraci digu, prest dagoela, gau, egun, ta puntu oro guri gueren charqueriac, eta becatu guciac barcatzeco; ta guciguciac barcatuco dizquigula, gucien barcamentua guc negarrez, ta behar bezala, escatu ezquero. Adiraci digu gure Jesus berac, beraren nai, ta atseguin gucia dela gurequin bihotzez bihotz hitz-eguitea, ta gu bere graciaz, ta animaco ondasun andi-ederrez beteric uztea: ta adiraci, beste anitz gauzaren artean, gu nor bagara, guretzat daducala bere Cerua; ta Ceru, seculaco gloriaz, atseguiñez, ta contentuz betea. Zori onecoac, onembat berri onez valiatzen diranac; eta, Ceru hau irabazteco, behar diran, ta Jangoicoac escatzen dituen, gauzac eguiten dituztenac! Berze gatic ez-pa liz ere, onembat ortarte, ta bere favore gauzac, zor diogu guc gueren Jangoico maita-garriari, escatzen diguna, ta anitz gueiago.

§. III.

CERTACO CEN JAUNAREN BERri on Hau, ta, eman zuen, bezain maiz ematea?

GUre Jangoicoac eman zuen bere berri on hau, edo adiraci zuen bere ongui-naiezco, guizon eguin beharra, len tequituz adiraci dugun-eraco, edo vici citecen ADAN, ta ADANen humeac, eta orien ondorengoac JESUSen ustean, ta zucenduco ciralaco, beren ustea,

ea, ta esperantza galdu baguç. Guizon jaquintsuac ba-cequiten, ADANec, eta gañeraco guciac etzutela berez indarric asqui, becatuaren zorrac ateratzeco: ori bezain ongui cequiten, beren zorrac ez ateratzera, galduac cirala zordun guciac beti-betico: ta jaquindun berac, dembora berean jaquin ez-pa-lute, eman uste ciela Jangoico berac beren zorren atera-videa, cer eguin cezaqueen gaisoac? Cer, baicic, beren gauzez etsiric, galduen vide galduren bat artu, ta gueroz ibilli becatuz becatu, ta gaizquiz gaizqui: ta beren egunac bucatu, etsien eran, edo desesperatuac bezala.

Orrelacoric eguin etzezaten bada, ta, ori eguin lecuan, ar citzaten beren obenen alde, Paradisutic campoan cituzten, beren neque-icerdiac, beren naigabeac, beren malhurrac, beren gaitzac, beren eritasunac, beren iltzea, ta munduco calteac, aguertu cien bemboraz beren Jangoicoac berri on andi hau; ta adiraci cien, idiquico cirala egunen batean, horduan ertsiac arquitzen ciran, Ceruco ateac, edo atariac; eta izain zutela nondic atera, ta pagatu becatuaren, zor arrigarriac. Etzien horduan gure Jangoicoac aguertu, noiz arguitu beharra cen, zori oneco egun ondasundun hau, edo noiz aguertuco cen, guizon eguiña, onembat ondasun ecartzeco çegoen, gure Jangoicoa; ta nola, berri on hau aguertu zuenetic, guisa onetan Jesus aguertu baño, len eunca, ta millaca zoacen urteac, gal etzezaten, gauza hau eguinic ecusteco, ustea, aguertu cien gueroztic ere noicean-bein berri bera, ta aldi oro siñets citequen bezala, ta amoriozco videz.

ADANi berri hau eman cionetic, bi milla, ta eun, ta oguei, ta bederatzi urteren buruan bezala erran cion Jaunac ABRANi; ez da cer etsi, nic zuen alde ADANI len adiraci nionaz: eguinen naz, bai, eguinen naz guizon, guizon-eguiteco nere hordua etortzen denean, ta guizon eguiten nazanean, zure, ta zure ondorengoen odoletic artuco dut nic nere guizatasuna: *Genes.* 22. 18.

Andic laur-oguei, ta zazpi urteren buruan hau berau adiraci cien JACOBen semeei, araistian ecusi dugun bezala. Andic milla, ta zazpi eun, ta lauroguei, ta cembait urteren buruan eguin cen Jauna guizon; ta urte orietan usuago, ta maiz

eman

eman oi zuen eguiteco beraren berri hau: ta eman cien, bertze anitzen artean, DAVID Erregueri, ISAIAS Profetari; bai, ta AMOS, MICHEAS, AGEO, ta MALACHIASi ere; baña guciei baño claroago Profeta DANIELi (c. 9. 25.): bada oni adiraci cion, cembat urte, ta hasteren buruan etorri beharra cen JESUS Jangoico guizon-eguiña, ta noiz izain cen onen eriotza, bere Aitari gure zorrac pagatzeco. Ta oni, ta erran ditugun Profetei adiraci cien, bai ta Sibilei ere, batzuei bere jait-hordua, ta vicitza, ta besteei bere nequezco passione santa, ta eriotz gogorra; ta adiraci cien, gucia eraman behar zuela amorez, ta gogoz, gure ona gatic, eta irabaz guenezan guc, ADANec galdu cigun, Ceruraco gueren escua, ta derecha.

Orra bada certaco cen Jaunaren berri hau, ta onen maiz hau munducoei Jangoicoac adiratzea. Guc ba-dugu horduco gaucen, ta lenecoac eguin oi cituzten, gaizquien berria. Beguitan ematen digu orien itsutasunac, eta aisola-cabe ero galdu-galgarriac; eta al-ere centzatzen gara? Lenecoac gatic eguiteco ceducana, eguin du gu gatic gure Jangoicoac; bada eguin cen guizon gure guciei oneraco: ta gueroz ere gu gatic eguin ditu Jangoico berac, leneco guizonac gatic eguin etzituen, anitz gauza. Baña cer atera du gucia-requin gu gandic gure Jangoicoac? Ascotatic beintzat, lenecoen guisaco, aisola-gabequeria, ta esquer gaistoa, besteric ez.

Eta nora ote doaz, orrela dabiltzanac? Jangoicoaren juicio izugarri-gogorrera, ta seculaco galduac izatera, lenagoco zordun gaisto esquer-gabeac bezala! Beguira, guizonac, beguira, berriz ere etorri beharra da, len etorri cen, gure Jangoico bera: baña bi-garren aldi onetan etorrico da era izu-garrian; ta etorrico da, gu gatic eguin duenaz guri cargu zorrotzac eguitera; ta, eguiten dugun, guciaren contu zucenac artzera! Contu gaistoac orduan guc emain ditugu baldin, Jaunberari, len, ta guero zor diogunа, gogoan arturic, eranzuten ez-pa diogu esquer humillez, ibillera zucenez, vicitza garbiz, ta amoriozco bihotzez, ta gogoz. Berac digula orretaraco behar duguna; bai ta anitz eta anitz gueiago ere. Bai arren, bai.

***

Ai

1.

SECUNDUM MAGNITUDINEM ILlius, sic & misericordia illius cum ipso est. Eccl. 2. 23.

GUre Jangoico maiteac, ADAN eguin baño, len eguiten ditu Ceru lurrac, itsasoodeiac, eguzqui-izarrac, eta munduco gauzac. Orien ondoren eguiten du ADAN; ta, eguinorduco, uzten du gauza gucien jabe, ta Jaun eguiña. Baña cer da ADANec eguiten duena, onembat on eguin dion, bere Eguillea-requin? Eguin cezaquen, gauzaric gaistoena! Aldebat utzi, ta saldu Jangoico bera sagar bocadu bate gatic: edo uts arrigarri, ta becatu beltz itsusi batequin guztiz aserreturic iutzi bere Jangoicoa. Esquer galanta! pagu ederra! Cer cen orduan, ADANi Jangoicoaren aldetic cegocana? Bertan illic guelditzea? Ecer-ez bat bezala cen guelditze-ori. Cer bada? Seculaco suan ondaturic Jaunac uztea; an hura quisquiltzen, ta erretzen beti, ta beti lertzen, ta urratcen an iduquitzeco? Etcen gueiegui, ez ADANen becatuari cegocanaren, alde ori gucia. Cer eguin cequiqueon bada bere esquer gaisto, ta becatu izugarria gatic? Norc jaquin? Norc adiraci?

Baña cer da horduan gure Jangoicoac ADANi eguin-icacoa? Siñistuco cenuque! horduraño co guçian eguin ciozcanac baño, ontarte, ta favore andiago baten eguitea! Ta bere lanez, ta eguitecoz Jangoico maita-garriac munduco guciei adiraztea, bere escu altsua diñacoa, dela, duen, urricaltasuna, ta misericordia; izanic ere bazter baguecoa, ta asma al adiña, ta gueiago, ta gueiago daguiquena, duen escua; bada castigu lecuan, eman izandu cion, ADAN becatariari, eman cequiqueon, berriric andiena, ta adiraci cion, eguiñen cela bera guizon, ta artuco zuela bere gain haren, ta gure zor gucia!

Cer cen, hau bere Jauna gandic aditzean, ADANec eguin behar zuena? Cer? Baicic damuz, ta negarrez bazterrac betetzea; hitzez, ta bihotzez, ta alde gucietara esquerrac ematea, ontasun utsez betea dagoen, ta ondasunez-ta-ondasunez betetzen hari cequion, bere Jangoico maitagarriari. Eguin ote zuen ADANec orrelacoric? Etzuen utzico, beintzat hari cegoquionaren, ta zor cionaren ezagumentu baguez. Zori onecoac hura, ta gu-ere, eguin ba zuen arc, eta guc orain ba-

da ere eguitera, eguin behar duguna. Eguinen dugu guc ori, eguin ezquero, gure zor andien, ta Jaunaren ontasunaren ezagumentuac escatzen duena: ta, ala izatera, izain dugu guc lenen barcamentua, ta gure Jangoicoac ematen digula, bere Ceruco betico gloria. Izan dezagula bada, emendic aterorduco. Bai arren, Jainco maitea, bai.

2.

NON HABENT FUTURORUM spem mali, & lucerna impiorum extinguetur. Prov. 24. 19.

LUrreco gaistoac ez dute beguiratu nai etorquizunera. Sartuac daduzquee beren burubihotzac emengo gauza galgarri char-etan; ta lurretic beguiac ez goratzea gatic, ez dute casoric eguin nai Ceruco argui eder, Jaunaren deitze zucentzalleez. Beti emen vici beharrac bezala, vici dira, edo, iltzen diranean, illco ba-lira bezala, astoen guisan, edo gorputz, ta anima. Ah ero, ceren buruen galgarri-centzu gabeac! Egunen batean etorrico zaitzue, bai, orain aldebat uzten dezuten, ezagumentua! Baña ezagumentu esquer gabecoa; ta ezagumentu, becatutic, eta, onen ondoren datorren, sulecetic aterako etzaituztena! Orain zuec ezagutzera horduco zuen damua, erraien-erretzea, ta neque arrigarria, bertatic centzatuco, ciñazquee, bai: bertatic contuz, ta erne beguiratuco cenioque, Ceruco arguiac eracusten duen, etorquizunari; ta eguiñen cenuquee, Jaunac adirazten dizuten, gucia. Baña zuec ceren gogo charrac aspertu nai! Zuec ez utzi nai ceren aurqueri dollor-eroac! Eta zuec nai vici, gueienen guisan, edo gaizqui, ta gaizqui!

Bertze onembeste guertatzen citzaien, lenagotic munduan izandu ciranei. Contatuac ciran, edo aguitz guti, ADANen egunetatic, Jangoicoa guizon eguin arteco demboran, behar bezala, vici ciranac, arte, ta dembora beretan gaizqui vici ciranen aldean; ta al-ere adirazten cien guciei beren Jangoicoac, onac izateco, eguin behar zutena; ta ematen cien bein, ta berriz, ta ascotan ere gucien oneraco, eguin gogo zuen, gauz andi onen berria! Onez hau gucia, ta guciei ongui naiez.

Onela guri, Jangoico berac beguiratzen ez-pa ligu orain ere, non leudezque gaur munduco gueienac? Deiez, gogar-

guiz

guiz, graciaz, gueren bihotzac uquituz, ta beste milla moduz laguntzen ez-pa-ligu guri gueren Jangoicoac, orain onguivici diranac ere nola vicico liraque? Agueria dago: gañeracoac bezala, ta behar bada aguitz gaizquiago. Jangoicoari esquerrac, eguiten dugun, oraingo gueren ongui laburraz; bada Jangoico berac orretan guri ez laguntzera, ori ere guc eguiñen ez guenuque. Berac digula, gueiago, ta gueiago eguiteco gracia; ta, Ceruco gauzac gogoan daduzcagula, gueren egunac ongui bucatzeco behar duguna. Bai arren, bai.

3.

VÆ DISSOLUTIS CORDE, QUI non credunt Deo, & ideo non protegentur ab eo. Eccl. 2. 15.

ZOri gaistoan jaioac, bihotz urratu, edo vicitza galdu batequin emen gure artean dabiltzanac! Bada oriec, edo siñisten ez dute, Jangoicoac erraten dienic, edo gogo gaistoac ematen diena da orien gauza gucien eraguillea. Beude nai adiña demboraz oju, ta oju Predicariac, erran bezate erran al adiña confessari ónac, aditzen zaienac, eta munduco guciac, aferric izain da orien oju, ta errate gucia: ez dituzte berdin gaistoac ontzat artuco orien erran-oju oriec. Oriec len izandu diranac, izain dira guero ere; ta beti izain dira ero-centzu bague galduac.

Cer, nai dezu zuc, guerta daquion, oriec bezala, Jaunaren erran onac aldebat utziric, bere gogara dabillenari? Ceri dagocala (erran-ezadazu) eman behar dio Jangoicoac onelacoari, lenecoei baño, laguntza, ta deitze andiagoren bat? Eta, ematen ez diola, nola ateraco da bere aztura gaistoen erreca ondatu arrigarritic, ara baño, len, vide gaistoz-gaisto cebillela, erdi lertua cegoen, becatari eria? Zori gaistoan jaioa bada, guisa onetan arquitzen den, edocein Anima, beraren Jaunac ez eguitera, noizean bein eguin oi dituen, gauz andietatic bat, edo bertce; bada ez du eguiñen, eguin behar duenaren laurdenic ere, ta galdua izain da secula guciraco.

Orra certaratzen den, ônez deitzen dion, Jaunari erantzuten ez dion, Anima! Ta orra nori-nai guerta daquiqueo na, contuz ez-pa dabil, vici den demboran. Gueroco onaren ustea-requin, ta maiz aguertcen ciela bere guizon-eguin-behar-

ra,

ra, ta andic atera cezaqueen ondasuna, ondu nai izandu cituen gure Jangoicoac leneco gendeac, eta Israel-darrac. Ori bera billatzen du Jangoico berac, sulececo berria, ta Ceruco ondasunen ustea guri gueren gogoan sartuz, guri gueroi eraguin naiez-dabillenean, gueren legueco gauzac. Lenecoetatic anitz, eta ascoc baño, obequi eguiten ez-pa ditugu guc gueren gauz oriec, galduac izain gara gu ere, leneco galduequin batean; ta galduac izain gara secula guci-guciraco.

Orretara naiteque ni? Ta orretara, nic neronec nai dudela? Orretara naiteque ni, ni gatic guizon eguin ezquero nere Jaun on maitagarria, ta Jaun berac gueroz eguiten cizquidala, eguin dizquidan, adiña gauz on, ta ontarte? Orretara naiteque ni, ta burutic irauci, edo erotu bague? Hau ba-daquit, eta al-ere vici naz, vici nazan bezain aisa, ta aisolaric gabe! Hau ba-daquit, eta ez naz saiatzen cerbait bad-ere eguitera, guerta ez daquidan malhur arrigarri hau? Certan nago ni, nagoen bezala, nere orain-dañoco alferqueri, ta nagui-tasun cenzu baguean? Noiz artean iraun behar ote dute orain-dañoco nere eraqueriac, eta urrats, edo pausu macurrac? Noiz itzulico naz ni, nere billan, ta ondoren dabillen; nere deiez dagoen, ta ni beretu nai ninduquen, nere Jaun andi, ta jabe, Jangoico maita-garria gana? Gaur danic, Jauna, ta bertatic, bat ere luzatu gabe, zuc lagunzen didazula. Viciro zu gana noan; ta noan, asi, ta guelditu gabe, quendu behar didazu zuc cerorrec nere becatuen carga pisu hau. Ciñez escatzen dizut; eta damuz beteric, erraten dizudala. NERE JESUCHRISTO JAUNA, &c.

AMA-

AMALAUR-GARREN OTOITZ-GAIA

NORAñOCO DEN, GURE JAUNAC, GU GATic guizon-eguitean, eguin izandu cigun, ontartea, ta favorea.

GAuz ónac, etorri horduco, atseguin-contentuz betetzen dituzte, orien beguira ceudèn, bihotzac: baña, etorquizun arquitzen diran, dembora gucian naicunde utsa, ta desira besteric, ez dacarte; ta, dacarten, desir-cundea, edo beren naia ambat andi-viciagoa da, cembat andiagoac diran, ta obeac, uste diran, gauzac, edo ondasunac. Leneco gendeac onelaco deseoz, ta naicundez beteac vicitu ciran, Jangoicoa guizon-eguin arteco demboran: ta orien desirac adirazten dutenaz, guztiz andia cen, Jauna-guizon-eguitetic oriec uste zuten, ontartea. Nola ere bait orain guc ecusteco, norañocoa den, oriec uste zuten, ta guc eguinic ecusten dugun, ontarte hau; ta, ontart one gatic guc gueren Jangoico--guizonari zor diogun, esquer-amorea, ecusi behar dugu, nolacoac izandu ciran, Jaunac, hau eguin arteco demboran, gende oriec, eta orien artean cembait Patriarcac, Erreguec, eta Profetac izandu cituzten, JESUS ecusinaiac. Asi gaitecen, Patriarqueen, ta Erregueen ecusi-naietic.

§. I.

LEGUE ZARRECO PATRIARCHEN, ta Erregue cembaiten Jaincoa-guizon eguinic ecusi-naia, ta desira.

BEderatzi eun, ta oguei, ta amar urtez vicitu cen ADAN Paradisutic campoan (1). Cembat bere becatuaren damu, ta naigabe-requin? Berac

rac daqui, ta beraren jabe Jangoico maita-garriac. Ba-cequien lendabicitic ADANec (ecusi dugun bezala) etorquizuna, edo Jaunaren guizon eguiteco asmoa. Ba-cequien ADANec, haren gaizquitic datocen, calteac gatic, eta nai dutenen oneraco cela gure Jaunaren guizon eguitea. Ecusten zuen ADANec, ambat demboraz berac bere beingo utsa gatic ceramana; ta haren hume gaisoac, horduco haren uts bera gatic eraman beharco zutena. Etzen brontzezcoa, ez; etzen burdinezcoa; ez eta arri gogorrezcoa ere ADANen bihotza: aragui bera-mimberezcoa cen, ta damuz erdira citequena. Bada, ADANec horduan cituenac, bezain ecuste gogorrac, ecuste egun orocoac, eta ecuste, egunean ascotan berritzen ciranac, certaratzen etzuten haren bihotz berach mimbere hau? Cer negarrac, bere bihotzaren aldi orietaco estu-tasuna gatic ADANen beguiac isurtzen cituztenac! Cer ayac, bihotz berac bere naigabe-equin gau, ta egun, maiz asqui, ta anitz aldiz ADAN gaisoari idaroquitzen ciozcanac! Cembat bider, eguiñaz damuturic, asi ote cen ADAN guizajoa, bere contra, ta Jaunari deitzen?

Deituco cion, bai, ADANec bere Jangoicoari; ta escatuco cion (norc daqui cembat aldetara), cetorquiola lembaitlen, lertzen zuten, bere barreneco quezcac arintzera, urratzen zuten, bere nequeac leuntzera, ta, erdi bi eguin nai zuten, bere bihotzeco nai-gabe astun-pisuac quentzera. Deituco cion, ecusi naiez bere, ta gure SALVATZALLEA, berac galduricaco gauzen ARQUITZALLEA, ta, ondasun guciac berequin dituen, ONGUI-GUILLEA. Deituco cion bein, ta berriz, ta ascotan ere: deituco cion egun oro, goizarrats, eta, norc conta al, cembat aldiz, ta bider? Baña, bere deitze guciequin, etzuen ecusi, ecusi nai zuquen, gauz andi hau: ta, ambat urteren buruan, atera cen mundutic Adan, mundua, bere becatua gatic, bete ezquero lanez, icerdiz, negarrez, caltez, ta caltez. Oriec dira, ADANec guri, bere humeei utzi dizquigun, ondasunac, eta bazterrac; bazter, ta ondasun, ez izateco, obeac!

SETH ceritzan, ADANen Semetic ABRAHAN mundura ceneco, izandu ciran errenco, humez hume, emezortzi, edo emeratzi familietaco Nagusi, ta

Pa-

Patriarca. Ez daquigu, norañocoac ciran, orien JESUS ecusi-naiac. Andiac cirala, bai, ta besteric ez digu adirazten Escritura Santac. ABRANec izandu cituenac adirazten dizquigu CHRISTO Jaunac; baña hitz bian, ta guztiz laburqui. Jerusalengo Elizan erran cien bein CHRISTO Jaunac, an arquitzen ciranei; zuen Patriarca ABRAN, guizon andi harc ecusi nai izandu ninduen ni, nagoen bezala, gizon eguinic; ecusi ninduen, len fedez, edo siñistez; ta Profetaren beguiz; ta guero, guizon eguin nintzaneco, (Aita Maldonadoc dionaz) bere Limbotic; eta Limboco bere ecuste, edo ni guizon eguin nintzalaco berri onec, bete cion atseguin-contentuz bihotz gucia. (2)

Berac nai bezain aldetic ezpacen ere, ABRANec baño, alderagotic beguiratu cion onen Illoba JACOBec; eta iltzeco cegoela, erran cien onec bere Semeei: EGUN hau ecusi naiez noa mundutic ABRANen limbora; ta an egon behar dut nic, eta egon behar dute ill on guciac, onen beguira; ta egon behar dugu suspirioz, naiez, ta gogoz beteac, etorri daquigun artean, gu andic atera, ta bere Cerura zucenduco gaituen, gure SALVATZALLEA. (3)

Orra nolacoac ciran, noizean bein Patriarcac eracusten cituzten JESUS ecusteco, desirac, eta naiac! Ez dira uztecoac Erregueac ere eracutsi oi cituztenac, DAVIDENac beintzat, eta onen seme SALOMON guizon jaquintsuarenac. Ba-dira Escritura Santan eun, ta berroguei, ta amar Psalmo, edo Ceruco canta. Irur-oguei, ta zazpi-garrenean aguertzen du Salmariac JESUSen etor-era, ta JESUSec berez, ta bere Apostoluez munduan eguin behar zuena. Bigarrenean aguertzen du, mundu gucian banatu beharra dela JESUSen Evangelioa, doctrina, ta leguea. Onetan berean, ta beste cembaitetan aguertzen ditu CHRISTO Jaunaren neque-icerdiac, JUDASen charqueriac, Passioneco penac, Gurutzeco tormentuac, eta, an erran cituen, hitzac; bai ta, ill ondoan guertatu ciran, gauzaric chiquienac ere. Bere nequeac aguertzen ditu DAVIDec cembait aldiz; baña begui-etatic utci bague JESUS maitearenac; eta, oriec aguertzea gatic, aguertzen ditu bereac; edo, zucen ago erran dezadan, bereac bai lira bezala, aguertzen ditu bere cantan, edo bere Sal-

moetan, JESUS maite-JANGOICO-GUIZONAC ecusi cituen, videgabeac, injuriac, eta neque arrigarriac.

Salmo beretan aguertzen ditu DAVIDec, iru-goiztar ERREGUEen etor-era, ta GENTILen, ta munducoen conversioa, edo gure Legueratzea. Aguertzen ditu, APOSTOLUAC, eta, bere Legueco bertze anitzec eraman behar cituzten, neque-martyrioac, Juduen, Erregue gaistoen, Emperadoren, ta gañeraco etsaien escuz, ta manuz. JESUSi darraico DAVID bere vicitzan, bere eriotzan, ill ondoan, ta, munduac iraun behar duen, dembora gucian; bai, ta azquen juicioco egunean ere; bada aguertzen ditu horduco Jesusen contu artzeac, eta gañeraco gauzac; eta, onic ez duela, dirudi, DAVIDec, JESUS gogoan, arpan, ta mihian ez duen hordu, ta puntuan: ta gucia da DAVID JESUS ecusi naia, suspirioa, ta anitz aldetara ojuz erratea: CERTAco da, nere Jaun andia, zuc dezun escua, ta indarra? Noiz artean egoin zara zu, zauden bezala, gueldiric, eta gu gana igorri gabe, igortzeco zauden, cere Seme, Jangoico-guizona? Noiz ecusi behar ote dugu guc gure Jesu-Christo Jauna gurequin, gure artean, edo gure eran, araguiz jauntzia, ta, gure oneraco, Cerutic jaitsia, ta jaioa? Eguizu gaur bertan lan andi hau, ta atoz, luzatu gabe, gure becatuaren carga gaistoa guri quentzera; atoz arren, emengo gure etsaiac garaitzera; ta atoz-atoz, Ceruan gu sar gaitecen, gañeco ate, eternidade gucian iraun behar dutenac, guri idiquitzera. (4)

Nombait andia da, DAVID Erregue, orretan zuc uste dezun, ontartea, ta favorea! Bada, ain andia ez izatera, etzenuque cere gogoan orren sarturic erabillico, ta orren hitz vero viciz, ta orren ciñez escatuco. Cer dio zure seme jaquintsu, Erregue andi, SALOMONEC? Onen erranac, zuèn jaquiundea gatic, beste asco Erreguerenac baño, aguitz gueiago valio du edocein gaucetan. Adi zazu bada bein berac, eguiteco onen gain, Aita Eternoarequin ciarducala, adiraci izandu ciguna.

ZUREQUIN egoin da beti, ta guizon eguin bague, cion bein Erregue SALOMONec, gauza guciac daquizquiena, ta, eguiten dituzunetan, laguntzen dizun, zure seme bacar, jaquiun-

quiunde utsa, ta seculaco sabiduria? Betor-betor Ceru orietatic; eta, bere Jangoicotasun andia galdu gabe, ar beza lurrean lurrezco gure izatea, edo Naturaleza; bebil gurequin emen, emen gu gabiltzan bezala; neca bedi emen gure artean; ta neca bedi gure icenean, gure oneraco, ta guri eracusten digula, nola vici; vicitz on banatan laguntzen digula, eraman gaitzan bere ondoren; ta sar gaitzan, berequin batean, bere, ta zure Ceru doatsu ORRETAN. (5)

Ez dezu aditzen, cer cion guizon jaquintsu, SALOMONec? Ez dezu aditzen cer cion DAVIDec? Ez dezu aditzen PATRIARCAC erraten zutena? Orien erranac, orien ansiac, orien, Jangoicoa guizon eguinic, ecusi naiac ez dute ongui asco adirazten favore, ta ontarte onen valioa, ta ontart hau eguiten digun, gure Jangoicoaren maitagarri-tasuna? Etzaitzu costatu, ez, oriei adiña, gure Jaunaren lan andi hau; ta ez dezu ezagutu ere oriec bezala! Zu sortu baño, len, becatari charra, eguiña cegoen, zure oneraco, ecusgarri on andi, Ontarteguille ori: baña zuc, zuri zor zaitzun, gauzari bezala, beguiratzen diozu, ta anitz estimatzen ez dezula. Beste beguiz beguiratu cioten, urrutitic beguira cegozcan, ERREGUEAC, eta PATRIARCA andiac; bai, ta guerozco PROFETAC ere, orain ecusico dugun bezala.

§. II.

ISAIAS PROFETAREN JESUS ecusi naia.

ISAIAS Profetac, beguiz ecusi ba-litu bezala, adirazten dizquigu, JAUNAren guizon eguitea, JESUSen jaiotzea, JESUSen vicitza, ta eriotza: bai, ta, ortic datocen, on, ta ondasun guciac ere. Vicitu cen PROFETA, Erregue gaistoen egunetan. ERREGUEen eran vici ciran orien pecoac. Eguiten zuen PROFETAC al eguiña, hitzez, mandatuz, ta milla aldetara, guciac beren Jauna gana zucentzea gatic: baña gaistoac etzuten eguin nai haren erranic, eta aitzina zoacen beren vide macur galduetan.

Etzuen onic PROFETAC, ez-pa cen, Jaunaz oroitzen cenean. Oroit aldi orietan aguertzen ciozcan Jaunari bere naigabeac, eta quezcac: escatzen ciozcan, oriec quentceco, videac, eta ematemedioa; eta, aguer-

aguertu cionetic andiena, edo JESUSen etor-era, guelditu cen arritua bezala, ta etzequiela, nola etor-era onetatic bere beguiac quendu, edo gogoa aldaratu; ta, bertze eguiteco-etan ciar-ducanean ere, etor-era onetara cetorquion bere asmo gucia, ta hitzqueta. Gauzonen gain hitz-eguiten zuen, batzuetan eracusten zuen nolacoa cen JESUSen etor-era. Besteetan, certaco cen etor-era hau; eta bertze batzuetan aguertcen cituen, etortze onetatic datocen, onac, eta ondasunac. Hau gucia, ta etor-era oni cegozcan beste anitz gauza idaroquitcen ciozcan ISAIAsi, bere-barrenean zuen, Jesus ecusi-naiac; eta aguertzen zuen noicean--bein bere naivici hau hitz vero-labur-ederequin.

Nolacoa cen, ISAIASec dionaz, JESUSen etor-era? Nor-nai arritzecoa, ta dena milagroz betea! Orra Israeldarrac, gaistoac izana gatic, Jaunari noizbait zorco dioten ecustecoa! cion bein PROFETAC. Virgina bat aurdun izain da, guizonic gabe: erdico da, ta izain du seme bat, Virgina dela; bada erditzean, erdi baño len, ta erdi ezquero, ta beti Virgina izain da, ta Virginen Virgina (6). Hau berau adirazten du berriz; ta adirazten ditu, videnabar cembait JESUSen gauza, ta virtute: etorrico da, dio, JESSEREN SUSTRAIETIC CIGOR BAT, ETA HAREN SUSTRAIETIC LOREA; edo etorrico da egunen buruan DAVIDen odoletic DONCELLA garbi Virgin AMA bat. Ama onen SEMEA, Aita Eternoaren Semea izain da; ta Seme JANGOICOGUIZON, lore eder virtutez, doaiez, ta graciaz dena jauntzia. (7)

Emen Aitaric ez duen, Seme onen etor-era hau ecusi naiez, asitzen zaie guero Ceruei ojuz: ta, aguertzen duela nondicacoa den, edo noren virtutezcoa etortze hau, erraten die, al duen, indar guciarequin, ta Profetaren hitzez, urrengo nere hitzac adirazten dutena: CERTAN zaudezte, CERUAC, orren idorrac? Noiz urtu behar dute zuen odeiac? Noiz Espiritu Santuac, odei eguinic, eguiñen du Virgin Amaren lur garbian, bere virtutez eguiteco dagoen, lan andia? Betor, betor lembaitlen, ta gaur bertatic, lan hau eguitera. Artean guc ecin duquegu, uste dugun, SALVATZALLEA; ez eta, onec dacar-

carren, JUSTICIA, ta zucen videa ere. (8)

TRINITATECO bigarren PERSONAC, eternidade gucian, guizatasunic bague, Aitarequin, ta Espiritu Santuarequin egondu denac, artu, demboren burtuan, guizatasuna? Ta artu, bestec ez bezala, ta milagroz DONCELLA garbi bate gandic? Hau da PROFETA Santu hau arritzen zuen, ta nornai arritzeco gauza; ta hau cen lembaitlen ISAIASec ecusi nai zuquena. Nai ona segurqui, ta zucen cebillena! Sar ba--ledi gure bihotzetan ere! Emen nai hau sartzera, artzen dugun baño, gueiagotan artuco guenuque guc Jesus etorria gueren barren-etan, edo, eguiten dugun baño, gueiagotan comuniatuco guiñaque; vici ez garan bezala, vicico guiñaque; ta vicico guiñaque, gure Jaunac, bere guizon eguite onetan eguin digun, ontarte ecin gueiago rañocoa gogotic uzten ez guenuela! Emendic aitziña bad-ere daguigun, orain dañocoan eguin ez duguna; ecus dezagun ISAIAS--equin batean, certaco eguin izandu zuen gure Jangoicoac, era onetan eguin zuen, gauz andi hau.

CERTACO DA, Profeta Santua, JAUNAREN GUIZON EGUITEA? Certaco? Oraindic ecusi diran, gauzaric ecustecoenac zuri, ta mundu guciari aguertzeco: bada, JESUS datorrenetic, ecusico dezue (dio bere eran Profetac, nic gurean orain diodana): ecusico dezue, nola dabiltzan elcar arturic bildotsac, eta otsoac, antz-humeac, eta orien etsairic andienac, Leoiac, eta Ardiac, artzac, era aretzeac, edo cecorrac; eta ecusico dezue, dio, nola aur batec zaitzen dituen guciac, ardi utsac ba-lira bezain aisa, ala larrean elcarrequin dabiltzanean, nola corralera biltzen diranean, an elcarren ondoan gava passatzeco; ta zaitzen dituela, elcarri gaitzic eguiten utzi gabe(9). Ez dira gauza ecustecoac, aditzen dituzunac? Aditu dezu ecustecoagoric? Oriec eraguiteco bada, ta beste orrelaco anitz gauz-etaraco da gure Jangoicoaren guizon-eguitea.

Baña, orain gañeraco gauzac aldebat uzten ditudala, cerda, Profeta Santua, hitzqueta illun onequin adiraci nai diguzuna? Zuc orain emen icasi dezaquezuna. Aur zaille, gu gatic aur eguin cen, hau, gure Jaun andia da. Zaitzen dituen, Otsoac, Tigreac, Artzac, eta Leoiac dira guizon lapur-erietan

tan cebiltzanac, beguiratze macurrac, eta bihotz tolestuz beteac cituztenac; arinqueria, ta animaco loia baicic etziranac, edo antustez, ta arrotasunez beteric cebiltzanac: eta bildotsac, aisuriac, auntz-humeac, ardiac, eta cecorrac dira aberats onac; maliciaric gabeco gendeac, gende garbiac, gende humillac, eta gende zucenac. Oriec elcarequin gau, ta egun baquean, ta ongui vicitzea ez da besteric, baicic JESUSen eracusteac, eta graciac escuratcea guizon gaistoac; eta oriei ònen vide on zucena arerraztea.

Etzaie guti costaco, ez, dio PROFETAC, ontaratzea, gaitcera oituac dauden, gende gaisoei: baña, oriei ori eraguitera, datorren, beren Jangoico-guizonac errain die: EZ da cer beldurtu, ez, mundu, ta infernu gucia zuec galdu naiez, ta lan on hau zuei eragozten ibillia gatic; cerèz ecin dezutena, eguin dezaquezue, nic laguntzen dizutedala; ta ni, zuei laguntzeco, nago noiz nai, ta, nai dezuten, gucietan. (10) Hau berau Jangoico berac erraten digu guri egun ere; ta beraren erranac adituz, ta gueren lanac eguinez ontcen èzpa-gara, dezaquegunac bezala, gurea izain da oben, ta culpa gucia.

Adirazteco guero PROFETA berac, JESUSen eracuste, ta laguntze onetatic DATOCEN, ONAC, hitz eguiten du, oi duen eran, ta oraingo gure hitzquetac adirazten duena: horduan ecusico dezue zuec, nola ecusten duten itsuac, aditzen duten gorrac, eta hitzquetan dauden mutuac; ecusico dezue cein arin dabiltzan urgunac, cembat lan eguiten dituzten mainguac, eta escuric etzutenac. Horduan aguertuco dira bazter agorretan putzu berriac; eta putzu urez beteac; eta, aguertuco dira, erreac ciduriten, mendietan, ta aldapa gogor-etan iturri ederrac, eta urezco errecac: bai, ta dragoien zoco galduetan ere cañabera luceac, eta hii behar bezalacoac. (11)

Edo horduan ecusico dituzue Jesusen milagro oriec guciac, eta anitz gueiago: bai, ta, oriec baño, ecustecoagoac diran, Animaco gauzac ere; bada ecesico dezue, nola Gentilac, nola Turcoac, eta oriec, bezain gaistoac, eta gaistoagoac ere siñesten dituzten JESUSec aguerturicaco Misterio andiac; nola artzen dituzten misterio berac aguertzen diez-

ten

ten, videac, nola eguiten dituzten, Jesusec laguntzen diela, eguiteco, ta lan arrigarriac; eta nola, utziric leneco beren vide gaistoac, arin dabiltzan, ta guelditu gabe, Jesusec aguertu dien, ta berac ónez artu duten, Ceruco videan. Ecusico dezue, nola Jesusec ateraco dien, nai dutenetan, videraco behar duten jan-edana, edo Comunioneco sustentoa, ta graciaren ur ederra. Ecusico dezue, nola, len etsaien lece-loi-galduac ciran, bihotzac dacazten asmo garbizco loreac, eta virtutezco lirio zuri ederrac; ecusico dezue, nola jai-igandeetan, egun artuetan, ta anitz horduz sartuco diran emen, Sion deritzan, lecuan, edo Jaunaren Elizan, Jangoicoari dagozcan, eguiteco garbiac zucen eguitera (12); ta, ecusico dezue, nola sartuco diran guero, graciaren ondasunez, ta irabaciz beteac, atseguin utsa, ta contentua besteric ez duen, Ceruco glorian. Zori onecoac egun oriec ecusten dituztenac! Ecin ecus nitzaque nic ere? Bai, Jangoicoac nai ba-lu! Nai daquiola, nic ecusten ez-padut ere, nere ondotic etortzeco daudenac lembaitlen, edo, anitz luzatu gabe, egun hau, ta egun onetaco gauz andiac ecustea!

Orra aldi onetan Profetac adirazten diguna. Baña etzen hau azqueneco ISAIASen erran aldia: aguertu zuen gueroz ere bere gogo vicia, ta Jesus ecusi-naia: ta ah nombait! (erran cion Jaunari era berean, nic gurean orain-diodana (13)), ta urrical ba cenquiotza, galduz, ta galduz doan, mundu char nastu gaisoari! Urra ba cenitza lembaitlen cere Ceruac, lurrera guizon eguiñic etorri, ta emen eguiteco, gure oneraco eguin uste dezun, gauza andi hau! Horduan guc aisa garai guintzaque munduco gaistoac, eta sulececo etsai gogor amurratuac; eta zuc ecarrico cenuquen, amoriozco suan garbituco guenituque gueren bihotz, loiez beteac, eta arquituco guenuque, zu servitzatzeco, zu maitatzeco, ta gure gauzac behar bezala emen eguiteco, behar den, berotasuna, ta arguia.

Vide-nabar (dio berac) ezagutuco luquee lurrecoac, norañocoa den zure escua, cein on maitagarria zaran zu, ta zuc gure, ta gucien oneraco aldi onetan eguin behar dezuna. Zuc hau eguin artean, ona gu nequez, ta becatuz inguratuac: eta, becatuac quentzeco, orain ditugun, gauzac, orra

cein valio guticoac, horduco erremedioren aldean! Orain guti dira zure icenaz oroitzen diranac; eta arere gutiago SIONGO Errian, ta JERUSALENGO Elizan sartzen diranac. Hau gucia zuc bada-cusazu, gure Jangoico maita-garria; ta ala ere luza-razteco zaude cere etortzea, cere guizon eguitea? Ay! hau lana! hau nequea! Orra nolacoac: orra cein andiac ISAIAS Profetaren JESUS ecusi-naiac. Nolacoac ote ciran gañeraco PROFETAC izandu cituztenac? Goacen ecustera, obequi ecusteco cein andia den, bere guizon eguitea gatic, gure Jangoicoari guc zor diogun amorea.

§. III.

BERTZE PROFETEN JESUS ECUSI naia.

ISAIASec ez ecic, bertze PROFETAC ere izandu cituzten Jangoicoa guizon eguiñic ecusteco desir andiac; eta desir, gogo, edo naicunde, videac cecarrenean, aguertzen cituztenac. Aguertzen cituen Profeta bacoitzac, aguertzen cituenac, cegocan, lana eguin bague, ez uztea gatic; edo berotu naiez munduco gucien bihotzac JESUSen uste ona-requin; oriec ere beren ona gatic esca cezoten, labur citzala, laburtuala bere etor-demborac, eta aguer cedilla lembaitlen, aguertu uste zuen, eran, ta araguiz jauntzia, edo guizon eguiña. Orain guc ecusi behar ditugu orietatic cembaitec beiñ, edo berriz aguertu cituzten, beren naicunde, edo JESUS ecusi naiac; eta ecusico ditugu orien aldi orietaco mintzoerac, edo hitzquetac, Lyrac, Alapidec, eta beste Interprete andiac adirazten dituzten eran, ta gutiren bat luzatzen ditugula.

Jesus ecusteco naicundez, ta deseoz beteric arquitzen cen batean, izandu zuen AGEO Profetac onen etor-quizunaren gain atseguin, ta contentuzco berri eder bat. Berri hau, Jaunaren manuz aguertu cien Profeta berac, ZOROBABEL ceritzan, Gobernariari, JOSODEC, Apez Nagusiari, ta gañeraco gendeei, pozez, ta gustoz beteric erraten ciela: eguizue, bai, beldurric gabe, eguin behar dezuten, ceren eguitecoa: eguizue ceren Jaunaren JERUSALENgo Eliza, ta gaurguero beude aldebat, orain-dañocoan ambat estutu zaituzten, zuen beldurrac, eta quezca guciac. Orra Jangoicoac niri,

niri, zori oneco aldi onetan adiraci didana, guerta ditequen, ta guc aſpaldian uſte dugun, gauzaric andienaren gañean. Dembora da, bai, beguira daudela gendeac, noiz ote datorren gure Jaun etorquizuna: joan diranen aldean, laburrac dira, orretaraco, joateco dauden, edo falta diran, urteac.

Urte orien buruan, Ceruac ateraco dira beren pauſutic, edo izan oi duten, eratic; eta aguertuco dute, lenac ez bezalaco, IZAR guztiz eder bat; eta IZAR, gau-ta-egun argui eguiñen duena. Lurrac, itſaſoac, eta bazterrac galduco dituzte leneco beren Naguſiac, eta guelldituco dira Romaco Emperadoreen eſcuetan. Orien manuz ibillico dira gendeac beren jait-echeen, ta errien billan. Errian erriconac, eta bazter bacoitzean, ara datocenen icenac artuco dituzte, orretaraco Romatarrac berecico dituzten, guizonac. Lan hau eraguiñen du Romaco Emperadoreac, icaſtea gatic, cembat milla, ta milloi diran haren eſcu-pecoac, eta bere premi-etan lagundu dezoquetenac. Gendeac onetan dabiltzanean, aguertuco da, mundu guciac eſcatzen duena; edo onac eſcatzen dutena, ta guciac behar dugun, gure Jangoico guizon eguiña (14). Etorri, ta laſter, ſartuco da Jaun hau zuen JERUSALENgo Elizan; ta onen ſartzea-requin, guelldituco da Eliza, Salamonec eguin zuena diñacoa ez izan-arren, harc eguiñicacoa, ta harc hura urrez, ta cillarrez apaindu zuenean baño ere, aguitz ederragoa, ta ecuſtecoagoa: *ET IMPLEBO DOMUM ISTAM GLORIA* (15). Zori oneco euſcaria! Zori oneco etor-era! Eta norc hau haſtiz, ta luzaro beguiz lecuſquen, orain ſiñiſtez bezala!

ZACHARIAS Profetac era berean hitz-eguiten die JACOBen humeei; bada erraten die: NOIZ artean vicico zarazte, vici zarazten eran, edo dituzuen, bezain aſmo, ta ibillera eroetan? BABILONIAn vici diranac bezala, vici behar dezute zuec, edo angoen eran, ibilli uſte dezute, Idoloz Idolo, ta gaizquiz gaizqui? Ez ez: bacarric, edo zuec bague erre, ta lertu bedi, bere ſulecean, ara zuec, era orretaco lan-equin eraman naiez, zuen ondoren dabillen, etſai gogor madaricatu galgarria. Ez da, cer galdu, ez ceren zucen-videaren uſtea, edo gueroco eſperantza. Ez da bat-ere cer berandetſi

ceren Jaunaren etortzeaz : ba nator, dio berac, zuen artean guizon izatera. Or vicico naz, bai, zuetatic bat bai nintz bezala ; ta vicico naz , zuei vicitzen , ta gauz onac eguiten eracusten dizuedala (16). Zuen artecoac, edo Israel-darrac ezecic (dio guero) mundu gucian banatuac dauden gende-etatic ere neretuco ditut anitz, eta asco ; ta neretuco ditut, zuen artean eracutsico dudan , dotrina-requin. Nere dotrina-requin batean emain dut emen, ta emain dut mundu gucian ere norc nai , edo bacoitzac, ongui vicitzeco , behar duen, laguntza , ta gracia ; ta , nai ba-du, ta ongui escatu ezquero, aguitz gueiago , ta gueiago. Eta bere demboran emain diet nic, ongui vici diranei beren irabacia, ta beti-betico gloria. Baña beguira bezate, nola, ta certan dabiltzan, gaizqui dabiltzanac ; bada, lurrez , ta araguiz jauncia egona gatic, edo zuen guiza-tasuna artua gatic, lena izain naz ni, dio Jangoico berac , etsaiac escuratzeco, ta nori bere penac , eta , dagozcan, neque, ta castigu guciac emateco.

Certaco da orrembat hitzontziqueri ? Erraten , edo adirazten die gende berei MALACHIAS Profetac (17). Berandetsiric arquitzen zarazte, ceren zuec nai baño, gueiseago luzatzen duen gure Jaunaren etor-erac. Gure ondoan , edo gure aldean vici diran, Gentil itsuac, gaizqui vicia gatic (diozue), gu baño, aisago vici dira , ta nequeric gabe : ta gu ongui , ta zucen vici garala ; ta gu egona gatic, gauden bezala , gau , ta egun , ta beti gueren Jaunaren ustean , gueren Jangoico-guizonaren beguira, ta deiez, ta deiez , lembaitlen datorquigula, beti necatuac gu, beti quezca-requin gu, ta bein ere atsedeten ez dugula ! Nola dabiltza gauzac ? Edo non gorde da, guri ez laguntzeco, gure gaucen Zucentzallea ?

Orra zuen eraqueria ! Orra zuen hitzqueta ero bururic baguecoa ! Ichozue, zoratuac, cembait demboraz , dio Profetac , eta adi zazue Jangoicoac erraten dizutena. Igorrico dut, dio, ta anitz luzatu gabe, videac zucentzera , Aingueruen guisan, vicico den , S. JOAN Baptista: ta onen ondoren aguertuco da, zuec uste dezuten, Salvatzallea. JESUS Salvatzallea dator, Legue berri bat lurreco guciei ematera. Legue onetan arquitcen dira, ongui, ta gaizqui vici diranen paguac,

Utza-

Utzazue, utzazue; zuen bazterretaco gaiſtoac, cembat ere doatſu-aberatſac diran, egunen batean artuco dute zori gaiſtoco beren irabacia: ta horduan onac, ongui dabiltzala, vici diraño, nequetan, ta arraſtan emen ibillia gatic, artuco dute JESUS ona gandic beren irabacia, ta ſeculaco gloria.

Orra PROFETEN hitqueta, ta mintzoa; edo orien miſteriozco mintzo-hitzquetac adirazten duena. Orra cein naituac PROFETAC, eta mundu gucico, ta Legue zarreco gende onac, cetorquien lembaitlen, uſte zuten, beren Jangoico guizon JESUS maita-garria. Etziran, ez, orren naituac ambat demboraz vicico, oriec jaquin ez-pa-lute etortce onen valioa. Ote daquizu zuc ere? Ez dut uſte; behar bezala beintzat. Bada zuc jaquitera, edo zuc ezagutzen ba-cenitu, JESUSen etortze onetatic datozquizun, ondaſunac, etziñan izain, ez, izandu zaran, bezain eſquer gabea: billatu dituzun baño, gogoz-ago billatuco cenituen JESUSen ondaſunac, eta laguntzac; eta gaur izain ciñan, zaran baño, obea, ta virtutetſuagoa. Berari nai daquiola, bertatic zuc cere beguiac idiquitzea, ecus dezazun, orain-daño baño, beguiratze arguiagoa-requin, Jaunaren guizon eguitea; ta guizon-eguite one gatic zor diozun, ontartea, ta amorea; onen amore andiari, al-den, amoreric andienarequin eranzuteco orain, ta cere vicitzan, edo cere ill arte gucigucian.

1.

BEATI OCULI, QUI VIDENT, quæ vos videtis; dico enim vobis, quod multi Profetæ, & Reges voluerunt videre, quæ vos videtis, & non viderunt; & audire, quæ vos auditis, & non audierunt. Luc. 10. 23.

ZOri oneco beguiac, begui ecuſten dutenac, zuec orain ecuſten dezutena (erraten cien bein CHRISTO Jaunac berequin cera-biltzanei); bada ecuſten dezue zuec, anitz ERREGUEC, eta PROFETAC, ecuſi nai izandu zutela, ecuſi etzutena; ta ecuſten ez-ecic, aditzen ere dezue, ecuſten dezutenaren aotic, oriec berac, aditu nai izandu ba zuten ere, aditu etzutena: ecuſten nazue alabaña ni guizon eguiña, ta ni gandic aditzen dezue, nic Mundura dacardan, nere legue berria.

Erran daquiquegu guri beſ-

te onembeste? Bai beguiratzen ba diogu guc gueren Jangoico-guizonari, ta aditzen ba dugu Jaun onen leguea, Jaun beraren Apostoluac bezala. Nola beguiratzen cioten gure JESUSI bere Apostoluac? Bihotz onez, ta begui garbi-equin: becatu-etatic, eta becatuen videtic beren g oa quentzen zutela; ta beti, ta viciro maitatzen zutela beren JESUS. Nola aditzen cituzten Apostoluac JESUSen hitzac, eta JESUSen leguea? Aditzen ciotena zucen eguiteco naiez beteac ceudela; ta hau berau, al-zutenei, eraguiteco gogoa-requin guelditzen cirala. Onela beguiratzen diozu zuc cere Jangoico-guizon, JESUS maitagariari? Onela aditzen dituzu zuc cere JESUSen hitzac? Ez dira itzultzen zure beguiac, ez dira macurtzen bein ere lurreco gauz-etara zure asmo-gogoac? Nolacoa izan oi da zure ibillera? Nola ibilli oi zara cere legueco gauzetan? Guciac eguiten dituzu zucen, behar den, eran, ta utsi-eguin bague? Zucentzen dituzu, ta alic lenena, noizbait eguiten dituzun, cere utsac, eta macurrac? Utseguin bague, ibilli uste dezu, vici zarano; ta lan onez-on ibiltzeco asmoan arquitzen zara? Ala ba-da, zori oneco beguiac dira, zure beguiac: eta zori oneco beharri-bihotzac zure bihotz-beharriac. Oriec zuc galtzen ezpa-dituzu, edo ori bera zuc eguitera, ill arteco cere demboran, zuc guero eternidadean ecusico dezu JESUS, Sacramentuco estalquiric bague, ta arguitz, ta Aingueruz ingurutua. Ala guerta daquizula, bai arren, bai.

2.

BEATUS ERO, SI FUERINT RE-liquiæ feminis mei ad videndam claritatem Ierusalem. Tob. 13. 20.

EGunen batean aguertuco da, guizon eguinic, gure Jaun maitagarria: ta norc lecusquen, zori oneco, egun eder hau! erraten du TOBIAS zarenac bere azquen-aldean. Zori onecoa ni, nic egun hau ez ecusia-gatic, ecusten ba dute nere ondorengoren batzuec! Ah, cer ecuscaria, horduan JERUSALENgo Elizan aguertzeco dagoen, Jangoico-guizona! Jainco-guizon onec, an sartu horduco, utzico du den gucia, ecustecoz, arguiz, ta eracustez, betea; ta, beguiac ez ertsitzera, an horduan arquitzen diranac, ecusico dute,

ee, Iſraeldar onac, eta, guciac baño, gogoticago Erregue zucenac, eta Profetac beti, ta beti eſcatzen zuten, ecuſtecoa.

Cer eguiñen cenuen, zuc becatari charra, hordu artan an arquitzera zu JERUSALEN-go Elizan, JERUSALEN--darren artean, ta JESUSen beguietan? Eſquerrez beteric, JESUSen oñetan belaunicatu, ta, amorez urturicaco, bihotz bat an hari eracutſi? Hau gucia zuc eguiña gatic, eguiñen erzenuen, bere horduco aguertzea gatic zor diozunaren laurdenic ere. Atotzea, ta gutiago zor diozu zuc gaur Jeſus berari, ceren etorri zaitzun alderagoco gure Eliz-etara, ta ſartzen zaitzun cere bihotzeraño, comuniatzen zaran gucietan? Eta eguiten diozu zuc orre-gatic zor zaion bezala? Ah! ta cein guti! Eta orrela, edo gueiago eguiten ez dezula, izan nai dezu zuc zori-onecoa, ta Ceruco doaiez betea? Ez da erraz, ez! Izan nai ba-dezu, bada emendic aitzina, ta beti, idiqui beharco dituzu animaco cere beguiac, ongui ezagutzeco, JESUSi, bere lembicico etortzeaz, ta gueroz eguiten dizquitzunac gatic, zor diozun, amorea; amore onen ezagumentuac eraman zaitzan, zor zaion eran, JESUS onari amorez, ta lan zucenez erantzutera; ta guero, bere horduan Ceruco gloriara. Jaunac digula orretaraco behar dugun, argui, ta laguntza gucia. Bai arren, bai.

3.

SI MORAM FECERIT, EXPECTA eum, quia veniens veniet, & non tardabit. Abach. 2. 3.

PRofeta ABACHUC egondu cen bein, beguira bezala, nondic ecuſi cezaquen ecuſteco andi hau, onen luzatzeaz gaizqui mintzatzen ciranei, behar bezala, erantzuteco aſmoan. Onetan cegoela, aditu zuen bere Jauna gandic, eſcriba zazu, orain ni zuri erratera noana, jaquin dezaten gueroco iracurleac, nic, guezurric erraten ez daquidanac, orain adirazten dizudan, gucia: luzatzen badu ere, ez da orre gatic cer berandetſi: ichozu; zaude beguira, ta ecuſico dezu, nola, ibilliz bezala, ta anitz luzatu gabe, aguertzen den, gure gucien oneraco, guc gucioc uſte dugun, JAUN ANDIA.

Mintzo-era, ta hitz-eguite onetan agueri da, cein andia cen Legue zarrecoen JESUS ecuſi-naia: ta agueri da, orie-

orietatic cembait beintzat, etsiac bezala, vici cirala JESUS-en etortzeaz: bai, ta Jaunaren aldetic aditu zutenaz ere. Nola ote zaude zu, becatari charra; edo certan ote dabill zure asmoa, cembait nequeren, edo quezcaren batzuen artean arquitzen zaran, horduetan? Hordu orietan escatzen ote diozu cere Jangoicoari, datorquizula lembaitlen, ta atera zaitzala orien artetic, edo dizula, onguien dagoquizun, eran, horduco cere naigabe, ta pena guciac, eta berac nai bezala, eramateco, bere laguntza, ta gracia? Escatzen diozu, aguer daguizula, ongui, ta zucen cere gauzac eguiteco, videa? Escatzen diozu, datorquizula, zuri cere gaitzeraco macurtasunac garaitzen laguntzera, cere aztura gaistoac quentzera, ta, gauz anitz on eguiteco, behar dezun, gucia zuri ematera?

Comunione, ta otoitz ascotan hau gucia bein, berriz, ta anitz aldiz escatu diozu nosqui zuc cere Jangoicoari; baña erditsi bague, escatzen cenona; ta orrequin iduritu izandu zaitzu, etzaituela cere Jaunac aditu nai izandu. Bai? Bada ez dituzu zuc cere escaerac behar bezala eguin izandu, edo neque pean oraindic cembait demboraz vicitzea da zuri dagoquizuna. Esca zagozu bada Jangoico berari berriz, ta berriz ere; ta esca zagozu, alic onguiena, escatzen diozun, gucia. Esca zagozu, vicitza char hau iragotzeco, ta betico Cerua irabazteco, behar dezuna; ta, cembait demboraz zure Jaunac luzatua gatic ematea zuri, zuc escatzen diozun, gauza, ez da cer berandetsi: gutiena uste dezunean, izain dezu escatzen dezun, ori, edo orren ordez, ori baño, obequi dagoquizun, cer, edo cer: bada aspaldian bere hitzez orretara behartua arquitzen da gure JESUS; ta, mundu gucia gatic ere, ecin auts dezaque JESUS maita-garriac bere hitzetatic den chiquiena, edo bat ere.

Orretan nago, bai, nere JESUS maitea; ta orretan egoin naz secula gucian. Ni nor ba naz, eta nic escatu ezquero, escatu behar den eran, zu gan arquituco dut nic, nere gauza guci-etaraco, behar dudan, gucia; bai, ta gueiago, ta gueiago ere. Ecusi ba ditut nic orain-dañocoan, ecusi ditudan, beharrac, eta premiac, nere culpaz izandu da, ta nic eguin baguez, eguin behar nuena. Garbitu ba-nu nic, neronec ne-

re

re naiez loitu nuen, nere bihotza; utzi ba-nitu nic nere culpac, eta oben gaiſtoac, orien vide macur, ta aztura galduequin, beſte indar artuco zuten orain-dañoco nere eſcaerac, eta beſte moduz adituco cituen nere Jaun andiac. Ongui jar ditzan bada, gaurguero eguin behar diozcadanac: eta izan dezadan nic eſcatzen diodan, gucia erdiſten dudalaco atſeguin, ta contentua, orain nai dut eguin, len eguin ez dudana: orain garbitu nai ditut nere bihotz-animac, beraren gracia-requin erraten diodala damuz, ta negarrez! NERE JESU-CHRISTO JAUNA, *&c.*

(1) Geneſ. 5. 5.

(2) *Vidit, & gaviſus eſt.* Ioan. 8. 56.

(3) *Salutare meum expectabo, Domine.* Geneſ. 49. 18.

(4) *Excita potentiam tuam, & veni, ut ſalvos facias nos.* Pſ.77.3.

(5) Sap. 9. à v. 9.

(6) *Ecce Virgo concipiet, & pariet filium.* Iſai. 7. 14.

(7) *Cap.* 11. 1. (8) 45. 8. (9) 11. 6. (10) 35. *à v.* 3. (11) *A v.* 5.

(12) *Ibid. à v.* 10. (13) C. 64.

(14) *Et veniet deſideratus cunctis gentibus.* Agg. 2. 8.

(15) *Et implebo domum iſtam gloria.* Ibid.

(16) *Quia ecce ego venio, & habitabo in medio tui, ait Dominus.* Zachar. 2. 10.

(17) *Cap.* 3. Malach.

AMABOST-GARREN OTOITZ-GAIA

NAI, TA EZ ONTARTE ANDIA DA GURE JAUna gu gatic guizon eguitea; bada guztiz andiac dira, onetan dabiltzanac.

ORain-dañocoan campotic, eta urrutitic bezala beguiratu diogu gure Jaun andiaren guizon-eguiteari: orain

aldera-gotic beguiratu behar diogu, obequiseago ezagutzeco, gure Jangoicoac bere lan onetan eracusten digun, amorea. Onetaraco beguiratu behar diegu eguiteco onetan dabiltzanei.

§. I.

JANGOICO BERA, JESUSEN AMA, ta Ainguerua San Gabriel dabiltza eguiteco onetan.

NOlacoa den eguiteco bat ezagutzeco, beguiratu oi da orretan dabiltzen-etara: ta Jangoicoaren guizon eguiteari onela beguiratzen ba-diogu, aitortu beharco dugu, andia dela, ta guztiz ala ere, eguiteco hau; bada onetan ibilli dira, batetic JANGOICO ber-bera, edo AITA Eternoa, onen SEMEA, ta bien ESPIRITU maitagarria; ta bestetic VIRGIN Am-andrea: ta bien artean S. GABRIEL Ainguerua. Ecusten dezu nolacoac diran, onetan dabiltzanac? Bai: ecin-andiagoac! Baña nola, uste dezu, ibilli cirala beren eguitecoan? Ciñ-ciñez, beren eguitecoa ongui, ta zucen bucatu nai andia-requin. Andia cen berez, ta guztiz ala ere, escutartean irurac cecarten, eguitecoa: bada onelacoac onela ez dabiltza bein ere ecer-ezetan, edo, orrembatecoac ez diran, eguiteco-etan. Hau obequi ecusteco, beguiratu behar diegu banaca, eguiteco onetan dabiltzanei; ta bein, edo lembicico aldian gure Jangoico berari.

I.

Atozea, ta non da Jangoicoa bezain gauz andiric? Non da gure Jangoicoa bezalacoric? Gure Jangoicoaren aldean Erregueric andienac, lurreco Emperadoreac, eta munduco guciac, ezpa lira baño, gueiago agueri ez dira, dio Isaias Profetac (cap. 40. v. 17.) Jangoicoa da alabaña, lenago ecusi dugun bezala, asieraric ez duen, ta ecin buca ditequen, Izate utsa. Jangoicoa da, Cerua, lurra, ta Mundu gucia betetzen dituen, Anditasuna; ta, diranac baño, toqui, ta lecu gueiago, ta gueiago ba-lira ere, guci-guciac beteco lituquena. Jangoicoa da ahalcundez, jaquiundez, ta ondasunez beteric dagoen, Izatea, edo da Izate ecin-obea, ecin jaquintsnagoa, ta, ecin gueiagorañoco, escua duena. Jangoicoa da, guc, eta Ainguerua asm-al adiña baño, gauz on eder, ta perfeccione gueiago, ta gueiago dituen, JAUN andi bat: JAUN

hau

hau bada, AITA, SEMEA, ta ESPIRITU Santua da alde batetic eguiteco onetan dabillena. Orra cer Ibiltzallea! Orra cer Persona!

II.

Baña norequin dacar gure JAUN andi onec bere eguiteco hau? JESUSen AMA-requin. Nongoa da JESUSen AMA? Munduan den, echeric oneneco ALABA. ADANen, ABRANen, ta DAVID Erreguearen echeco ALABA da alabaña. Eta nolacoa da AMA hau izatez? Pareric baguecoa: bada ba-ditu, bere jait-echeari cegozcan bezalaco gurputz-animac (cein ederrac? cein ecustecoac? Egunen batean aguerico da); bai, ta adimentu garbi ecusle zucen bat, eta, oneraco baicic etzen, gogoa, edo naimentua. ta vorondatea ere. Ecusten dezu? Bada, cembat ere den, aditu dezun, gucia, deus-ez bat bezala da VIRGEN AMA onen animaco graciaren, doaien, ta virtuteen aldean.

Norañocoa da (baldin badaquizu) VIRGIN AMAren Animaco edertasuna? Ecin gueiagorañocoa, eranzuten du S. Anselmoc; bada ecin asma ere diteque, dio, Jaunarenaz osterontzean, edo Jangoicoarena ez-pa-da, VIRGIN onen Animaco edertasuna baño ederragoric (1). Atoz, si ñisten ez-pa-dezu, Anima hau edertzen duten, gauzac ecustera. Oriec dira gracia, Ceruco doaiac, eta virtuteac. Cein andia ote da VIRGIN onen ANIMAco gracia? Ondoric ez duen, itsasoa diñacoa, dio S. Joan DAMASCENOC (2); edo, San EPIPHANIOC dionaz, numero, ta neurri guciac baño, andiagoa (3). Norañocoac dirala, deritzazu, JESUSen AMAren Ceruco doaiac, virtuteac, eta gañeraco ondasunac? Jangoicoac berac baicic, ecin ezagu ere ditzaquenac, dio S. Bernardinoc. (4)

Orrembat ondasun; ta orren andiac eman ciozcan gure Jangoicoac VIRGIN AMARi? Bai; ta cegozcanari bezala; eguin zuen alabaña bere ALABA, bere AMA, ta bere ESPOSA; bada VIRGIN hau AITA Eternoaren ALABA maitea da; ta dembora berean Seme JESUS Jangoico guizonaren AMA, ta ESPIRITU Santuaren ESPOSA. Aitac, Semeac, eta Espiritu Santuac beguiratu cioten, beguira cequiqueon, amoreric andiena-requin, dio San ANSELMOC (5); eta orre gatic eman cioten, cegocan, gu-

cia, edo ar cezaquen adiña edertze, gracia, ondasun, ta doai: bada eman al guci-gucia zuen Jangoicoac bere escuan, ta, guztiz maite duen, Aitac, ematen dio, eman al gucia, bere Alabari, Semeac Amari, ta norcnai bere Esposari. Orre gatic, dio S. BUENAVENAURAC, S. GERONIMO-requin batean; AINGUERUEI, SANTUEI, ta gañeraco guciei zatica-eman die Jangoicoac bere gracia; baña JESUSen AMAri, eman cion, cegocanari bezala, graciaren betetasun guci-gucia.(6)

Eta, ecusiric A. SUAREZ deritzan, Jesusen Compañiaco DOCTORE andiac, ORIEC, gañeraco SANTUAC, eta GUIZON andi jaquintsuac diotena, erraten, ta eracusten du, Ceruco TRONU, SERAFIN, ta AINGUERU guciac, eta an arquitzen diran, SANTU, ta SANTAC baño, GRACIA, ta IRABACI, edo SANTUTASUN andiagoa, ta irabaci, edo merecimentu gueiago dituela JESUSen AMA bacar, VIRGIN ERREGUIñAC (7). Norañocoac dira bada eder-garri oriec? Eta norañocoa ote da JESUSen AMAren Animaco EDERTASUNA? Goacen nola-ere-bait hau ecustera.

Atozea: ez deritzazu, andiac dirala zure devocioco, ta gañeraco Santuac? Nolacoac ote dira EVANGELISTAC, APOSTOLUAC, eta Legue zarreco PATRIARCAC, eta PROFETAC? Nolacoac Ceruco VIRGINAC, ango CONFESSOREAC, eta ango MARTYREAC? Norc hau adiraci? Irur zati oietatic chiquiena MARTYRena da. Ba-daquizu cembat diran oriec berac? Contuac ongui jotzen daquitenac adirazten digutenaz, AMAZAZPI MILLOI, edo amazazpi milla bider MILLA, ta gueiago. CONFESSOREAC, VIRGIñAC, eta gañeraco SANTUAC, eta SANTAC cembat ote dira? Norc adiraci? Ote dira oriec guciac, eta Martyreac adiña Jaunaren AINGUERUAC, eta ESPIRITU uts garbiac? Bai, ta amabi bider beintzat gueiago ere. Norañocoa da orien virtutea, Santasuna, ta gracia? Norc jaquin? Guc daquigun, gucia, CHRISTO Jaunac bein erran zuena da (8): ez da guizartean aguertu, erran zuen CHRISTO Jaunac, S. Joan BAPTISTA baño, andiagoric, baña Ceruco chiquiena hau baño andiago da.

Ongui: ta ez da S. Joan

BAP-

BAPTISTA Santu gucien artean andien-etatic bat? Ecin uca diteque. Bada, hau baño, andiagoa ba-da AINGUERU-etatic chiquiena, nolacoac izain dira erdicoac? nolacoac andienac? nolacoac gañeracoac? eta nolacoa izain da orien gucien, ta Ceruco Santu-Santen SANTU-TASUNA, VIRTUTEA, ta GRACIA? Ta, orien gucien baño, andiagoa bada JESUSen AMArena, norañocoa da onen GRACIA, onen VIRTUTEA, ta onen SANTU-TASUNA? Suma zazu zuc, al ba dezu; ta errazu bitartean, Ceruan, ta Lurrean arquitzen den, edertasun, ta graci gucia baño, gueiago-requin arquitzen den, JESUSen AMA, nai, ta ez Jangoicoac gañeraco guciac baño, gueiago estimatzen duen, ta andiagoa den, GAUZA, ta PERSONA dela.

Ongui: ta VIRGEN-AMA onequin ba zuen (zuen bezala) gure Jangoicoac bere eguitecoa, guizon-eguiteco, ta, gure artera etortzeco, cebillen demboran, etzecarren eguiteco hau, al cezaquen, PERSONic andiena-requin? Ecin uca diteque.

III.

Goacen orain, Bitartecoa nor cen, ecustera. Nortaz valiatu cen gure Jangoicoa, PERSON-andi, VIRGEN virtutetsu oni eguiteco onetàn hitz-eguiteco? Bere Empireoco Principeric andien-etatic batez; San GABRIEL Archangeluaz. Hau igorri cion gure Jangoicoac, Virgen gucien VIRGIN oni, eguin-gogo zuen, gauz andi hau adiraztera, ta escatzera bezala, ontzat ar cezala JESUSen AMA izatea, ta utz cezala AIT-Eternoaren SEMEAri bere baitan artzera guizatasuna, ta eman cezola, ortaraco behar zuen, odol garbia, gorputza, ta sustentua.

Etzen horduan asi, ez Jaunaren eguiteco andi onetan Ceruco Principe andi hau: bosteun urtez lenagotic ere orretan cebillen; bada ba ciran beintzat orrembeste, lembicico aldian Jangoicoac igorri zuela ARCANGELU S. GABRIEL eguiteco beraren gain, dembor artan BABILONIAn vici cen, DANIEL Profeta gana; oni adiraztera, etzezala berandetsis laburtuco cituela Jangoicoac demborac, edo plazoac, eta igorrico zuela urte orien buruan bere Seme-Jangoicoa guizon eguitera (9). Gueroz ere igorri zuen gure Jangoicoac AINGUERU bera S. JOAN

Bap-

Baptistaren AITA gana, oni erratera, izain zuela bere Andre zar, Santa ISABELA gandic, icen onetaco, SEME bat; eta seme, JESUSen etor--videac zucenduco cituena, edo JESUSen Leguera gendeac zucentzera cetorrena.

Errazu orain; eternidade gucian Jaincoac gogoan iduqui duen, eguitecoa; mundua, ta munducoac eguiten asi cenetic, eguin artean, edo laur milla urtez, ta gueiagotan usu, ta maiz Jangoicoac aguertu zuen, eguitecoa: JESUSen AMA bezalaco VIRGINA-requin Jangoicoac tratatu zuen, eguitecoa; ta S. GABRIEL bezalaco AINGUERU bat bost-eun urtez Arteco dela, Jangoicoac erabilli zuen, eguitecoa, ez da eguiteco andia? Nai, ta ez! bada, oriec irurac bezalacoac, ecin dabiltzque, ibilli diran bezala, ez-pa da eguiteco andietan. Oriec bezalacoac ez-ecic, lurreco ERREGUEAC, eta EMPERADOREAC ere ez dituzte luzaro, ta PRINCIPEZ tratatzen, eguitecoric andienac baicic; eta Jaunac ecin daguique, bere Izate andiari, edo Jangoico-tasunari ongui, ta eder ez dagocan, gauzaric.

Baldin nic ba-nequi, norañocoac diran, Aingueru GABRIELen, Jesusen AMAren, ta gure JANGOICOAren izatea, ta Santu-tasuna, horduan, bai, jaquinen nuque oforo, ta zucen ENCARNACIOco Misterioa, edo Aitaren Hitz andi, Seme bacar Jesusen GUIZON-EGUITEA, ta eguite onetan eguin didan, ontartea. Baña ez da sortu, ezta sortuco ere, orien iruren, behar bezalaco, berria erditsico duenic! Ez, eta Jaunaren guizon-eguitea, behar bezala, ezagutuco duenic ere! Jaunac berac baicic, ecin dituquen, berriac dira berri bata, ta bertzea. Berac digula, digun, amorea gatic, guc duquegun, berri bien zatiric andiena; ortic atera dezagun, cein andi ecusgarria den, guc gueren Jaunari, guizon eguin cenetic zor diogun, amorea! ta guero, amore oni amorez erantzuteco, eman digun, gracia. Bai arren, bai.

1.

NOLO MORTEM IMPIJ, SED UT convertatur à via sua, & vivat. Ezech. 33. 11.

LEneco eternidadean icusi zuen gure Jangoicoac, guertatu cenean, bezain garbiro, ADANen utsa, ta becatu ciquina. Cer cion horduan? Cer dio gueroztic? eta cer erraten

raten ote du, gu gauden egunetan, ta gaizquiz, ta becatuz Munduia bete cen ezquero? Nai ez nuque, dio Jangoico maita-garriac, gal lequidan gaistoen artetic bat ere; guciei areraci nai nieque beren buruen irabaz-videa, ta, eguin dituzten, gaizquien damua; izan dezaten, nerequin batean, eman gogo diedan, nere Ceruco gloria. Orretaraco da, eguin nezaquen, gauzaric andiena, edo nere GUIZON-EGUITEA.

Ecusten dezu eternidade gucian, gure Jaunac gogoan iduqui duen, aimoa? Hordutic ecusten dago, gure charqueriari dagocan, SULECEA: ta, ara gu igorri lecuan, araco videac urratzen dabil, ta guri eguiten, Cerura zucen daraman, beste vid-eder bat. Zori onecoac gu gogortzen ezpa gara gueren vide gaistoetan! Zori onecoac gu, artzen badugu guc beste vide eder hau; ta, onetan ba-gabiltza, vici garaño, eguiten dugula beti, bein ere utsegui gabe, gure Jaun onac Ceruraco eraguin gogo digun, guci-gucia. Pocic eguin lezaque orrembat, eta anitz gueiago ere, borreroz vicia galtzeco dagoen, edocein guizonec, borreroaren escutic atera, ta Erregue-requin vicitzea gatic, haren zaldunac, eta guizon andiac vici oi diran, eran.

Eta ez ote dut nic eguin behar, sulececo borrero gogorrac garaitzeco, ta Jaunaren Zaldun, ta Cerutar izatea gatic, esquer-tasunez, besteric gabe, eguin behar nuquen cer, edo cer? Bai, baldin bere! Ez dut nere gogoan erabillico, eternidade gucian bere gogoan iduqui naven, nere Jangoico maitagarria? Atzenduco ote zait, ni gatic Jaun onec artu duen, lana, ta nequea? Ez nuque nai beintzat; eta, atzen ez daquidan, nere Jaun berac didala, ori, ta gañeraco zor zaizcan, gauzac gogoan daduzcadala, zucen ibiltzeco, ta eriotz on bat eguiteco, gracia. Bai arren, bai.

2.

COGITARE DE ILLA SENSUS EST consummatus. Sap. 6. 16.

IZan ditzaquegun, oroitzapen onen-etatic bat, JESUSen AMAZ oroitzea da: Cer gatic, uste dezu? Ceren Jangoicoac guztiz nai dion; ta nai duen, maita dezagun guc ere. GUZTIZ NAI DIO, bai, bere Jangoicoac JESUSen AMAri. Cembat uste dezu? Adi zazu

Jan-

Jangoico berac diona. Anitz dira, dio, Ceruan, ta Elizan arquitzen diran, anima garbi, virtutez beteac; baña bat bacarra da, behar bezalacoa; bat bacarra da, graciaz, doaiez, ta ondasunez beteric arquitzeñ dena; ta bat bacarra, edertasun utsa baicic, ez den, anima (Cant. 6. 7.). Onequin dira, dio Jaunac, nere eguitecoac; onequin nabill, macurren zucentzen (Sap. 8. 30.), ta, onec laguntzen didala, atera naiez nabill, nai duten, guciac, ADANec aurtiqui dien, neque-lan izugarritic, eta gueroco sulecetic. Hau da nere Semearen AMA; hau da nic neronec daquidan bezalacoa, ta bestec ecin ezagu dezaquena; bada behar bezala, ezagutuco duenac, ezagutu behar du beraren Semea; ta Seme hau, nic neronec baicic, ecin ezagu dezaque. Ezagu-eraren guisacoa da, dio Aita Eterno berac, nic diodan, amorea. Ecusi zazu cein andia! Cein arrigarria! Ta ecusi zazu, nere Anima, cembat atseguin eguiñen diozun, gogoz, ta bihotzez maitatzen ba-dezu, Jangoico berac onen maite duen, Jesusen AMA maita-garria.

Ay AMA! jaquin ba-nu nic, nere Jangoicoac orrembat nai cizula, ta naico zuela, nic ere zu ciñez maitatzea, eguinen nuen, al-eguina, lan hau lenago, ta lenagotic ere eguitea gatic, eta maitatuco cindudan Jauna-requin batean nere bihotz-buru, ta indar gucia-requin. Daquidan ezquero, saiatuco naz, ongui, ta zucen lan hau eguitera, datocen egunetan, ta nere vicitza gucian. Zori onecoa ni, zucen eguiten ba-dut, eguin gogo dudan, lan andi hau! bada, eguiten ba-dut, eguiñen dut, Jaunari atseguin eguiñen dion, eguiteco bat; eta eguinen dut, neroni ere ongui dagoquidana; ceren, cembat ere nere gogoan sartuagoa JESUSen AMA, ambat andiagoac izain diran, onèn escuz Jaunaren escutic artuco ditudan, ondasunac: guciac datoz alabaña, S. Bernardoc dionaz, alde, ta vide onetatic (Ser. de Nativ. V.)

Orrembat ondasun baño, gutiago gatic ere, gogoan norcnai pocic ar cintzaque, MAITATZE EDERRAREN, ta JESUSen AMA maitea; bada Ceruan, ta lurrean arquitzen diran, gauzaric ederrenac ere, ez dute cer ecusi zure edertasuna-requin; zu zara alabaña AINGUERU, PATRIARCA, PROFETA, MARTYRE, ta SAN-

SANTU gucien ERREGUIñA; ta, guciac baño, gracia, doai, ta edertasun gueiago requin arquitzen zaran, anima. Zu zara, dezun, arguia-requin illarguiaren, izar gucien, ta eguzquiaren arguia illun cenzaquena. Zu zara Jaincoac eternidade gucian, munduaren erremedioraco bereciric iduqui zaituena. Zu zara Jangoico beraren bihotz-bihotzecoac: zu AITA Eternoaren ALABA maitea, zu SEME Jaunaren AMA maitea; zu, ecin gueiagoraño nai dizun, ESPIRITU Santuaren ESPOSA maitea: ta zu orien gogotic bein ere atera gabea, ta, etorquizun dauden, urte-etan, ta seculan, ta seculan gogoan sarturic iduquico zaituzten, gauza, ta beren escu-etaco lana: ta dembora berean zu zara, Ceruan diranac zuri beguira liluratuac bezala, ta amorez urtuac dauzcatzuna.

Cer misterio bada, beste gatic ezpa-liz ere, ceren zaran, JESUSen AMA, zaran bezalacoa, nic zu gogoan artzea, nic zu maitatzea, ta zure icenean nic, al dudan, guci gucia eguitea? Ta, daquidan ezquero, lan hau eguitean; eguiñen dudala, nere Jangoicoac nai duen, lan eder bat; eguiñen dudala, ondasunez animan beteco naven, lan andi bat; eta eguiñen dudala, nic zuri, gure erremediatzalle, JESUSen Amari bezala, zor dizudan, eguitecoa, ecin utzi dezaquet, izan nai ez-pa-dut, izandu den, esquergaberic gaistoena, ta munduco guizonic eroena. Ez orrelacoric, nere JESUSen AMA maite-maitea! Zu gogoan zaitudala, ta zure amorez bihotz hau beteric daducadala, nai dut vici gauegun, hordu oro, ta secula gucian. Dezaquezunari bezala, escatzen dizut, erditsi dezadazula, orretaraco behar dudan, laguntza, ta gracia: ta, ba--dut uste, zu arteco artu ezquero izain dudala, escatzen dudana baño, anitz gueiago, ta gueiago ere. Ala guerta dedilla: bai arren, bai.

3.

MISSUS EST ANGELUS GABIERL à Deo... ad Virginem... & dixit ei, Spiritus Sanctus superveniet in te, & virtus Altissimi obumbrabit tibi. Luc. 1. 26. & 35.

CEru-lurrac arritzecoa den, gauza, ta eguitecoa! Gai duac dauden, guiza-charrac gatic onembat eguiteco? Burn gaistozco guizon galduac gatic,

galduac bezala AITA-SEMEAC, eta ESPIRITU Santua; JESUSen AMA, ta S. GABRIEL Ainguerua? Hau cer da? edo certan dabiltza? Jangoicoa mandatutan JESUSen Amarequin? Jaunaren mandatari, beraren INDAR-TASUNA, edo S. GABRIEL, Aingueru andienetatic bat? Eta Virgina BAYETZ bat ecin emanez bezala, bere Jangoicoac escatzen dion, gauza baten gañean? Cer gauza? Cer eguiteco da, onembat arazo, ta eguiteco dacarren, eguitecoa? Jaquin naiez, galdetzen dezu? Bada eguiteco hau, Espiritu Santuaren bazterric-bagueco amorea, ta Jangoico denaren al-tasun gucia behar, ta escatzen duen, eguitecoa da; hau da alabaña, Munduco gucien oneraco, gure Jangoicoa GUIZON-EGUITEA.

Ah, Ceruco Principe andi, Aingueru San GABRIEL, Bitarteco eder maita-garria! Esquerrac zuri nic, eta nerequin batean munduco guciac; bada guciac gatic da, zuc DANIEL-en demboran, ta gueroz lan onetan eguin dezuna; bai, ta orain Cerutic dacartzun, mandatu hau ere. Lagun zaquizquit, Cerura igaten, alderagotic zuri esquerrac emateco: eman naiez nago bein, ta berriz, ta secula gucian.

JESUSen AMA maite, VIRGINA MARIA esquerrac zuri ere, ta esquer, milla, ta milla bider andiagoac, eman dezun, baimena gatic. Baimen onec atseguin, ta contentuz bete ditu lurra, ta Cerua, ta an, ta emen vici diranac; bada onen ondoren jaitsi da Jangoico SEMEA zure gan, edo zure baitan guizon-eguitera; ta onen guizon-eguitea guizonen oneraco da, ta andiz, ta chiquiz, ta Santuz Cerua beretzeco. Zori oneco Semeac gu, gu valiatzen ba gara zure Seme on maitagarriaz, ta zure laguntzaz! Vide onèz ibilli behar dute, Ceruan sartuco diranac. An sartuco gara gu ere, orien ondoren ba-gabiltza; ta, an bertatic ecusico dugu, non, ta nola zaduzcan zu, bere AMA VIRGINA, cere Seme maitagarriac. Ah cer ecustea! JESUSen AMA onetsia, Aingueru, ta Santu gucien ERREGUIñA, Aita Eternoaren ALABA maitea, ta ESPIRITU Santuaren ESPOSA, Semearen escoi-etic, edo bazterrean, atseguin contentuz betea; ta al-ere, gure behar baliz, bezain ciñez gu gucioc eraman naiez Aingueru, ta Santu beren artera, ta Ceruco gloriara! Noiz eranzun guc, gu-

gure Ama Virgina, onembat zure ontarteri, ta onembat favoreri? Ez beintzat datozen egunetan, ta emen vici garaño! Cerura beharco dugu, nola ere bait guc hau eguiteco. Eguin gogoz beteac arquitzen gara, dacusazun bezala, ta orretaraco zu zauden, zori oneco toquira igan naiac. Eraman gaitzazu arren zucen, ta videric galtzen ez dugula. Eguin dezaquezu, bai, laguntzen didazula, cere Jangoicoac emanic, dezun, escu indartsua-requin: ta, eguinen dezulaco, uste andiarequin arquitzen naz ni. Ez dedilla ustel-atera oraingo nere ustea. Ez arren, ez Jesusen, ta gure gucion Ama maita-garria!

Anitz da, bai, GARIEL Aingueru Santua: anitz da VIRgen AM-andrea, guc zuei bioi zor dizuegun, esquer-amorea; baña anitz, eta anitz andiagoa da, zuen, ta gure Jangoicoari zor zaiona; ta gueren zor andi onen alde erran dezoquegu: ORAIN diran gauzac, eta eguin litezqueen guciac baño, gueiago, ta gueiago valio dezun, Jaun andia; JESUSen AMAc, eta Santu, ta Aingueru guciac baño, gueiago nai diguzun, Jangoico maitagarria, certaco da dacarzun adiña arazo, ta eguiteco, GUIZON eguitea gatic? Ceru ederragoren bat, edo dituzun baño, izate, atseguin, ta ondasun obeac uste dituzu cere GUIZON-EGUITETIC? Cerbaiten beharrean arquitzen zara, edo cerc zarabiltzi, zabiltzan eran, cere lan onetan? Ay ene! ta nere asmoen ero galduac! Ceren billan ibilli citequen gure Jaun, ondasun guciac, izate guciac, atseguin guciac, eta gauza guciac berequin dituen, Jangoico maita-garria? Etzebillen, ez deusen billan gure Jangoicoa, lan onetan cebillenean. Ondasunez gu bete naiez cebillen. Bere Cerura gu zucendu naiez cebillen; ta gure on utsa gatic ciran gure Jaunaren horduco ibillerac, gure Jaunaren arazoac, eta Jaunaren lan, ta eguiteco guciac.

Siñisten cenuen hau, ta vicitu zara, vicitu zaran bezala? Siñisten cenuen hau, ta, saiatu gabe, vicitu zara, cer, edo cer eguitera hordu oro, ta noizean bein, onembeste nai dizun, onembat on eguiten dizun, ta, onen ciñez billatzen zaituen, cere Jangoicoaren icenean? Siñisten cenuen hau gucia; ta al-ere zu, zure amorez urtzen dagoen, ta onembat zor diozun, cere Jaun onarequico onen epel, onen otz-

galdua ? Cere centzuan arquitzen ba zara gaur, beguira zazu, non zabilrzan ; ta bertan utziric orain-dañoco cere esquer gabeac, zoazquio Jaun berari bertan escatzera lenen barcamentua, ta berriz utsic ez eguiteco, ta zucen ibiltzeco bere laguntza, ta gracia, damuz, ta negarrez erraten diozula : NERE JESU-CHRISTO, &c.

(1) *S. Anselm. decuit Virginem ea* puritate *nitere, qua* maior *sub Deo nequeat intelligi. Apud Ex. Doc. t. 2. in 3. p. disp.* 18. *sec.* 4.

(2) Damasc. orat. 2. de Assumpt.: *Gratiæ* Abyssum *appellat Virginem.*

(3) Epiphan. orat. de laudib. V.: *GRATIA Sanctæ Virginis est* immensa.

(4) S. Bernardin. ser. 51.: *TANTA est Virginis* perfectio, *ut soli Deo* cognoscenda *reservetur.*

(5) Anselm. l. de Excel. V.: *Ostendit ergo* (*Deus*) amoren *erga Matrem, quo* nullum, *putemus, esse* maiorem.

(6) S. Bonav. Opusc. de laudib. V. c. 7. : *Cæteris per partes præstatur, Mariæ vero simul se* tota *infudit gratiæ* plenitudo.

(7) *Ex. Doct. tom. 2. in 3. p. disp.* 18. *sec.* 4.

(8) Matth. 11. 11.: *Non surrexit inter natos Mulierum maior Ioanne Baptista : qui autem minor est in Regno Cœlorum maior est illo.*

(9) Daniel 9. 21.



AMA-

AMASEI-GARREN OTOITZ-GAIA

CEIN GAUZ ANDI-ONA DEN JAUNAREN guizon eguitea.

ELIZACO DOCTOREAC, nola ere-bait guri adirazztea gatic, cein andi ecusgarria den Jangoicoa GUIZON eguitea, HAU dela, diote, secula gucico Jaunaren EGUITE--COA; hau dela, jaquiunde utsa den, Jangoicoac baicic, ecin asma cezaquen, EGUITECOA; hau dela, berac baicic, ecin eguin cezaquen, EGUITECOA; ta hau dela, den, bezain ona, ta zucena, edo justoa ez-pa--liz gure Jangoicoa, seculan Jangoicoac eguinen etzuen, EGUITECOA; ta orre gatic dela, Jaunaren escuetatic atera den, ta atera citequen eguitecoric, edo gauzaric ANDIENA, ta ONENA. Eguiteco, ta gauza andi on hau ezagu dezagun, orain-dañocoan ez bezala; ta videnabar ezagu dezagun, one gatic guc Jangoicoari zor diogun, ONESTEA, ta amorea, ecusi behar ditugu hastiz, ta banaca, orretaraco diran, ta orain uquitu ditugun, irur gauzac.

§. I.

JANGOICO JAQUINTSUAC BAIcic, ecin asma cezaquen, gauza da Jangoico bera guizon eguitea.

CEr dela, uste dezu zuc, gure Jangoicoa GUIZON eguitea? Jaquiunde utsa den, Jangoicoac, baicic, ecin asma cezaquen, EGUITECOA. Hau da alabaña, gauzaric andienac, ta charrenac elcar artzea, edo Trinitateco BIGARREN PERSONAC, AITA Eternoa bezambateco SEME Jangoicoac, ESPIRITU Santuaren VIRTUTEZ ar-

artcea gure izate charra, ta loiezco naturaleza, VIRGINA garbi jandone. MARIAren Erraietan, edo Sabelean. Hau da, secula gucian izandu cen, ta ecin ill citequen, Jangoicoa guiza-tasun ill--garria--requin bat eguinic guelditcea. Eta certaco? Bere demboran aur jaiotzeco, guiz-artean, edocein bezala, vicitzeco; ta, cembait urteren buruan, gaistoen escuz Gurutze batean bere egunac nequez beteric bucatzeco.

Ez-pa-cen, gure Jangoico jaquintsuac, norc hau asma cezaquen? Niorc ere, Alexandriaco CIRILOC dionaz (1); „ bada, guc asm-al baño, an„ diagoa da, dio, eguiteco hau, „ edo eguin den bezala, Jan„ goicoa guizon EGUITEA.„ Bai, dio S. Pabloc ere (2), MISTERIO hau, Jangoicoaren jaquiundeac asmatu zuen, misterioa da; ta misterio, berac aguertu artean, gogora niori etorri gabea. Etzuen cer artu, ez, gure Jangoicoac onembat eguiteco, gu ADANen becatupetic atera, ta Ceruco videan sartuac uzteco. Ba-cituen orretaraco, ta, Ceruco gueren videan beharco guenuena guri emateco, anitz vide, ta eguinera: hitz bi-requin eguin cezaquen Jangoicoac ori gucia, Munduia len, ta Munduco gauzac eguin cituen, bezain aisa; baña etzuen orretan guelditu nai izandu: eguin nai izandu zuen EGUITECO, ta LAN andi hau, ezagu guenezan guc gueren eguillearen JAQUIUNDEA; ta, gure oneraco, eguin zuen, traza gatic, zor diogun, AMORE andi-bazter-baguecoa.

Norañocoa dela, deritzazu zuc, ortic datorquizun, zure zor andi hau? Norc hau adiraci! „ Traza onetan, ongui „ beguiratzen ba diogu, ECU„ SICO dugu, dio S. AGUS„ TINEC (3) gure izatea, ta „ naturaleza, ecin gueiagora„ ño, GORATUA; bada ecusico dugu, odeiac, izarrac, Ceruac, eta Ceruco Aingueru, Serafin, ta gañeraco Espitu andi-eder-goratuac baño, goratuagoa, ta Aita Eternoaren escuietic dagoen, Seme Jangoicoa-requin bat eguiña.

Orra gure Jangoico guc ongui aferretuac artu izandu duen venganza, edo vendecua! Bein ADANen escuz, ta gueroz gueroc eguin diozcagu, norc daqui, cembat videgabe! norc daqui, cembat charqueri! Guciguciac ecusi cituen, guc eguin baño, len, ta bere eternidadetic. Ecusi zuen dembora beran gure lan char oni cegocan

can, quezca, ta pena, (ta pena, ta quezca feculacoa), barcatzen ezpa-ciz-quigun guri Jangoico berac gueren gaizquiac, edo aguertzen ez pa-cen, gu-requin bera-requico baqueen eraguille, arteco onen bat; bada guc guerez ecin gueneguiquen, becatuen barcamenturaco, behar diran, gaizen laurdenic ere. Hau gucia cecusan, gure Jangoicoac cer eguin ote zuen fecula gucian, ta bere eternidadean? Gaizquia cetorreneco, edo becatu bat ecusi horduco, prestatu suac, prestatu garrac, eta prestatu sulececo tormentu guciac? Ori cen, bai, guri gueren lan gaistoa gatic cegoquiguna. Baña etzion ez, guri cegoquigu-nari gure Jaun onac beguiratu: beguiratu cion bere BURUARI: beguiratu cion bere ONTASUNARI; ta eguin zuen, oni cegocan, ta bere jaquiunde andi bazter-baguecoac aguertu cion, araistico traza; ta artu zuen, gu gatic GUIZON EGUITECO asmoa.

Zori oneco traza, gure Jaunaren amoriozco traz eder hau! ta zori oneco asmoa, asmo, onen ongui guri dago-quiguna! Eguin citzaqueen, traza guciac aguertzen ba litu ere, ez liguque guri gueren Jangoicoac aguertuco, traz hau, bezain ongui legoquigun, trazaric; ez eta, onen erara gauzac eguiteco, asmoa bezalaco, asmoric ere: bada emendic dator gure zorten pagua; emendic dator gure, ta JESUSen SENIDA-TASUNA, emendic gure gracia, ta emendic gure Cerua, ta Ceruco gloria. Cer trazetan arqui guenitzaque guc onembat ondasun; ta ondasun, onen andiac? Cer ez diogu zor guc orien traza-tzalleari? Cer, traz eder ondasun--dun onetan bere Semetaco artu gaituen, gure Jaun on maitagarri jaquintsuari? Ta cer, eternidade guci-gucian, guri onelaco favoreac eguin-naiez, egondu den, gure Jaun andiari? Hau ezagutzera, behar den, eran, norace liraque gure bihotzac? Gueldiric egon litezque, ta amorez bertan urtzen ez lirala? Ez nosqui, luzaro beintzat, bertan ez galtzera guc gueren buruac, edo gueren ezagumentua!

§. II.

JANGOICOA GUIZON EGUITEA, gucia dezaquen, Jaunaren eguiteoa da.

JAngoicoa GUIZON eguitea jaquiundez beteric dagoen, gure

gure Jaun andiaren traz ederra da, ecusi dugun bezala. Orain ecusi behar duguna da, Jaunaren jaquiunde andiac trazatu zuen, gauz hau eguitea noren lana ote den, edo noren eguitecoa? Baña norena izan al diteque, bat besteric, ez pa-da lan onec escatzen dituen, diñaco indar-escuac dituenic! Nor ote da, orrembat escu, ta indar dituen, hau? Nor izan diteque, ez izatera, al-tasun gucia bere gan duen, gure Jaun andia. Jaun onén lana da bada, ta oni bacarric zor diogu guc, gure Jangoico maita-garria gu gatic guizon eguitea; bestec alabaña etzezaquen eguin, hau bezain lan andiric; ez, eta milla ta milloi bider chiquiagoric ere: bada, lenagoco Libruan ecusi dugun bezala, ecerezetic ecin ecer atera dezaquee, indarric gueiena duten, eguilleac ere; ta batez bestea eguiteco ere, behar dute eguilleac berac beren Jaunaren escua, ta laguntza. Gure Jauna da bacarbacarric, eta lagunic bague edocein gauza, ta, nai duen, gucia noiz-nai, ta nai duen, eran eguiten duena. Zarrac berritzea, berriro gauzac eguitea, zar-berriac elcar--ganatzea, ta nora nai, ta nai adiñetan edocein gauza, ta gauza guciac igortzea, ori da, gure Jangoico al-tsuac baicic, ecin daguiquen, gauza, edo eguitecoa; ta Jangoicoac, gueldiric ba lego, bezain aisa eguiten duena.

Baña (gauz arrigarria!) orra cembat diran, dacusazun b z 'a, gure Jaun al-tsuac eguinecaco gañeraco gauzac! Oriec, ez pa-lira, bezain chiquiac dira, beste anitz, Jaun berac eguin litzaquen, gauzen aldean; ta ala ere eguiñac, eta eguinquizunac deusez bat bezala dira, lan onen, edo Encarnacioco misterioaren, edo Jangoico bera guizon-eguitearen aldean. Gauz andia da, bai, dio S. Thomasec (4), berac len eguiñicaco elementu-etatic gure Jaunac, atera oi dituen bezala, ateratzea loreac, sagarrac, arraiac, egaztiac, belarrac, ardiac, eperrac, perlac, eta gañeraco gauzac. Ori baño ere, gauz andiagoa da, gueroz gurequin gure Jangoico berac eguin duena eguitea; eguin gaitu alabaña elementu ber-etatic, eta ecer-ezetic; bada ecer-ezetic gure Jangoicoac aterea da, gu-tatic bacoitzari, eguin guinduenean, eman cion, ANIMA; ta gure gorputza elementu-etatic, eguina da; bada ba du elementu batetic eza-tasuna, bestetic beroa, ta gañe-

raco-

raco—etatic cer, edo cer : ta eguiñac gara, elementu pisu, ta astun-etatic, eta, astun-tasunic ez duen, espiritu andi arinutsgarbia-requin: ta orre gatic gara, AINGUERUen iduricoac, eta lurreco gauzen antza, ta izatea dugunac.

Baña cembat ere lan andiac diran, gañeraco gure Jangoicoac eguiñicaco, gauzac; eta cein ere andia den, gorputz-animac bezain, elcar gandic urruti dabiltzan, gauzac elcar ganatzea, ta biez bat eguitea, lan andi, ta eguiteco hau, ta gañeraco, gure Jaunac eguinac daduzcan, guciac laburerrazac dira, orain guc ecusten gabiltzan, onen aldean. Cer gatic ote? Ceren bere lan onetan bat eguin duen, gure Jangoico al-tsuac bere Seme maita-garriaz, ta, artu dituen, gorputz-animez; ta hau da, S. Thomasec dionaz, gure Jangoicoac éguin cezaquen, gauzaric andiena. Eta ala da; da alabaña den, ta asma ere ditequen baño, gauz andiagoàc, edo Jangoicoác, eta gure chartasunac elcar artzea.

Hau besteric eguin ez-palu ere bere GUIZON-EGUITE onetan, eguin zuen gure Jangoicoac, Ceru-lurrac, itsaso-bazterrac, eta, orain daño-coan eguin dituen, ta eternidade gucian eguiteco dagoen, gauza guciac baño, andiagoa den, gauza bat. Onetan ezagutuco dezu, norañocoa den Jaunaren GUIZON-EGUITEA ta ENCARNACIOCO misterioa; hau denean (den bezala), nai duen, gucia eguin dezaquen, Jangoicoaren lanic, eta gauzaric andien-andiena.

Cembat agur, ta escumuñequin beguiratuco cenion zuc cere Jaun eguilleari, lan hau eguitean, an arquitcera zu, ta zuc ezagutzera, certan hari cen zure Jangoico maitea, lan onetan hari cenean! Nola beguiratu ote diozu cere Jaunaren lan oni berari guerozco cere egun-dembor-etan? Cer? Ez ote da egungo egunetan, eguin cen horduan, bezain ecustecoa gure Jaunaren lan andi hau? Ez dago egun gure Jangoico bera-requin, horduan bezain ongui, ta horduan baño, obequiago ere gure izatea, edo naturaleza? Ez dago egun gure naturaleza, edo izate hau, Aitaren escoietic arquitzen den, SEMEA-requin bat eguiña? Ez du an bertan egon behar gaur, ta beti, ta secula gucian? Beguiratu diozu zuc nioiz, arquitzen den, toquira hastiz, ongui, ta contuz? Ori zuc eguin

izandu ba-cenu, edo eguin ba-ceneza, guertatuco lequiquezu, urrutitic, SALOMONen gauzac ecustera, joan izandu cen, ERREGUIN bati bein JERUSALENen guertatu cequiona.

MALCEDA (5) ceritzàn, ETHIOPIAco Erreguin batec aditu izandu zuen bere demboran, guztiz ecustecoac cirala Erregue SALAMONec eguiten cituen, gauzac, eta, oriec ecusi naiez, utzi cituen bere Corteco, cegozcan, atseguin-sosegu guciac. Artzen du SALOMONe ganaco, edo JERUSALENgo videa; ta an sartu, ta ecusi-horduco SALOMONen JAUREGUIA, ta Palacioa, Palacioco maiac, ango JANEDANAC, ango ZALDUNAC, eta servitzariac, orien IBILLERA, ta SOñECOA; ta ecusi cituenean SALOMONEC Jangoicoari eguin cion ELIZA, ta Elizara igortzen cituen, OFRENDAC, eta gauzac, arritua guelditu-cen gucia, ta atsic, edo asnasaric ecin artu duen baten eran: ta, hitza noizbait etorri cequionean, erran izandu cion SALOMONI; Jauna, andia da, bai segurqui zure jaquiundea, andia da zure ESCUA, ta al-tasuna! Anitz aditu nuen nic an nere Erresuman, zure gauzen gain hitz-eguiten cidaten, gende-etatic: ta ez nuen nic uste, eguin cezaquela munduan denec, nic aditu nuenaren laurdenic ere; eta ecustea gatic, cer ote cen zuc eguin izandu cenuena, etorri naz ambat videz, dacusazun bezala; ta ez dut, ez etorriz bat ere damu; bada ecusi dut zuc eguiña, ta ecusi dut, uste nuena baño, anitz, eta anitz gueiago; bada ecusi dut, gueien gueiena erran cidanac ere, erran etzidala, zuc eguinic daducazunaren laurdenic ere. Zori onecoac, eta aguitz al-ere, zure oguia jaten dutenac! Zori onecoac zure hitzac aditzen dituztenac! eta milla bider bedeicatua, orrembat jaquiunde, ta escu zuri eman dizun, cere Jangoicoa! Eta, hau erran ondoan, eman ciozcan SALOMON berari, norc daqui, cembat urre, perla, incenso, ta presenta. 3. Reg. 10.

Guizon batec eguiñicaco, gauzac onela arritzen badute adimentu onezco bat, cer eguinen ez luque gure Jangoico al-tsuac eguin duen, gauzaric andienac, ongui guc hau ezagutzera, ta hastiz, ta maiz beguiratzen ba--guenio? Zori onecoac (erran dezaquegu guc ere, orretara baño len, ta gaur emen

emen bertatic daquiguna-requin) : zori onecoac, AINGUERU-SERAFINAC, eta zori berecoac, gañeraco CERUCO guciac, bada ecusten dituzte, Erregueen ERREGUE Jangoico JAQUINTSU-ESCUDUN andiac eguin dituen, gauzac; bai ta, eguin dituen, gañeraco guciac baño, andiagoa den, bere GUIZON eguitea ere! Ah! norc lecusquen, zuen eran, edo nol-ere-bait, zuec or ceren Ceruan ecusten dezutena! edo norc ezagu lezaquen, orain-dañocoan ez bezala, ta, dagocan, eran, gure Jaunaren escuac eguin duten, gauzaric andien ori! Baña norc orrela ori ezagu al? Ez eta zuec ceroc, Ceruan arquitzen zaraztenoc ere.

Asqui da Jauna, asqui, ta sobera da, orain nic neronec daquidan apurcho hau berau, besteric bague, ongui beharturic uzteco ni, agurrez beteric, zure escu ecin gueiagarañoco, eguillari, apa, ta muñ eguitera; ta, dudan, gucia bertatic esqueintzera. Esqueintzen dizut, bai, ta gogoz al ere, nere adimentua; esqueintzen dizut nere nai gucia, ta esqueintzen dizquitzut gorputz animac, berengauzequin batean. Oriec dira nic orain ditudanac. Gueiago ez izanaz, esqueintzeco zuri gueiago, dut damu, ta pena. Artu zazu orien ordez, gueiago, ta gueiago zuri esqueintzeco, orain ni gan arquitzen den, nere gogo hau: ta indazu arren izan dezadan, berriro zuri cer esqueñi, gauz on anitz eguiteco gracia; bai ta eguin dezun, gauz andi onen ezaguera garbi-andi, nere bihotzaren berotzalle bat ere: bai arren, bai.

§. III.

BAZTERRIC BAGUECO ONTASUna duen, Jaunaren eguitecoa da Jangoicoaren GUIZON-eguitea.

BEre guizon eguite onetan, duen JAQUINDEA, ta ESCUA, bezain ongui aguertzen du gure Jangoicoac gu ganaco bere ONTASUNA, ta ongui-naia. Guri ongui naiez beteric arquitzen da gure Jangoicoa, dio S. Thomasec (ubi sup. op. 60.) lecu bazter, ta gauza gucietan. Obequi naiez, ematen die onei bere gracia, ta adisquide-tasuna: ta, ceren ONTASUN utsa den, ta nai digun guri ecin gueiagoraño, eguin da guizon, ta artu du bere gana gure chartasuna, ta natu-

raleza. Orra nolacoa, Santo Thomasec dionaz, gure Jaunari guc zor diogun, onguinaia. Onembat guri nai ez izatera, certaco utzico cion GUIZON eguiten betico AITAC bere SEME bacar Jangoico maita-garriari, erraten du Alexandriaco CLEMENTE, guizon jaquintsuac? (6)

Etzen izandu, ez, ongui-nai utsa, gure Jaunaren ongui-nai andi hau. Ondasunez betea da, ta, nai dutenen betetzallea gure Jaunaren gu ganaco ongui-naia: ta, aisago gu bere ondasun-etatic bete naiez, eguin da guizon, ta, guizon eguiñic, gure artean dago, gure Jangoico maita-garria. BAI, etorri nintzan ni guizon eguitera, cion bein Christo Jaunac (7), izan cezaten guizonac nere laguntza, ta gracia; ta izan cezaten, etorri ez pa nintz, izain zutena baño, gracia, ta laguntza aguitz andiagoa. Esquerric asco, cere etortze onguille ondasun-dun one gatic. Baña cembat aci da, Jangoico guizon, Jesus maitagarria, cembat aci ote da, zu GUIZON eguitera etorri ciñanetic, gure vicitza, ta gracia? S. Pabloc adirazten duen adiña. AH! Jesus maitea (dio S. Pabloc); eta zuri guc zor dizugun, ondasuna! Ceren zuc artu dezun gure oneraco cere GUIZA-TASUNA, zure Aitac bidaldu ditu guiz-artera bere graciaren, ta gure animaco ondasun moduac, eta bedeicacio guciac. (8)

Orra certara den gure Jaun andia, guizon eguin cenetic! Len etzuen nai urbil cequion, bere ordez, igortzen zuen AINGUERUARI ere, ez pa cen MOYSES, edo onen eraco guizonen bat, edo beste: ta bera guizon eguin denetic, ATOZTE, dio, nai dezuten guciac; atozte hitzez hitz, eta artecoric bague, gogo dezutena, niri noiz-nai, ta uste osoarequin adiratzera. ATOZTE necatuac, atozte, beharra, ta icerdia baicic, etzarazten, gaisoac, nic arinduco dizuet ceren beharra, ta premia. ATOZTE, bai, nic emain dizuet, behar dezuten, jan edana, ta ceren animaco sustentua.

Len ecin sar citequen SANCTA SANCTORUM ceritzan ELIZAco toquian, ez pa cen horduco AITA SANTUA, edo APEZ NAGUSIA; ta ori ere ecin eguin cezaquen, bein bai cic, urte gucian. Cer gatic, uste dezu? Ceren an cegoen, ARCA, edo CUCHA chiqui batean MANA zati bat. Cer

cen

cen ango MANA zati hau? Aldareco SACRAMENTUAren ITZALA, edo señalea. Onguita gure egunetan, ta Jangoico-guizona SACRAMENTUAN dagoenetic, cembat Meza emalle igaten ote dira Jangoico Sacramentatua-requin hitz eguitera? Egun oro, emen ESPAÑIAN eun milla, ta anitz gueiago. Norc conta, FRANCIAN, ITALIAN, ALEMANIAN, taMUNDU gucian Meza ematen dutenac? Oriec ere, Españiacoac, bezain ongui igaten dira, ALDAREAN gure Jauna-requin tratatzera; ta, diranac baño, milla, ta milloi bider gueiago ba lira ere, guciac eguin lezaquee bertze orrembeste. Ecusten dezu, gure Jaunac GUIZON eguitean, ta gueroz aguertzen digun, ONTASUNA? Bai? Bada ez da oraindic hau, aldi onetan dugun, ecusquizun gucia.

Noizbait atera behar ba-cen ISRAEL--darren ARCA, edo CUCHA chiqui hau, ecin beguira cequiqueon bere soñeco, ta estalqui guciac eman artean: ta ceren bein beguiratu cioten BATHSAMITAC, bertan illac guelditu ciran berroguei, ta amar milla, ta gueiago (1. Reg. 6. 19.). Baña, GUIZON eguin cenetic, noiz nai ecusten dugu guc Aldareco Sacramentuan gueren Jangoico maita-garria. GUIZON-eguin cenetic, eta SACRAMENTU Aldarecoan guelditu ezquero, egun osoac daramatzi aguerian; ta cembait aldiz calez cale dabil, ta sartzen da batzuetan erien Echeetan ere: ta aspaldian berac errana daduca, haren atseguin, ta contentua dela emen gurequin egotea, gurequin emen hitz-eguitea, ta emen gu gucioc bere ondasunez betetzea (9). Orre gatic dio S. AGUSTINEC, eguin dela gure Jauna GUIZON, beldur gutiago-requin, ta adisquideen eran maita dezagun guc, emen vici garaño. (10)

Ay hau ecustecoa! Lenriotzez, uveldez, ta castiguz bazterrac arrotzen cituen, gure Jangoicoa, onen emequi emen gure artean, bildots bat bai-liz bezala! Eceren beharric ez duen, ta gauza gucien Jauna, ta jabea den, gure Jangoico maita-garria emen gure artean, guizon eguinic, eta Aldareco Sacramentuan, ematen zaionaren, beguira bezala! Guri ongui--naiez, ta lurreco guciac ondasunez betetzea gatic, guizon-eguina, guizonen ta mundu guciaren Eguillea Aingueruz ingurutua dagoen

ta

ta atseguin, ta gustoa besteric ez den, gure Jangoicoa, guizartera jaitsia; ta, guizonen ona gatic, gau egun, ta beti guizonen beguira! Norc hau siñistu, Fedezco beguiz ez ecustera? Norc asmatu ere, ongui nai hau bezain izugarria? Eguin zuèn gure Jangoico ONTASUNEZ beteac baicic, ez secula gucian ere. Orra cer gauza den gure Jaunaren guizon eguitea! Orra cein andi ona! ta orra Jaunaren guizon-eguitetic datocen ondasunac, eta doaiac! Zori onecoac gu, galtzen ez pa-ditugu, escatu gabez, eman nai-ez dagoen, gure Jangoico-guizon maitagarriari!

1.

OCCULTA SAPIENTIÆ TUÆ manifestasti mihi. Ps. 50. 8.

NOri, nere Jangoico, jaquindez betericacoa; nori gogora cequiqueon, artu citequela, gu zucentzeco, zuc artu dezuna bezalaco lana, ta videa? Nori gogora cequiqueon, traza cenezaquela zuc cerorrec ere, ecin obequi, trazatu dezun, cere guizon eguitea? Jaquiunde utsezcoarena da traz eder hau; ta, orre gatic da, zurea bezalacoa. Becatutan eguiña, ta jaioa naz ni; nere guisacoac dira gañeraco guizonac, eta gendeac; eta, al ere, zu ecin gueiago-rañoco trazetan zabiltza, galduac izan ez gaitecen oriec gucioc, etorquizunac, eta ni! Esquerrac escatzen ditu (ez dut ucatzen) guri zuc onen ongui, ta onembat amore-requin beguiratzeac; eta ematen dizquitzut, nic beintzat gaur bertatic, eta gogoz, ta ciñez al-ere: baña videnabar zure traza maitagarri onec adirazten digu norequin den gure lana, ta eguitecoa; bai ta, galduac izan nai ez dutenac, eguin behar dutena ere: bada adirazten digu, cein izugarria den, traz onetaco gauz andiac escatzen duen, Aitaren escua, zucen-tasuna, ta justicia!

Bai: gure becatuac guztiz aserretua ceducaten Aita Eternoa; ta, aserreac uzteco, trazatu zuen bere Seme maitearen GUIZON-eguitea, ta Seme beraren oguei, ta amairu urteco neque-icerdi gucia; bai ta beraren Gurutzeco eriotz gogor odolezcoa ere! Onembat costatu zaio Jangoico-guizon Jesus maita-garriari gure obenac, gure culpac, eta gure vide-bagueac bere Aitari barca-raztea? Onen, aserretua ceducaten? Onen andi izugarriac ciran gure becatuac?

Bai eguiaqui! Barcatuac ote daude, edo ez? Barcatuac

ez

ez-pa-daude, nora beharra naz ni? Eta nora beharrac dira nere lagunac? Seculaco sulecera! beti, ta beti lertzen, urratzen, ta negarrez an egotera! Ori da gure Jaun aferretuac, barcatu bagueco becatuari bereci dion, pagua. Zor onen alde dira gure Jesus maitearen lan-irabaciac. Ez ditu Aitac Eternoac gutiagoan barcatu nai izandu. Eta, orain dañoco zorretatic atereac egona gatic, sartzen ba gara gu berriz berrietan, eguiten baditugu becatu berriac, noren ustean, edo ceren beguira guelduco gara?

Ah! gure galduac, eta gueren galgarriac gu, berriz orreta-ratzera! Orren erraz urratzen ba-ditugu guc gure Jaunaren trazac, edo eguiten ba ditugu trazaren contraco lan char ciquiñac, cer beguiz guri beguira dezaguque gure Aita Eternoac? Norc hau adiraci! Ah! Jauna, asqui, ta sobera dira lenac ere! Ez naz arquitzen ni, ez, becatu berriz nere burua loitzeco asmoan! Lenaz dut damu, ta ciñez al ere. Indazu, arren, orien barcamentua; ta, berriric eguiten ez dudala, nere egunac bucatzeco, ta cere traz ederra gatic milla-ta milla esquer zuri cere Ceruan emateco gracia! Bai arren, bai.

2.

A DOMINO FACTUM EST ISTUD, & est mirabile in oculis nostris. Ps. 117. 23.

ANdiac dira, bai, ta contuz ecustecoac, len, ta guero gure Jangoicoac eguin dituen, gauzac; baña lenagoco, ta gueroco gure Jaunaren gauzac, aldi onetan eguin duenarequin, ecustecoric ez duten, gauzac dira; bada gañeraco gauzac izarrac dira, ta eguzquia, Ceruac dira, ta lurreco bazterrac, eta lurretic asi, ta Ceruaren erpiñeraño arquitzen diran, gauzac; eta oriec guciac, cein ere andi-ederrac diran, gure Jangoicoac ezer-ecetic atereac dira; baña guc orain eguiñic ecusten duguna, JAINCO-GUIZONA da; ta Jangoico gauza gucien eguillea; eta orre gatic da, Profetac dion bezala, andi gucien artean andia, ta ecusgarrien artean ecustecoa; edo, zucen hitz eguitera, hau da bacarric gauz ecusgarria, ta nor-nai arritzecoa den, gauza, ta gure Jaunaren eguiña.

Eguiten dezun, gauzaric chiquiena, gatic ere, zor zaitzu zuri, nere Jaun andia, norc daqui, cembat, eta anitz gueiago! Cembat zorco zaitzu bada, eguin dezun, ta eguin cenetzaquen, andien one gatic?

Norc

Norc hau adiraci? Norc ezagutu ere? Ez eta, diran AINGUERUAC, GUIZON jaquintsuac, eta aguer litezqueen, adimenturic andienac elcar arturic ere! Hau, behar den, eran ezagutzeco, behar da, gure Jaun andia, zurea diñaco adimentua, behar da adimentu bazterric ez duena; adimentu, diranac, eta eguin litezquen, gauzac batetan ezagutzen dituena; edo behar da adimentu, Jangoico bera bezain, andia.

Adimentu onequin arquitzen zaran, gure Jangoico maita-garria, urricalduric zu nere char onetaz, indazu, alduquedan, arguiric andiena, nol-ere-bait ezagutzeco zure lan andi hau; nol-ere-bait esquerrac emateco, zure lan andi onetan niri dagoquidana gatic; eta, zuc laguntzen didazula, amorez, ta maitatzez eranzuteco nol-ere bait, emen bertan aguertzen dezun, cere escu andiari, ta ongui-naiari. Nic ez dut, orain escatzen dudan, gauzaraco escuric bat ere. Escatzen dizut al-ere, escatzen dudan hau, erdisteco uste osoarequin, ta ontarte berri one gatic ere esquerrac emateco gogo beroz, ta asinoz beteric. Indazu bada, dezaquezunac bezala: bai arren, bai.

3.

SIC DEUS DILEXIT MUNDUM, ut Filium suum Unigenitum daret. Ioan. 3. 16.

SIñestuco cenuen, naico cigula guri gure Jangoicoac, nai izandu digun adina? Badaquizu zuc norañocoa den gure Jaunaren gu ganaco nai andi hau? Oartu zara zu noiz edo noiz? Behar bezala beintzat bein ere: ta noizbait, beguiac goraturic, asi ba zara zu, gauz hau ecusten, laster aspertu zara; ta, ez aspertua gatic ere, ecin ecus centzaquen zuc dena, den bezala, ez eta erdizca, ta laurdenca ere. Nai dezu zuc, nere Anima, aguer daquizun, zuri, orain ba-dere, S. JOAN Evangelistaz aguertzen duen, eran? Orra, bada, dio, orra Jangoicoari MUNDUAC zor dion, amorea: Aita Eternoac eman die MUNDUCO guciei, (ta ongui naiez eman die) bera diñaco, berequin beti daducan, ta bere burua bezain, maite duen, bere SEMEA.

AH! Evangelista Santua, ta norc adiraci lezaquen, zuc onen errate labur onequin aguertzen diguzun, gure Jaunaren amore hau! Maitatzea batec bat, oni ongui-naia, oni,

oni ongui eguitea da; ta cembat ere bati, zuc gueiago nai diozun, ta ematen diozcatzun ondasun gueiago, ambat gueiago onesten, ta maite dezu zuc zure gauzen artzallea. Bada ecin andiagoa ba-da, den bezala, gure Jangoicoac gaur ematen digun, ondasuna (ematen digu alabaña, GUIZON eguiñic, gauza gucien Jaun, ta jabe den, ta asieraric, bucatzeric, eta bazterric ez duen, bere SEME Jangoicoa), norañocoa da aldi onetan aguertzen digun, ongui-naia, ta amorea?

Beguira: gure Jaunaren emate onetan ba-da, ematea ez besteric ere, bada ematen digu bere SEME Jaun hau gure SENIDEtaco, ta SENIDE onac bezala, guri laguntzeco: ematen digu, bere lanez, eguiñez, ta hitzez guri eracusteco, jaquin behar duguna; ematen digu, berac irabaz diezagun bere nequez, odolez, tormentuz, ta eriotz gogor batequin gueren becatuen barcamentua, ta, Ceruraco behar dugun, gucia; ta ematen digu emen gurequin Sacramentaturic, iduquitzeco, munduan vici garaño, ta eternidade gucian, berari Ceruan, beguira gaudela, atseguin-contentuz beteac vicitzeco. Eguin cezaquen hau gure Jaun andiac, ondoric bagueco, ta bazterric ez duen, amorea-requin, ez arquitzera? Orra bada norañocoa den, aldi onetan eguin diguna gatic guc gueren Jangoicoari zor diogun, onestea, ta amorea!

Atozea: ta ongui liru dique, JANGOICO-GUIZON Jesus maitearen SENIDEAC, onembat ondasun beren Jauna gandic artu dituzten humeac; Jangoicoac, bera diñaco, amorea-requin maitatu dituen, guizonac, eta AINGUERUen lagun eguiñic, Ceruan beti berequin iduqui nadituenac, beren Jauna, ta Jaunaren ondasun-amoreac aldebat utziric, lurreco gauzei beguira guelditzea? becatuarer ciquin-queri-etan loitzea? sulceco vide-galduac artzea? ta beren naiez, ta berariaz beren buruac betico galtzea? Eta ez da ori ambatec, eta ambatec munduan eguiten dutena? Eguin gogo dezu zuc ere? Ez al!

Ez, nere Jangoico maita-garria, ez! Nic eguin gogo dudana da, gogoric ez uztea, zuri zor dizudan, amorea: gogoan erabiltzea zure ni gaticaco GUIZON eguitea, ta cere GUIZON-eguite onetan eguin dizquidatzun, ta emen-

dic datozquidan, on-ondasunac; oriei, to orietan eracusten didazun, zure amoreari amorez, ta vicitz on garbi batequin al-equinean erantzuteco, vici nazaño. Zurea da, bai, oraingo nere gogoeta, ta asmo hau ere. Iraun ba-leza onec, nere vicitzac adina! Ala guertatuco da, zuc viciro laguntzen badidazu. Lagundu behar didazu, onetan ez ecic, orain-dañoco nere esquer gabeen, ta becatu gaistoen damu, ta urriqui ciñezco batean ere. Escatzen dizut hitzez, ta bihotzez, onetaraco, behar dudan, zure gracia, erraten dizudala: NERE JESU CHRISTO, *&c.*

(1) *De Incar. c.* 7. (2) 1. *cor.* 2. 7. (3) *lib. de præd. Ss. c.* 15. (4) *opus.* 60. *vide testimonia apud Ex. D. disp.* 3. *&* 4. *in* 3. *p. t.* 1. (5) *Apud Gloss. ord.*

(6) *Apud Ex. D. disp.* 3. *sec.* 3. (7) Ioan. 8. *Ego veni, ut vitam habeant, & abundantius habeant.*

(8) *Ad Ephes.* 1. 3. *Benedixit nos Deus omni benedictione spirituali in Cœlestibus in Christo.* (9) Prov. 8. 31. *Delitiæ meæ esse cum filiis hominum.*

(10) In Manua. *c.* 26. *Ut familiarius diligeretur ab homine Deus, in similitudinem hominis Deus apparuit.*



AMA-

AMAZAPI-GARREN OTOITZ-GAIA

JESUSEN JAIT-HORDUA, TA HORDUCO MUNduaren ibillera.

NOLA ere bait aguertu dugu, cein andia den gure Jaunari guc zor diogun, amorea, ceren eguin cen guizon, Cerura gu gucioc zucendu naiez. Gueiseago guc, edo obequi gueren zor hau ecusteco, ecusi behar dugu, Jaun berac Mundura cenetic bere predicurañoco demboran gu gatic eguin zuena.

§. I.

CER HORDUZ, EDO NOIZ MUNdura cen JESUS maita-garria?

ONTARTE bat noiz-nai daontarte; baña ontarte bera ontart andiagoa da, bere hor duz, edo bere demboran etortzen denean. Gure Jangoicoa GUIZON eguitea, ta, guizon-eguinic, munduratzea, noiz nai izain cen guretaco ontarte, favore, ta ondasun andia, baña, era orretan mundura cen demboran munduratzea, munduari obequi cegocan ontartea cen, ta ontart andiagoa. Nola bada? Ceren era orretan gure Jauna cetorren, icasi behar zutena munduco gaisoei eracustera; ta orretaraco, Jaunac arturicaco sasoia cen, artu cezaquen, sasoiric onena. Noiz bada, edo cer sasoiez mundura cen gure Jainco guizon JESUS maitagarria? AUGUSTO CESAR cerizan, Erromaco Emperadorearen azquen aldeco egunetan. Nola arquitzen ciran hordu, edo dembor artan mundua, ta munduco gendeac? ISAIAS Profetac dion eran, edo BAQUE andian, ta ondasunez beteac.

BAI, dio, edo diona-

requin adirazten digu, Isaias Profetac, JESUSen Jait-egunac gogoan darabiltziela; BAI; guelditu da, len nasia cebillen, munduu bere odol iuntze gogor, ta guerra guisto-etatic. Bere guer-aldiac emun diozcaten, ondasun andi-equin pozez bete da munduco Nagusia: ta, escutartean dacarren, eguitecoan agueri zaio, bai, bere bihotzean arquitzen zaion atseguin, contentua. (1)

JESUS jaio ceneco, baciran berroguei urte, ta gueiago ERROMAco Emperadore cela, horduco Nagusi, AUGUSTO CESAR. Bitarte orretan, edo urte orietan izandu cituen AUGUSTO Emperadoreac bere guer aldi andi-gogorrac. Baña horduraco bucatu cituen guciac; eta bucatu cituen bere gogara; ta, horduraño co bere etsaiac garaituric, baquetan arquitzen cen Cesar, JESUS Jangoico-guizona lurrera ceneco; ta arquitzen cen Cesar, munduaren irur zatietan arquitzen ciran, Erreinu, ta bazter aberatsenen Jaun, ta jabe bacarra.

Eta guer-aldi berriric viztu etzedin, edo, vizten ba-cen ere, lembaitlen itzal-erazteco, artu cituen AUGUSTO berac vide, ta neurri guztiz onac; eta jaquinaren gañean egoteco, nor nondic atera, ta cer ondasun izan cezaquen bere behar demboran, manatu zuen, ecus cedilla, cembat ciran, nor ciran, ta nolacoac, haren escupean arquitzen ciran, guizonac, eta andreac. Lan onetaraco billatu cituen guizonic onenac, eta igorri zuen nor bere toquira, edo batzuec batera, ta besteac bertzera. Eguin zuten oriec, bai, (eta zucen al-ere), beren eguitecoa; ta icasi zuen AUGUSTOC, jaquin nai zuena. Arte gucian isillic cegoen lurra, ta mundua; ta, ISAIASec dion bezala, Munduaren bazterric onena, edo PROMISIOco aldea, ta JESUSen jait-erria, ta Erreinua atsedeten bezala cegoen, ederqui eseriric, edo jarriric bezala, bere baquearen Catadera galantean, gañetic artuac ceduzcala, ta ongui ezarriac, etzezan erre quezcazco eguzquiac, uste osozco, edo esperantzazco, ta soleguzco oial ederrac; eta bere aldamenean cituela, berac lenago bilduricaco, ondasun andiac. (2)

Orra nola arquitzen cen MUNDUA, ta orra certan cebillen Munduco Nagusia, JAINCO GUIZONA Mundura etorri cenean; baquetan, isillic, eta behar bezala. Ez da misterio, dio S. BASILIOc: AGUILA deri-

deritzan, egaztien Erreguña egoan dabillenean, ifillic daude, dio, EGAZTIAC; eta, manducoen Erregue JESUS Jangoico guizona Ceruturic cetorrenean, ifillic egon behar zuten lurreco ERREGUEAC, eta gueldiric onen armac. (in Ascen. Dni). Beitela etzen erraz JESUSec eguitea, eguin behar zuena, edo bere eracustea; ez eta manduco bèrac icastea ere JESUS ona gandic, icasi behar zutena.

LEGUE zarreco gauzac eracustera, bere ordez badaldu zuen len gure Jangoicoac AINGUERU bat: baña bidaldu zuen, Legueac escatzen zuen eran, edo era guztiz izugarrian; bada bidaldu zuen trompet izugarri, bazter guciac icara ceduzcan, batequin; ta bidaldu zuen, suz, quez, trumoiez, ta chimistaz betèricaco, odei arrigarri batean. Guelditu cen odei hau, SINAI ceritzan, mendi gañean; ta, azpico aldean ISRAELdar guciac beldurrez iltzear cirala, eracutsi cien AINGUERUAC Jaunaren LEGUEA, ta Legueco GAUZA bacoitza. Baña eracuste hau, diodan bezala, Leguearen eraco eracustea cen; bada ISRAEL-darren LEGUEA, Legue beldurrezcoa cen; ta Leguearen eracustea guztiz icara-garria.

Gaur ez du gure Jangoicoac igortzen mundura AINGUERU bera, edo besteren bat, LEGUE berria munducoei igortzera, edo eracustera: Jangoico bera dator orretara; baña dator, GUIZON eguinic; eta dator, eracustera, LEGUE berac escatzen duen, eran, edo emequi, ta escambillaric bague: amoriozcoa da alabaña, JESUSec dacarren, LEGUEA; ta ori da, onelaco Legueari dagocan, eracustea.

Atozea: ta eguin cezaquen JESUS maita-garriac bere baquèzco etortze, ta amoriozco eracuste hau, eguin zuenean baño, dembora, ta sasoi obean? Etzen erraz; bada baque onean arquitzen ciran horduan LURRA, ta LURRECOAC; eta orrelacoa da, cer nai eracusteco, ta, jaquin behar diran, gauzac icasteco, sasoiric onena; bada guerra-tacoan, ta aser aldietan iguesia, ta vendecua dabiltza guizonen gogoan; ta, oriec gogoan dituztenac, ez daude, eracutsi nai zaiena, icasteco. Guciac icas cezaten bada JESUSen amoriozco LEGUEA, billatzen du, ori eracusteco, behar cen, sasoia, edo baquezco dembora; ta dator, cetorquen, sasoiric onean; ta hau da, dacusazun bezala, aldi,

di, ta sasoiric onenean guri gure JESUSec eguitea, eguin cezaquegun, ontarteric andiena; ta eguitea, eguin cezaquegun, eraric onenean, ta estima-garrienean. Orra cer horduz mundura cen gure JESUS; Eta orra, mundu-ratzearen gain, horduan munduratzeiz, guc JESUSi zor diogun, amorea!

Ah JESUS maitea! onembat amore-requin ati zaiu ezquero zure gu ganaco ongui nai andi hau aguertzen, cer aguertzeac eguin behar ez ote dituzu zuc gure animan, nor ba-gara gu, ta guc artzen bazaitugu, alic onguiena, alic humilquiena; ta dembora berean amorez, errespetuz, ta naiez beteac arquitzen garala? Era onetan artzera nic zu, comuniatu nazan aldi-etan gaurco egunerañoco nere dembora gucian, cembat ondasun artuco nituen nic zure escu zabal-emalle on-etatic? Anitz dira, bai, orain-dañocoan nic galdu ditudanac; eta galdu izandu ditut, behar bezala, ta baquetan zu nic ez artuz, comuniatu nazan aldi-etan? Asaldatuac, eta aztura gaistoz beteac arquitzen ciran, comuniatzen nintzan aldi etan nere bihotza, ta barren galduac; edo guerra vician cebiltzan nere naicunde charrac, eta passione sutuac, zu, nere bihotz-eratzen ciñan gueienetan, edo casi beti: ta orre gatic artzen etzindudan nic, ni ganatzen ciñanetan, Erregue baquezcoari cegocan, eran; ta laster, ta gogoz igortzen cindudan nic ni gandic zu, ta igortzen, edo vidaltzen cindudan esquer guti-requin, ta certara tentocen ere ezagutu gabe!

Zure oneguia, nere JESUS maitea, ta nere char galdua! Onela vici behar ote dut nic, datocen, egun-etan, datocen, haste etan, ta demboretan ere? Onen artze charrac ecusi behar ote dituzu, JESUS maita-garria, urrengo cere etoraldietan? Ez baldin bere! Bucatuco al dira noiz, edo noiz, eta luzatu gabe, orain-dañocoan nere barren tristeac ecarri dituen, guerrac! garaituco al-ditut nic emendic aitziña nere aztura gaistoac! Escuraco al-ditut nic, errebes dabiltzan, nere passioneac! baquetan, ta baquez artuco al-zaitut nic, nere JESUS maita garria, gaurgueroco nere Comunione-etan? Nai nuque beintzat, eta guztiz ala ere. Indazu cerorrec, onetaraco, behar dudan, zure laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

§.

§. II.

NOLA CEBILTZAN MUNDUCOAC, JESUS *mundura cenean?*

MUnducoac, ecusi dugun bezala, baquetán arquitzen ciran elcarren arteau, gure Jesus maita-garria guizon eguiñic mundura cenean. Baña Jangoicoa-requin? Guerra vician, ta aguitz, edo guztiz gaizqui! Iraun ba-lu lembicico guizonac, eta, harc bezala irautera, bera gandic datocen guciac, gure Jangoico maita-garriac lembicicoari emanicaco inocencian, ezagutuco cituzten gauzac, diran bezala, edo adimentu zucen-garbia-requin: zain zuten dembora berean gogo, ta naimentu behar bezalacoa; vicico ciran, naí gaberic bague, ta atseguin andia-requin, maitatzen cituztela, maitatzeco diran, gauzac? Etzuten galduco bein ere bere Jauna-requico adisquide-tasuna; ta, vicitz on baten buruan, igain ciran, len ecusi dugun bezala, seculaco atseguin-contentu-etara, edo Ceruco gloriara. Baña gaistatu cen lembicico guizona, berac nai zuela, ta bere gogara: galdu izandu cituen, deusez bate gatic, bere inocencia, ta Jaunaren gracia: aserretu cen, videric gabe, ta bere eraqueriz, bere Jaun onguille-maitagarria-requin; artu izandu zuen, gaitzera zucen daraman, vide zabala; ta haren vide berez cebiltzan haren ondorengo galduac!

Cembat ote ciran, becatuz becatu munduco guizónac horduraco eguin cituzten, legoac? Edo non atquitzen ote ciran Munducoac, JESUS jaio ceneco? Norc hau adiraci? Lenago, ta lenago ere, edo lembicico guizona Jangoicoac eguin, ta, bi milla urte baño, len ere guizònac eguinaz urriquituric cegoen Jangoico bera, Escriturac dionaz. Gure Jangoicoac ecusi zuenean, dio Escritura Santac, cembat, eta cembat gaistatu ciran munduco guizonac; eta ecusi zuenean, munduco guizonen asinoac, eta gogoetac gaitzèra beti-ta gueiago macurtuz cijoacela, damutu citzaion Jangoicoari guizónac eguiñaz; ta, ecusiric Jangoico berac etorquizuna, edo, orren fite, ta laster gaistatu ciran guizonac, luzaro vici ba-ciran, eguinen cituzten, utsac, eta gaizquiac, damuz bete cequion bere bihotza, edo barren gucia, ta GALDUCO DITUT, cion, ta quenduco diet beren vicia, nic neronec eguin nituen, guizonei,

nei, ta oriequin batean lauroinca, ta arraſtan lurrean dabiltzanei; bai, ta, egoan dabiltzan, egaztiei ere; damatu zait alabaña oriec eguinaz (3). Baña eguin zuen gure Jangoicoac, hau gucia? Bai eguiaqui! bada ontzi batean ſar-eraci cituen zortzi lagun, ta cembait animalia; ta, oriec ez, beſte guciac itoac utzi cituen, egui, aldapa, mendi, ta mundu guciarequin batean, odei-itſaſo-etatic igortzen zuela, orretaraco, behar cen, ura, edo uveldea.

Munduaren gaiſtatua, edo guizonen gaiſtoac! Andiac izan behar zuten, ta anitz, eta aſco zuen gaizquiac, eta oben lizunac, orren caſtigu gogor bat eraguin ciotenean, zuen eguille on, gure Jangoico maita-garri, berach taſunez betea cegoenari! Centzatu alciran, zuen ondoren etorri ciranac? Zuei bezalacoric guerta etzequien, ez al-ciran ſartu zuen lanetan? Ez al-zuten eguin becaturic bat ere?

AY ene! becaturic ez eguin, uvelde ondoan aguertu ciran, gendeac? Ez, lenecoac baño, gueiago baicic! Lembicico munduaren bi milla urte-etan baño, urrengo bi-mill etan, ta JESUS jaio cen artean gaizquiago vicitu ciran guizonac, eta, lenecoac baño, becatu gueiago, ta gueiago eguiten cituztela.

JESUS jaio ceneco, ecin conta al adiña ciran, munduan arquitzen ciran, guizon, Andre, ta zar-gazteac; eta, ISRAEL-darrac, eta beſte cembait atera, ta gañeracoac, INFERNUCOAren eſcupean vici ciranac, ciran; bada, Profeta DAVIDec dionaz (4), ISRAEL-darrac ciran, nor cen Jangoicoa, cequiten gendeac. GENTILen Jangoicoac ciran arrizco, ta zurezco Idoloac, eta GAISTOAren ichurac, edo figura itſuſiac. Guciac eguiten zuten, orien etſaiac nai zuena; ta, onec nai zuena cen gaiſta-queria, lizun taſuna, ta batec ere bere Jaunaren erran bat ez-eguitea!

Guciac atera, ciran Ceruco videtic, DAVIDE berac beſte batean erraten zuenaz (5). Guciac galdu ciran horduraco gure Jangoicoarentzat, eta Ceruraco; etzen gucien artean, gauz on bat, behar bezala, eguiten zuenic, ez eta bat bacarric ere! Orre gatic, dio ISAIAS Profetac, zabaldu zuen, bai, (ta ongui al-ere) ſu-leceac bere eztarri-tzar izugarria. Idiqui cituen, ecin gueiagora-

ño-

ñocoan, bere ortz urratzalleac; ſar citecen, tricatu gabe, eunca, ta millaca, ara cidoacen animac. (6)

Orra nola, ta cer eran arquitzen cen Munduа; ta orra nola vici ciran Munduco gendeac JESUS Jangoico-guizona Mundura cenean! Aguertu izandu ez-pa-liz gure JESUS maita-garria, aguertu cen, demboran, ta zucendu ez pa-litu, onen galduac cebiltzan, Munduco guizac, non gueunden gu gaur, ta noraco ciran etorquizunac? Aguerian dago, ta, norc-nai dacuian, gauza da ori gucia. JESUS ez aguertzera, aguertu cen demboran, edo orain artean, becatuzco naſpill utſ bat eguñic arquitzen cen gaur mundua. Urrengo egunac, urrengo urteac, eta demborac, oraingoac bezain, galduac izain ciran, edo aguitz galduagoac, eta galduagoac, Jeſus etorri ez-pa-liz, gure gauzac zucentzera; ta azquen horduan, oraingoac, eta gueroagoco gendeac, cembait ez beſteac, guelditu beharrac izain ciran illambe utſean, limbo arrigarrian, edo ſeculaco ſulecean.

Zori triſtezcoac gu, orretara ezquero! Beti betico galduac gu, ez etortzera, etorri den, eran gure JANGOICO GUIZON, Jeſus maita-garria! Cer zorrac gureac, hordu artatic gure gain ditugunac! Baña hordu oneco zorrac! Zor diogu JESUSi, bai, norc daqui cembat, eta aguitz gueiago! Zor diogu gueren vicitza; ta zor diogu, gueren baitan orain arquitzen dugun, onduna bero bat, eta ón-eraco arintaſuna ere. Baña zor hau ez izatera guc, jaberturic cegoen, dagoen horduraco, guraz, ta gure gauza guciez, gure galgarri gaiſto, ſulececo gure Etſaia! Eſquerrez, ongui viciz, ta al-eguña eguñaz atera ditzaquegu guc orain-dañoco gueren zorrac. Gueren zorrac ateratze hau gure oneraco izain da; ta izain da videnabar gure irabaz-videric onen onena. Baldin irabaz vide onèz gu ba-gabiltza, urrun aienatuco dugu guc gure etſaia; irabacico ditugu guc gure Jaunaren graciac gracien gain, ta maquiña bat gloria zari. Zori onecoac, zor-ateratze, ta pagu, onen aberatſ etan dabiltzanac! Eta zori onecoac gu ere, baldin gu izaten ba-gara orietatic gaur, ta beti, ta vici garaño! JESUSec digula, orretaraco behar dugun, bere laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

I

IN IMPIETATE SUA CORRUET impius. Prov. 11. 5.

SOldaduac gara, bai, munduan garanoc, Profetac dionaz; baña ez gara gu gucioc Erregue baten soldaduac. Gutatic batzuec Erregue andi on, Jungoico maita garnaren soldaduac dira; baña besteac Jangoicoaren contra dabiltzanac; eta orre gatic dira, gaitzez gaitz, eta becatuz becatu dabiltzan, soldadu galduac. Luza dezaque cerbait soldadu galdu orien buca-erac, baña, bere demboran aguertzen denean, aguertuco da guztiz izugarria; bada gaistoen buca-era, edo eriotza, becatuzco eriotza da, ta nequezco eriotza, edo, betico su lecera escutic daraman, eriotza. Ah eriotz gaisto-madaricatua, ta eriotzaren galgarria! Zori tristecoac, zure atzaparretan vicia galtzen duten, soldadu gaistoac! Orietatic izan behar ote dut nic ere? Ez nere Jaunaren soldadescan zucen ibiltzen ba-naz orain, ta nere azquen hordu-rañoco demboran.

Nere Jaunaren soldaduac dira, aztura gaistoac urràtzen dituztenac, beren aragui asaldatua, mundu ero arroa, ta sulececoa garaitzen dituztenac; eta, oriec garaitu ondoan, gure Jaunari beren bihotz garbietan eser-toqui, ta atsedenlecu on bat eguiten diotenac. Zori eneco soldaduac, bertatic orrelaco toqui on bat beren Jaunari prestatzen diotenac! Orrelacoen bihotzetan pocic sartuco da gure JESUS, ta utzico ditu JESUsec graciaz, ta Ceruco ondasunez beteac. Ay nere Jesus! ta nor orain legoquen, bere etsai oriec garaituric, baque leun-on batean, ta zure beguira! Horduco zure etor-era! Horduco zure sartzea! Horduco gure atseguiñac, gure ondasunac, eta zure maitatzeac! Ez ote ditut bada nic noiz, edo noiz oriec ecusi behar? Nor ba-naz, bai; ta laster al-ere. Indazu cerorrec, nere JESUS maita-garria, nere etsaiac garaitzeco, ta orrembat gauz-onetara nere barren hau bertatic prestatzeco, behar dudan, zure laguntza, ta gracia. Onequin batean saiatuco naz ni, niri dagoquidana lembaitlen, ta zucen eguitera; eguiteco guero zurequin batean, hordutic beti zuc, eguin dezadan nic, nai dezuna. Ala guerta dedilla, nere JESUS maitea; bai arren, bai.

1.

2

ABIT VAGUS IN VIA CORDIS sui. Isai. 57. 17.

CEmbat ere eguin dudan nic, munduco guizonac zucentzeco (dio Jangoico gureac ISAIAS Profetaz), ez ditut ecusten, ecusi nai nitueneac, ez eta laurdenac ere. Artu zazue, guizonac, artu zazue vide zucen bat, gal etzaitezten secula guciraco (erraten cien guero Jangoico berac munduco guciei ; ta erraten cien bein, berriz, ta anitz-ascotan ere) ; ez dezue cer eguin gaur-guero ibiller vide-gabecoric. Quen vitez zuen videco beaztopac, edo eror-toquiac ; eta zabilzte, ibilli behar den bezala, zucen, ta guelditu gabe. Hau da Jangoicoac len lengoei erraten ciena; ta hau berau da oraingoei ere orain seculaco gure Jangoicoac erraten diena. Hau erraten digu Ceruaren Jaun jabeac; hau ara beti betiraco eraman nai guin-duzquen, gure eguille-onecin-emalleagoac. Cer erantzuten diogu guc, ori adizten dugunean ? Ah, nosqui, lengoac erantzuten ciotena ! Baña cer erantzun izandu cioten ori aditzen zuten, leneco gendeac? Deus-ez hitzez, ta mihiz ; baña lanez, ta ibilleraz erantzun cioten, eguin nai etzutela, aditzen zutenic ; bada, galduen eran cebiltzan, gogo gaitzac nai zuen, videz vide, vide zucenic artzen etzutela, ta eguin oro gaizqui baño, gaizquago.

Orra nola cebiltzan len lurreco gueienac, edo cali guciac, guizon eguinic lurrera Jesus etorri cenean ! Nola ote dabiltza egun egungo, edo gure demboraco gendeac ? Lengoen guisan nosqui, gueienac beintzat, eta gueren Jaunaren Leguetic ere aguitz aguitz urruti. Eta, gure Legue oncan vici diranac berac vici ote dira behar bezala, zucen, ta gure Jaunac nai duen, eran ? Ah gure Jangoico maita-garria ! Oriec bad-ere ba-leguite, eguin behar dutenu ! Eguiten ote dugu zuec, eta nic, edo guc, gure Jesusen haureac ? Zucen ote gabiltza gu gucioc ? Etzi ote guenituen guc gueren vide macurrac, zucenac artzeco? Beteric ote daude alimo garbiz, ta Ceruco gogoz gure burubihotzac ? Ez ote dute oraindic cerbaitcho nasten gure adimentua araguiaren queac, eta liluracio nastuac ? Oriei darraizten, naicunde galduac, edo gura chárrac ez ote dituzte gueiegui macurtzen gure bihotzac?

Bai eguiaqui, gure Jangoico maita-garria ! Iguzu ar-

ren, macur-era onetatic datocen, becatuen queac, eta lañoac aienatzeco, behar dugun, zure graciaren argia, ta laguntza. Iguzu arren, orain-dañoco gueren aztura gaistoac garaitzeco, macurtasunac zucentzeco, vide orean oñac sartzeco, ta, vide onetatic atera gabe, zucen ibiltzeco, behar dugun, indarra, ta laguntza gucia. Hau guc erdisten badugu, uste dugun bezala, saiatuco gara, virtutez virtute zucen ibiltzera; ta ibillico gara, Ceruco videtic gueren oñac atera gabe, ecustera zu cere Ceruan, ta an zu maitatcera igan, arteco, dembora gucian. Iguzu bada argui hau, ta laguntza: bai arren, gure Jangoico maita-garria, bai.

3

CONVERTIMINI A VIIS VESTRIS pessimis, & quare moriemini, domus Israel. Ezech. 33. 11.

HAu cer da, nere gendeac? cion bein gure Jangoicoac EZECHIEL bere Profetaz. Hau cer da, edo noiz artean egon behar dezue ceren becatuaren loan, ta loiean? Noiz artean vici behar dezue ceren gogara, ta nere gogora beguiratu gabe! Zuei beguira ni orain, ta eternidadean; ta zuec niri beguiratu ere gabe goizetic arratseraño! Certaco zaituet nic zuec; eta zuec cer daguiquezue, ni bague, ta nic zuei laguntzen ez-dizutedala? Beude bada, beude alde bat, oraindañoco zuen eraqueriac; eta, ceren eraqueriac utziric, atozte ni gana orain badere; edo atozte nere graciaren escu on-etara. Hau daguiquezuela zuec, eta orain, ta beti vici zaitezqueela nérequin ongui, ta ceren artean aita, certaco vicico zarazte gaizqui? Certaco guelditu nai dezue quezcaz, ta nai-gabez beteac?

Hau da len Jangoicoac ISRAEL-darrei erraten ciena: ta hau berau da, gaur gurequin dacarren, hitzqueta. Baña cer hitzqueta da, guc darausa-guna? Ceru coa? Jangoicaoren hitz-queta on oni dagocana? ta behar bezalacoa? Cer ote da, gure barrenac orain erraten duena? Cer, orain gure bihotzac gogoan darabillena, edo eguin uste duenà? Jangoicoa gana nai duela, ote dio, ta mandamentuen vide zucena artzera doala? Ori ba-dio; ta, baldin ba-dio ciñez, eguin gogo du, leneco, ta oraingo guciei gure Jangoicoac eraguin nai izandu diena. Ori ba-dio, len lurrera, bezain gog-osoz etorrico da

orain

orain gure Jangoicoa, comuniatzen garan-etan, gure barrumbera, guri laguntzera, ta gu bere doaiez, ta ondasunez beteric uztera.

Ah, ero char galduac gu, Jangoicoac nai zuen, asmoon hau artu gabez, galdu ditugunac onelaco aldiac, eta ondasunac! Galduco dugu berriz bat ere? Ez guenuque nai beintzat, gure Jangoico maitagarria! Artu naiez gaude, beste anitz zure ondasun-equin batean, orain-dañocoan galdu ditugunac ere. Atoz orretaraco, gure Jangoico maita-garria: atoz maiz gu gana, ta gure bihotzera. Damuturic gaude orain-dañoco gure ibillera galduez: urriquiz beteac daude, ta lertu naiez gure bihotzac. Onac izateco, ta zucen ibiltzeco asmoa-ta-asmoa da, orain gu gan dugun, asmoa: ta asmonetan vici, ta ill nai dugulaco siñuan, erratera goaz gucioc: *NERE JESU CHRISTO JAUNA, &c.*

(1) Isai. 14. 7. *Conquievit, & siluit omnis terra; gavisa est, & exultavit.* (2) Idem c. 32. 18. *Et sedebit populus meus in pulchritudine pacis, & in tabernaculis fiduciæ, & in requie opulenta.* (3) Genes. 6. 5. (4) Ps. 75. 1. *Notus in Iudæa Deus.* (5) Ps. 13. 3. *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt; non est qui faciat bonum; non est usque ad unum.* (6) Isai. 5. 14. *Propterea dilatavit Infernus animam suam, & aperuit os suum absque ullo termino.*

EMEZORTZI-GARREN OTOITZ-GAIA

JESUSEC BERE JAIT-DEMBORAN LEMBICICOric eracusten diguna.

ECusi dugu, cein gaizqui vici, ciran Munduco gendeac, gure Jangoicoa, GUIZON-eguinic, mundura cenean.

an. Cer gatic, uste dezu, cela orren gaistoa, munducoen horduco vici-era? Ceren Nagusitaco artuac ceduzcaten irur Etsai, guztiz galgarriac, eta eguiten zuten, oriec nai zutena. Cein ote ciran, munducoen irur Etsai oriec? Oriec ciran, San JOAN Evangelariac adirazten dizquigunac; edo ciran araguiaren NAICUNDE macurrac, beguen, edo gogoaren ARIN-QUERIAC, eta bihotzaren ANTUSTE galduac, edo arrotasuna. 1. *Ioan.* 2. 16.

Eta cer ote da, JESUSec bere jait-demboran munduco gaisoei eracusten diena? Beren irur Nagusi, edo Etsai galgarri oriec garaitzeco videa. Nola ote? Hitzez, ta manuz? Ez: hitzic atera gabe; ta berac eguin zuena-requin. Cer eguin zuen orretaraco gure JESUS maita-garriac? Crain guc ecusi behar duguna.

§. I.

ARAGUIAREN NAICUNDE GAISTOAC garaitzen guri eracusteco, jaio baño, lenago JESUSec eguin zuena.

ARagui gaistoa, bere naicunde macur-equin, da, S. Joan Evangelariac aguertu digun bezala, munduac dituen, irur etsai indartsu-etatic bata: CONCUPISCENTIA CARNIS. Nola garaitzen den etsai galgarri hau, laster asqui, ta site eracutsi izandu cien munduco guciei JESUS maita-garriac; bada eracutsi cien, bere jait-hordua etorri baño, lenagotic ere. Nola, uste dezu? Bere buruari, edo araguiari eraguiten ciola, araguiac eguin nai oi ez duena. Cer izan oi da, gure araguiac, edo Mundura datorren, edoceinec, berez nai duena? Emen bat-ere nequeric bague, gustoz beteric, eta asa vicitzea. Ala vicitu ote cen gure JESUS mundura ceneric, edo eguin ote ciozcan gure JESUSec arseguin guciac bere buruari? Ez eta bat ere. Guciac ucatu ciozcan jaio ceneco; bai ta lenagotic ere. Siñisten ez-pa-nazu, ez dezu, horduan JESUSec gu gatic eguin, ta eraman zuena ecustea besteric.

Gure JESUS maitea jaiotzeco cegoen, egun-etan aditu zuten onen AMAc, eta S. JOSEPHec, AUGUSTO Erromaco Emperadorearen aguintze, ta manu bat. Manuac cion, Emperadorearen pean arquitzen ciran, guciac billa cezatela, nongoac ciran, ta noren humeac; eta aguer citzatela beren izenac.

Beharrean arquitzen ciranac ciran, edo beren escuz vici ciranac S. JOSEPH, eta JESUSen AMA maita-garria; baña DAVID Erregue andi, ta Santuaren echetic cetocenac ciran bata, ta bestea. Eche hau BELENen arquitzen cen, ta berac vici ciran, berri hau aditu zutenean, andic urruti, NAZARETH ceritzan Errichoan. Ba-cequien AMA VIRCINAC, berri hau argana cenean, etzegoela agaitz urruti, beraren herdi-hordua. Ba-cequien, edo izan cezaquen bere gogamberra, bazter guci-etatic an bilduco ciranac, beteco zutela BELEN, ta artuco cituztela ango hostatuac, eta echeac. Ba-cequien, nequez arquituco zuela, hura bezalaco errumes, pobre, edo behartsu batec non oñac sartu; ta arere nequezago, haren eran, edo adiuntzan arquitzen cen, emacumeac. Ba-cequien, berequin cecarren bere SEMEA, AITA Eternoaren SEMEA cela, ta AITA bera diñaco JANGOICOA. Ba-cequien lurreco Erregueen Semeei, bezain ongui cegoquiola, jaiotzeco cegoen, JANGOICO-GUIZON oni bere echean, ta guelan jaiotzea.

Baña hau gucia bezala, ba-cequien, cer eguin gogo zuen aldi artan gure JESUS maita-garriac; eta, aditu zuenean Emperadorearen manu hau, atera cen bereala bere ichetic, bere lan guciac, eta eguiteco andi-chiquiac an utziric. Artzen ditu bada, JESUSen jait-horduraco prestatuac ceduzcan, bere oialcho garbiac; ateratzen da bere senar on S. JOSEPH-requin batean bere ichetic; eta, non guelditu behar duen, ez daquela, ba-doa, Emperadore Erromacoac aguintzen dion, ta Jangoicoac nai duen, toquira.

Nora zoaz, JESUSen AMA maitagarria? Nora zoaz? neguaren erdian, ta herditzeco puntuan ateraco ciñan zu cere bazter-chotic? Beguira zagozu, cere buruari ez padere, cerequin daramazun, cere JESUS iaio beharrari! Orain ar-eraci nai diozu orrembat neque, ta lan? Asqui dira, bai, jaio ondoan, orren beguira daudenac, ori ongui necatzeco!

Baña, ecin gueldi ditequela, dio JESUSen AMAc: nequez beteric jaio nai duen, Semeac deitzen duela, dio, Romaco Emperadorearen hitzez; ta deitzen diola, bere jaiotzean, nequea, lana, ta beharra, besteric izain ez duen, lecura; ta Seme berac nai duela, dirala, dio, artzera doan, vi-

videa, ta vide luce gogorreco nequeac. Zoaz bada hordu onean, VIRGIN AMANDREA; ta cere Seme JESUS valia daquizula, bera gatic artzen dezun, cere videan, ta, bera-requin batean, eraman behar dituzun, aldarte char-etan, otzetan, ta gañeraco cere neque gogor guci-etan!

Artzen dute BELENgo videa, JESUSen AMAc, eta San JOSEPHec: ba-doaz beren videz, videan guelditu gabe: sartzen dira, billatcen zuten, beren Errian; ta guertatzen zaie, uste zutena: bada, nequezco beren videa bucatu ondoan, arquitzen ez dute BELEN gucian, gaba pasatzeco, ta gutiren bat attedeteco guelacho bat ba-dere ematen dienic: horduco beteac daduzquee campoco aberatiac, edo, uste diranentzat gordeac daude Errico iche guciac, eta eche-etaco guelac.

Ah BELEN-darrac (errain zuen berequico aldi onetan JESUSen Ama maita-garriac); ah BELEN-darrac; eta bacenequie zuec, nor den, orain emen nere barren onetan dacardan, aurchoa! Emen dator, aspaldian zuec uste dezuten, MESSIAS andia. Emen dator Israeldar gucien, ta Munduaren SALVATZALLEA. Emen dator guizon eguinic, eta jaiotzeco puntuan, TRINITATEco bigarren PERSON, Aita Eternoaren SEME JAINCO maitagarria! ta dator, zuec zucendu naiez, ta zuei ceren etsaiac garaitzen eracustera; ta orre gatic dator, edocein aurcho bezala, nequetan, ta bere burua, zuec gatic penatzen duela! Hau ez daquizue zuec: egunen batean ezagutuco dezue; ta, gueienoc bentzat, berandu nosqui, ta beste munduan.

Cer penac (asmatzen ba daquizu), horduco AMASEMEen bihotzetaco penac! AMAC etzien bere penei beguiratzen. SEMEAren penaz oroitzeac erdiratzen cion Ama maitariari bere bihotza: ta SEMEAC ere, bereac baño, aguitz, gueiago, ta gueiago sentitzen cituen bere AMAren penac; bacequien alabaña, berac ar eraciac cirala, AMAc ceramatzienac; eta maite zuen JESUSec bere AMA; ta maite zuen, Munduco Seme maitatzalle guciac beren Amac baño, anitz, eta asqui gueiago.

Ecusten dezu orain, jaio baño, lenagotic ere gure JESUSec bere buruari eguin izandu ciona? Ecusten dituzu, jaiotzeco cegoenean, JESUSec era-

eraman cituen, nequeac, eta penac? Etzigun ederqui eracutsi, nola garaitzen den etsai gogor aragui gaistoa? Cer nequeac, eta penac, JESUSi BELEN-dar esquer-gabe charrac ar-eraci ciozcatenac? Cer penac, eta nequeac, Amarenei beguiratzeac eman ciozcanac? Etziran andiac? Eta nol-ere! Bada guciac ziran, gure oneraco; guciac gure amoreac gatic, eta guci-guciac, guri eracusteco, araguiaren naicunde charrac garaitzen; naicunde galgarriac gal-eraci ez diezaguten gueren vide ona, ta Ceruco gloria. Ah gure MAISU eder, gure JESUS maita-garria! goiz asqui asi zara zu guri eracusten, guc, gu ongui izatecotz, eguin behar duguna! Noiz asi behar ote dugu guc icasi dugun, lan on hau eguiten? Noiz etsai gogor, gure aragui sutu hau guc escuratzen? Bertatic nai nuque, nic beintzat, zuc laguntzen didazula, nere Jesus maita-garria. Lagun zaquizquit bada; bai arren, bai.

§. II.

ARAGUIAREN NAICUNDE GAISTOAC garaitzen guri eracusteco, JESUSec bere jait-horduan eguiña.

ETzuen JESUSec utzi, ez, jaio cenean, bere horduraño eracuste ona, ta guri gueren ARAGUIAREN NAICUNDE charrac garaitz-erazteco videa. Siñesten ez-pa-dezu, orain nic zuri erraten dizudan, hau, atoz ecustera, horduan JESUSec eguin, ta eraman zuena. Ba-cen, BELENgo errian sartu baño, len ichola char bat, eguraldi gaistoac ematen zueneco. Ecusiric bada AMA Virginac BELEN-darren ongui etorria, edo esquer-gabea; ta ezaguturic, urbil zuela bere herdi-hordua, sartzen da ichol onetan. Ateratzen ditu an, hordu artaraco berequin cecartzien, oial garbiac. Belaunicatzen da icholaren baztercho batean; ta, berac guero Santa BRIGIDAri adiraci cion bezala, ala cegoela; ta, bere gogo gucia Ceruan ceducala, oñaceric gabe, ta, ez beste aurren guisara, baicic arguia vidriotic ateratzen den, eran, jaiotzen da JESUS; ta, jaio horduco Aingueruac ezartzen diote AMA berari bere beso-etan. Ceruco bere lo ederetic iratzartzen denean, arquitzen du JESUSen Amac bere Seme maita-garria otzez icara, ta negarrezco aurpeguia-requin. Orra, jaio ceneco, JESUSen asi-era! orra cer vicitza! orra cer sosegua! orra bere gorputzari aldi onetan JESUSec ema-

ten dion, atseguin-aldia!

Urricalduric, AMA-VIRGINAC biltzen du lembaitlen bere SEME-JESUS bere oialcho garbi-etan. Baña oialac berogarri chiquiac ciran, JESUS bezain otz-icara cegoen, aur bati, bere icár-eria quentzeco. Etzequien Amac cer eguin, orretaraco. Etzuen egurric, sua eguiteco; etzuen lumaric, etzuen seascaric, an estaliz, estutuz, ta erabilliz bere Seme JESUSi otza quentzeco. Neguan arquitzen ciran, ta neguco gauerdiric gogor-enetatic batean. Alde gucietatic sartzen citzaien beren ichola char erdi urratuan, den aiceric otz-ena, ta viciena; ta horduco izoztuz joain ciran bazterrac. JESUSen AMA-ere otzac icara ceducan, ta, bere gana bere Semechoa artu naia gatic, guti bero cezaquean hau. Cer eguin dezaque bada, JESUSen AMA maiteac, otzez ill ez daquion bere aurcho JESUS bere besoetan? Cer daqui berac ere? Onetan dagoela, beguiratzen du, an arquitzen cen, estalbi char batera; arquitzen du an agotz, edo lasto molcho, edo abar bat; etzartzen du haren gañean bere Semecho ongui oztua. Baña azpico lasto zatiac cembat bero dezaquee, otzez icara dagoen, Aurra?

Non zaudezte zuec, Ceruco Aingueruac? Ez dezute ecusten AMA-SEMEAC gau onetan daramaten, otza, ta nequea? Noizco da bada zuen jaquiundea, ta escu andia? Ez daquizue, nola, edo cer videz berotzen diran, otzez icara daudenac? Ez daquizue, cer zor diozuten zuec ceren Erregue JESUS, otzez icara dagoenari? Cer tan zaudezte bada, edo ceren beguira?

Ah! baña ba-daquite Aingueru onac, nai ba-lu berotu, ez duela orien beharric JESUS jaio berriac. Ba-daquite, otzez icara, ta negarrez dagoen, aurchoa izana gatic, Jangoicoa dela JESUS jaio berria. Ta Jangoico, otz-beroac, eta gañeraco gauzac bere escuan dituena. Ba-daquite, bai, otzez ba-dago, ta negarrez gure JESUS, bere naiez dagoela, ta guri eracustea gatic, Ceruan sartzeco guc eguin behar duguna, edo nola garaitzen den, ango videra ateratzen den, etsai galgarri-aragui gaistoa; ta orre gatic, ez duela JESUSec nai, quen daquion, oraingo aldian daraman, bere otza, ta nequea. Zaudezte bada gueldiric, Aingueru jaquintsuac; eta zaudezte JESUSi beguira, ta arri zaitezte Jesusec, gu gatic bere jaio

io berrian daraman, otz-icara, ta neque arri-garriaz!

Eta zuc AMA VIRGINA, cer eguiten dezu, cere Seme maite JESUS berotzeco; Ez nai adiña! Ecusiric AMAc JESUSen otz-icarac; eta etzuela deus valio, oriec arintzeco, ichola charreco estalbi otzac, artzen du JESUS bere besoetan, ta eguiten du al duena. Nai cioquen, eguin, bere Jaunari bezala, al zuen agurric, beguitarteric, eta beguiratzeric humillena; baña erdiratzen cion bere bihotza, JESUSi ecusten cion, otzac, eta negarrac. Ecuste onec urtzen ciozcan Ama maitariari bere bi beguiac; eta, cer hari den, ez daquienaren, eran, estutuco zuen bere bular gañean; josico zuen bere arpeguia JESUSen arpeguia-requin, ta urricariz, ta amorez Amari ceriozcan, negar malcoac nastuco ciran JESUSen beguietaco negar-malco-equin; ta bien negarrac utzico zuten JESUS bi aldiz ur eguiña.

Cer dardarac, cer itonaiac, Amaren bihotzac hordu artan izandu cituenac! Ecusi zuén, eran JESUS ecusi baño, naiagoco cituen artu bere gain munduco gose, egarri, otz-icara, ta neque guciac. Amaren pena, ta neque gucia cen, ecin arindua, berac nai bezala, bere Seme jaio berriac, hordu artan ceramana, bezain neque, ta pena arri-garria.

Neque hau ezagutuco cenuen zuc ere, zuc horduan ecusi ba-cenu JESUS, cegoen eran, ta, era artan cegoèn, JESUSi beguira JESUSen Ama maitari ecin-urricaltiagoa: ta videnabar ezagutuco cenuen araguiaren naicunde charrac garaitzen zuri eracutsi naiez, cela, bere burnari aldi artan JESUSec ematen cion, tunda, ta nequea; ta ecuste onec, arrizcoa ez izatera zu, erdiratuco zuen zure bihotza, ta utzico cituen, negarrezco iturri eguiñac, zure bi beguiac: eta utzico cinduen zu, bere horduco nequea-requin eracusten cizun, gucia zucen eguiteco gogoa-requin; ta, araguiaren gogo, ta naicunde gaistoac garaitzeco gogoz onguiongui betea.

Orain ere gogora ecartzen ba-dituzu zuc, horduco JESUSen otz-icarac, horduco haren negarrac, eta nequeac; eta beguiratzen ba-diezu hastiz, ta contuz, ta maiz, ba-dut uste, ezagutuco dezun zuc, eta nic asm-al baño, andiagoa, ta andiagoa cela horduan Jesusec bioi cigun, amorea; bada, onelacoa ez izatera, etziozcan era-

guiñen, ez, eraguin ciozcan, icarac, negarrac, eta mundu gucia arritzeco asqui ciran-gañeraco gauzac. Ecarz-quizu bada gogora. Beguira eguiezu maiz, hastiz, ta amorez : ta, ecusiric, JESUSec, jaio horduco, zu gatic eguiten duena, eguiozu ordez al-eguina; ta, cere gogo gaistoa, ta araguiaren naicunde charrac garaitzen dituzula, sar zaitez JESUSec aldi onetan eracusten dizun, Ceruco vide garbian, ta zabiltza, ortic atera gabe, vera ecustera, ta, zor diozcatzun, esquerrac ematera, Ceruan sartu artean. An bioc elcar dacusagula! Bai arren, bai.

1.

SVBIECTI IGITVR ESTOTE... propter Deum, sive Regi...sive ducibus, tanquam ab eo missis ad... laudem bonorum. 1. Petr. 2. 13.

AIta Eternoac nai zuena eguiten cebillen gure JESUS jaio ceneco; bai ta lenagotic ere; bada ceren ala nai zuen Aita Eternoac, ibilli cen JESUS bere Amaren baitan, NAZARETH ceritzan, Erritic BELENgo erriañoco vide gucian. Ama cebillen Erromaco Erregue andiaren manuz, ta aguinduz; ta haren sabeleco Semecho JESUS cebillen, bere Aitari atseguin eguitea gatic, eta guri eracutsi naiez, guc ere gueren aldietan, gure Jauna gatic, eguin behar duguna.

Cer da bada, gure JESUS maita-garria, cer da, zuc eguin dezunaren, eran guc eguin dezaqueguna; ta cer aldi dira gure eguiteco onen eguin--aldiac? Eguiteco hau ote da, Jaun bera gatic, Jaunaren ordez daudenen erranac eguitea? Eta eguitecoaren aldia ote da Jaun-ordezcoen (naiz gure Gurasoac izan, naiz Nagusiac, naiz gurequico escuren bat duen, bertze edocein) manu-hordua? Bai? Eguin uste dugu bada, zure laguntza-requin batean, bertatic, eta tricatu gabe, naiz necalea guerta-dedilla, ta naiz erraza, horduan guri manatzen zaicuna. Ori da zuc gaur guri cere Aita gaticaco, ibillera necatu-lucea-requin eracusten diguzuna, ta ori guc eguin nai duguna. Iguzu cerorrec, zucen eguiteco, behar dugun, zure laguntza, ta escua. Bai arren, bai.

2.

RECLINAVIT EUM IN PRæSEPIO; quia non erat locus in diversorio. Luc- 2. 7.

JAio cenean, arquitzen cen gure JESUS bere Aitziñecoen

coen lecuan; ta al-ere ez berác, eta ez bere AMAc izandu zuen ongui-torri-guilleric, edo beintzat echeren batean zococho bat-ere esqueñi cionic; eta AMAC JESUS ezarri zuen, Mundura ceneco, animal-tegui bateco estalbi batean. Hau cer da, gure JESUS maita-garria? Beharrean dagoen, edoceñi edocein lecutan urricaltzen zaio nor, edo nor; ta, neguan ba-da, edo eguraldi gaistoan, haren beharra, eman oi zaio bere bero-aldia, bere afaria, ta oatzea, edo gutienean echeco agozteguia, edo zocochoren bat; eta zuri, ta zutaz herditzeco dagoen, Espiritu Santuaren Esposari, ta Aita Eternoaren Alaba maite Virgin Mariari ucatcen diote beren Erritarrac, eta Aideac ere hau gucia, ta uzten zaituzte zuec bioc neguco gauric gogorrenean echez, ta erriz campoan! Ah, cer gueldi era, videz necatuac datocen, ta guciaren beharrean arquitzen diranentzat! Arrizcoac ote ciran, horduan BELENen vici ciran, guizaqui, ta emaztequi guc.en bihotzac? Galdu ote zuten choil guciac beren ezagumentua, edo cer guertatu ote citzaien? Onen gogorrac BELEN-darrac, burdiñezco gendeac ere bera citzaquen trancean, beren Aide JESUSen AMA-requin? Nola ez diozu, zuc ba-da ere, gure JESUS urricaltia, obequi beguiratzen cere AMA maitagarriari? Ceri dagocala ar-erazten diozcatzu onembat esquergabe-tasun, onembat otz, eta neque? ta cer gatic ez dezu videnabar cupideago zuc cere burua?

Cer gatic, uste dezu? Guri gueiegui naiez! Gu gatic dira alabaña aldi onetaco JESUSen nequeac; eta gu gatic Amaren-neque gogorrac ere: bada, guri adiraztea gatic, nola dijoacen, Cerura doacenac, necatzen, ta necatzen du JESUS jaio-berriac bere burua; ta, bere burua necatzea gatic, uzten du neque gogor-etan bere AMA ere, edo uzten du Egu-erri gabeco otz icara, quezca-lan, ta neque gucien artean! Ah! ta cembat zor dizugun, eracusle on, gure Jangoico-aur, JESUS maitagarria! Zure escolan ba-guembiltza gu, vici garaño, ta eguiten ba-guenu guc, gaur baño, bigar zucenago, ta egun oro behar bezala, jaio ere baño, lenagotic zuc, gure JESUS maita-garria, eracutsi diguzun, guci-gucia! Ori guerta daquigula, zure laguntza-requin batean. Bai arren, bai.

3.

SEMPER MORTIFICATIONEM JEsu in corpore nostro circunferentes, ut & vita Jesu manifestetur in corporibus nostris. 2. Cor. 4. 10.

NAi dezu, dagoen beti zure gorputza, Jesusen gorputza orain arquitzen den eran, edo atseguin contentuz, ta gloriaz betea? Eguizu bada zuc; eta gaur danic eguizu, jaio cenetic JESUSec eguin izandu zuena. Etzuen JESUSec deusetan utseguin bein ere, ez beguiz, ez escuz, ez oñez, ta ez beste aldetara. Etzuen gogoan artu JESUSec ongui etzirudien, gauzaric chiquiena ere. Etzuen maitatu JESUSec maitatzecoa etzen, munduco gauzaric bat ere: zucenac ciran beti JESUSen gogoracioac, zucenac hitzac; eta zucenac gañeraco JESUSen gauzac. Guci guciac eguin cituen JESUSec, bere Aitac nai bezala, ta utsi-eguin bague; ta artu cituen gogoz, ta pocic, bere gorputza necatu cioten, otz-icarac, eguraldi charrac, begaitarte gaistoac, eta gañeraco neque guciac. Orre gatic arquitzen da gaur Jesus, ta egoin da JESUS Eternidade gucian ere, dagoen, bezala, atseguin, ta contentu andia-requin.

Orrela nai dezu egon zuc ere? Bada gorde beharco dituzu cere beguiac ecuste arinetatic; cere beharriac aditze gaisto, berriqueta char, lausenga loi, ta era orretaco gauz-etatic; gorde beharco dituzu, bai, zere mihia, ta cere eztarria hizqueta arin, ta jan-edan utsesco-etatic; gorde beharco dituzu cere escuac uquitze lizun, joco galgarri, ta, behar ez den beste edocein lan-etatic; gorde beharco dituzu cere oñac danza ciquin, ibillera galdu, ta sartze ateratze galgarri gucietatic; eta gorde beharco dezu cere bihotza asmo, gogo, ta naicunde, gure Jaunaren beguietan ongui ez dirudien-etatic.

Ori ez-ecic, eguin beharco dezu zuc gueiago ere: Ontzat artu beharco dituzu zuc, eta zu gatic necatu cen, cere Jangoico aurraren icenean, eguiten zaizquitzun, videgabe, ta esquer gaistoac, etortzen zaizquitzun, eritasunac, naigabeac, berri illunac, calteac, eta zure gorputza, edo zure bihotza necatzeco diran, gañeraco gauzac. Bai, nere JESUS maitea, bai; guc ecusi ezquero,

zuc

zuc gure oneraco cere jaitegunetic, eguin, ta eraman dezuna, ori gucia eguin naiez beteac arquitzen gara. Ala izan dezagula, gucia ongui, zucen, ta beti eguiteco behar dugun, zure gracia. Hau eſcatzen dizugu gaur, lenago vide hau artu gabeaz, ta eguin ditugun, gueren becatu guciez ongui damuturic, erraten dizugula: *NERE JESU CHRISTO JAUNA, &c.*

EMERETZI-GARREN OTOITZ-GAIA

JESUSEC BERE GUIZATASUNA ARTZEAN, TA jait-horduan eracutſi cigun, bigarren gauza.

§. I.

BERE GUIZA-TASUNA ARTZEAN, eracutſi cigun JESUSec GOGOAren ERAQUERIAC, edo BEGUI galduen ARINTASUNA garaitzen.

BI-garren gure etſai aſerre gogor indartſua da BEGUI galduen ARINTASUNA, ta gogoaren eraqueria. *Concupiſcentia oculorum.* ADANen becatuác, edo becatu etorqui originalàc gaiſtatu zuen gure gogoa, ta aguitz arindu citzquigun gaitz aldera gueren beguiac. Orre gatic gure beguiac, adiñetan gu ſartu-horduco, bazter-etara beguira dabiltza; ta, lurreco gauza charrac ecuſi naiez; ta, ecuſi ezquero beguiac iduri oneco gauzac, gauz oriec izan-arren, anima gaiſoari ongui ez dagozcanac, guelditzen dira onen gogoan gueiegui ſartuac; eta cembat ere gauzac gaitzeraco egoquiagoac, ambat guelditzen dira animaren gogoan barrenago ſartuac. Cer gatic, uſte dezu? Ceren animaco gure gogo galduac, naiena dituen, gauzac diran,

diran, beraren eracoac, edo bera errazquiago gaitzera eraman oi dutenac. Ori-etatic dira eche galantac, oatze leunac, edertasunac, diruac, ondasunac, eta barren macurtu charrari, ta begui galduei atseguin eguiteco diran, gañeraco gauzac. Orien atzetic, edo orien ondoren dabillen gogoa, gogo galdua da; Ceruco videtic urrun dabillen, gogoa da; ta gogo, su-lecera zucen-zucen dijoana.

Cer eguin dezaquegu bada guc, gogo ero hau cenza-razteco, ta gueren begui arin galduac escu-ratzeco? Gure Jangoico aurchoac bere guizon eguitetic eracutsi cigun, bigarren gauza. Cer da horduan guri gure Jangoicoac eracutsi cigun, bigarren gauz hau? Atseguin, ta contentuz, diruz, ta ondasunez beteric dagoen, videren bat? Ez bada; orrelaco videaren buca-era seculaco sua, ta garra da; secula gucian Borrero gogorren escuz, ta atzaparrez urraturic vicitzea da; orrelaco videac darama bat betico negar-urratze-etara, edo sulececo erretze gaisto, lertze betico, atsecabe madaricatu, pena gogor, ta damu guci-etara: ta JESUSen videa doa Aingueuen artera, ta, atseguin-contentuac baicic, ez diran toquira.

Cer vide da bada gure Jangoico aurchoac aguertzen digun, Ceruraco vide zucen hau? Beharrez, gabez, pobrezaz, ta, gogo ariñác nai ez lituquen, gauzaz betea dagoen, vide bat. Vide hau da, gure Jangoicoac, guizon eguin cenetic beretzat arturicaco videa; ta hau berau da, JESUSec, Cerura nai dutenei, eracusten dien, araco videa.

Bada nic Cerura nai dut, nere JESUS maita-garria; ta nai dut ecusi, zuc eguin cenuen, vide hau, zure ondoren, ta zu nere begui-etatic galdu bague, zucen ibiltzeco.

Nondic asi cenuen zuc, nere JESUS maita-garria, Ceruraco cere vide zucen hau? Guizon eguite pobre, behartsu batetic. Baña nai cenuela? Nai osoa-requin; ta zúen amorez. Jaiotzeco dauden, aurrac ez daquite, aberatsac izain diran, edo behartsuac beren jait-horduan; ez eta non, ta nola jaio behar duten ere: ez daquite alabaña deus; ezagumenturic bague arquitzen dira beren Amen sabel-etan: ta ezagumentuan sartuac ba-lira ere, ez luque aurrac beren escuan, ondasunac dituen, guraso-etatic,

tic, edo Ama behartſua gandic jaiotzea. JESUS da bacarric, jaio baño, len gucia cequien, AURRA; ta nai zuena eguin cezaquen, AUR-Jangoicoa.

Bai; bere Amaren ſabeleco aurchoa cenean ere, ba zuen JESUSec, ill-cenean adiña, adimentu, ezagumentu, ta ezagu-era. Bertatic ecuſten cituen JESUSec, jaiotzeco cegoenean, guertatzen ciran, gauzac, eta etorquizunac. Aurra ba-cen ere JESUS, bere Amaren ſabelean; ta aur-oraindic jaio baguea, Jangoicoa cen dembora berean; ta Jangoico, nai zuen, Ama, ta, nai bezalacoa, artu izandu zuena.

Ar cezaquen bèrez gure Jangoico maiteac, gu gatic guizon eguiteco cegoenean, nai zuen, Ama, ta nai bezalacoa? Dudaren pitſic gabe. Baña nolacoa cen, artu izandu zuena? Munduan cen onena, bai, baña dembora berean ondaſun gabea, ta ongui behartſua.

Ecuſten dezu cein laſter, ta cein goiz aſi cen gure JESUS guri eracuſten, nola garaitzen diran BEGUIEN ARINQUERIAC, eta gogoaren GURA gaiſtoac; bada aſi cen, bere Amaren ſabelean guizon eguin cenetic, edo an bere guiza-taſuna artu zuenetic. Orra zuc cere JESUSi zor diozun lan andi bat. Bai? Bada horduco zure zor andi ori, zuc JESUSi zor diozunaren aſiera bat bezala da. Goazen ecuſiz gañeraco gueren zorrac ere: eta orain ecus dezagun, hordu beretic, gueren bigarren etſaia garaitzeco, Jeſus berac eguin izandu cigun, eracutſ-aldia.

§. II.

BERE JAIT-HORDUAN ERACUSten du JESUSec, nola garaitzen den animaco bi-garren etſaia.

NOla jaio cen gure Jeſus, orretaraco hordua etorri cenean? Begui ariñac, eta gogo galduac nai dituzten, gauzequin, edo ondaſun-dun, ta aberats? Ez, baicic behartſu, ta gabe, ta gañeraco aurren neque guciequin, ondaſun-gabeco Ama baten humea bezala. Bai: aur jaio cen gure JESUS; ta, jaio horduco, eguiten zuen JESUSec, negar; ta, negarra bezala, eguiten cituen adiñ artaco beſte aurrac eguin oi dituzten, beguiac idiquitze, ezpañac erabiltze, ta gañeraco gauzac.

Aur gauzac baicic, argan ecuſten etzituztenac, uſte-

co zuten, arquitzen cela JESUS behartsu, ta gabe, gabetaluna, ta beharra, nondic cetorquion, etzequela. Baña, behar den, eran daquienac nor, ta nolacoa den gure JESUS, ba-daqui, bai, berac nai izanez, guertatu cela, horduan, ta gueroz JESUSi guertatu-ricaco gucia. Jangoicoa Jangoico cenetic, edo eternidade gucian egondu cen, guizon eguiteco, Trinidadeco bigarren Persona; ta hordutic artuac ceduzcan bere neurri guciac, jait-hordua cetorquionean, jaio cen, eran, edo behartsu, ta nequez beteric jaiotzeco. Uste-cabean bezala, guertatu ciran, horduco JESUSen gauzac; baña Jaunaren consejuz eguiñac ciran guciac; edo eguiñac ciran, JESUSec betariazco bere beharra estaltzeco, billatuac bezala; ta orre gatic artu zuen gure Jesusec bere Amataco, VIRGINA garbi-virtutezco bat, bai, baña ongui behartsua, edo doi doia vicitzeco diña zuena.

Etzen, ez, AMA bezala, behartsua JESUSen AITA; Aita ETERNOA da alabaña JESUSen AITA; ta AITA Eternoac ba-du, ta eman dezaque, nai duen, gucia: bada AITA Eternoa-renac dira, lurraren ondo-ondotic Ceruaren erpiñeraño arquitzen diran, gauzac; eta, guciac baño, gueiago, ta aguitz ederragoac eguin ditzaque Aita berac edocein hordiz, ta partiz; ta gucia eman dezoque, edo gucitic nai duena, berac nai duenari.

Baña bere Aitaren ondasun guci-etatic, cer artu zuela, uste dezu, JESUSec bere jait-horduraco? Eguiñen cion hordu artaraco bere Aita altsuac JAUREGUI eder, edo Palacioren bat? Prestaracico cion, CONSTANTINOPLAco Emperadoreac beren Semeei apaintzen ciena ere bano, ederquiago, ta obequi, apainduricaco GUELA? Horduraco eguiñac egoin ciran, edo billatuac, seasca ederren bat, eta seascaraco, behar ciran, lumac, olandac, seda-urre cillarrezco estalquiac, eta, ERREGUE gucien ERREGUEAren SEMEAri cegozcan, gauzac, eta festac, eta atseguin-contentuac, eta gusto guciac?

Siñistuco dezu? Bada etzion eguin, ez, gauza orietatic bat ere gure JESUS jaio berriari, cein ere maite zuen bere Ait-Eternoac; eta JESUSen AMA bezain, behartsu izan ba-liz bezala, betaren Aita altsu maita-garria, utzi izandu zuen bere

Seme

Seme JESUS bere jait-egunean guztiz gabe, ta beharsu: ta, PALACIO ederraren, edo JAUREGUI lecuan, eman izandu cion ichola char, casi tellatu erdi-urratu bat baicic, etzuena: icholan eman izandu cion, seascaren, edo OATZE leun beroaren ordez, ESTALBI otzgogor bat: eta JESUSen horduco soñeco guciac izandu ciran, guti valio zuten, oial char batzuec.

Guertaturicaco gauza ote da, zuec aditzen dezutena, Jesusen humeac? Munduan izandu den virtuteric andieneco AMAren Seme bat izan JESUS maita-garria: utsbat bere vician eguin ez duen, Amaren Semea izan JESUS gurea: Jangoicoari atseguinic gueiena eman dion Criaturaren Semea izan JESUS jaio berria: ta dembora berean, gucia dezaquen, gure Jangoicoaren Seme maitea izan Jesus bera; ta ala ere onen trance gogorrean, jaiotzen deneco, gure JESUS maitari ecin-maita-garriagoa? Hau cer da (adiraci nai ba-diguzu) Ait-Eterno, Jangoico zucen ecin zucenagoa? Munduan den gurasoric gaistoenaren hume batec ere izan lezaque, zure seme maitari JESUSec duen, jaiotzea baño, jaiotze necatu-gogor-agoric, eta jaiotze behartsu-agoric?

Ecus dezagun gauz onen gain, Evangelari Santuac adirazten digun, gauzacho bat. JESUS jaio cen, gau hartan berean aguertu cela, dio, Aingueru bat; eta BELENdic urrun etzeuden, artzai batzuei erran ciela: „ *Berri* on batequin „ nator-quitzue, nere artzaiac; „ zuei adiraztera nator, orain „ berriro, emen zuen bazter- „ etan guertatutu-ricaco, gauz „ andi bat. DAVIDen Erri „ urrengo BELEN orretan gaur „ jaioa da, munduaren SAL- „ VATZALLE Christo Jaun „ Jangoico-guizona. Zoazte, ce- „ roc ceren beguiz ecustera. „ Baña ez da cer uste, ta pen- „ satu, diruz beteric, eta ur- „ rez jauntziric dator-quizuela „ ceren SALVATZALLEA: gu- „ ti valio duten, oialcho ba- „ tzuetan ingurutua, edo bil- „ dua, ta estalbi batean ezar- „ ria arquituco dezue, aratzen „ *ZARAZTENEAN*. Badoaz Artzaiac beren ecus-quizun andi hau ecustera; ta arquitzen dute beren JESUS, edo beren SALVATZALLEA, Aingueru onac adiraci cien bezala. *Luc.* 2. *à v.* 9.

Gauz-arrigarria! GUIZON eguinic dator quigu guti gure Jangoicoa? gueren ar-

tera; ta, onara, era onetan etortzeco, jaiotzen da AMA behartsu bate gandic! Munduco gucien, ta Ceruco Erreguea da, Mundura datorren, JANGOICO-GUIZON hau; ta, Munduan aguertzen denean, abere-tegui, edo ichola char erdi-urratu batean jaiotzen da! Jauntzen dute, jaio cenetic anitz luzatu gabe, Ceru-lurren Erregue andi JANGOICO-GUIZON hau, baña nola, edo cer eran, uste dezu? Edocein aur behartsuc izan litzaquen, cembait oialcho-requin. Erregue jauntzi onèn lembicico, ta bigarren guela ezcaratza cen, ta animalien lecua. Onen lumazco, ta illezco colchoiac estalbi gogor bat, eta ôla, edo arria! Otza garaitzeco, an arquitu izandu zuén, sua, bazter gucietatic sartzen cen, ifarra, edo aice vicia. Orra nolacoa gure Jangoico-guizon, JESUS maitearen Munduratzea, eta jait-era!

Aditu dezu etor-era, edo jaiotze nequezcoa-goric? Ori da bada gure JESUS maitaria-rena: ta da, zuri, ta niri eracusteco, nola guc igueseguin dezaquegun, gure beguiac arintzeco, ta guré gogoa macurtzeco diran, gure etsai gaistoen ortz-atzapar-etatic: eta da gure bioi eracustea gatic, nola, lurreco gauzac, eta atseguin charrac alde bat utziric, irabaz ditzaquegun betico gure ondasun andiac, eta atseguin eder-garbiac: irabazten dira alabaña, beguiac bilduz, gogoa garaituz, asmoac zucenduz, ta Ceruco izar ederrac, edo gogarguiac billatzen dirala, JESUSec bere jait-egunean izandu zuenaren eraco gabeác, eta behar-tasunac eracusten digun, videz, ta bezala. Orre gatic bada, erditsi nai dituztenac Ceruco ondasún oriec, billatu behar dituzte, JESUSec ecusi cituenen eraco nequea-requin, gosegarri-equin, beharra-requin, ta gabea-requin; edo, lurreco gauzac (oriequin arquitzen diranac, eta gañeracoac) gogoz badere uzten dituztela; ta, ezpalituzte, bezain humil, ta garbiro vicitzen dirala.

Beharrean arquitzen zarazu, ta, zure gogoac nai lituquen, gauzaren batzuec gabe? Ez da cer ansiatu. Gauza gaistoa ba-liz, edo, gaitzera daraman, videa, beharra, gabea, edo ez izatea, beretzat etzuen, ez artuco gure JESUS, eracusle on maita-garriac; ez, eta guri ere ar-eracico, ar-eraci digun bezala: ta, ar-eraci ba-digu, edo gueren beharrean,

an, edo gabea-renquin iutzi bagaitu, gure JESUS maita-garriac, guri ongui naiez izandu da, bai, ſiñiſtu nazazu, ta, guc gueren Ceruco videa gal dezagun beldurrez bezala, ta irabaci andiac guri eraguitea gatic.

Beharrean arquitzen zara zu, ta, lenago cerorrec cenituen, cembait ondaſun, edo gauza bague? Beguira eguiozu, zu gatic bere Munduco gauza guciac utzi, ta behartſu jaio cen, JESUS maita-garriari: artu zazu harenaren icenean cere beharra; ta irabacico dituzu, betico diran, ondaſun eder-etatic zati andiac.

Ez dituzu, nai bezalaco, edo cere gogaraco, ichea, ta guelac? Oatze gogorra dezu, edo zuc nai ez-bezalacoa? Oroi zaitez JESUSen ſeaſcaz, eſtalbi otz-gogorraz, ta icholaz; ta ecuſico dezu, cein ere charrac diran, harenac baño, aguitz obeac dirala zureac, edo zuc dituzunaz; eta ez daramazula zuc cerean, an harc eraman zuenaren erdiric, ez eta laurdenic ere.

Ez dizute, cere eſtu-taſun-etan cere erritarrac, cere Aideac, edo cere auzocoac ematen, eſcatzen diezuna, ta behar cenuquen, cer, edo cer? Eta cer eman cioten BELENdar gogorrac JESUS maita-garriari, ta onen AMA herditzeco cegoenari, vide lucez etorri, ta iche-baztercho bat BELENen eſcatu, edo billatu zutenean?

Euriac, aiceac, eguraldi gaiſtoac gaizqui zarabiltza ñoiz, edo noiz? Eta nola erabilli zuten gure JESUS, jaio cen gau-otz-illun gogorrean? Ecuſi dezu zuc bein-ere zure JESUS ona gatic, JESUSec hordu artan ecuſi zuenaren amar zatietatic bat ere? Nor gatic ciran, horduco JESUSen nequeac? Etziran guciac zure oneraco, ta zuri eracuſtea gatic, alaco aldi-etan zuc eguin behar cenuena? Noren oneraco dira zure lanac, zure nequeac, eta zure munduco eſtu-taſunac? Zuretaco izan, diran, guciac, eta al-ere ſaiatuco etzara zu, behar den, videz, ta alic onguien-onguiena, oriec guciac, eta gueiago ere, (gueiago Jangoicoac nai ba-lu) eramatera?

Ez dezu, nai adiña, beti edo guti dezu? Baña ill zara, orain-dañocoan goſez; ſoñeco gabez, edo beharrez, edo ez dizu cere Jangoicoac andic, edo emendic eman izandu egunean cere egunecoa? Eta, vicitza gaiſtoa-requin, edo cere eſ-

esquer-gabea requin escuac lotzen ez-pa-diozcatzu zuc cere Jangoico berari, ez ote du eguin behar beste-orrembeste, vici zaraño?

Oroitzen ba-zara zu, zure JESUSec bere jaio berrian, ta, larru-gorrian cegoela, izandu zuen, otz icaraz, ta neque arri-garriez, chiquia idurico zaitzu, bai, cere nequeric andiena; ta idurico zaitzu, ondasun andia dela zure behar gucia, lana, ta gabea. Oroi zaitez bada alic maicena; ta, beguiac quenduric lurreco eraqueri, gauza char, ta liluracio galdu-etatic, artu zazu gogoan, gaur JESUSec, bere guiza-tasunaren artze, ta jaiotze humill-penatua-requin, eracusten dizuna; ta eguizu al-eguiña, cere Ceruco bigarren etsaia garaitzen dezula, Ceruco vide berean sartu, ta zucen ibiltzea gatic. JESUS jaio berriac dizula, orretaraco, behar dezun, bere laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

I.

APPARUIT GRATIA SALVATORIS nostri... erudiens nos, ut abnegantes impietatem, & sæcularia desideria, sobriè, iustè, & piè vivamus. Epist. ad Tit. 2. 11.

ZOri onecoac, gure JANGOICOA GUIZON eguiñic etorri ezquero, Mundura etorri garanac; bada guc ba-dugu, lenagocoac izandu etzuten, MAISU jaquintsu-eracusle ecin-obe bat. MAISU hau MAISU cen bere lendabicico jait-egunetic; eta bertan, edo jaio cenetic asi cen eracusten guri, guc gueren vicitza gucian jaquin, ta eguin behar dugun, gucia.

Cer ote da, horduan guri gure JESUSec eracusten ciguna? Ceer? Ez diozala batec ere escuric eman bere buruari, gauza char galdu-etaraco. Utz ditzala gogoeta ariñac, eta naicunde macur, Ceruco videtic, atera nai dute nac. Bere jan-edanetan, bere loan, ta bere gañeraco, behar dituen, lurreco gauzetan, ez dedilla sartu, ecin bestez baicic; eta, sartzen denean ere, sar dedilla, lembaitlen andic ateratzeco, ta behar duena baicic, ez artzeco asmoan.

Eracutsi izandu cigun, gure MAISU on JESUSec bere jait-egunean cerbait gueiago? Bai, ta gauz anitz, eta anitz ere; ta guciac guztiz onac, edo ecin obeac. Cer bada, edo nolacoac? Eracutsi cigun, ta adiraci, ibilli guindecela, behar den, eran, edo zucen-zucen gueren Ceruco videan, ta Jauna-

naren leguetic oñic atera gabe. Adiraci cigun, ta eracutsi, ez dagiogula bati ere, berac naico ez duen, gauzaric, edo ongui ez den, ta gueroc gueren-daco naico ez guenuenic. Eta eracutsi cigun azquenean, eraman ditzagula gueren egunác, gueren hasteac, gueren illac, eta gueren vicitza, gure Jangoico maita-garriac manatzen dituenac, eta beste cembait gauz on eguiten ditugula.

Orra gure JESUSec lembicico bere jait-egunean eracusten diguna, dio San Pabloc: orra cein eder-on-andia gure JESUSen lembicico eracustea. Eguin ba-gueneza guc zucen, ta beti, ta hitzic atera gabe, gure JESUSec eracutsi digun hau! Zori oneco JESUSen Escolarrac horduan gu! Asi gaitecen bada gaur bertatic, jaio-berriac ba-guiña bezala. Eracutsi ciguna, guri eguiten laguntzeco, dago gure JESUS; ta cembat ere andiagoa den gueren laneraco gure naia, ta gogoa, ambat indart-suagoac izain dira gure JESUSen laguntzac. Artara noa, nere JESUS; lalagun-zaquizquit nere lanaren azquen horduraño, hau bucatzean, sar nadin ni, nequez, ta zucen ibilliz, zuc irabaci cenuen, cere Ceruco glorian. Bai arren, bai.

2.

SCITIS GRATIAM DOMINI Nostri Jesu Christi, quoniam propter nos egenus factus est, cum esset dives, ut illius inopia vos divites essetis. 2. Cor. 8. 9.

EZ daquizue zuec, JESUSen humeac, ceren JESUSi cembat zor diozuen? Guizon eguin baño, len, ta, eternidade gucian ere, bá-zuen JESUSec nai zuena. Etzuen eceren beharric bein ere, ta beti ba-zuen, guciraco, behar cen, escu, ta indar bazter gabecoa: ta al-ere, guri ongui naiez, eguin cen guizon, ta jaio cen behartsu, ta gabe. Bai, GURI ongui naiez, ta gu aberastuac, eta ondasun-dun eguiñac uztea gatic!

Nola uste dezu? Bere vorondatezco, edo bere naiezco gabea-requin graciac, eta graciac guri irabazten cizquigula, ta, gabeàc ar-erazten ciozcan, neque-equin, guri aguertzen cigula nequezco vide, irabaci andizco vide, Ceruco vide zucen arri-garrizco bat. Zori onecoac, JESUSen amoreac gatic, vide hau artzen dutenac, eta, onetan dabiltzala, irabazten dutena-requin, Ceruan aberats sartzen diranac! Oriec, bai, oriec

oriec dira, gure JESUSec maite dituen, humeac; oriec dira bere ondasun-dun gure JESUSec eguiten dituenac: eta oriec, pocic bere glorian gure JESUSec artuco dituen, humeac.

Ez ote naz ni ere izain orietatic? Nic neronec nai badut, bai; ta bertatic al-ere: bada gucientzat dator gure Jangoicoa, guizon eguinic, gure artera: guciei eracusten die JESUSec bere Ceruco vide hau, ta, onetan sartzen diranac, sartzen ditu JESUSec, Ceruraco dauden, bere humeen artean. Nai dut bada, nic nere JESUS maita-garria; nai dut nic artu, cere beharra-requin, edo gabea-requin eracutsi didazun, Ceruco vide hau. Indazu orretaraco, nere etsaiac garaitzeco, ta vide onetan irauteco, behar dudan, zure laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

3.

EXPECTATIO ISRAEL, SALVATOR eius.... quare quasi Colonus futurus es in terra, & quasi viator declinans ad manendum? Ierem. 14. 8.

ISrael-darrac len uste-cinduztena, ta noi--zbait, noizbait, guizon eguinic, aguertu zaran, Mesias gure Jangoico Salvatzallea, cer asmoac dira, cere gogoan orain zuc dacazquitzun asmoac? (erran dezaquegu gaur guc, Jeremias Profetaren hitzac gueren alde artzen ditugula) Cer gatic zatoz gaur, bere errian toquiric izan baguez, toqui billan urrutira dijoan, bat bezala, ta, besteren echean sartzen den, videzco errumesaren eran? Cere jaio-puntuan arquitzen zaranean, uzten dezu zuc cere lecu, ta Erri NAZARETH; bazoaz videz-vide, andic urrun dagoan, BELENgo Errira; ta an zabiltza cere Ama-requin batean, gau bat pasatzeco, toqui billan; ta, toquiric an ecin arquituz, arquitzen zara, erdi-urratua dagoen, ichola batean sartzeco premian! Ez da hau nor-nai arritzeco sobera den, lana, ta nequea?

Certaco da bada, JESUS maitea; certaco da, aldi onetaco onembat zure neque, arazo ibill-era, ta lan? Ceri dagozcala, artu izandu dituzu, zuc artu dituzun, cere videzco tundac, eta, toqui charretan igaro dituzun, gau latz-gogorotzac? Ez daquizu zuc ori, becatari galdua? Artu izandu ditu, guri gogoan sar-erazteco gueren munduco SAR ATEREA; ta orren ondoren ERAGUITEA GATIC, oroitzapen onec

onec eraguin oi duena.

Nola, uste dezu, sartu ciñala zu cere munduan? Larrugorrian, ta deus ere bague. Eta nola atera beharrac ote gara zu, ta ni bioc, mundu-beretic ateratzeco dembora datorqui-gunean? Emen utziric, ditugun, gueren gauza guciac. UTSIC ATERA NINTZAN (dio Job Santuac; eta erran dezaquegu guc ere) NERE AMAREN SABELETIC, ETA UTSIC ITZULI BEHAR DUT LURRERA, EDO LURRAREN SABELERA. Gauz onen oroitzapena da, JESUSec bere jaitegunetic zure gogoan sar-eraci nai duena.

Baña certaco? Lurreco gauza char-etaraco gogo galdua zuri gal-erazteco; bada, nai-ta-ez utzi behar diran, gauz-etatic aisa quentzen da gogoa. Ongui diozu, nere JESUS maitea; ongui diozu! Videzcoac gara, munduan garanoc; eta, gueren videraco, edo vicitza labur hau zutic iduquitzeco, behar den, jan-edana, ta soñecoa baldin ba-dugu, ez dugu gueiagoren beharric, ansiaric bague, ta aisa vicitzeco. Apaintze ederrac, ecuste ariñ zorrotz-esquer-gabecoac, beguiac, eta bihotzac ciquintzea, janari meez, edo edari sutuz barrenac berotzea, oatzez, ta gustoz gorputzac aspertzea, ta orrelaco bertze gauzac, JESUSec bere jait-hordutic alde-bat utziricaco gauzac dira; ta JESUS beraren ondoren dabiltzanac utzi beharrac. Beude bada, JESUS maitea, beude alde-bat; bada nic ere zure ondoren ibilli nai dut, vici nazaño. Lenago ez-utziaz, ta, oriec eraguin dizquidaten, becatuez dut, orain zuc ecusten dezun, adiña damu, ta urriqui! Orien barcamentua escatzen dizut orain; bai, ta becatu berriric ez eguiteco gracia, ta laguntza ere, hitzez, ta bihotzez erraten dizudala: *NERE JESUCHRISTO JAUNA, &c.*



upna

OGUEIGARREN OTOITZ-GAIA.

JESUSEC BERE JAIT-HORDUAN ERACUTSI CIgun, irur-garren gauza.

§. I.

ERACUTSI CIGUN BIHOTZAREN arrotasuna, ta antustea garaitzen.

GUre irugarren etsaia ANTUSTEA da, edo bihotzaren arrotasuna, ta sobervia: *SUPERBIA VITæ.* Antustea, sobervia, edo arrotasun hau gucien gañean bat egon naia da; edo, lagunei baño, beguitarte obea eguiten zaiola, gucien gogoan sarturic, eta, orretaraco behar diran, eguiteco, soñeco, iche, ta gañeraco gauz-andi guciequin vicinaia da. Nai galdu hau, lurreco gauzetan sarturic, eta Cerucoei beguirarzen etzaiela, vicinaia da, ta anitz becatu taraco videa.

Becatuen vide gaisto hau urratu naiez, ta munducoac Ceruco videan sar-eraztera, etorria da, GUIZON-egunic, gure Jangoico maita-garria; ta orre gatic artu izandu zuen, jaio cen hordutic, eta luzatu bague, Ceru bereco vide hau; ta bertatic asi cen guri eracusten, nola garaitu, emendic uruntzen gaituen, irur-garren etsaia, edo gueren antustea, bihotzaren arrotasuna, ta naicunde macurra. Bai: hordutic artu zuen gure JESUSec etsaigalgarri onen contraco videa, edo Cerucoa; ta bertatic autsi cituen, edo, etorri ere baño, len bere baitatic aienatu cituen, antuste arroaren naicunde galduac. Nola ote? Coacen ecusiera.

ANTUSTE arroac, edo soberviac, ezquituz adiraci dugun bezala, ecin ecusi du BEINIc-bein aurtasuneco conturic, edo

edo gauza leun-chiqui-berach-humillic: eta cer izandu ote cen, hau aienatzeco, gure Jesus maita-garriac bere jait-horduan eguin izandu zuena? Aur jaio, ta aur guelditu: ta guelditu aur, berac nai zuela. Bai: BERAc NAI ZUELA: bada jaio ceneco, ta lembicico puntutic ere, ba-cequizquien JESUS maita-garriac, bere azqueneco urte-etan cequizquien, gauza guciac; eta videnabar ba-ceguizquen, nai cituenac, batean ere utſ-eguin bague, ta, ala nai izatera, bertatic guelditucо cen, guizon andi eguinic, eta, izain cen diñacoa: bada, LURRECO AITAric bague guizon eguitea, eguin cen bezala; AMAren Doncella-tasuna galdu gabe, JAIOTZEA; izaten asi horduco, JAQUIUNDEZ, ta ALTASUNEZ beteric arquitzea; ta, eguin cituen, beste cembait gauzá, bezain erraza cen bera batetan aciric, edo anditurіc guelditzea: baña guri gueren arrotasunaren naicunde galduac gal-erazten eracutsi naiez, aur guelditu cen JESUS jaio cenean, ta aurtasuneco negar, ta neque gucien artean. Orra orretaraco, gure JESUSen lembicico pausuac!

Bigarren lecuan ANTUSTE arroac egon nai luque lecuric onenean, ta gucien gain bezala. Eta gure JESUSec ori escura naiez, edo, nola escuratzen den, guri eracustea gatic, artu izandu zuen bere jait-horduan, ar cezaquen, toquiric char-ena. JESUSec nai izatera, jaioco cen Israel dar-gucien Jaun, ta Erregue; ta jaioco cen DAVID Erregueren Jauregui-an, edo onen Seme SALAMONen Palacio ederrean, edo orien biena baño, eder-obea cen, besteren batean. Baña non jaio cen gure JESUS maita-garria? Ichola char erdi-urratu batean, ta ganadu-teguian. Orra JESUSen aldi one-taco bigarren pausua!

IRURgarren lecuan, escupean iduqui nai lituque guciac ANTUSTE arroac, edo soberviac. Eguin izandu zuen cerbait Jesus maita-garriac bere escu-peratzeco Munduan arquitzen ciran, gendeac? Bat ere. Cer bada? Adi zazu. Jaio ceneco, JESUSec, nai izatera, izain cituen nai adina zaldun, ta soldadu, ta, nai ba zuen, munduan arquitzen ciran, jaquintsuenac, indartsuenac, eta artaracoenac: bada artara ezquero, erràz eracar citzaquen, oriec ez-ecic, Munduco guciac ere, ceren etzen ori, egun artaco, ecusi ditugun, edo beste

te cembait gauza baño, gauza gaitzagoa; bada JESUS jaio cen egunean, libruac diotenaz (*apud Daurout. Catech. hist. t. 4. tit. 29.*) aguertu cen izar berri bat, Eguzquia sortzen, edo aguertzen den, aldetic; eta eguzqui beraren sartu-toquian aguertu ciran irur eguzqui. Horduan bertan aguertu cen arri bat, ura ceriola, ta urte ascoz iraun zuen arri artaco iturriac. Eta, harduraño Munduaz jabeturic ceuden, ta Idolo-etatic hitz eguiten zuten, sulececoac, mututu ciran batetan, ta adiraci zuten, egun artan jaio cen, aurrac, edo JESUSec lotu cieztela beren mihiac, edo mingañac. Onelaco gauzac, bezain erraz eraguin citzaquen, bere oneraco ciran, guciac, eta guiz-artetic eracar citzaquen, bere zaldun izatera, nai cituenac. Eracarri cituen? Ez. Bada, JESUS jaio cenean, etziran arquitzen JESUSen icholan, JESUS bera, beraren AMA, ta SAN JOSEPH besteric; edo gueienaz arquitzen cen animalia bat, edo beste.

LAURgarren lecuan opione ona nai du ANTUSTEAC, edo nai du virtutetsuen laguntza, ta servitzua: ta orrelacoetatic al-dituenac beretu naiez dabil, antustez burua beteric darabillena. Eta cer da JESUSec bere jait-horduan eguiten duena? Naicunde macur ori lertu, edo guri lertzen eracutsi bere laugarren pausua-requin. Nola ote? Adi zazu.

NAI izan ba lu, ar citzaquen Jesus maita garriac, adiraci dugun, soldatu, ta ZALDUNen ordez, nai adina AINGUERU; ta Aingueru, berac nai cituenetatic; bada an cituen, jaio ceneco bere aldacan, edo aldamenean, Ceruco guciac, bere Aitac ara bidalduac, erraten ciela; zoazte, Aingueru gucioc, zoazte, nere SEME, ta zuen ERREGUE Jesus adoratzera: nereac bezala, harenac zarazte zuec gucioc; eta nerearen eran haren nai guciac eguin beharrac zarazte: ots bada, zoazte bere bereala; ta eguizue, aguintzen, ta manatzen dizutena, naiz gaitza izan, ta naiz erraza, harc zuei manatzen dizutena.

Baña artu cituen JESUS jaio berriac Aingueru gucietatic cembait bad-ere? Ez eta bat bacarric ere. Eta etzituen igorri, edo bidaldu soldadu cembaiten, edo zaldunen esque, bere zaitzeco, ta, bera ecustera etortzen ciranei, nor cen adiratzeco? Ez eta ori ere. Orren lecuan JESUSec eguin izandu

zuena cen, mendico Artzai behartsu batzuen esque bere Ainguerü andiac igortzea, oriec etorri citecen ecustera JESUS beraren aurtasuna, iche charra, ta gabea.

Hau cer da, nere JESUS maita-garria? Cer eguiteco da, zuc gaur cere escu-tartean darabiltzuna? Cer eguiteco? Guri orain guztiz ederqui dagoquiguna. Gueren-arrotasun-tzarra, ta antuste galgarria bertatic lertzen, edo vide zucenez escuratzen guri ecin obequi eracustea. Onetaraco, bai, aguertu cen JESUS, negarra baicic, ecin cezaquen eran, ta aur eguiña. Orretaraco, bai, artu izandu zuen ichola char, edo ganadu-tegui galdu bat bere jaureguitaco, edo jait-echetaco. JESUSen echearen eracoac ciran, echeco gauzac, echeco ondasunac, eta, bere-jait horduan JESUSec izandu cituen, echetar guciac. Eche onetan JESUSec izandu cituen, guela zabalac, sala apainduac, eta oatze jauntziat ciran ganaduen ezcaratz-bat, eta bere estalbia, JESUSen ondasunac, estaltzen zuten, oialcho garbi batzuec, eta JESUSen familia, ta zaldun guciac, bere AMA VIRGIN behartsua, ta onen senar maita-garri S. JOSEPH. Non arquituco dezu antuste arroaren galgarri obeagoric? Non vide zucena-goric?

§. II.

EZ DA, VIDE HAU, BESTE Videric, lurrecoen antuste arroa garaitzeco.

CErtaco da, nere JESUS maita-garria, zuc cere jaio berrian aguertzen diguzun, adiña humil-tasun, otz, behar neque, ta gabe? Zuei (dio, edo adiratzen digu); zuei, nere hume maiteei lanez bertatic eracusteco, hitzez guero bere demboran eracutsi behar dudana. Cer ote da, zuc guero, anditzen zaranean, edo bere demboran eracutsi uste diguzuna? Zori onecoac izan nai ba-dugu emen, ta beti, izan gaitecela humill-humillac, edo arrotasunic gabeac: igues-eguin dezagula, al eguin gucian, Mundu eroaren ibillera arro, ta vide zabal-etatic; baldin izaten ba-dugu guc, gueren gos-egarriac iltzeco, ta gueren soñeraco, behar duguna, ez gaitecela ansiatu, gueiago, edo, behar ez ditugun, beste gauzac billzea-gatic; eta gueiago-requin arquitzen ba-gara, utz ditzagula, gogoz bad-ere, behar ez

[di-

ditugun, guciac; eta eguin dezagula, oriec behartſu gaiſoei emanez, al duquegun, ongui, edo on gucia; ta dembora berean, gueren buruac lanez, baruz, edo beſte cerbait videz necatzen ditugula, ſaia gaitecela gueren egunac ongui, ta behar den, eran bucatzera.

Hau da guri guero gure JESUSec hitzez eracutſi behar diguna; ta hau bera da JESUS berac, bere jait-egun-etic bere negar, ta neque guci-equin eracuſten duena; ta, lanezco JESUSen eracuſte hau bague, hitzezco beraren eracuſtea, ambat valioco ez luquen, eracuſtea lizaque. Anitz behartſu arquitzen dira Munduan, Jangoicoac emanic, duten, beren beharra-requin, edo gabea-requin content arquitzen ez diranac. Anitz-anitz dira, ori, ta gañeraco beren nequeac emequi, ta paciencian eramateco bere JESUS necatuari beguiratzen ere ez diotenac: edo beren nequebeharrac ontzat artzen ez dituztenac, ecuſia gatic gure JESUS beren amorez necatua, edo berei, beren nequeac, eta beharrac ontzat artzeco, videa eracuſtea gatic, gucia bere jaithordutic beharrez, ta gabez betea. Certaraco liraque bada behartſu oriec, ecuſten balute, JESUSec, errana gatic oriei, ontzat ar ditzatela beren nequeac, eta gabe gucia, ez duela berac gabe vici nai, ta nequetan ſartua?

Cer beguiratze eguiñen liequee orrelacoac JESUSen erranei, JESUSec erraten dienean, gurutzezco videz ibilli behar dutela, Ceruan ſartu nai dutenac, eta betico galduac izan behar dutela, antuſte arroac eracuſten dituen, urrats galdu, edo pauſu ariñetan, ta honren ondoren dabiltzanac, ecuſten balute, ori erraten dien, JESUS bera onelaco pauſu-etatic, eta gurutzeco videtic aguitz aparte, ta urrun dabillela? Cer errain luquee, ori dionean JESUSec, Jeſus, ecuſten ba-lute ondaſunez, ta diruz betea, lurrera deneco; ta ecuſten ba-lute, jaio dela JESUS, ZALDUNEZ beteric dagoen, jauregui-an, ſedazco colgaduraz, iſpillu ederrez, Indietaco Mayez, Moſcoviaco Cataderaz, ta milla gauza valioſoz apaindu-ricaco GUELAN, ta, oraindic eguin den, OATZERIC leunenean, ta onenean? Cer errain luquee, ecuſten ba-lute, gogoac ematen dion, gucia ematen diotela JESUSi bere ichecoac; eta neque, icerdi, oñace, ta min bague, artquitzen dela JESUS,

jaiotzen denean, ta bere vicitza gucian; ta dembora berean adirazten diela Munducoei, Cerura nai ba-dute, utz ditzatela antustearen gogoetac; eta, oriec garaitzeco, neca ditzatela beren buruac, eta gorputzac; eta icerditan urtúac, gose-egarriarequin, beharraren, ta gabearen azpian eraman dezatela beren vicitza gucia; ta, noizbait izaten badute munduco cerbait ondasun, utz dezatela gogoz, ta bihotzez, alacoric ez-paliz bezala?

Hau gucia JESUSec adirazten lienean Munduco gaisoei, bera ba-lebill aisa, ta nai duen eran, bera ba-lebill honraz, urrez, ta diruz betea, gendez ingurutua, ta conveniencien, edo aisatasun gucien artean, atsecaberic eguin gabe bere buruari, ta, nai dituen, atseguiñac eguiten diozcala, cer errain luquee onen hitzez, edo cer caso eguinen liequee JESUSen errânei? Bat-ere: ta errain lioque nosqui: AISA diozu, bai, orain erraten dezuna. Nai ba-dezu zuc, guc daguigun, zuc diozun, lan gogor hau, ots-emazu, ta atoz, nola eguiten den, guri eracustera, ta eguizu lenic cerorrec, guri aisa eracusten diguzun, hau.

Errain cioten JESUSi hau gucia, JESUSec lanez lendanic ez eguitera, hitzez guero eracutsi zuena: baña eguin izandu zuen gure JESUS maitagarriac, eta ederqui ala-re; ta eguin izandu zuen, hitzez eracutsi baño, aguitz lenagotic, edo jaio cen puntu beretic: bada, demboraric galdu gabe, ta horduan bertan asi cen antuste arroaren, ta soberbiaren lan galgarri guciac urratzen; ta manatze-honra, ta lurreco-eroac, estimatzecoac dirala, uste duten, gañeraco gauzac utzi cituen JESUSec aldebat, eta orien lecuan artu izandu cituen Munduac oin pean darabiltzan, gauzac, edo humil-tasuna, ichola charra, zocoa, mesprecia, beharra, otza, negarra, ta gabea; ta artu cituen, ez uzteco, vici. cen artean, ta bere gurutzeco eriotzaraño. Eta orre gatic artu zuen gure JESUSec, antustea garaitzeco, ta, nola garaitzen den, eracusteco, artu behar den, videa.

Ah nere Maisu eder, JESUS maitagarria! Ceru-lurrac beren gauz-equin zureac dira; ta, ecer ez duen, errumes bat dirudizu zuc sortu zaranetic! Erregueen ERREGUE zara zu, ta manatzen dutenen Jaun, ta jabe-ecin-andiagoa; ta, edocein manatzalleren erranac eguite-

teco, dagoena bezala, zabiltza zu ſortu horduco; bai, ta lenagotic ere! Mundu gucia zuri agur, ta agur eguin beharra, ta zu guciei agur eguitera etorria bezala, erritic aterea, ta ganadu-teguian, ta eſtalbi batean, ſortu horduco! Lurreco oialac, urre-cillarrac, eta gañeraco gauzac, guciac zure eſcucoac; eta, zuc dituzunac, ecin charragoac!

JAINCO-GUIZON nere JESUS, nere amoreac gatic, onen ichura charrean! AITA ETERNOA-requin bat den, haren SEME maitea, ni gatic AUR EGUINA! Aingueruz, ta Cherubinez bere TRONUA ingurutua daducan, nere Jangoicoa ezcaratz batean, eſtalbi batean, ta ganadu-teguian! Itſáſoac, odeiac, elementac, eta Ceru guciac nola nai darabiltzien, JAUN andia eſcuac loturic! Aur-oialez ingurutua! ta otzaren igueſi zoco char batean ezarria! Cer gatic hau gucia? Niri eracuſtea gatic antuſte gaiſtoa, ta Munduaren arrota-ſuna garaitzen!

Ez dut hau nic ere garaitu behar, nere ona gatic ezpada ere, onembat zor diodan, nere Jangoico maita-garria gatic? Onembat berari coſtatu zaion, eracuſte guztiz eder hau gogoan ongui ſartua daducadala, JESUSi adiraztea gatic? Eta adiraztea gatic, cembat-ere ichura charragoan ni gatic dagoen, ambat maiteago dudala, S.Bernardoc dion bezala: *Quanto pro me vilior, tanto mihi charior.* Bai baldimbere! Nai nuque beintzat. Indazu cerorrec, nere JESUS maita-garria, orretaraco behar dudan, zure laguntza, ta gracia; ta bertatic, bat ere tricatu gabe, artara noa.

1.

QUI MOLLIBUS VESTIUNTUR IN Domibus Regum ſunt. Matth. 11. 8.

CER da hau, hau cer da, nere JESUS maita-garria? Jaio horduco zuc ceretzat artzen ditúzun, lagunac otza, eſtalbi charra, ta gabea? Ez dira hordu orretaraco obeac oatze berotu bat, olandac, eta ſedac, eta JAUREGUI ederberriac? Gaiſta-querietaraco bai, dio JESUSec; ez Ceruraco. Ederqui jauntziac, eta nai duten, eran vici diranac iche andietacoac dira; ta orrelaco-etan arquitu oi da, bai arro-taſuntzar, antuſte, ta Soberbia franco. Hau gucia gal-eraztera datorrenac (artara nator ni; jaquin ezazu, bai) artu behar du,

du, nic hordu, ta aldi onetatic artu izandu dudan, vide hau; ta nere ondoren etorri nai dutenac, eguin beharco dute nequezco vicitza, edo vicitz humill naigabez betericaco bat; eta vicitz onetaraco lagunic onenac, nic orain artu ditudanac dira.

Izan bitez bada gaur-guero nereac ere, nere JESUS maita-garria; ta, otzac bere aldi-etan ingurutzen navenean, izan dedilla, zuc cere jait-egunean izandu cenuenaren, icenean. Nere soñeco erdi-galduac, edo charrac garai--dezatela, orain-dañoco nere bihotz arroaren antuste galgarria: ta oberen bat jauntzen ba-dut noiz, edo noiz, izan dedilla ecin bestez, ta burua bat-ere arintzen ez didala; ta izan bitez, nere iche-guelac, eta gañeraco gauzac, zure escolan dabillen, hume onari dagozcanac, eta zure gauzetan obequiena lagunduco didatenac. Bai arren, nere JESUS maita-garria, bai.

2.

IN DIE HONORIS TUI NE EXtollaris, quoniam mirabilia opera Altissimi solius, & gloriosa, & absconsa, & invisa opera illius. Eccl. 11. 4.

CEri dagocala, JESUSen humeac, gure ARROTASUNA, ta ANTUSTEA? Cer dira gure gauza guciac, oriec gatic arrotzeco gu, ta antustez beteric guelditzeco? IGUITZEA bera lana costatzen zaicu: betazalac bat, ascotan beintzat, ecin goititu dugu; ta, eguiten ditugun, gauzaric andienac ere, cer gauzac dira, gure Jaunaren gauzen aldean ezarri ezquero? Aur illarenac dirudite, edo, arrastan dabillen, ar charrarenac; eta, andienac ere, egun bian bucatzen diranac dira, edo izatez chiqui-charrac dira; ta irautez guztiz laburrac. Gauz-andiac, gauz ecuscariac, JESUSen gauzac dira: ta, gucien artean, aurtasun-ecoac: oriec dira alabaña, gañeracoac ez-bezalacoac, eta gauz humill, gordestaliac.

Bai, JESUS maitea, bai, zure aur-tasuneco gauzen berria dutenac, gueiago arritzen dira, horduco zure humill-tasunaz, ta gabeaz, lenagoco zure Ceru, ta lur eguite, ta gañeraco gauz andiez baño: ceren, len zuc eguin dituzun, bezalaco gauz andi-arrigarriac eguitea, ta orietatic bacoitza bere toquian ezartzea, an iduquitzea, edo nai dezun, eran erabiltzea, cere AHALA', ANDITASUNA, ta escua guri aguer-

aguertzea den, guri, oriec ecusi ondoan, eraguin naiez, zuri gucia gatic zor zaitzun, agur, escu-muin, ta esquer emate gucia: baña aur-tasuneco zure gauzac, guztiz chiquiac diruditen, gauzac dira, ta, zure GLORIA, ESCUA, ta AHAL gucia aguitz gordetzen duten, gauzac; eta, zor zaitzun, estimacioraco campotic laguntzen ez duten, gauzac: eta, estimacioa galtzeco videan bat berariaz jartzea, estimacio dacarten, gauzac eguitea baño, aguitz arritzeco-agoa da.

Onembat ni gatic, eta nere ANTUSTEA niri garaitzen eracustea gatic, eguin dezun, nere JESUS-AURCHOA, cer eguin dezaquet nic, zuri atseguin gueiena emain dizun, gauzaren bat eguiteco? Aur baten eran, ta inocencian vici? Mundu arroaren gauzac utzi, ta zure hume humillarenac eguin? Zure icenean, ta eme-emequi artu, eguraldiac, buruco miñac, auzoco norbaitec, edo nornaic emen, ta bertzetan ematen dizquidan, aldarte charrac? Ori da, bai, milagroac, ecuscariac, edo lurreco gauzandi guciac baño, gueiago zuc estimatzen dezuna: ta ori bera da, zuri atseguin eguitea gatic, eta nere oneraco, nic gaurguero eguin nai dudana. Indazu cerorrec, nere JESUS aurchoa, nic orretaraco escatzen dizudan, cere laguntza, ta gracia; hau bague alabaña, ecin daguiquet nic, daquizun bezala, ortelacoric, ez eta besteric re. Escatzen dizut hau, cere aur-tasuneco amore andia gatic. Ez arren ucatu, ez.

3.

VÆ, QUI SAPIENTES ESTIS IN oculis vestris. Isai. 5. 21.

URricari zaituztet (dio ISAIASec, lurreco arro guciei hitza zucentzen diela) urricari zaituztet, bai, ceren buruei beguira zaudezten, arro-tzar galduac! Zuec cerèquico guizon andi-jaquintsuac zarazte. Zuei, zuen iduriz, munduan den, agur, escu--muin, ta beguitarte gucia zor zaitzue: ta, zuenac dirala, deritzazue zuec, edocein aldetan arquitzen diran, gauzaric onenac. Ah ero char gaisoac! beldur naz, bai, ta aguitz al-ere, erran daquizuen zuei egunen batean, len bein LUCIFER, sutan datzanac, damuz, ta naigabez beteric aditu zuena.

Hau cer da, LUCIFER (erran çitzaion oni bein) hau

cer

cer da? Orrela galduco cenuen zuc cere CERUA, ta Cerutic erorico ciñan, erori zaran, bezain aisa? Art-izarrac baño, argui, ta edertasun gueiago cenuen zuc, Jangoicoac eguin cindueneco. Cere asitze berean graciaz apaindua, ta naturalezaren doaiez betea ceunden zu, ta, behar cenuen, escu gucia cerequin cenuela, edocein gauzetaraco. Baña zure Jaunarena izan, zuc horduan cenuen, gucia; ta al-ere zuc cerrorec cerez irabacia izandu ba-liz bezala, arrotu ciñan zu, cere burua ain ederqui ecusi horduco, ta, deus-ez baten, eran izandu cen zuretaco, zu-ez bestea, ta Cerua, ta zure Jangoico-guizon ere: ta, cere buruari beguiratzearequin, berotu cequizun cere bihotza; ta asi ciñan, eroaren eran, erraten; IGAN behar dut nic Aingueru gucien gañera, ta nere Jangoico beraren párera, andic errazqui eraguiteco Ceruco guciei, ta lurrean arquitzen diranei, nere edertasunari dagocan, agur, escumuin, ta beguitart on gucia. Baña cer guertatu zaitzu zuri, Lucifer arro-tzarra? Certan guelditu dira, ta non, zure antuste galduac uste cituen, agurrac, eta gañeraco gauzac? Queetan, ta sulecean! Or, bai, or arquitzen zara zu, aspaldico urteetan. Or bertan, or erretzen zaude zu guerozco urte gucietan. Or bertan egoin zara eternidade guci-gucian ere; ta or egoin zara, bai, icatz itsusi, su, ta gar EGUIñA!

Orra autuste galduaren, orra soberbiaren buca-era illun, galgarria! Hau daquidan ezquero, orain nic daquidan bezala, arrotu behar ote zait nere buru-charra, leneco eran, nere Jaunaren contra? Ez baldin bere! ez, nere JESUS maitea, ez arren, ez! Hau guerta ez daquidan, oroituco naiz noizeanbein ba-dere, zure jait-eguneco humill-era nequez beterica-coaz! Oroituco naz, horduco zure aguertze, ta ibillera gorde-estali arri-garrizcoaz: eta zuc horduan, nere betico ona gatic, eguin cenuenaren alde, ontzat artuco ditut nere vicitzan eguiten zaizquidan, naigabe, ta charqueri guciac. Baña nerez nic, eta bacarric ecin daguiquet hau ere. Behar dut orrétaraco zure laguntza, ta lagun zaquizquit cere gracia-requin, nere Jesus aurcho maita-garria; bai ta orain, orain dañocoan hau nic eguin-gabeaz damuturic, erraten ere: *NERE JESU-CHRISTO, &c.*

OGUEI,

XXI-GARREN OTOITZ-GAIA.

ZORTZI-GARREN EGUNEAN, EDO URTEberriz Jesusec eracutsi ciguna.

BEingo eracustea eracuste laburra da, guc gauz andiac ongui, ta behar den, eran icasteco. Gauz andia da araguiaren naicunde loiac, begui-barrenen arinqueriac, gogoeta macurrac, eta bihotzaren antusteac garaitzea. Orre gatic etzen aseric guelditu gure JESUS jaio-berria, Egúerriz eguin zuena-requin, edo bere jait-egunean guri orretaraco eracutsi cigunaz. Berriz, ta berriz ere ta anitz aldetara eracutsi cigun ori bera; ta guztiz ederqui urte-berriz beintzat, edo bere CIRCUNCISIOco egunean. Nola, uste dezu? Neque berri-equin, ta berariaz berac arturicaco, alquequizun andia-requin. Bai-

§. I.

URTE BERRICO BERE, NEQUE berriequin ere eracutsi cigun JESUSec gueren etsaiac garaitzen.

CEr neque ciran urte berrico, gure JESUSen nequeac? Neque gogorrac! Legue zarreco CIRCUNCISIOco nequeac! Jangoicoac manatzen zuen leneco bere Leguean, guizaquia gandic herditzen cena, semez herditzen ba-cen, vici cedilla bereis, lembicico zazpi egun-etan; ta zortzi--garren--egunean eraman cezatela herdi-berriaren semea Circuncisionera. Ala eraman izandu zuten AMA VIRGINArena, edo gure JESUS maita-garria.

Cer cela, uste dezu, Legue zarreco CIRCUNCISIONEA? Gauza gogor, anitz

aurri vicia quentzen eion, gauza bat, edo gorputz mimberetic, eta gorputzaren alde guztiz peligrozcoric aragui zati bat canibetaz quentzea. Ebaquitze onec, eta, ebaquitzetic cetorren, odolác oñacez betetzen zuen aur gaiſoa: ta, iltzen ezpacen oñacez, ta penaz, guelditzen cen iru-garren eguneco, lertzen bezala, ta erdi-illa; ain andia cen ebaquitzetic cetorren miña, ta nequea: bai, ta Eſcriturac dionaz, ecin andiagoa.

(1)

Orra certara cen gure JESUS, gu gatic, jaio, ta zortzi-garren egunean legue zarreco Circunſionera cenean! Ecu-

ſi zazu cer oñaceac, horduco JESUSEN oñaceac! Ez da munduan izandu, JESUSEN gorputza baño, gorputz obea goric; ez eta mimberea-goric ere. Cer miñac bada, ta cer oñaceac, urte berriz, ta urrengo egunetan JESUSec izandu cituenac? Orrelaco oñace-equin ceuden batean SICHENgo Erreguea, ta haren ſoldaduac, eta guizonac, ſartu ciran JACOBen ſeme bi, ta ill cituzten, eragotz-videric ecuſi gabe, ta nai bezala, guci guciac; guciac ceuden alabaña oñacez beteac, eta, beren buruz ecin valia citezquen, eran. Nola egoin cen bada JESUS maitagarria, jaio, ta zortzi-garren egunetic oñace beretan ſartua cegoenean? Aſma zazu, al badaguiquezu, ta adiraci zadazu alic onguiena!

Gure JESUSen lan hau ecuſi zutenean, arrituco ciran Ceruco Aingueruac; eta aſico ciran elcarri erraten, bai-ta JESUSi ere, ISAIASec diona: NOLA guertatu da, Aingueru lagunac, guertaturic orain guc emen ecuſten duguna? JESUS odola dariola? JESUS garaitua, ta canibetez ebaquia? Eta non dira, JESUS, zure ahal-eſcu-indarrac? Aur chiquia izana gatic zu, etzara zu dembora berean, nai adiña daguiquezun, gure Jangoico altſua? Nola zaduzca bada canibeta char batec bere azpian, edo nola utzi zaitu zu nequez, oñacez, ta odolez jauntzia? (2)

Neronec nai dudala (eranzun cezaquen horduan, gure JESUS maita-garriac): neronec nai dudala, ta lurreco gaiſoei gueiegui naiez. Bai, JESUSec berac nai zuela, ciran JESUSen horduco neque gogorrac, eta oñace guciac; bada CIRCUNCISIOco Leguea guiza-cume becatarientzat cen, edo oriec becatu petic ateratzeco; ta JESUS mai-

ta-

ta-garria, Espiritu Santua gandic cetorrena cen, ta Virgina gandic jaioa, ta orre gatic cen becaturic baguecoa. Guri ongui naiez bada, ta guri berriz eracusteco, len egu-erriz eracusti ciguna, edo guri eracusteco gueren animaco etsaiac garaitzen, ciran JESUSen Circuncisioneco min, oñace, ta neque guciac; bada, diogun, bezala, Circuncisioco Legue gogorra guizon-uts becatarientzat cen, ez, becaturic etzuen, Jainco-guizon JESUS maita-garriaren-daco.

Artu cituen bada, gure JESUSec (eta artu cituen bere zortzigarren egunetic) CIRCUNCISIOco oñace-nequeac, guri eracustea gatic, Cerura nai dutenac, eguin behar dutela, beren Legueac escatzen diena, aragui gaistoàc, begui ariñác, eta barren galduàc hau ez naia gatic. Legue onèc, daquizun bezala, escatzen digu, Circuncisioco canibetaz, edo, al den, videz, bacoitzac quentzea bere araguiaren lan lizunac, bere mihiaren hitz-arin alfer-beroac, bere gogoaren atseguin-gusto debecatuac, bere beguien lapur-eriac, eta ecuste loi-galdu-gorde-ciquiñac, bere beharrien zabaltze esquergabecoac, eta, gure Jangoicoac debecatzen dituen, gañeraco gauzac.

Legue berac dio, utz ditzatzula zuc alde bat, aiceac daramatzien, berriquetac, zuri dagoz--quitzunac izana gatic, edo zure gain datocenac; bai ta lagun-urcoen, ta zure etsaien uts-eguiteac, charqueriac, eta gañeraco videgabeac ere. Oriec uztea bada, ta vendecu charrac, eta oroitzapen macurrac gogotic quentzea da zure Legueac zu gandic escatzen duena, ta, bere Circuncisioco neque guci-equin zuri cere JESUSec eracusten dizuna. Nai dezu zuc eguin hau cere JESUS onaren icenean, ta JESUS berari zor diozun, amorearen alde?

Bai, JESUS maita-garria; bai-ta gueiago, ta gueiago ba-liz ere. Zu cere jait-egunean otzez icara ecusteac erdiratzen ditu, ongui nai dizuten, gucien bihotzac: baña ecusteac zu, gaur zauden eran, edo odola dariezula, ta Circuncisioco oñacez zarana betea, asqui, ta sobera da, arri eguiñic nornai uzteco; edo, sentidu-equin guelditzen denari, cer nai eraguiteco! Sentidu-equin nago ni (esquerrac zuri); orain nic ezagutzen ditut, ni gatic zuri cere amoreac eraguin dizqui-

zun, cere odolezco, ta neque arrigarrizco eracuste ecin-obeac; eta ongui naituric arquitzen naz gaur, bertatic asteco, zu gandic icasi dudan, eran nere lanac eguiten; ta eguiteco ecin zucenago, ta zure Legue Santac aguintzen didan, guci gucian. Betor orretaraco zure laguntza, ta artara noa. Betor: bai, betor arren, betor, nere JESUS maita-garria.

§. II.

URTE BERRICO BERE DESHONdrequin eracutsi cigun JESUSec antuste arroac garaitzen.

CIrcuncisioco JESUSen oñace-nequeac neque-oñace andiac ciran; ta dembora berean, edo videnabar oñace-neque deshondrariac; eta orre gatic ciran aguitz arri-garriac, eta guztizcoac. Bai: deshondrariac ciran JESUSen Circuncisioco oñace-nequeac. Cer gatic ote? Ceren Circuncisioa cen, Jaunac, becatu etorquia, edo originala quentzeco, emanic ceducan, gauza, ta siñua: ta, siñu hau bere gain artzen zuenac, edo circuncisionera cijoanac, aditzera emateu zuen, becataria cela, ta loiez, ta ciquinqueriz animam galdua: ta orre gatic, ecusten zutenac JESUS Circuncisioco canibetaz odoltua, usteco zuten, beste, adin artaco, edocein aur, bezain galdua cela, ta becatu etorquiaren, edo originalaren zauriac sendatzen cebillena: bada guciac daquite, ez duela niorc belarrez, ta trapuz loturic ecartzen, papuric ez duen, escua, edo zauriric, eta miñic bague arquitzen den, burua.

Ecusten dezu, ta aditzen onetán erraten zaitzuna? AITA Eternoaren SEME BACAR JESUS maitea becatariaren siñua-requin, ta Circuncisioco odolez betea! Ez da gauz arrigarria, ta deshondraria? Atozea: ez da JESUS Aita Eternoaren ispillu garbi-garbia? Ez da JESUS Aitaren Izate, ta Sustancia guciaren, behar bezalaco, figura, edo Imagina? (*Hebr.* 1. 2.) Edo ez da JESUS, AITAC, eta ESPIRITU Santuac, duten, izate berbera-requin arquitzen den, JANGOICO-GUIZONA? Atozea; JANGOICO-TASUN eder hau ez dago, arguia illumbetic, vicitza eriotzetic, eta edocein gauza ecer-ezetic baño, aguitz, eta aguitz urrunago? Cer deshondra bada JANGOCIO-TASUN eder hau, becataria-

ren

ren ſoñeco ciquin loi itſuſiz jaunztea bezalaco, deshondraric? Orra bada cer deshondra, JESUSec urte berriz ni gatic daraman, deshondra? Bere vician ecuſi zuen, andiena; ta niri didan, amorea niri eracuſteco, ecin-obea!

Siñes nazazu, bai, urte berrico JESUSen deshondra dela, JESUSec izandu cituen, deshondra gucien artean aguerien dena. Izandu cituen, bai, JESUSec bere deshondrac beſte cembait aldiz ere; baña ez, Circunciſioan bezain, utſac, eta andiac. Jaio cenean, etzuen JESUSec izandu, BELENgo erri gucian norc eman bere barrumbean bazter, edo zococho bat, gau bat paſſatzeco; ta ſartu behar izandu zuen ichola char urratu batean; ez lo an eguitera, baicic otzaren contra gau gucian pelean egotera. Deshondra, ta neque andia! Bai; baña ez deshondra utſa; bada gau artan berean etorri citzaizcan, Cerutic Aingueruac, eta MENDITIC artzaiac, beren jaun, ta Erregue andiari bezala, beren agurrac, eta honrac eguitera.

Becataria cirudien JESUSec, San JOAN BAPTISTAc Jordan-go urez bataiatu zuenean: deshondra cen hau JANGOICO-GUIZON JESUS maitearentzat: baña etzen izandu, ez deshondra uts utſa; bada, úra burutic JESUSi SAN JONAEC eman horduco utzi zuten Ceruac JESUS honraz betea: aguertu cen alabaña an bertan JESUSen gañetic Eſpiritu Santua; ta Aita Eternoac dembora berean ots-eguin zuen, hau da, nic maite dudan, nere bihotzeco SEMEA: hau, ni atſeguin, ta contentuz betetzen navena. (3)

Gaiztaguin arrigarria bezala, ceatu zuten JESUS bere azquen egunean, edo hoſtiral Santuz: atera zuten JERUSALENgo Erritic Gurutze ſendor bat bere ſoñean zuela; ta Gurutze berean iltzez joſiric, quendu cioten Judu gogorrac, bere vicia. Non da deshondra andiagoric? Baña, deſhondra hau ere, hondraz betericaco, deshondra izandu cen JESUS maita-garriaren-daco, bada munduari adirazteco, behar gabeco nequeac cirala, horduco JESUSen nequeac, hordu berean eguin cituen Aita Jangoicoac anitz milagro, ta gauz arrigarri; gord-eraci zuen alabaña eguzquia, mundu guciaren doluz, ta lutuz eſtaliric uzteco, larru gorrian arquitzen cen, bere Semea: urratu

cen

cen berèz Elizaco cortina; ta arriac berac erdiratu ciran, al bezala eracusteco, vide-gabeco lan harc escatzen zuen, damu, ta sentimentua,

Ona nolacoac ciran gañeraco JESUSen deshondrac: hondraz, ta hondraz beteac. CIRCNUCISIOco deshondra da, hondraric gabeco, deshondra; ta orre gatic da deshondra andi guztiz arrigarria.

Norc eraman zaitu, JESUS, cere Circuncisiora? Norc orren lecu deshondra-garrira? Cere Ama maita-garriac! Jesus! Ama VIRGINA! Ori eguiñen cenuen zuc cerè Semea-requin? Ez daquizu zuc cer den CIRCUNCISIOA? Ez daquizu, or ematen dutela becatuaren marca deshondrari loi itsusia? Ta ematen dutela, milla, ta milla oñace-requin, ta neque penequin? Eta al ere ara daramazu, cere Seme JANGOICO-GUIZON Jesus maita garria? Ara darama, bai; baña ongui penatzen zaiola bere bihotza; ta ceren, zortzi eguneco bere Semecho JESUSec eraguiten dion, vide, ta lan gogor deshondrazco hau!

Bai, JESUSen humeac! bere naiez doa JESUS bere Circuncisiora, Amaren beso--eran ara doanean! Bere naiez dago JESUS Circuncisioan, oñacez lertzen bezala, ta dolorez, ta deshondraz jauntziric an arquitzen denean; ta orrela dago, guri ongui naiez, ta guri eracustea gatic, jaquin behar duguna! Amorearen andi-eguia! Beti betico Jangoicoa GUIZON EGUIñA, ta JAIO berria: Ceru lurren, ta ondasun gucien jabea, gu gatic BEHARTSU, ta pobre eguiña, soñeco charretan BILDUA, ichola erdiurratu batean OTZEZ ICARA ta NEGARRA dariola? Gauzarrigarria! Baña Jangoico guizon hau, ZORZTI--garren EGUNECO, gu gucioc gatic CANIBETAZ ebaquia, OñACEZ betea, ta BECATARIEN soñecoz jauntzia! Aguitz arrigarriagoa!

Orra Circuncisioco egunean guc gueren JESUSi zor diogun, costuzco, ta deshondrazco eracustea. Certaraco ote da gure JESUSen eracuste hau? Ecusten duguna, guri eraguiteco. Cer ecusten dugu guc gaur, edo cer eracusten digu gaur guri gueren JESUS maita-garriac? Munduco opione char, ta antuste galduac galduric, gueren Legue garbiari jarraitquitzea. Darausala, nai duena Mundu eroac: daguiela, nai ba du, hista, ta irri; erran de-

dezala gogoac ematen diona, guc, Ceruraco ba-gara, ez diogu orri beguiratu behar, Jangoicoac manatzen diguna eguin behar dugun aldietan, beguiratu behar diogu guc horduan, bere burua gu gatic deshondratu zuen, gure JESUS maita-garriari. Ongui guc beguiratzen ba diogu gueren JESUSi; ta guc eguin nai izaten ba-ditugu JESUSec eracusten dizquigun, gauzac, eguiñen ditugu, bai, manatzen ez dizquigunac ere; bada ori da JESUSec bere Circuncisionean eguin izandu zuena; eguin izandu zuen alabaña, ongui cirudien, gauza bat, baña Aitac manatu etziona, ta eguin izandu zuen, deshondretan, ta neque arrigarri-etan bere burua sartzen zuela.

Eguizu bada zuc ere, urte-berrico JESUSen nequeei beguira zaudela, cere Legueac manatzen dizuna; bai, ta edocein beste gauz-on ere, Jaunaren gogarácoa dela, daquizunean, manatua ez izana gatic, naiz dela nequezcoa, ta, honra guti dacarren, eguitecoa; bada cembat ere zucenago, ta gueiagotan ori zuc eguiten dezun, ambat lasterrago garaituco dezu zuc cere antuste arroa, ta eguiñen diozu JESUSi atse guin, ta contentu gueiago. Saia zaitez arren: bada, zure oneraco, da gucia, ta, bere Circuncisioco eracuste ederra gatic, JESUSi zordiozunari nola-ere-bait erantzuten asteco.

1

DATA EST MIHI OMNIS POtestas in Cœlo, & in terra. Matth. 28. 19.

URte-berriz, edo jaio, ta zortzi garren egunean arquitzen cen gure JESUS, egun adiña escu, ta indar zuela, nai zuen guci-gucirac. Eguin ote zuen orre gatic cerbait bere alde, ta favoretan? Deus ere. Gueldigueldiric, eta sosegu onean egondu ote cen gure JESUS maita--garria urte--berri egunean, ta urrengo egunetan? Ez ori-ere. Cer bada? Ecin iguitu den, aurraren eran arquitzen ba-cen ere, arquitu cen JESUS egun orietan, berac nai zuela, arturicaco CIRCUNCISIOaren neque arri-garrietan! Berac hau nia zuela? Nai zuela, ta gure ona gatic, edo guri eracustea gatic gueren buruac penatzen, ta, gure Jaunac cerbait aguintzen digunean, hurà guc eraguiten gueren gorputzei, ta gueren gogoei, oriec nai ez dutena, ta eragoz-guenezaquena denean ere. Adi-

Aditu dezue, JESUS-en humeac? Artuco dituzue gogoz, ta humilqui era orretaco gauzac, eguraldi gaisto-ac, ceren calteac, deshondrac, eta gañeraco, Jangoicoac igortzen dizquitzuten, nequeac? Ori da gaur JESUSec eracusten dizutena: ta ori guc, onac izateco, eguin behar duguna. Saiatuco zara zu gaurdanic bad-ere ori eguitera? Nai nuque beintzat, JESUS maita-garria; ta, lan on hau eragozteco, lilura ez nazaten, araguiaren naicunde charrac, gogoaren eraqueriac, edo bihotzaren arrotasunac, indazu cere gracia, ascotan, ta maiz, nic beguiratzeco zure gaurco odol isurtze arrigarriari, zure min-oñace neque gogorrei, ta zure Circuncisioco deshondra ecin andiagoari; ezaguturic nic, gucia cela nere oneraco, daguidan al-eguiña, nere obenen alde, ta zuri nic atseguin eguitea gatic. Ala guerta dedilla, AUR-penatu JANGOICO maita-garria. Bai arren, bai.

CIRCUNCIDITE IGITUR PRÆPUtium cordis vestri, & cervicem vestram ne indureris amplius. Deut. 10. 16.

ECusi dezue, dio gaur gure Jangoicoac, JESUSec daramana! Ecusi dezue Circuncisioco JESUSen odola; ecusi dituzue horduco JESUSen oñace nequeac, eta deshondrac! Gucia cen, zuei eracusteco, eguin behar dezutena: gucia cen, zuei eraguitea gatic ceren Circuncisioco lan andia. Cer lan ote da lan andi hau? Hau da guc canibetaz ebaquitzea, edo guc osoro gal-eraztea, gure animac galtzeco diran, araguiaren atseguin charrac, barren berotuaren suac, eta vendecuac, eta bihotz arroaren asmo galduac. Eta lan hau bera da humilqui guc gueren lanac eguitea; ta, ezaguturic, Jaunarenac garala gu gueren vicitzan, gueren eriotzan, ta ondasun-dun arquitzen garanean, edo gabe, ta behartsu gabiltzanean, bai, ta atseguin andi-chiquiac, eta contentuac dituguinean, edo neque pean gabiltzanean ere, emequi, ta beraren icenean guc eramatea, gu gandic aldian, gure Jaunac nai duena.

Orretan nago ni, bai nere Jangoico maita-garria: orretan nago; ta prestarquitzen naz ni, gaur bertatic eguiteco (ta ciñez al ere), zuc orain ni gandic nai dezun, gucia, ta, zuri atseguin eguiñen dizun, edo cein gauza. Cer nai dezu dagui-

guidan orain, ta vici nazaño?. Aurdanic asi da JESUS odola isurtzen, ta ba-daquit, isuri duela, niri ongui naiez, ta nere oneraco. Nai dezu, nere JESUS maita-garria, eman dezadan ordañez nic nere zañetan dudan, hau gucia? Hau ez-ecic, emain dizut nic, eta pocic al-ere, nere bihotza, bere naicunde, ta duquen, amore guci-gucia-requin. Orain-dañocoan nere gogára vicitu naz ni, ta ez behar bezala! Damuturic nago nere gaizqui eguinaz; ta gaurguero eguin-naiez nago zuri atseguin eguiñen dizun, ta ni gandic nai dèzun, gucia. Izan bitez bada zure Circuncisioco neque-oñaceen icenean gaurgueroco nere lan, ta neque guciac: eta izan bitez guciac, zuc nai dezun, horduan, ta eran eguiñac, eta zuc nai bezalacoac. Baña indazu, orretaraco, ta guciac zucen eguiteco, cere laguntza, ta gracia. Bai, arren, bai.

3.

OMNIA DETRIMENTUM FECI, ET *arbitror, ut Stercora, ut Christum lucri-faciam.* Philip. 3. 8.

CEr gauzac dira, Munduan arquitzen diran, ondasun guciac? Cer izan ditezque, lurreco lecu eder-luçe-agueriac, eta emengo eguiteco andiac?. Cer; baicic, aicetan, edo auts-eguiñac guelditu behar duten, gauzac: eta, irauten duteño ere, gure Jauna, ta Jaunaren Cerua gal-eraci oi duten, gauzac! Orre gatic, dio S. Pabloc; nic lurreco gauza guciei beguiratzen nien, animen galgarriei bezala, ta, oin-peco autsa, ta loia, bezain erraz utzi nituen guciac, JESUS ezagutzen asi nintzanetic.

Zori oneco ezagu-era, onen lan onac eraguiten dituen, ezagu-era: edo ezagu-er, autuste gaistoa, bere gauzequin alde bat utz-eraciric, ar-erazten duena gure JESUS maitagarria! Ar-eraci baliezat niri ere, nic guerozco nere gauzac, Apostolu beraren eran, ta JESUSen gogára, edo alic zucenen zucenena eguiteco! Ez JESUS maitea, ez, ez dut nic gaur-guero nai, niri zu galerazteco den, munduco hondr-etatic, edo gauz-etatic batere, hondra, edo gauz ori baliz ere, nic nai bezalacoa, ta Mundu gucian arqui litequen, andiena, onena, ta nai-garriena. Ori, ta gañeraco guciguciac baño, naiago zaitut zu bacarric, nere JESUS maitagarria, cere Circuncisioco nequean odolez betea, ta oña-

cez lertzen bezala, zaudenean ere.

Eguiteco ba leude, orain dañocoan niri nere antuste galgarriac, orien ondoren, zoratuaren eran, neramoillela eraguin dizquidan, eguiteco, ibilera, ta pausu macurrac, eznituque eguinen, ez; ez-eta, secula gucian vicico ba-nintz ere! Lenagotic onetan ez egonaz, edo lenago zu nic billatu gabeaz (billatuco ba-cindudan ere deshondren videz, ta neque, ta neque), ongui damuturic arquitzen naz gaur. Eta gaur guero zucen ibilli nadin nere videan, ta zure ondoren quendu behar didazu, orain dañoco, nere oben culpen carga astun hau. Hau escatzen dizut, hitzez, ta gogoz erraten duzudala. NERE JESUCHRISTO, *&c.*

(1) *Tertio die gravissimus vulnerum dolor est.* Gen. 34. 25.

(2) *Quare ergo rubrum est vestimentum tuum.* Isai. 63. 2.

(3) *Hic est Filius meus dilectus, in quo mihi bene complacui.* Matth. 3. 7.



XXII.

upna

XXII. OTOITZ-GAIA.

ERREGUEEN EGUNEAN GURE JESUSEC eracutſi ciguna.

SALVATZALLEAren icena cen Aita Eternoac bere Seme JESUS maita-garriari eman izandu cion icena; ta Erregueen eguna baño, len, ta bere jait-hordutic ere aſi cen JESUS Salvatzallearen lanac eguiten; bada bere jait hordu berean, igorri zuen Ainguru bat, Artzaien eſque; ta, anitz luzatu gabe, deitu cien izar berri batez urrutico Erregueei, ta gañeraco gendeei ere. Oraingo gure eguitecoa da JESUSen Erregueequico eguitecoa; ta, JESUSec deitu cituen, Artzaiac utziric, ecuſi behar dugu gaur Erregue deituac eguin izandu zutena.

Cer eguin ote zuten Erregue oriec, ecuſi zutenean, deitzen cituen, Jangoicoaren izar ederra? JESUSen billan joateco aſmoac artu: beren videraco gauzac bildu, ta billan aſi: arquitu zutenean, agur andiac, eta preſentac eguin JESUS maita-garriari; ta, onec adiraci cien, videz itzuli guero beren eche-etara.

Orra Erregueac JESUSen izar hau ecuſi zutenetic, eguin zutena; ta orra guri gaur JESUSec bere gogargui ónez, adirazten diguna-requin eraguin nai diguna. Zori onecoac gu, hau guc eguiten ba-dugu, irur Erregueac beren lan andia eguin izandu zuten, bezain laſter, ta zucen Ala daguigun, goacen ecuſtera haſtiz, ta banaca, Erregueac eguiñicaco lan bacoitza, ta bacoitza-requin JESUSec guri eraguin nai diguna.

§. I.

VIDIMUS STELLAM EIUS in Oriente. *Matth.* 2. 2.

ERREGUEEI JESUSec ERAGUIN ciena; ta guri ere eraguin nai digun, lembicico gauza da, berac NAI DUEN GUCIRACO GU PREST EGOTEA.

GUre JESUSec ezagutzen gaitu gu gucioc; eta gueienean nori bere eran adirazten digu, eraguin nai digun. Israel-darrac oituac ceuden AINGUERUAC ecustera; ta, bere gana eracartzeco JESUSec BELENgo Mendian, edo bazterrean arquitzen ciran, Israel-dar ARTZAI batzuec, igorri cien, jaio celaco berriarequin, Ainguetu bat. Goiztarrac, edo, Eguzquia aguertzen den, alde artaco gendeac oituac ceuden izarr-etara; ta orien deiez, etzuen JANGOICO GUIZONac Ainguerutic vidaldu; vidaldu zuen izar berri eder-eder bat.

Ba cequiten alde artaco gendeac BALAANen profecia, ta Israel-darrac uste zutela, JACOBen odoletic etortzecoa cen, MESSIAS beren Erreguea. Erregue oni eman ciozcan BALAANec cembait icen, ta orien artean Izarrarena (*orietur Stella ex Jacob.* Num. 24. 17.) eta, izar berri hau ecusi zutenean, Jaunac dembora berean barrendic argui-eguiten ciela, ezagutu zuten, erran nai ciena, edo ezagutu zuten, jaioa cela Juduen Erregue Jangoico-Guizon MESSIAS.

Hau ez-ecic, ezagutu zuten gueiago ere; bada ezagutu zuten, Erregue jaio berriac deitzen cituela, bera ecustera, edo bere gana. Cer eguin zuten, dei hau aditu zuten, Goiztarrac? Irurec beintzat *baietz* erantzun; eta erantzun, artuco zutela lembait-len bera ganaco videa.

Cer diozue Erregue MAGU, guizon jaquintsuac; cer diozue? Errain cien anitzec, ad'tu zutenean, oriec zuten, asmoa, ta gogoa. Cer eguin zaitzue ceren jaquiundea, edo nora dira zuen buruac? Céren aguertu den emen gure Er-aldean izar char berri bat, utci nai dituzue zuec ceren humeac, ceren icheac, ceren ondasunac, eta ceren atseguin, ta gusto guciac; eta artu nai dezue cer eratacoa, ta norañocoa den, ez daquizuen, vide bat? Ez dezue len zuec ecusi izandu izar berritic

riric bein ere ? Ez daquizue zuec, lafter galdu, edo gorde oi dirala, era orretaco izar berriac ? Ori bera guertatzen ba zaio, aguertu berriari ? Eta guertatzen ba-zaio, zuec urrutico toqui errebesen batean sartu-raci, ta ondoan ? Orra; horduan galduac zuec, galduac zuen Aideac, eta galduac zuen bafter oitaco gendeac ! Utzazue, utzazue ceren asmo galgarri ori, ta zaudezte gueldiric ceren eche, ta Jauregui galantetan : amesac dira, bai, orain zuen buru-etan dabiltzan, asmoac, eta gogoetac. Orra Erregueei errain cietena beren erritar ascoc, edo beintzat cembaitec.

Baña cer diote, erausi hau aditzen duten, Erregueac? Ceer ? Izar hau, diote, ez da beste cembait, aguertu oi diranac, bezalacoa : berariaz eguineracia da, ta, guizon eguin den, Jangoicoac vidaldua. Vidaldu du, bera ganaco videa, ar gana joan nai dutenei, eracustera. Gu beintzat onetàn gaude : ta, galdu behar dugula, ba guenequi-ere, ez guenuque utzico guc araco asmoa; obe da alabaña gu gueroc galtzea, ecen ez, otsi-eguiten digun, gueren Jangoicoari guc ez erantzutea.

Ongui diozue, guizon andiac; guizon jaquintsu, ta Jangoico-tiarrac, ongui diozue. Ori da lembicicoric eguin behar dutena, JESUS arquitu, ta Cerura nai dutenac : JESUSec ots-eguiten dieneco, beren beharriac erne iduquitzea, ta, adirazten dien, edocein gauzetaraco gogoz, ta bihotzez prest arquitzea. Presta zatzue lembait-len, ta hordu batere galtzen ez dezutela, ceren videraco nai dituzuen, gauzac; eta zoazte, deiez dago--quizuen, Jangoicoaren ecustera. Ez du, ez deus galduco zuen ERREGUE-tasunac, Erreguen ERREGUEA gatic ar-tzera zoazten, oraingo videan. Vide orretaco zuen pausuac, Jangoico bera gatic artuco dituzuen pausuac dira ; ta pausu-era orietan dabiltzanac, Erreguen lanetan, ta eguiteco--etan dabiltza. *Servire Deo regnare est.*

Zoazte, bada Erregue Jaunac ; eta zoazte lembait len ; izain dituzte, bai beren demboran, zuec artzera zoazten, vide orretaco pausuac, eta neque guciac, dagozten, esquer ederrac, eta ondasun andiac. Zoazte ; baña joan behar dezue, al ditezquen, present guciac ceren escu-tartean dituzuela. Anitz oriec, eta andiac

izau

izan arren, anitz andiagoac, eta aguitz gueiago izain dira, an zuec Jaun bera gandic artuco dituzuenac; bada lurreco presentac izain dirá zuen present guciac, eta Ceruco present-ondasunac dira, zuec deitzen zaituzten, Jangoicoaren ondasun-presentac. Deitzen etzaituzte, ez, dezuten, honra zuei quentzera: hondra berri andiac zuei eman naiez da, izar berri ederrez gaur, bera arquitzen den, bazterrera zuec deitzea. Deitzen zaituzte, bai, bere Apostoluen, edo bere Predicari ónen, ta Martyre andien artean zuec sar-eracinaiez. Ots, bada, ots, goiztar Erregueac; eta, beldur izutze guciac alde bat emen uzten dituzuela, joan zaitezte alic laster-ena, deiez dagoen, zuen Jaunaren oñ-etara; ta ara-horduco, eguiozue, dagocan, agur, escu-muñ, ta adoracione guci-gucia.

Atozea, hau diozun, guiza charra, edo emacumea; ta ez dezu zuc ere noiz, edo noiz ecusi, cere Jangoico onac igortzen cizun, izar, edo gogarguiren bat, edo beste? Zuretzat zure Jangoicoaren izarrac ciran, zure Gurasoen, Zarragoen, Confessarien, Predicarien, edo beste orrelaçoen laitzac, edo erranac. Atozea bada; ta cembat aldiz deitu dizu cere Jangoico maita-garriac, bein izar oitatic bàtaz, bein besteaz? Cembat aldiz adiraci dizu Gurasoen hitz-erranez, utz ditzatzula onelaco, ta aleco, cere lagun, ta jostatze charrac? Joan zaitecela maiz Elizara, an Mezac enzutera, Confessa-comecatzera, ta ango devocionezco, ta beste gauz onetan dembora zati on batzuec ba-cen ere ongui igarotzera? Atozea, cembat alditan erran izandu dizute cere Confessariac, aditzen cituen, Predicariac, edo, iracurtzen cituen libruac, zure deiez cegoela zure Jangoico maita-garria; joan cenquizquiola lembaitlen, cere naicunde charrac garaituric, cere gogoeta macurrac lertzen cituela, ta cere antuste arroaren eraqueriei beguiratu ere bague? Cembat, eta cembat aldiz eracutsi izandu dizu cere Jangoico berac, nola eguin eguiteco, ta lan eder hau, aguertzen cizquitzula cere beguietara, zure lagun onac eguiten cituzten, era bereco gauzac? Cembat bider izutu izandu zaitu cere auzocoaren eriotzarequin, echeco neque-malhurmiñequin, su-leceraco beldurgogorra-requin, ta, norc daqui

qui, cembat beste aluetara?

Ongui; ta, deitze orietatic edocein, ta dembora berean, ta bertze cembait aldiz zuc izan oi cenituen cere barrengo dardarac, beldurrac, ondu-naiac, edo obetzeco gogoac etziran Ceruco izar berriac, edo zu cere Jauna gana deizen cinduzten, izarrac? Baña contuz, ta hastiz beguiratu izandu diezu zuc oriei guciei, edo orietatic bacoitzari? Artu izandu dezu zuc, oriec ecustea-requin, cere Jauna lembaiten billatzeco gogoa?

Ay ene! Ori nic eguitera, edo eguin izandu banu nic orain-dañocoan, ez nengoen gaur, ez, nagoen eran, edo arquitzen nazan, bezain estadu charrean! Egoin nintzan, bai, becaturic bague, ta graciaz, ta virtutez ongui apaindu-betea! Egoin nintzan, bai, JESUSen alde aldean, edo Jaunari amorez, ta ongui-naiez lagun-eguiten niola! Eta egoin nintzan, norcdaqui, cembat irabaci-requin, ta Ceruco atseguin andien beguira! Baña batzuetan beguiratu ere ez diet izar oriei; ta, beguiratu nienetan ere, ascotan beintzat, ez beguiratu bezala cen; bada, cer cioten aditu gabe, lurreco gauz-etara eraman oi nituen-nic nere asmo, ta gogo guciac. Orre gatic daude, dauden bezala, gaur nere azturac, nere pasioneen suac, nere naicunde charrac, eta nere gogoeta macurrac! Onela utzi behar diet nic onembat nere Etsairi, nai dutena ni taz eguiten? Ez baldin-bere! Garaituco ditut? Bai al-eguinean! Nola? Jaunaren izarrac, edo gogarguiac, eta inspiracioneac adiratzen didatena adituz, Predicariac, eta gañeraco guciac, nere oneraco erraten didatena ontzat artuz; ta prestatzen nazala, manatzen, ta adiratzen didaten, guci-gucia zucen eguiteco. Ala guerta dedilla, nere JESUS maita-garria; bai arren, bai.

1.

DUCAM EAM IN SOLITUDINEM, & loquar ad cor eius. Oseæ 2. 14.

DEITUCO diot nic, ongui, ta zucen ibilli nai duen, Animari (cion bein, OSEAS Profetaren ezpañez, gure Jangoico maita-garriac); eta ater-eracico dut, munduan izan oi diran, hitz-ontzi-querien, edo lurreco escambillen artetic; eta, nere bazterrean, edo bere bacar-tasunean arquitzen dudan, aldi-etan hitz-eguinen

nen diot, oi dudan bezala, edo eme-emequi, ta berari onguien dagocan, eran; ta, harc hordutic artzera, nere hitz-queta on emeac adirazten dion, eguitecoa, edo ibil-videa, nic neronec emain diot, nerequin bat eguiñic vicitzeco, escatu nai didan, nere gracia, ta laguntza gucia.

ZORI oneco Anima, JESUS maita-garriaren DEI eme hau, ta, DEI onequin ibilli oi diran, hitzquetac, graciac, eta laguntzac ardura, ta maiz, edo ascotan izan oi dituen, Anima! Izan oi ditut nic ere, edo aditzen ditut, JESUS onaren deitze, ta hitzqueta ondasun-dun, era onetacoac? Ez, beintzat nere Jaun onac nai adiñ-etan! Cer gatic, uste dezu? Ceren ibilli oi nazan ni, nere Jaun onaren iguesi bezala, ta nere gogàra. Ceren ibilli oi nazan ni, jolas ariñen, jostatze galgarrien, eta era bereco beste cembait eguiteco char, ta gauza pitten ondoren; ta ceren, era onetan dabillenaren beharriac arquitzen ez diran, Jangoicoaren hitz leun eme ederac adi ditzaqueen eran.

Ah nere, zori gaistozco ibill-era ero, ta icusi-queta galduac! Utzico al zaituztet nic, isill-gueldiric arquitzen nazala, contuz aditzeco nere Jaunaren hitz on leunac; oriec gogoan dara-biltzidala goiz-arratsi-etan, egunaren hordu gucietan, edo noicean bein badere, eraman nazaten, eguitera, ni gandic aldian nere Jaun andiac nai duena! Ala guetta dedilla, nere Jaun maita-garria; bai arren, bai.

2.

ECCE STO AD OSTIUM, & pulso. Apoc. 3. 20.

BEhar-etan arquitzen zaran, nere anima, cer gatic artzen ez dituzu, cere JESUSec, zuri ongui naiez, esqueintzen dizquitzun, gauzac? Uste galduác galduric zaduzcazu, ta ez dezu zuc billatzen, beharren--beharren dituzun, gauz-etatic den chiquien-chiquiena ere! Virtutez jauntziric arquitzen zarala, uste dizu zuc; baña, ustez betea dagoen, zure anima utsic arquitzen da, tá virtuteric bague! Zuri hau adiraci naiez, nago ni, ambat dembora da, dio gaur zure Jangoico maita-garriac, baña zuc ez didazu niri orretaraco behar cen, lecuric eman izandu. Deiez nago ni, bai, aspal-

paldi gucian; ta croſcaca, zuri cere bihotz ori idic-eraci naiez; baña loo zautza zu cere utſetan, cere oben-culpetan, ta cere eraquerietan; ta ez aditu eguiten diezu zuc nere croſcada, ta deitze guciei!

Ez nator ni, ez, zu ganatzen nazan, aldietan, zure beharrez, edo, zuc dituzun, gauzac zuri quentzera. Zuri ongui naiez, nator, ta ni ganaco vide zucen ondaſun-dun bat zuri eracuſtea gatic. Adi zazu bada, orain badere, zure oneraco den, nere dei, ta ots eder hau. Hau zuc aditzera, idiquico didazu zuc niri cere bihotza; ta ſartuco naz ni zure gogoan, adiracico dizut or bertan, ongui dagoquizuna, ta ar-eracico derozquitzut, zure oneraco diran, videac, eta neurri guciac.

Ah nere JESUS maita-garria; ta zure oneguia! Nerea bezain errebes cebillen, anima baten ondoren ibillico ciñan zu, ibilli zaran, eran, ta galdua bezala! Zu nere deiez, nere JESUS maita-garria, ta ni ondaſunez betetzeco aſmoan, onembat aldiz, ta demboran; ta ni zure igueſi beti, ta gordeca, etſaien bat ba-lerraiquit bezala! Aſma citequen, al-eguin gucia aſma-duretan eguiña gatic, nere eraqueri hau bezalaco, eraqueric?

Baña zuri eſquerrac! Berandu ba-dere, ezagutu dut nic hau; ta, eguiñaz damuturic; eta, zu gandic datocen, ondaſun andiac bildu naiez, otra non dezun, JESUS maita garria, orra zabal-idiquia, zuc nai dezun, guci-etan emen ſartzeco, nere bihotz char galdu-egui hau! Sar zaitez arren orain bertatic; eta, emendic atera bague, adiraci zadazu, adiraci nai didazun, gucia. Gucia nai dut eguin, ta zucen ala ere. Lenago ez eguinaz dut damu, ta damu; ta barcatu behar didazu nere uts andi hau. Bai arren, bai.

3.

ECCE VERBUM DOMINI FACtum eſt eis in opprobrium, & non ſuſcipient illud. Jerem. 6. 10.

NOri nic hitz eguiñen diot, dio Jangoico maita-garriac, JEREMIAS Profetaz? Non arquituco dut nic, nere hitz onac aditzeco dagoen, guizonic? Nere hitz-etara, gortuac bezala, daude nere Erritar guciac. Gogoac ematen diena, bai, baña beſteric, ez dute aſpaldi gucian oriec, behar

bezala, ni gandic aditzen. Cerbait nic erran, edo adiraci horduco, an da orien hista, an da orien irria, edo ez aditu-naia, ta escambilla. Ero baten hitzac bezala dira orientzat nere hitzic zucen-enac ere; ta, aditzen dituzten, guci-etatic ez dute ontzat artzen bat ere. Orra gure Jangoicoac orain guri adiratzen digun, hitzqueta. Orra Jangoicoaren hitzqueta bat guztiz arrigarria, ta dembora berean guztiz eguiazcoa.

Atozea ezperen; cembat artu dituzu zuc, aditu dituzun, cere Jangoicoaren hitz-etatic? Cembat cere Jangoicoaren gauz on aditu dituzu zuc echean, elizan, auzoan, ta, norc-daqui, cembat beste toquitan? Baña, aicearen ots uts batzuec izandu ba-lira baño, anitz gueiago beguiratu diezu zuc oriei? Eta ez da hau zuc hista, ta irri cere Jaunaren hitz ónez eguitea?

Hau eguiten dutenac, cer eguin uste ote dute? Egungo ERREGUE onac beren ibillera-requin eracusten dierena, edo nequez, ta videz JESUS billatzea? Cein guti! JESUS billatzeco gogoric ere artzen ez dutenac, noiz, edo nola, edo non arqui dezaquee beren JESUS? Eta noraco dira JESUS arquitzen, edo billatzen ez dutenac? Ah nere Jangoico maite JESUS jaio berria, ez segurqui, ez Ceruco atseguin contentu-etara! Eta atseguin-contentu oriec galdu beharra ote naz ni ere? Bai, era berean ez-aditu eguiten badiet nic nere JESUS maita guriaren deitze leun-eme, ta hitzqueta eracusleei!

Ez nere JESUS maitea, ez: ez dut, ez orrelacoric nic gaur-guero eguin uste! Adituco ditut, bai, belarri erne-equin ta adituco ditut, orren caltear ez guelditzea gatic, zure hitz-eguite guciac; eta adituco ditut, zure hitz eme leunac aguertzen didaten, ongui naiari, edo amoreari, gogoz, ta lanez erantzuteco asmoan. Hitz-eguizu bada, nere Jaun maita-garria, ta adiraci zadazu, cer den, nic gaurguero zure icenean eguin behar dudana. Prest arquitzen naz ni, zuc laguntzen ba-didazu, artan asteco: ta, gauza berriac niri zuc aguertu artean, alic zucenena eguin naiez nago zure Legue Santuac eracusten didana. Len orretan utseguinaz dut damu; ta, uts onen barcamentua erditsi-naiez, erraten dizut hitzez, ta bihotzez: *NERE JESU CHRISTO, JAUNA, &c.*

XXIII-OTOITZ-GAIA

VENIMUS ADORARE EUM. Matth. 2. 2.

ERREGUEEI JESUSec ERAGUIN CIEN, TA GURI ere eraguin nai digun, bi-garren gauza da *gauz onac asitzea, ta ongui, ta zucen bucatzea.*

BA dira mundu onetan gendeac, beren Jangoicoari, Jangoicoa deiez egona gatic, ez aditu eguiten diotenac; bai ta, eranzuna gatic, eta ar-ganaco asmoa artu, ta ere, Jangoicoa gana daraman, videric artzen ez dutenac; edo, araco videa artu ondoan, guibelat, edo atzera itzultzen diranac. Ez dira, ez gende-orieratic, Ceruan sartu behar dutenac. Oriec guciac betico galduco diranac dira. Ciñez Cerura nai dutenac dira, JESUS onaren ots onac, eta deiac aditzen dituztenac. Oriec dira JESUS berac bein eracutsi dien, ta bèrac arturicaco videan azquen horduraño, edo bèrac ill arte gucian irauten dutenac.

Baña ez dira anitz, ez, Christo Jaunac dionaz, mundu gucian diranen artean, hau eguiten dutenac; bada dio ANITZ DIRA DEITUAC, eta GUTI AUTSETSIAC, edo anitzi deitzen diet (izarrez, edo gogarguiz, ta inspiracionez bad-ere); baña guchi dira, ni gana datocenac, eta Ceruracoac: *multi sunt vocati; pauci vero electi.* Math. 20. Zori oneco guti bereci ori etatic dira, Jesus gaur billatzen daten, irur Erregueac; eta, orien eran ibilli behar dute, orien lagun izan nai dutenac.

Nola dabiltza bada irur ERREGUE oriec, edo cer eguiten dute, JESUS arquitzeco? Beinic-bein, izar berriaren, edo izarraz deitzen dituen, Jangoicoaren deia aditu horduco, prestatzen ati, beren

videraco behar dituzten, gauza guciac; ta guciac prestatu guztiz laster, ta ecin obequi; bada len baño, len beren Jauna ganatzea gatic, billatu cituzten beren videraco, ZALDIen ordez, DROMEDARIOac (oriec dira, zaldiac baño, viciroago dabiltzan, ta sendorragoac diran, ganaduac): eta, oriec bezala, billatzen dituzte gañeraco gauzac ere; ta uzten dituzte videraco behar etciran, edo videan luza-razteco ciran, gauza guciac.

Gauzac prestatu-horduco, ateratzen dira irur Erregueac ichetic, eta aviatzen dira beren videz. Eta orra ori da guri gueren videraco eracusten diguten, bi-garren gauza. Baña noiz atera ote ciran beren Erri-alde-etatic? Negu otzaren erdi-erdian. Nora doaz? JESUSen billa. Nor da JESUS? Aur jaio berri bat. Non jaio da? Etz jaquin ERREGUEAC bèrac ere. Eta al-ere JESUSen billara doaz? Bai bada. Andia cen nombait orien JESUS-ecusi-naia! Andia, bai; bai-ta, JESUS beràc bere ganaco videa eracutsico cielaco, ustea, ta esperantza ere.

ALA da: baña etzitzaien, ez, ustel-atera beren ustea; ta ecusi zuten, anitz luzatu gabe, billatzen zutena, edo beren JANGOICo-GUIZON, Juduen Erregue JESUS jaio berria; ta, ecusi zuten, JESUS berac eracutsi-ricaco, videz arquitzen zutela: bada Erregue onac ichetic atera ciraneco, asi cen iguitzen JESUSen izar berria; ta eraman cituen, behar cen, videz, JESUS arquitcen cen, toquira; ta, obequi ara oriec eramatea gatic, etzebillen izar hau, izar zarrac adiña; bada izar zarrac eguiten dute oguei, ta laur horduz, ta egun-oro Mundu guciaren inguru osoa; ta izar berri hau, Erregueac adiña, cebillen, ez gueiago; eta orre gatic egunean, legoa guti baicic, ez.

Cembat ote ciran Erregueen egun oroco legoac, edo ibill-erac? Guizonác cegnizquèenac; baña guizon viciro cebiltzanac; andia cen alabaña, goiztar ERREGUEAC zuten, JESUS ecusi-naia; ta lem-baitlen JESUS ecustea gatic, etzituzten cupide beren buruac, eta ba-cebiltzan, ibilli ala. ERREGUEAC ba ciran ere, egun orietan norc nai bezain, aldarte charrac eman izandu ciezten beren buruei; ta, videan cebiltzanean, ez otzaz casoric eguiten zuten, ta

ez

ez aiceaz, ta ez Elementaz. ECIN beſtez guelditzen ciran, apurren bat guelditzen ciranean ere; ta, DROMEDARIOEI zaldalea ar-eraci, ta bèrac beren jan-edanac, eta cerbait lo eguin horduco, videan ciran berriz; ta, aſi berrian, bezain viciro cebiltzan, ta bat ere beren buruei beguiratzèn etziela.

Etzen orien gogoan ERREGUE jaio berria beſte gauzaric bat ere. Onen gain, edo Erregue jaio berriari cegozcanac izain ciran, videco iruren hitzquetac, eta jolaſac. NON, edo noiz (errain zuten cembait aldiz beintzat) arquitu behar ote zaitugu guc, ibilliz, ta gogoz billatzen zaitugun, gure ERREGUE JAIO BERRIA? Berandetſiac arquitzen gara, ta lem-baitlen zu ecuſinaiez, ta naiez beteac. Gaur bad-ere arquitzen, ta ecuſten ba cindugu! Urrun arquitzen ba zara, gu gauden, toquitic, atera zaitez zu gure vid-erdira, edo labur ezazu, daguiquezunac bezala, zu ganaco gure VIDE HAU.

Baña cer guertatzen zaie, hau cioten, ta, guelditu bague, cebiltzan, Erregue onei? Bat ere uſte etzuten, gauz illun bat. Billatzen zutèn, JESUS arquitu lecuan, arquitzen dira bat-batean arguiric bague, edo gordezten zaie, JESUSen izar berri vide-eracusle-ederra; ta guelditzen dira, haren billan, nondic artu, edo cer eguin, ez daquitela.

Orra, Erregue Jaunac: orra certan guelditu diran, egun aſcotaco, zuen ibilll-era, ta neque guciac! Beſteac, ez bezalaco izarra cela, cenioten, zuen Erri-aldean orain azquenic aguertu den, izar berri, edo zar ori: baña ori ere aitu da, edo gorde da, gañeraco izarrac gorde, edo aitu oi diran bezala. Eta orain? Obequi eguiñen cenuzten, bai ſeguru ere, guelditu ba ciñazte zuec ceren echeetan, zuen eche-etacoac, edo erri-tarrac guelditu ciran bezala. Itzul-itzul-zaitezte bere-bereala. Artu zazue, ecarri dezuten, videa; ta zoazte lem-baitlen, ceren echeetan, artu dezuten, eſquer-gabeco nequetic atſedetera.

EZ ORISE; eranzuten dute, ta ederqui al-ere, irur ERREGUEAC. Ecuſi behar dugu bein, diote, deitu gaituen, ERREGUE jaio-berria. Aguertuco digu, bai, gorde digun, bere izar gure arguiguillea, edo eracutſico digu, beſ-

beste videren batez, bera ganaco videa. JUDUen bazteretan arquitzen gara. Ara, non dugun emengo ERREGUEenCorte JERUSALEN (beguietan zuten horduco JERUSALENgo Erria); emen da aguian, edo behar bada emen arquituco dugu, joan diran, egun gucietan guc billatzen dugun, Juduen ERREGUEA: ta emen ez-pa-da-ere, emen izain dira, non den, adiracico diguten, guizonac.

Beguira, ERREGUE Jaunac; beguira! Or JERUSALENen arquitzen da HERODES deritzan, Erregue gaisto bat. Ez daquitzue zuec, cer gogoratuco zaion HERODESi, zuec bezalaco, guizon batzuec batetan or, ta beraren baimenic bague sartu zaraztela, aditzen duenean? Presondeguian sar-erazten ba zaituzte, an usteltzen uzteco, edo andic atera, ta errico gucien beguietan ill-erazteco?

Ez aditu eguiten dute goiztar ERREGUEAC. Sartzen dira JERUSALENen, bat ere beldurric gabe; ta galdetzen dute, guciac aditzen dutela; NON ARQUitzen da Juduen ERREGUE jaio berria? Goiztarrac gara, diote; ta, an aguertu den, izar batec eman digu Erregue onen jaio berria; ta onà, non gatocen cembait presentequin ERREGUEtzat hau, eta gueren JAINCOtzat ezagutzera.

Etzuten arquitu an ERREGUE ónac, billatzen zuten, beren Erregue-Jangoicoa; baña arquitu zuten onén arqui-videa. HAU artu-horduco, ateratzen dira JERUSALENdic, eta ba doaz, len bezain, gogoz, ta viciro beren videan. Videan sartu-horduco, aguertzen zaie beren izarra; ta, hari darraizcala, atseguin, ta contentuz beteac, arquitzen dute laster, urrun etzegoen, BELENgo errichoan, JESUS jaio berria, ta, billatzen duten, beren ERREGUEA.

Ecusten dezu, irur ERREGUEAC eguiten dutena? Ecusten dezu, nola dabiltzan oriec, JESUren billan dabiltzanean? Icasi zutenetic, izar berriac, edo, izarra-requin batean, beren JANGOICOAC adiraci ciena, guelditu ciran, beren eguiteco hau eguiteco, asmoan, ta prestatu ciran, zucen, ta laster hau eguitera.

Hau eguiteco, eguin behar zúten vide luce gogor, len ecusi ere etzuten, bat; eta, Jaunac hau nai zuela, ezagutu-horduco, asi izandu ciran,

tan, bat ere tricatu bague, non dic artu, ta noraño ibilli beharrac ote ciran ere, etzequitela; ta alì izandu ciran uste ónez beteac, deitzen cituen, Jangoicoac emain ciela, bera arquitzeco, behar zuten, argui, escu, ta laguntza gucia.

Cecarten, Izar guidaria gorde cenean, aviatu ciran beren videaren galdez; ta, JERUSALENgo Guizon jaquintsuac adiraci cieneco, non jaio beharra cen, billatzen zuten, ERREGUE hau, atera ciran JERUSALENdic, eta etziran guelditu, JESUS arquitu artean. Jaunaren gogoa icasi zutenetic, eguin arteco dembora gucian, etzuten onic izandu Erregue onac. Gau, ta egun, ta beti lan orretan haritu ciran, munduco perellic, eta nequeric andienac garaitzen cituztela.

Orra goiztar irur Erregueac aldi onetan eguin izandu zutena, beren Jaun onac izar berriz adiraci ciena, alic onguiena, ta lem-baitlen eguin naiez. Eta orra zuri ere cere Jangoicoac bereisten dizun, Ceruraco cere lana, edo eguitecoa. Eguin izandu dezu zuc ere, goiztar Erregueen eran? Baña aditu ere nai izandu dituzu zuc, lan onen gain, Jangoico maita-garriac eguin oi cizquitzun, hitzac? Edo, haren hitz onac aditua gatic zuc noiz, edo noiz eguiten cenuen zuc hitz on oriec adirazten cizutenic?

Aldi orietan, nai-ta-ez, erraten cenuen zuc cere burua-requin ciñar-duquela: JESUSen dei onac ciran, cembait aldiz nic nere barren onetan nerabiltzan, hitzac! EZ NAZ ni, ez, ongui vici, dei on oriec erraten dutena nic ez eguitera, edo nic nere ibiltze macurrac zucentzen ditudan artean! Vicitza loi lizuna cen, ta uts-obenez betericacoa, len nic necarren, edo eguin izandu dudan, vicitza!

Eta nolacoa ote da, egungo egunetan dacardan hau ere? Galdûz ez ote doaz, gauz onetaraco nere Jangoicoac niri eman izandu cizquidan, asmo onac, eta gogoac? Orain baño, aguitz obequi confessatzen ez ote nintzan ni, lenagoco nere dembor-etan? Maizago bai beintzat, eta contu, ta beldur gueiago-requin; bada orain baño, biguñ-agoa cen horduan nere bihotz hau; ta, len izutzen ninduten, gauzac gaur beldurtzen ez naute batere! Len baño, aguitz laburragoac dira, ta epelagoac (otz-otzac ez diranean ere) gueroz-

rozco nere otoitzac, eta devocionezco gauzac ! Nora noa bada ni, onela nabillen demboran, edo noraco naz ni, ni gaur-guero nere Ceruco videan oz ibiltzera viciroago, edo beste guisan, ta moduz ? JESUS-en oñetara noa, edo SULECERA ?

Mintzo-era hau, eta era bereco beste cembait ere nere JESUS onaren hitzquetac, edo deitze emeac ciran; ta guciac ciran nere oneraco, ta ni on-eraci-naiez. Baña ondu naz ni, oriec guciac aditu, ta ere? Ez eguiaqui, nere JESUS mintzari on-maita-garria ! Nic nai izatera, ez lizaiquet niri goiztar ERREGUEei, adiña, ta laurdenic ere costaco, zu ganatzea; ta al-ere, araguiaren naicunde galdu, ta gogoeta charrequin, edo antuste arroaren eraqueri-equin diarducadala, doaquit niri, zuc, cerori billazteco, ematen didazun, dembora! Egunen batean damutuco zait dembora eder hau galtzeaz, galtze beraz damutzen ez-pazait demboraz, ta eguiten ez-padut nic lem-bailen, Erregue onac eguin izandu zutena, edo ez ibiltzera ni arin, ta ligero zu ganaco nere vide zucenean, ta ez eguitera nic zure oñetan, oriec eguin zutena, edo niri dagoquidana!

Artara noa ni, nere uftez, nere JESUS maita-garria; ta noa ongui damuz beteric, lenago hau ez eguinaz; bai ta, eguin ditudan, nere utſ-eguite, ta becatu guciez ere. Indazu orain, nere Jesus maitea, orain-dañoco nere uts gucien barcamentua; ta indazu, zu ganatzeco, ta, zu gandic berriz iguef-eguin bague, ta, zure amore onean vici nazala, nere egunac bucatzeco, cere laguntza, ta gracia. Bai arren, bai,

1.

FILII TUI DE LONGE VENIENT, & Filiæ tuæ de latere surgent. Isai. 60. 4.

ZU gandic urruti dauden, zure Semeac, JESUS maita-garria, zu ecustera, etorrico dira, bai, ónez, ta naiez ongui beteac. Hau berau eguiteco daude, emengo, ta ango bazterretan banatuac arquitzen diran, zure ALABAC. Zure berria aditu-horduco, batac, eta besteac utzico dituzte, dituzten, lanac, dituzten, gauzac, eta beren eguiteco-era guciac. Zu ganatzea alabaña, ta, zurequin eguin behar dutena, zucen eguitea da orien gucien eguitecoa, ta lan andia. Eta ongui DOATSUAC, ori eguiten duten, zure humeac!

Eguin

Eguin ote dut nic hau berau, orain dañoco nere egunetan? Anitz necatu ote naz ni, nere JESUS billatzen? Aſcotan ote noa ni nere JESUS ecuſtera? Anitz hordu eraman oi ditut nic nere JESUSen beguietan, JESUSi beguira, edo Elizan ſarturic, ango bere bacar-taſunean JESUSi laguneguiten diodala? Ez-pa-liz, bezain aztua daducat noſqui nic nere JESUS maita-garria, egunic gueienetan; ta, jaietan ere caſo guti eguiten diodala, vici naz ni aſpaldico demboretan! Ta vici naz ni, vici nazan, era onetan, nere Jeſuſen ateetan, edo JESUS nic urbil aſqui daducadala. Eta al-ere JESUSen humea naz ni; ta hume behar bezalacoa, ta, ISAIASec aguertzen dituen, hume onen guiſacoa? Ez, mudatzen ez-pa naz ni orain badere, edo obequi ez-padut nic billatzen gaur-guero, len, ta beti ongui naiez, ta beguira, beguira dagoquidan, nere JESUS maita-garria!

2.

TRAHE ME: POST TE CURREmus in odorem unguentorum tuorum. Cantic. 1. 4.

ZUc nai dezuna, eguin naiez nago ni, nere JESUS maita-garria. Nai ba-dezu (nai dezu bai; ta ciñez al-ere), nabillen ni zure ondoren, lagun zaquizquit, daguiquezunac bezala; bada zurequin batean, ba-daguiquet nic cer nai, ta nai dezuna. Arin, ta zucen ibiltzeco ni, zuc nai dezun, gauz-etan, ez dut nic, ez IZAR berri beharric; aſqui dut orretaraco zure IZATE, ta JANGOICO-TASUN ederraren cerbait berri. Berri hau duena, fite, ta laſter joaten da, zu ecuſtera, ta zuri bere agur onac eguitera, edo nequez egoiu da, zu al-eguinean onetſi, ta maitatu gabe: zu zara alabaña, gauz on guciac baño, obe maita-garriagoa, ta, ecin aſm-al adiña jaquiunde, eſcu, ta eder-taſun-equin arquitzen zaran, Jangoico guizon, AUR jaio berria.

Baña norc, norc erditſi nai du, orretaraco behar den, diña zure berri, ta erdiric ere? Berri hau ez billatzea gatic, vici dira, zutaz aztuac munduco gucienac. Orre gatic dabiltza lurreco gauza charren ondoren, eroen eran, edo liluratuen guiſa. Orietatic bat izanda naz ni ere, nere Jangoico maitea; bai; ta ala gaizqui! Aſi naz, berandu badere, berri on onen billan,

edo zu cerbait ezagutzen. Nere lan on hau ongui bucatzeco, indazu, bertatic al-duquedan, cere argui, edo berriric andiena, ongui ezaguturic, nor zaran zu, nere deitzalle guztiz maita-garria, nabillen arin, ta viciro zu ganaco nere vide gucian, naiz dela lucea, ta naiz gogorra.

3.

DICIT PIGER: LEO EST IN VIA, & leæna in itineribus: sicut ostium vertitur in cardine suo, ita piger in lectulo suo. Prov. 26. 13.

NAguia ez da aitzaqui, ta aitzaquia besteric. Alde batetic deitzen zaionean, izuzten dutela, dio, an dabillen, LEOI asserrearen orròac. Erraten ba diote, ibilli dedilla, edo doala edocein videz; artúac daduzcala, erantzuten du, LEOI emeac vide guciac; eta ez da iguitzen, arquitzen den, toquitic, edo, videan asia gatic, laster itzultzen da bere toquira; ta, guertatzen zaio pernio-etan sartua dagoen, ateari guertatzen zaiona; inguruan ibiltzea, baña bere lecutic atera gabe.

Eta ez da hau bera, orain dañoco gucian zuri guertatu zaitzun, lan gaistoa? Anitz ibilli zara zu orain artean cere Ceruco videan? Arquitzen ere ote zara zu Ceruco vide on onetan? Utzi ote dituzu zuc cere aztura gaistoac? Garaitu ote dituzu zuc cere naicunde macurrac? Eguin ote dituzu zuc ascotan cere Jaunaren erranac, eta cere Legueco gauzac? Onguiac eguin izandu dieztezu, charqueriz bete zaituzten, cere gaizqui guilleei? Vir-tutez virtute zabiltza zu; ta Ceruraco irabaciz cere anima ongui betetzen dezula? Baruz, silicioz, ta cere Jaunaren icenean arturicaco, nequez eci izandu dezu zuc cere burua?

Ah nere JESUS maita-garria! Zori onecoa ni gaur eguin ba nitu nic orain-dañocoan gauz orien erdiac ba-dere! Leoien iguesi nembillenean, guertatzen citzaidan niri, AMOS Profetac diona. (5. 19) artzac niri nere videra ateratzea; ta, orien ortzetan ez guelditzea gatic, ichean sartzen banintzan ni; an niri sugue bat escutic lotzea, ta onen izurriz beteric guelditzea: bada zure Legueco lanen iguesi, ta nere gogoeta charrac eguin naiez nembillenean erortzen nintzan ni bein becatu batean, bein bestean: galtzen nuen nic horduan, zuc, niri ongui naiez emanic, nuen, zure gracias

cia; ta guelditzen nintzan ni astun, ta nagui, nere vide oneraco; ta guelditzen nintzan aztura gaistoz, Animaco zauriz, ta tirricacio galduz betea, behar ez diran, gauz-etaraco.

Eta nola ote nago egungo egunean ere? Cerorrec daquizun, bezala, nere JESUS maita-garria! Damuz beteric (nere ustez) orain arteco nere nagui-tasunaz, ta Ceruco videan arin, ta oñic bein ere batera, edo bestera atera gabe, ibiltzeco nai andia-requin! Ay, ala guerta ba-ledi! Guertatuco da, bai, nere JESUS maita-garria, zuc ni nere, orain-dañoco, becatu gucien carga petic ateratzen ba-nazu; ta ematen didazula, gueroraco cere laguntza-requin batean, becatu beren ciñezco damu, ta urriqui-mentua. Hau escatzen dizut, hitzez, ta bihotzez erraten dizudala. *NERE JESU CHRISTO JAUNA, &c.*

XXIV. OTOITZ-GAIA

§. I.

APERTIS THESAURIS SUIS OBTULerunt ei munera. Matth. 2. 11.

ERREGUEEI JANGOICOAC ERAGUIN CIENA, ta guri ere eraguin nai digun, irur-garren gauza da, *Present on bat humilqui, ta gogoz Jesusi guc eguitea.*

BEre presenta gatic esquerrac uste dituen, presentariac, edo present-gnilleac, presenten batequin norbait billatzen duenean, eguiten diozca oni, bere presenta eguitean, escumuñ humillac, eta agur andiac; bada, den andiena, izana gatic, daraman, presenta, arroturic ba darama, ta ema-

ten ba dio, artzen duenari, zor ez dion, gauzaren ichuran, ta moduric gabe, minduric utzico du present-artzallea, ta anitz estimatzen ez diola bere presenta.

Gure goiztar ERREGUEAC eguin cioten, arquitu zutenean, Jesus maitagarriari beren presenta. Nola ote? Ausardia-requin; antustez beteac ceudela, ta Erregue-tzar arroen eran? Ez, baicic humilqui, ta behar bezala, arquitu ba-zuten ere JESUS, uste etzuten, eran, ta, toquian, edo bazterrean.

Non arquitu zuten gure JESUS goiztar ERREGUEAC? Erregueen JAUREGUIAN, edo, haren jait-errian, ta, an alacoric ez-pa-cen, Errico icheric onenean, ta apainduenean? Ala arquitu usteco zuten; bada Erregue jaio berri baten billan cetocen; ta Erregueac, Erregueei dagozten, toquietan idiro, edo egon oi dira, jaiotzen diranean. Baña etzuten arquitu, ez JESUS maita-garria, orren toqui onapainduan: arquitu zuten iche char, edo abel-tegui, erdi urratu batean: ta, arquitu zuten an, beraren izar berriac eracusten ciela; bada, ara ceneco, batetan guelditu cen izarra JESUSen iche char, edo toqui gañean, cein cen JESUS, ERREGUEEI bere arguia-requin adirazten ciela.

Orra, goiztar Erregue Jaunac; orra non arquitzen den, zuec billatzen dezuten, aur jaio berri, Judu gogorren Erreguea! Ez dezute nolqui zuec orren lecu charrean sartu ere naico? Nai dezute, atera dezaten atarira, orren urrutitic zatozten ezquero, ecusi bague, ez itzultzea gatic ceren Erri-etara?

Baña erausi eroac dira, era onetaco erausi guciac! Ecusi horduco, cein den, izarrac eracusten dien, JESUSen toquia, jaisten dira beren DROMEDARIO-etatic, eta sartzen dira ERREGUEAC, JESUS ecustera: ta, ecusi bezain laster belaunicatzen dira JESUSen oñetan, ta guelditzen dira, ecin humillago, ta arrituen eran, edo odolez ustuac, edo liluratuac bezala.

Hau cer da, Erregue andiac? Guizon indartsu, behar bezalacoac, cer da gaur or zuei guertatzen zaitzuena? Soldaduz betea cegoen JERUSALENgo Erria, ta murru arri-garriz, ta dorre andi sendorrez ingurutua. ERRI andi, ta CORTE sendor onetan arquitzen cen gui-

guiza-tzar gaisto Erregue gogor HERODES. Zuec an sartzean etzenuzten Erregue onen baimenic, onen Errian sartzeco; ta al-ere sartu ciñazten, ojuca, ta galdez: *non arquitzen da Juduen Erregue jaio berria?* An egondu ciñazten, nai adiña demboraz, izutzen etziñaztela, ta andic atera ciñazten, bat ere beldurtu gabe, ta ausardi andia requin: ta, eche char batean sartu horduco, adio zuen belaun-besoetaco indarrac, eta arpeguico colorea! Cer guertatu zaitzue or zuei; edo or cer ecusi dezue zuec? *AMA Doncella behartsu bat*, eranzuten dute, *bere amabi eguneco Semecho batequin.*

Cer dute oriec bioc, orrela zuec uzteco? „ Ah (dio-
„ te, bihotzez beintzat) ecin
„ adiraci ditequen, diñacoa da
„ oriec dutena! Edertasuna da-
„ rie Ama Semeei; baña ez
„ lurrecoa! Ori ecusi dugu guc,
„ emen sartu-horduco, ta or-
„ rec utci gaitu batetan gu,
„ icara bezala, ta HUMIL-
„ TASUNEZ, ta devocionez
„ beteac! Eta bere bat guer-
„ tatuco cen, Sansonec adiña,
„ indar, ta bihotz izandu ba-
„ guenu ere! Lurreco loreac,
„ Ceruco izar-Eguzquiac, eta
gañeraco gauz ederrac, no-
„ lacoac dirala, uste dezu (dio-
„ te), emengo AMA SEMEEN
„ edertasunaren aldean? Ica-
„ tza, bezain beltzac, eta guz-
„ tiz itsusiac. Jangoico-tasuna
„ cer den, daquienac, bai, ba-
„ ña bestec ecin ezagu deza-
„ que cer den, ta nolacoa
„ den Jesusen edertasuna; ez
„ eta onen *Amarena ere.*

Irur ERREGUEAC horduan aguertzera, beren barrenean zutena, aguertuco zuten hau gucia: bai, ta anitz gueiago, ta gueiago ere; bada, an sartu-horduco, asico ciran bihotzez, edo, al zuten bezala, erraten: EDERTASUNAREN beroa, ta erretzallea! Erretzen derozquigu gueren barren guciac, eta amoriozco sutan urtuac bezala, guelditu dira gure bihotzac! Urtu ditecela, bai, hordu onean; ta maita zaitzagula guc, gure JESUS, ecin gueiagoraño; ta maita zaitzagula, orain ez-ecic, beti, ta beti, ta eternidade guci-gucian ere! Ay, Erregue jaio berri, gure Jangoico maita-garria! Ez dugu damuric, ez, zu ecustera etorri garalacoaz, urrititic artara etorri ba gara ere! Etortzeco baguenude gaur, ta milla, ta milloi aldiz etorri garan baño, urrunagotic etorri behar ba guenu ere, pocic, eta pocic etor-

rico

rico guiñaque gu, zu ecuitera; ta, orain emen arquitzen garan bezala, zure oñ-etan belaunicaturic, zuri agur, ta agur humillac, eta ongui-torri beroberoac eguitera!

Ah ero-zoratu-galduac! (erran cezaqueen, hau erran ondoan, erran ez-pa zuten ere) ah JERUSALEN-dar ero zoratuac! Ah HERODES, HERODES! Ah Herodesen Soldadu, ta gende galduac! Ah, zuec ere, gure goiz erritar galduac, eta bazter orietaco gende, onara gu ecarri gaituen, izar bera, guc bezain ongui ecusi dezutenac, eta, gu requin ez etorri naiez, or guelditu zaraztenac! Ba cenequite zuec, NOR den, guc emen gaur arquitu dugun, AUR jaio berria; ta nor onen AMA, ta cein ONAC biac, eta cein EDER-maita-garriac, lafter artuco cenuquee, bai, guc ecarri dugun, onarañoco, videa; ta ibillico cinazquee, gu bezain viciro, edo viciroago; ta, gu bezala, gure ondoan belaun-icaturic, eguiñen cenioquee, bai, guc bezain, gogoz, zor zaion, ongui-torri, ta dagocan, bere agur-ta-egur andia!

Guc, JESUS maitea, ezagutu zaitugun ezquero, erran zuten guero Irregue berac, aitortzen dugu, ta pocic al ere, zu zarala gure iruren, ta Munduco gucien Jaun, Jabe, ta Erregue ecin-maita-garriagoa; ta zu zarala, Ceru gucian, ta lurrean arquitzen diranac, maitatu behar zaituzten, Jangoico-guizon, gure SALVATZALLEA! Hau, erdia hitzez, ta erdia bihotzez erraten zuteño, eguiñen ciozcaten goiztar Erregueac milla agur, ta escumuñ beren Jesus maitari-maita-garriari.

Artzen dute guero beren PRESENTA. Belaunicatzen dira berriz JESUS beraren oñetan; ta erraten diote; ERREGUEN Erregueari, ta JAINCOARI bezala, zor zaitzu zuri, gure Jaun andi, jaio berria, Munduan arquitzen den, guci-gucia; ta, guc duguna, zurea dela, zuri adirazteco, ta noiz ere nai emain dizugulaco siñutan, edo señalean, orra, guerequin artu ditugun, URRE zati, INCENSO pisca, ta MIRRA apur hau. Hau, ta guc ditugun, ta izan ditzaquegun, ondasunac ez-ecic, gure burac ere, edo gu gueroc, garan adiña, zureac gara; ta eguizu gutaz ere, gure escuetaco presentaz bezala, zuc cerercec nai *dezuna*. Hau erran ondoan, uzten dute Amaren es-

eſcuetan berén PRESENTA ; ta guelditzen dira , guti ematen diotelaco , damua-requin ; ta, JESUSec adiraci behar nai diezten , gauzen beguira.

Ecuſten dezu, nola dauden gaur goiztar Erregueac JESUSen oñetan ? Cein humillac! Cein cenzatuac! Cein bildu-macurtuac ! Ecuſi-horduco, arritzen ditu , ta betetzen atſeguin, ta contentuz JESUSen Jangoico-taſunac ; eta gueroz luretic ecin jaſo dituzte beren beguiac ; ain charrac derizte beren buruei JESUSen parean, edo JESUSen beguietan : ta, an daudeño , beti daude beren JESUS gogoan dutela , beren JESUSi eſquerrac ematen , ta JESUS maitatzen-ta maitatzen dutela.

Orobat eguiten ote dezu zuc ere , Elizan arquitzen zaran , cere aldietan , ta errezo cerbait eguiten dezunetan? Ez ote diezu beguiratzen zuc bein-ere aldi orietan, Elizan ſartzen , edo andic ateratzen diran , gendeei? Ez , eta an daudenei , edo an batetic beſtera beren eguiteco-etan dabilzanei ere ? Ez dira an ELIZAN zure gogoratzen , edo gogotic , ara-horduco, utzi oi dituzu zuc icheco cere eguitecoac , campoco cere lanac, lagunen erauſiac , auzocoen videgabeac, oroitzapen lizunac, eta gañeraco eraqueriac ? AVE MARIAC erraten dituzu , JESUSen Amari beguira zaudela , edo hitzez , erraten dezun, gucia bihotzez diar-ducazula? MEZAcoan egon oi zara zu JESUSen izatea , JESUSen vicitza , JESUSen neque gogorrac , eta gu ganaco JESUSen amore bazter-baguecoa cere gogoan , ta cere bihotzean daduzcatzula ? Ori da ERREGUE goiztarrac zuri gaur adirazten dizuten , eguitecoa ; ta ori cere Jangoicoac zuri eraguin nai dizuna.

Cer PRESENTac ote dira , ELIZA-razten zaran, aldietan , ta egun-oro zuc cere JESUS maita-garriari eguiten diocatzunac?Ematen diozcatzu zuc goiz-oro , edo jaiqui-horduco, ta egunaz guero noiz, edo noiz cere gogo gucia , cere adimentua , ta cere naimendua, biei eraguiten dieztezun, ta JESUS berari atſ-eguin eguiteco diran, zure gauz on guci-equin? Edo eguiten dezu zuc , oriez biez valiatzen zarala , goiz-aratſ-etan, egunaren hordu gucietan , ta beti , edo beintzat maiz , zu gandic zure Jaunac nai duena ? Ah cer URREZCO preſenta ori zure JESUS maita-garriarentzat !

JE-

JESUS beraren icenean, ta zu cerori gal-etzaitecen, necatzen dezu videnabar zuc cere burua, edo baruz, corapilluz betericaco locarriz, ta silicioz, edo eragotziz cere beguiei, behar ez dituzun, ecusteac, cere mihiari hitzqueta macurrac, cere beharriei aditze lizunac, arroac, edo ez-zucenac; eta cere bihotzari bere naicunde char gaisto-guciac? MIRRHAren arrigarria! Presentaren ONA!

Eta ERREGUE onac eguin zuten, presentaren eraco PRESENT oso bat eguitea gatic, enzuten dituzu egunean eguneco Mezac? Eguiten dituzu goiz-arratsetaco, ta otordu-etaco, edo otrontz-etaco cere otoitzac? Erraten diozu cerbait, echetic ateratzean, horduac aditzean, cere lanac asitzean; ta era bereco beste aldietan, zaitzen zaituen, cere AINGUERUAri, AMA-VIRGINAri, cere iceneco SANTUARI, edo cere Jangoico maita-garriari? Eguiten dezu arratsetaco examina, edo egun gucico cere lanen ecusaldia; ta, oni darraicon, onesdanua, edo actu contricioz-coa? Ah cer INCENSUA! Ah cer PRESENTA!

Orra zuc, ERREGUEEN eran, JESUSi eguin behar diozun, PRESENTA: ta orra NOLA eguin ere. Eguiten ba diozu zuc bein, ta berriz, ta anitz aldiz, edo egun-oro, iltzen zaran artean, zuc ecusico dezu demboraz, bai-ta-beti-beti eternidade gucian ere; ta ecusico dezu bai, goiztar ERREGUEAC BELENen baño, aguitz obequi, ta agueriagoan, cere Jangoico-guizon JESUS maitariaren edertasuna; ta zu, haren lembicico ecustetic, izain zara zori oneco JESUSen humea! Zu atseguin utsez, ta contentuz beti vici beharra! Ta zu Ceruco ERREGUE, edo Erreguen LAGUNA. Ero-tasunez betea zara zu, ta cenzu gabea, hau gucia, orren erraz irabaz dezaquezula, guelditzen ba zara zu, Ceruco izarraz, edo gogarguiaz casoric eguiten ez dezula, ta cere bazter char orretan, edo vicitza galdu galgarrian!

1.

FILI DEO DIGNAS OBLATIONES offer. Eccli. 14. 11.

NEre SEMEA, dio Escritura Santan gure Jangoico maita-garriac, nere Semea, bada, beguira zazu, certara zoaccen, cere Jauna ganatzen zaran, aldietan: ta beguira zazu, cer PRESENT-modu den, ar ganatzen zaranean, zuc eguin uste diozun, cere PRESENTA.

Con-

Confessatzera zoaz? Eguin uste diozu CONFESSIOZCO presenta? Beguira bada cer eran, edo nola zoacen, Confessatzera! Zoaz (joan nai ba-dezu, joan behar, den eran); zoaz, gaizqui eguinaz, ta gaizquia-requin cere Jangoicoari eguin diozcatzun, atsecabeez ongui damutua. Zoaz humilqui an cere Jangoicoari agur eguitera: ta zoaz, cere gaizqui gucia barcatuco dizulaco, uste oso-osoa-requin; baña zoaz, oben guciac, eta culpac alde bat uzteco asmoz beteric, eta guci-guciac utzico dituzulaco, hitza cere Jangoicoari ematera. Orrela ez-pa-zoaz zu cere confessionera, ez da, zure Jaunari dagocan, PRESENTA, zure CONFESSIONEA.

COMUNIOZCO da, zuc cere Jangoicoari eguin uste diozun, PRESENTA? Behar bezala comulgatzen zara? Bihotz garbi-garbia-requin comulgatzen zara? JESUS artu naiez zoaz zu cere Comunionera? JESUS maitatu naiez zoaz; ta Comunione oneco indarra-requin, obequi baño, obequiago cere Jauna servitzatzeco gogoz betea zoaz cere Comunionera? Orrela ba-zoaz zu, ongui zoaz, bai; ta, gogo dezuna eguiten ba-dezu, Comulgatzen zaranean, eguiñen diozu JESUS maita-garriari, ederqui dagocan, COMUNIONECO cere presenta.

OTOITZ garbi beroa da, eguin nai diozun, zure presenta? Behar bezala enzunicaco MEZA da zure presenta? Zure presentac dira, EGUNAC, HASTEAC, ILLAC, eta VICITZA gucia ongui, ta contuz eramatea? Present ederrac dira. Oriec zuc cerequin artu ezquero, ba zoazque, bai, lotsalqueric gabe, cere JESUS ecustera. Ongui artuco zaitu, bai, JESUS maita-garriac, eta beguitarte ederra eguiten dizula, era orretan ar ganatzen zaran, aldietan.

Ala joaten ciñan zu orain-dañocoan cere Jauna gana, ar ganatzen ciñan gucietan? Ay, nere JESUS, ta cein guti! Zu gana naz ni ascotan, nere JESUS maita-garria, present on bat bad ere escuetan ez nuela! Ah! ta cembat, eta cembat aldiz zu gana nazan ni charquiago, ta charquiago ere, edo bihotz ciquin, loitu, galdua-requin! Onetaz oroitzeac berac guztiz alquetzen nau ni gaursta, ez daquit cer neguiquen, aldi orietaco nere aguertze charrac gal-eraztea gatic! Gal bitez arren zure gogotic, nere JE-

SUS maita-garria, ta gueldi bitez bertan barcatuac! Hau escatzen dizut, eta ciñez al-ere: ta berriz, era bereco aguertze charric ez eguiteco hitzarequin.

2.

CORAM ILLO PROCIDENT Æthiopes. Ps. 719.

BAzter guci-etatic etorrico dira, dio DAVIDec, JESUSi agur, ta presentac eguitera. Bazter gucietan izain ditu gure JESUSec adoratzalleac, maitatzalleac, eta onguiguilleac; bai ta ÆTHIOPIAco lecu illunetan ere; ta eguia dio; bada egungo egunean ba dira orrelaco-etatic (eta anitz al-ere, ta anitz) Españian, Francian, Europan, Asian, American, ta Africaco anitz lecutan.

Baña ori-etatic ote naz ni ere? Ascotan agur eguiten diot nic nere JESUS maitagarriari, goicetic arratsʼ-eraño? Ascotan, ta maiz belaunicatzen naz ni nere JESUSen oñetan, otoitz, edo erregu cembaiten presentac eguitera? Etzait egunic igarotzen, eguin nitzaqueen, orrelaco gauz-etatic cembait iuzten ditudala? Bai nosqui, ta gueienac ere! Orobat guertatuco da, datocen, egunetan? Ez nuque nai beintzat, nere JESUS maita-garria!

Eta nola nator ni gaur nere JESUSen oñetara? Bihotz garbi-zuria-requin, edo Mairu beltzaren larrua baño, beltzago daducadala nere barrena, edo nere Anima? Ala bad-ere, ona non nazun ni gaur cere oñetan, nere Jangoico maitagarria. Cein ere beltz-galdua nazan ni, zure escuetatic aterea naz. Aisa asqui eguin ninduzun zuc ni, artara ciñanean; ta, eguin ninduzun, bezain aisa zuri nazaquezu, neronec nere naiez, arturicaco nere obenen belztasun loi-ciquiñetic. Ez dezu behar orretaraco, ez, nere utsac barcatzea, ta cere graciaz ni beteric uztea, besteric. Eguizu arren, nere JESUS maita-garria. Escatzen dizut, nere gaizquiez ongui damuturic; eta, gaizqui berriric eguin bague, ta garbiro vici nazala, agur humillac, eta lan ónen PRESENTAC maiz, eta maiz zuri eguiteco asmo osoarequin. Ay, anitz ba neguitza, ta guciac, zuri dagozquizunac,

* * * * * *
* * * *
* * * *

3.

3.

REX ERIT SUPER NOS.
1. Reg. 8. 20.

BIlla bezate nai-duténac, nai-duten, lecuan, beren Erreguea: nere ERREGUE da, goiztar Erregueei izar berriac eracutsi dien, Jangoico Erreguea. Nere ERREGUEA da nere Jangoico guizon JESUS maitagarria! Ez da, ez, nere ERREGUE hau baño, Erregue zucenagoric, ez da ederragoric, ez da oberic, ez eta maita-garriagoric ere! Onen etsai guciac nere etsai eguiñac guelditzen dira gaur-guero: guciac garaitzera noa, nere ezagu-eraren, adimentuaren, ta bihotz on baten armac arturic. Lenagotic hau onetan ez asiaz dut damu, ta urriqui!

Nere Jangoico Erregueren etsaiac etsai gogorrac dira; ta etsai guztiz bortitzac: dira alabaña nere ARAGUI gaistoa, bere naicunde charsutu-galdu-equin: MUNDU arroa, bere asmo ero-equin, ta icuscari macurrez, edo exemplo gaistoz dena jauntzia; ta SULECECO GAISTOA, bere jaquiundea-requin, bere gu ecin-ecusia-requin, ta bere milla gordeca, ta tentu-arrigarri-requin. Ascotan eraman naute, bai bein batac, bein besteac, eta cembait aldiz guciac elcar arturic, nere Jaunaren contra: baña gaur-danic orien contra nai dut egon beti, ta nere Jauna-requin bat eguiñic. Cein ere bortitz-indartsu-gogorrac diran etsai oriec, guciac garaitu uste ditut, guciac baño, indartsuagoa den, nere JESUS Erregue onác laguntzen didala.

Onà bada ni, nere Erregue JESUS maita-garria; ona ni prest, zuc nai dezuna eraguiteco nere beguiei, nere escuei, ta nere adimentu-ta naimendu guciari. Nazan gucia, nere gauza guciequin, zurea nai dut izan nic gaur, ta beti. Dudana baño, gueiago ba-nu nic, present obea eguiñen niquezu gaur. Bihotzez, ta cinqui ematen dizut orain, bildu dudan, ta emen dacardan, hau; bai, ta gaur-guero nic izan dezaquedan, guci-gucia ere, gauz on anitz zure alde eguiteco, orain dudan, nere gogoa-requin batean. Eguin ditzadan guciac, nic nai bezala, ta batean ere utsi-eguin bague, quendu behar didazu zuc, lenago-

co nere utsen carga gaistoa; eta hitzez, ta bihotzez erescatzen dizut, nere naiez artu nuelaco damuz beteric, raten dizudala. NERE JESU CHRISTO, JAUNA, &c.



XXV.

upna

XXV-OTOITZ-GAIA.

§. I.

PER ALIAM VIAM REVERSI SUNT in Regionem suam. Matth. 2. 12.

ERREGUEEI JESUSec ERAGUIN CIEN, TA GUri ere eraguin nai digun, lau-garren gauza da, BERAC NAI DUEN, VIDEZ IBILTZEA.

ANdiac ciran, onac ciran, ta bihotz onez manac, irur goiztar Erregueen PRESENTAC. Baña aguitz andiagoac, aguitz obeac, eta bihotz, edo amore obea-requin emanicacoac, izan behar, zuten, Erregue berac JESUSen escutic artu cituztenac: bada emanean garaitzen ditu JESUSec emalle guciac; eta, artzen duen baño, gueiagocoa da, JESUSec ematen duena. Ezpañac gueldiric iduquia gatic, hitz eguinen cien JESUSec Erregueei bihotzez, ta inspiracionez, edo gogarguiz; ta, adiracico cien, ontzat artuac guelditzen cirala, ecarri cituzten, PRESENTAC; bai, ta videco nequeac, eta lembicitic horduraño eracutsi cioten, ongui--naia, ta devocionea ere.

Dembora berean eguiñen zuen JESUSec, berari cegocana; ta emain cion bacoitzari, cituen, ondasunac, eta Indietaco urre cillar perla, ta diamante guciac baño, gueiago valio zuena, edo, ecarri cion, URREAren ordez, emain cion Ceruco JAQUIUNDE garbia, ta bertaco caridadea; INCENSOA gatic emain cion OTOITZ eder-eraco gracia, ta atseguiñezco devocionea; ta MIRRHA gatic, becatuaren usteltasun loiera gabe, GARBIRO

BIRO vicitzeco, behar zuena.

Ah cer Indiac arquitu dituzuen or BELENen, goiztar Erregue onac! Ongui necatu zarazte, bai, joan diran, egunetan! Vide lucean etorri zarazte, Jangoico-guizon JESUSen billan; ta, JESUS arquitu artean, izandu dezue cembait eguiteco, ta arazo! Baña zori oneco arazo-videnequeac, zuen neque-vide-arazoac; bada bertatic irabaci dezue, JESUSen escutic artu dezuten, adiña Ceruco ondasun, ta doai; ta, gueroraco eternidadeco gloria! Onac ciran, bai, ta ongui naiez emanac, zuen URREA, zuen MIRRHA, ta zuen INCENSOA; baña ARABIAco incensoac, eta mirrhac, eta Indietaco, ta mundu gucicoURREAC baño, milla, ta milloi bider gueiago valio du, eman zaitzuen, Ceruco ondasunaren zatiric chiquienac! Focic itzuli zaitezquee, bai, ceren erri-aldera, ta alqueric gabe; ta, esquerdun onac izan beharco dezue, nola ere-bait esquerrez eranzuteco, deitu zaituzten, ta orrelaco ondasunez bete zaituzten, ceren Jangoicoguizon, JESUS maita-garriari!

Bertatic asico ciran iur ERREGUEAC beren eguiteco, ta lan esquerdun onetan; ta, lan hau obequi eguitea gatic, galdetuco cioten JESUS berari, cer cen, eguin cezaqueena, edo, berari atseguin eguiteco, eguin behar zutena; ba-cequiten alabaña, onguilleac nai duen, esquerric onena dela, nai dituen, gauzac zucen eguitea. Adiracico cien JESUSec orretaraco, eguin behar zutena; ta manatu cien dembora berean, utz cezatela HERODES gaistoa ganaco videa; ta ar cezatela beste bat, echera itzultean. Eta, casoric eguiten ez dutela HERODES Errèguez, hitza len eman ba cioten ere, itzulico cirala bera gana, Juduen Erregue jaioberria arquitu ondoan, artzèn dute, JESUSec eracutsi dien, beste vide hau. Badoaz andic beren echeetara: ta, echera horduco, aguertzen die beren goiztarrei, arquitu duten, ondasuna. Eguiten dira JESUSen Apostolu, edo Predicari; ta, al dituzten, guciac JESUSen leguera ecarri ondoan, ematen dituzte JESUS bera gatic beren vicitzac, eta odol gucia; ta, Santu, ta Martyr eguiñic, igaten dira ill-horduco Cerura; an atseguin, ta contentuz beteac betico vicitzan vicitzera:

Zo-

Zori oneco Erregue doatſuac zuec ; bada lendabicitic azqueneraño eguin dezue , eta ecin ederquiago, JESUSec adiraci dizutena ! JESUS maiteac deitzen zaituztelaco, ſiñu-bat ecuſi horduco , artu dezute zuec, JESUS billatzeco gogo bero bat , eta aſmoa. Aſmo hau artu , ta laſter atera zarazte , JESUS bera billatzera. Arquitu dezute , bai ; baña milla neque ecuſi ondoan. Arqui-toqui berean eguin diozcatzue ceren agur on-eſcu-muñ humillac , eta ceren preſentac. An bertan utzi cenituzten ceren Gentil-contuac ; eta artu izandu cenuzten ceren Jangoico-taco , Jangoico-guizon, JESUS jaio berria : ta artu izandu cenuzten , bein ere ez iuzteco , edo zuec ill-arte gucian ciñez , zucen , ta viciro bera maitatzeco. Eta , JESUSi cegocan, cèren lan on andi hau eguin ondoan , igan izandu zarazte, orrelaco-entzac Jeſus berac daducan, toquira , edo Ceru eder orretara ; or JESUS beraren amorez urtuac , eternidade guci-gucian , edo beti-ta-beti egotera.

Bucatu CEN , goiztar ERREGUE onac ; bucatu cen, zùen emengo Erreſuma , edo Erreinua ; baña , bucatuco ez den , Erreinua da , zuec , ceren JESUS maitearen erranac, edo adirazte onac eguiten dituzuela , irabaci dezuten , Ceruco a. Bucatzen ez den , céren Ceruco Erreinu onetàn zarazte zuec , eta izain ere zarazte beti-betico ERREGUE andi , edo PRINCIPE. Or Erreinu orretan , or zuec izain dezue, bai , nai adiña atſeguin, ta contentu ; ta izain dezute atſeguin-contentu , atſecabaric bat-ere gabecoa. Zori oneco ERREGUEAC bada zuec iruroc ; eta milla-ta mill aldiz ZORI ONECOAC ! Eta nor legoquen or bertan , zúen eran, ta , zuenaren eraco , atſeguin contentuan ! Baña cer eraqueria , zuc orain , cer ſiñiſten dezun , ez-pa-cenequi bezala, darauſa-zuna ? Nor legoquen, diozu , goiztar ERREGUE onac dauden , lecuan , ta , orienac bezalaco , atſeguin-contentuen artean ? Nor-nai , nai ba-du, egon diteque , bere araco hordua etortzen zaion hordu beretic ; aſqui du orretaraco, irur ERREGUE bèren , orain-dañoco ibill-erari, ta guerozco demboran oriec eguin zutenari ongui , ta contuz beguiratzea; ta , orien eran , harc ere bere gauzac eguitea.

Cer ibill-era da, diozu, goiz

goiztar ERREGUEen ibill-er orain-dañocoa? Otoitz-gai onetan, ta lenagoco irur-etan zuc cerorrec ecusi deza-quezuna. Eta cer ote da, beren ibillera onen ondoren ERREGUE berac eguin zutena? JESUS maita-garriac adiraci ciena? Cer? Herodes gaistoa ganaco videa iutzi; ta, JESUSec adiraci cien, beste batez zucen echeratzea. Eta orra, orien eran Cerura nai dutenac eguin behar dutena; arquitu artean, JESUS billatzea, edo beinic-bein cer ote den, gu gandic, gure JESUSec nai duena, ongui, ta garbiro icastea; ta guero, icasten dugun, hau contuz, ta zucen eguitea.

Eguin izandu dezu zuc bata, ta bestea, cere orain-dañoco demboran? Beldur naz, ezetz! Esazu ezperen, cembat, eta cembat aldiz, edo celá Elizan, cela ichean, cela videan, cela lagun artean, edo cela bacarric arquitzen ciñanean, EMAN izandu dizu zuri cere Jaun maita-garriac cere bihotzaren uquitze, edo beldur-era bat, iratzar cindecen zu cere atseguin charren, edo lurreco gauzen loo gaistotic, eta contuz adi cenezan, hordu berean bere gogarguiz, edo inspiracionez, Jangoico berac adiraci nai cizuna? Cembat aldiz era orretan adiraci dizu zuri cere Jangoico maita-garriac, UTZ ditzatzula, cere barrena ciquin-erazten dizuten, ibillera macurrac, dantza galgarriac, jostatze loiac, jocatze caltezcoac, amil-teguiac dituzten, icheac, jan-edan lizungarriac, edo era bereco beste cembait gauza, ta lecu? Baña zuc bein ere benaz, guztiz, ta choil utzi izandu dituzu?

Atozea: ta cembat aldiz, era berean, edo nolaere bait adiraci dizu zuri cere Jangoico berac, ITZULI diozazula (ta alic lènena) nori berea, edo, zor zaion, ondasuna; ATERA ditzatzula, ta luzatu bague, cere zorrac, ez dela cer, zu gatic caltear, ta nai-gabeturic IDUQUI nior, edo nequetan, ta penan: ez dela CER EGUIN vide-gaberic chiquiena ere munduan deni, naiz dela zure etsairic andiena. Baña EGUIN izandu dituzu zuc oriec guciac, eta gañeraco, Jangoico berac adiraci dizquitzun, gauzac? Ah! nosqui, oriec eguiteco, artu behar cen, vide zucena zuc artu lecuan, guelditu zara zu leneco cere vide galgarri gaistoan!

Ortic zu ater-eraci naiez, ta sar cindecen, zuri cego;

goquizunean, adirazten cizun noiz-edo noiz cere Jangoico maita-garriac, edo predicuz, edo libruz, edo beste cerbait aldetatic, eguin cenezala Confessione general bat, edo cere vicitza gucico Confessionea. Baña cer eguin diozu zuc aldi orietan, cere Jangoicoari? Ez aditu. Adiraci dizu ZOACELA maiz Comunioneco maiera. Cembat aldiz urbiltzen zara; ta nola? Cerorrec daquizu. Adiraci dizu IGANDE-JAIAC dirala, Mezac, Sermoiac, eta Vezperac enzuteco, libruan egoteco, Echecoei doctrina, ta otoitzac eracusteco, ta beste cembait gauza, ta lan on eguiteco. EGUIN dituzu? Cembatetan, ta nola, edo cer moduz, ta eran?

Anitzec ust dute, nola-nai beren MEZAN egon ezquero, eguin dituztela JAIeco lanac, eta beren eguiteco guciac. Uste dute, confessatu ezquero, eguin dituzten, gaizquiac, edo beren becatu guciac, bertan guelditzen dirala barcatuac; eta artu dutela Ceruraco vide berri-on-zucena; baña anitz-eta asco Confessatzen dira, edo beren gaizqui, eguiñen urriqui onic gabe, edo, berrien videac galtzeco, asmoric artzen ez dutela; ta ar gatic, gaizqui; ta andic laster arquitzen dira becatu berrien artean, ta beren leneco vide galgarri beretan.

Hau da, Jesusen humeac, JESUSec eracusten dizuten, videa, ta goiztar ERREGUEAC eguin zutena? Onetaraco billatzen dezue, gau, ta egun, ELIZAN arquitzen den, ta bere ALDARETIC deitzen digun, gure JESUS maita-garria? Ez eguiteco guc, gure JESUSec guri adirazten dizquigun, gauzac, certaco da gure, ta gu bezalacoen ELIZAratzea? Certaco da an gu gure JESUSen beguietan aguertzea? Certaco da haren oñetan gu an belaunicatzea? Ta certaco dira, beste cembait orrelaco gure ichur-eria? Ez gure oneraco, ez! Ez gu Ceruan goiztar Erregueen lagun gure Jangoicoac eguiteco!

Galdu nai dugu bérez, ta ori guc gueroc daquigula? Baietz dirudi! Ez da hau erotzar utsen, ta cenzuric ez dutenen eguitecoa? Eguiteco onetan necatuco naz ni berriz ere, ta alferric, edo necatu ondoan, caltear guelditzen nazala? Ez baldin-bere, gu ganaco amorez urtzen zauden, gure JESUS mai-tagarria! Eta, guerta ez dedin, argui eguiguzu, orain-

dañocoan ez-bezala, edo arguiro-ago aguertzen diguzula, guc, guero zure Ceruan sartzeco, artu behar dugun, gueren videa; ta iguzu videnabar, vide bera artzeco, ta vide on onetan viciro ibiltzeco, behar den, zure laguntza, ta gracia. Onequin batean ibillico gara gu, goiztar Erregueen eran, arin, ta zucen. Ala ba guembiltza; ta ba guembiltza, tricatu gabe, ta Ceruraño! Zori oneco humeac horduan gu, ta atseguin, ta contentuz beteric beti vici beharrac.

1.

VIGILIA HONESTATIS TABEfaciet carnes, & cogitatus illius auferet somnum. Eccli. 31. 1.

CEre otoitz-etan, ta libru onac iracurtzen dituzula, billatzen ba-dezu zuc cere Ceruraco videa, zuc arquituco dezu: ta zu, vide hau arquitu horduco, asten ba zara videco cere lanetan, ta irauten ba dezu zuc, cere lanac bucatu artean, garaituco dituzu, bai, araguiaren naicunde charrac, eta oneràco cere nagui-tasuna; bada oriec garaitzen dira, ta escura datoz araguiaren naicunde macurrac, norc bere buruari, behar ez duen, loa quenduz, ta, eguin ditzaquen, baruac, hildurac, eta beste nequezco lanac eguiten dituela. Hau da orain bere Escritura Santaz gure Jangoico jaquintsuac adirazten digun, eguitecoa.

Nagui-tasuna garaitu gabez, ta beren buruac ez necatzea gatic, guelditu ciran beren Errietan, deitzen cituen, Jangoicoari ez aditu eguiten ciotela, irur Erregueac ez, beste goiztarrac. Orobat eguin izandu zuten HERODES gaistoac, eta JERUSALENdar guciac. Ceñequin ibilli naz ni orain-dañocoan; goiztar irur Erregue equin, edo gañeraco nagui-alfer-equin? Eranzun dezala orain-dañoco nere vicitzac!

Eguin izandu dut beti nic nere Jangoico maiteac adiraci oi cidana? Ascotan gàldetu diot nic nere Jangoico eracusleari, cer ote cen nitaz nai zuena, edo nic eguin beharra? Edo vicitu ote naz ni aisa, lasai, ta nere gogára? Garaitu ote ditut beti nic nere naicunde macur-galduac, edo garaitu ote naute berac ni bein, bitan, berriz, ta berriz ere? Egunen batean agerico da,

ta

ta gucioc ecuſten dugula?

Ez nere JESUS maitea, ez: horduan ez-ecic, bertatic ere aitortuco dut nic, eguin dudan, nere gaizqui gucia. Nagui--tzar galdu--gaiſto bat izandu naz ni orain-dañoco nere dembora gucian! Nere gogoari atſeguin eguitea gatic, ez diet beguiratu nic, behar bezala beintzat, zure izarrei, edo, igorri dizquidatzun, gogarguiei! Ez-aditu eguin izandu diet nic zure oju meei, edo deitze mai ta garriei; ta,ni gandic zuc cer nai cenuen, nic jaquina-gatic,guelditzen nintzan beti ni, nengoen, lecuan,ta nere vicitza gaiſtoan; edo, iguitua gatic noiz, edo noiz,nengoen, toquitic, itzultzen nintzan laſter nere nai-etara, edo nere vicitza charrera; ta arraſtan erabilli nau ni nere gogoac, edo nere aragui ſutuac bere aztura, ta coſtumbre galgarriequin.

Onela vicico naz ni emendic aitziña, edo gaurguero? Nere deiez egoin da beti nere JESUS? Niri eracuſten ibillico da JESUS nere ibilvidea, ta ni JESUSen igueſi, ta gordeca? Ez al dut eguinen berriz onelacoric? Entzunen al ditut gaur-guero nere JESUSen hitzac? Ibillico al naz Ceruco videan erne, ta vici? Nai nuque beintzat, eta orain orretan nago. Jaunac didala, entzun-ibillera onec eſcatzen duen, laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

2.

VIDISTI VIRUM VELOCEM IN opere ſuo? Coram Regibus ſtabit, nec erit ante ignobiles. Prov. 22. 29.

EZ da noraco-nai eguiña bere Jaunaren videan arin dabillen, ANIMA. Onela dabillen, ANIMAC eguiten ditu bere Jaunaren gogàra bere gauza guciac; eta, haren gogàra gauzac eguiten dituen ANIMA, lecu oneraco jaioa da, ta berari dagozcan, lagunen artean vici beharra. Noren artean, ta non ote? Su-lecean; ta ango-galdu-char-erre ciquiñen artean? Ez bada. Bada non? Erregueen artean, ta Ceruco glorian.

Nora beharra ote naz ni, edo noren artera beharra? Nere eſcuan dago, nere Jaunaren laguntza, ta gracia-requin batean, nai dudan, lagunen arteratzea. Virtutezco videa da, niri, Ceruco lagun-arteraco, nere Jaunac bereci didan-

dan, videa. Urrats jaquiñac dira, vide orretaco urratsac, edo pausuac. Contuz ba nabil ni, ta ez-utseguin-naiez, ez ditut utseguiñen: ta, utseguiten ez-pa-ditut, Ceruraco naz ni zucen-zucen, irur goiztar Erregueen, ta gañeraco, ara igan diranen, lagun izatera.

Zori onean jaioa ni, ni aratzen ba naz, anitz nequeren buruan ara igana gatic! Bada, ni ara ezquero, nereac izain dira seculaco gustoac, eta, nic an artu-al din atseguin, ta contentu! Ni ara ezquero, neretzat aitu dira lagun galduac, lurreco quezcac, naicunde lizunac, eta min andi-chiqui, ta atsecabe guci-guciac: an ez da alabaña LAGUN onac, ONA, ONDASUNA, ta ATSEGUIN utsa beste gauzaric.

Ez ote dut badà artuco nic, orain bad-ere, araco vide zucen ondasun-dun hau? Hau utziric, ibilli behar dut nic, eroaren eran, sulececo vide galgarrian, cer penac an, cer nequeac diran, ta cer quezcac, daquidala? Ez arren, nere JESUS maitea, ez! Asqui al dira, orain arteco, nere ibillera galduac, eta araco pausuac! Eman ez-pa-nu bat ere, beste lecutan arquitzen nintzan ni gaur, ta Ceruco irabaci andi equin! Ots bada, nere ANIMa; gabiltzan zucen, ta goacen arin Ceruco videz, ango ERREGUE, SANTU, ta AINGUERU gucien artera. Cenza gaitecen, orain bad-ere, ta daguigun gaur danic, gure Jangoico maiteac nai duena. Bai arren, bai.

3.

EGO, QUI LOQUOR JUSTITIAM, & propugnator sum ad salvandum. Isai. 63. 1:

EZ da cer beldurtu, dio JESUS maita-garriac, aguertzen dizudanean nic zuri, uste etzenuen, videren bat, edo beste; bada vide hau, nequez quezcaz, ta etsaiez ingurutua, arquitzen denean ere, ba-dut nic, viderazten diran-entzat, oriec or ibiltzeco, behar adiña indar, ta laguntza; ta ecin eracuts dezaquet nic, Cerura zucen ez daraman, ta oriei ongui ez dagoten, videric; ez, eta vide, errazqui, ta aisa ecin eguin direquenic ere.

Hau den ezquero, diozun bezala, ona ni, nere JEJESUS maita-garria, ona ni emen, luzatu bague, ta gaur

eſcuetan, zuc nai dezuna zucen eguiteco; ona ni emen videraco preſt; edo ona ni avian, aguertzen didazun, edocein videtaraco. Zuc laguntzen didazula, eguin uſte dut nic, ni gandic zuc nai dezun, edocein gauza, naiz dela hau izan ditequen gaitzena, edo gogorrena; bai, ta, lembicitic azqueneraño, icerdia dariedala ibilli behar ba-nu ere!

Ay! onetan egon banintz beti ni, nic zu ezagutu cindudanetic, nere JESUS maita-garria! Gaur egoin nintzan ni, nagoen baño, zure alderago; ta milla, ta milla pauſu on emanic, Ceruraco nere vide zucenean! Ambat dembora galdu dudalaco damuac arinduco al ditu gaur-guero nere oñac, vici-viciro nabillen, vici nazaño, ta irabaz ditzadan, orain-dañocoan, nere nagui-taſunez, galdu ditudan, irabaci guciac.

Andiac dira, bai, ta guztiz al-ere, nic, orain artean, galdu ditudan irabaciac; eta ori-equin batean, galdu dut nic nere naiez, nere anima! Hau da, bai, hau galtze arrigarria! Hau da, bai, zu, nere eracusle on, JESUS urricaltia, atſecabez bete zituen, nere galtzea; ta galtze, ni ſeculaco gal videan ſar-eraci navena! Atera ote naz, orain bada ere, nere gal-vide gaiſto-lizun onetatic? Cerorrec daquizu hau, nere JESUS maita-garria! Atera ez-pa-naz, atera nazazu; ta ez nazazula utzi, nere gal-vide gaiſtora berriz urbiltzen, vici nazaño. Eſcatzen dizut, len an ſartuaren damu, ta urriqui andia-requin; ta hitzez, ta bihotzez erraten dizudala: *NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c*

XXVI OTOITZ-GAIA.

§. I.

TULERUNT PUERUM IN JERUSALEM, UT SISTERENT EUM Domino. Luc. 2. 22.

CANDELARI EGUNECO JESUSen ELIZAR ATZEAC eracuſten digu, guc gueren buruez eguin behar duguna.

DEus ez-daquien, aurrac bezala, eguin cituen JESUSec bere AUR-demboraco gauza guciac; eta, beſteen artean,

tean, CANDELARI eguneco bere Elizaratzea, ta Elizaco bere presentacioa. Bere PRESENTACIO, edo Elizaratze hau eguin zuen gure JESUSec gañeraco bere gauzen eran, edo ongui oarturic, berariaz, behar bezala, ta guri eracustea gatic, guc gueren eguinhorduetan eguin behar duguna. Baña cer ote da gure JESUSce gaur guri eracusten diguna? Beinic--bein, guc, eguitera behartuac gauden, gueren gauzac zucen eguitea; ta guero guc eguitea, eguin behar ditugunac ez-ecic, beste cembait ere.

CER eguiten du gaur JESUSec, guri gauza oriec era orretan eguiten eracusteco? Egun artaco LEGUEAC ciona. Cer cion Legueac? Eguin cequiola gure Jaunari lembicico SEMEen presenta, eramanic orretaraco Seme lembicicoac Jaun beraren echera, edo ELIZA berecira. Baña eguin zuen JESUSec bere Eliciratze orretan, ta Elizaco bere presentan, beste edocein ISRAELdarrac eguiten zuena baicic? Bai? Cer bada? Gucia bere naiez eguitea: bada eguin zuen gure JESUSec presentacioco Legueac cion gucia; ta etzuen behartzen JESUS, ISRAELdarrac bezala, Semeen presentacioco Legueac; Legue hau alabaña Ama-hume becatarientzat eguina cen; ta, ez JESUSec, eta ez JESUSen AMAC izandu zuten becaturic, ez horduraño, ta ez beinere. Eguin zuen bada JESUSec gaurco bere presenta, bere Aitari atseguin eguitea gatic; eta, atseguin osoa Aitari eguin naiez, eguin zuen guztiz zucen, ta ecin obequi; bada eguin zuen, alic LENENA; eguin zuen bere Amaren ESCUZ; ta eguin zuen, berac NAI zuela, ta premiaric bague.

Bai: beinic-bein, eguin cion JESUSec bere Aita maita-garriari alic LENENA bere buruaren, edo cen guci-guciaren gaurco PRESENTA; bada Present hau eguiten cen Amaren herditzetic berrogueigarren egunean; ta, egun hau etorri-horduco, aguertu cen JESUS presen-teguian, edo behar cen, ELIZAN, ta Jaunaren beguietan. Eta, ah cer presenta! Pareric gabecoa!

Egun artan JESUS Elizan sartzean, erran cequiqueon Aita Eternoari; ona Jangoico maita-garria, ona non dezun cere Eliz onetan, oraindic aguertu den, PRESENTIC ederrena; ta present, aguertu diran,

ta

ta, aguer litezqueen, semeen presentac baño, gueiago, ta gueiago valio duen, SEME-PRESENTA! Ez dezu ezagutzen zuc hau, ezaguntzaz beteric arquitzen zaran, Jangoico maita-garria? Ez da, ez, dirudiena. Becataria dirudi: baña ez du becatu-cutsuric ere. Zure JAQUIUNDEA da, ta Trinitateco BI-GARREN Persona, gure amorez Ama Virginaren HUME, ta AUR-eguiña. Emen dator Jangoico-guizon zure Seme hau, gure zorrac bere gain arturic; eta dator, zuc nai dezula, guci-guciac bertatic ateratzera. Ba-du, bai, AUR jaio berria izana gatic, cerequin, edo nondic oriec atera: eguin dezaquen, gauzaric chiquienac valio du, orretaraco diña, ta aguitz gueiago. Lenago ere eguiteco onez onara etorri naia cegoen: ta, etorri ez-pa-da, zure LEGUEAC diona, zucen baño, zucenago eguitea gatic, izandu da; ta videnabar eguitea gatic, zuc naien dezun, videz, ta moduz.

Cer videz, edo moduz eguin izandu cion JESUSec bere Aita Eternoari gaurco bere presenta? Bere AMAZ valiaturic. Amaren ESCUZ eguitea gatic bere Aitari gaurco bere presenta, egondu, cen JESUS Elizara gabe, Legueac diona, Amac eguin artean; edo jaio ezquerozco berroguei egun-etan; ba-cequien alabaña JESUS maita-garriac, lurreco onac, edo Santuac, eta Ceruco guciac baño, gueiago valio diela beraren Ama Virginac; eta, gañeracoen escu-eratic baño, bacar onen escutc obequi artzen duela Jangoicoac edocein presenta. Herdi-berrien Legueac diona eguin-horduco, ta egun orien buruan artzen du JESUSen Amac bere Semea-requin Elizaraco videa, an bien icenean, ta, biac nai dutela, Aita Eternoari eguiteco JESUSen presenta.

Elizara ceneco, cequienac bezala, nolacoa cen, ceraman, PRESENTA, errain cion JESUSen AMAC Aita Eternoari: ona non dezun, ecusten dezun, PRESENTA! Jangoico-guizona da, dacusazun bezala! Jangoico-bezambatean zure Semea da, ta Seme guztiz maitea! Ni gan artua du, duen, GUIZA-tasuna; ta orre gatic nere Semea ere da; ta, berèz, gogoz, ta, nai duela, dator; ta, ala ez-pa-letor ere, ecarrico niquezu nic, dacardan bezala, ta emain niquezu, ematen dizudan, be-

zain gogoz, ta bihotz osoarequin.

Artu zazu bada, zuri nic zor diz puitzudan, ondasun, ta donien alde. Anitz da, bai, nic zuri zor dizudana; baña, zu ganaco nere zor guciac baño, milla, ta milla bider gueiago valio duen, presenta da, orain nic nere escuetan dacardan, ta zuc emen ecusten dezun, presenta. Artu zazu bada ceren zurea den, den bezala; ta artu zazu vide-nabar mundu guciac zor dizunaren alde, ta gure gucien oneraco. Orrembat mereci du, bai, daquizun bezala; bai, ta gueiago, ta gueiago ere,

Zure Ama Virginac hau dion artean, cer ote diozu zuc, gure JESUS maita-garria? Nai dezulá, zatoz, ta borcharic gabe? Naiezco presenta da, gaur Aita-Eternoari, cere Amaren escuz zuc eguiten diozun, presenta? Nola ere! dio; ta ecin naiagozcoa! Guizon EGUIN ceneco presentatu cion JESUSec Aitari bere GUIZA-tasuna; present hau berau eguin izandu cion bere JAIT-egunean, eguin izandu cion bere CIRCUNCISIOan, bai, ta beste anitzetan ere; baña, nioiz ere baño, eguoquiago eguiten dio egungo egunean; hau cen alabaña, Jaunac orretaraco, bereci zuen, eguna.

Elizan sartu-horduco bada, ta, nior oartu bague, eguinen cion JESUSec bihotzez, ta beguiz, bere Aita Eternoari, al zuen, agurric andiena; ta errain cion, hitzic atera gabe, naiez, ta bihotzez: BA-DAQUIT, bai, nere AITA maitea, norañocoac diran becatarien zorrac, eta cein valio guticoa den, zor orien alde guizon utsac eguin dezaqueena! BA-dut nic ere, zuc cerorrec emanicaco, nere guizatasuna. Ona non natorren, hau arturic, zuc nai dezun, guci-gucia eguitera; ta, beste gauzen artean, zor orien alde cer-nai eguin naiez nator. NAI ba-dezu cea nazaten orien alde, ona non dagoen orretaraco nere bizcar mimbere hau. ARANZEZ odoltu behar ba nau te; ona nere buruco loac; bai, ta buru guci-gucia ere. GURUTZEAN josiric ill beharra ba naz ni, ona iltze-etaraco nere escuac, eta oñac; eta ona azquenean nere odol guci-gucia; naiz, hau ateratzeco, urra ditzatela nere zañac, nere loac, eta nere bular hau, ta bihotz bera ere. CER nai dezu bada, daguidan zor orien alde? ERRA-

RAZU nai dezuna : BA ditut, zuc emanicaco, beharriac ; eta adituco dut , zucen eguiteco, erraten didazun , gucia. *Ps.* 39. 7. *Hebr.* 10. 5.

CEIN begui ònez beguiratuco cion AIT Eternoac, bere Seme Jangoico--guizon JESUS maita-garriari , ecuii zuenean, cein latter , cein gogoz, cein escu zuriz , ta cein ciñez eguiten cion , bere buruaren, ta gauza gucien PRESENTA? ONTZAT artzen ba cituen ABELen , NOEren , ABRANen , ta bertze , Legue zarteco , guizonen present chiquiac , nola artuco zuen AIT Eternoac, ambat , eta ambat valio zuen, JESUSen presenta ? Ez da erraz guc hau aditaztea ! Ecusi zazu cerorrec , al dezun , eran , hastiz , ta gogoz beguiratzen diozula.

GUERO beguira zagozu, aldi onetan JESUSec eracutsi cizun , eguitecoari ; ta icasi zazu cere Jaunari presentac eguiten ; ta eguioz-catzu GARAI onean, AMA Virginaren escuz ; ta BIHOTZ on garbioso batequin , naiz obligaciozcoac izan , edo zuc eguin beharrac ; naiz zure naiezcoac, edo vorondatezcoac. ORRELA zuc oriec eguin ezquero, ongui artuac izain dira , bai, zure PRESENTAC ; eta oriec harc zu gandic artzean , emain dizu cere Jangoico emalle andiac zuri dagoquizuna.

Hau zuc erditsi nai badezu , eguiozu jaiqui-horduco cere Jangoico maita-garriari, cere bihotzaren , ta egun artaco , cere gauzen presenta ; ta, JESUSen AMA arteco arturic , esca zagozu , egun gucian bihotz onguillez , asmo garbiz, gogo beroz , nai on, ta maitatze ederrez beteric, edo zucen-zucen , ta berac nai duen , eran ibiltzeco gracia. ZOAZ guero , al bezain len, bere Elizan Jangoico berari cere presentacioa , edo cere adimentuaren , cere naimentuaren , ta cere zaran , guci-guciaren PRESENTA eguitera: baña zoaz , cere Jaunari atseguin eguitea gatic , eta JESUSen AMAz valiatzen zarala,

Ori eguiten dezunetic, beguira zagozu zuc cere buruari , Jaunari emanicaco, gauzari bezala ; ta gorde zazu, alic onguiena ; escatuco dizu alabaña jabeac , gutiena zuc uste dezunean ; ta , horduan contu ona cere buruaz zuc ez ematera, gaizqui artuco zaitu , artzeco zaituen , cere Jangoicoac ; eta galduco zara secula guciraco.

Egun

Egun oro eguin ote diozcazu zuc cere Jaunari era onetaco presentac? Gorde ote dituzu zuc, cere Jaunaren gauzac bezala, cere oroimendua, cere ezagu era, ta cere bihotza? Ah! ta cein guti! Ori nic eguitera, edo nic ori eguin izandu ba-nu, orain-dañoco nere demboran, nagoenetic, beste guisan negoen ni gaur! Gaur izain nintzan ni nere JESUS onaren bihotzecoa; ta norc daqui, cembat ondasunequin arquitzen nintzan ni nere animan! Baña cer eran arquitzen ote naz ni? Jangoicoac daqui! Berac didala orain-dañoco nere utsen barcamentua, ta gaur-danic bad-ere, JESUSec bere PRESENTACIOAN eracutsi didan gucia zucen eguiteco gracia. Bai arren, bai.

I.

NOMEN EIUS ACCELERA-SPOlia detrahere, Festina prædari. Isai. 8. 3.

AGueri da, JESUS maitagarria, cein egoquia den, cere Aitac ISAIASez zuri emanicaco icena, oni erran cionean, deitu behar diozu: *Otsfite, zoaz lasterca, osturic dara mana quentzera, quen-eguiozu lembaitlen, duen, gucia*: Bada PRESENTACIOco eguna etorri horduco, atera ciñan zu cere ichetic, eta Elizara ciñan, cere Jaunari an erratera: ONANI prest sulececo gucien contra: nai ba-dezu, quenduco diot, eta luzatu gabe, munduari, sulececo gaistoac eraman diotena. Quenduric, eraman diote, AITA nerea, zu ezagutzeco, behar den, Ceruco zure arguia; ta utzi dute becatuaren illumbe galgarri gaistoan. NAI dezu bada, atera dezadan nic Mundu galdu hau bere illumbetic, emateco guero, behar bezalaco, zure, ta nere berria? Ba-daguiquet, bai, nic hau gucia, zuc cerorrec ongui daquizun bezala; ta ba daguiquet, bat ere tricatu gabe. Cer diozu bada, nere AITA maitea? ZURE naia aditu naiez nago. Ba noa, nere lan hau eguitera? Icenaren egoquia, JESUSen lan andi hau adirazten duen, icena!

Eta niri dagoquidan, icena ote da, nere bataioan niri eman izandu cidatena? Horduric CHRISTO Jaunaren icenecoa naz ni, edo CHRISTIOA, edo CHRISTAVA? Cer vici da Christavaren vicia? Ongui ba-dabill, ta Evangelio Santuac adirazten dion, eran, *gurutzea*, ta *martyrio gogor-*

gorra : edo goizetic arratí-eraño contuz vicitzea, naicunde macurrac garaitzea, gogoari atſeguin gaiſtoric ez eguitea; nai ez dituen, cembait lan araguiari eraguitea, ta gogoz, ta bihotzez gure Jauna beti maitatzea. Lan onetaraco preſt ote nago ni goiz-arrats, gauegun, ta noiz-nai, ta beti? Ori da gaur niri nere JESUSec eracuſten didan, lembicico gauza, edo eguitecoa. Eguin ba neza nic (eta zucen) gaurguero ba-d-ere? Lagun zaquizquit eguiten, nere Jangoico maita garria. Bai arren, bai.

2.

EGO MATER PULCRÆ DILECtionis, & timoris, & agnitionis, & Sanctæ ſpei. Eccli. 24. 25.

NAi dezu zuc, behar bezalaco, bitarteco bat, cere Jauna ganatzen zaran aldi-etaraco? Orra non dezun AMA VIRGINA. Hau da, bai, AINGUERU, ta TRONU, ta Ceruan arquitzen diran, gañeraco guciac baño, gure Jangoicoac obequi artzen duen, ARTECOA; hau da alabaña Aita Eternoaren ALABA guztiz onetſia; hau Semearen AMA maite-maitea; ta hau Eſpiritu Santuaren ESPOSA berecia. VIRGIN AMA ônen eſcuz eguiten ba-diozu zuc cere gauzen preſenta, zor zaitzun baño, ederquiago artuco zaitu zu, bai, cere Jangoico maita-garriac, eta emain dizu, zuc behar dezun, gucia; bai, ta anitz-eta anitz gueiago ere.

NAI dezu zuc orain cere oben gucien URRIQUIA, ta cere Jaunaren BELDURtaſuna? NAI dezu zuc orretaraco, ta cere gauzac zucen eguiteco, cere Jaunaren ezagu-er-argui andi bat? NAI dezu zuc, cere Jaunac oraindañoco utſ-guciac barcatuco dizquitzulaco, vicitz-on bat eguiten lagunduco dizulaco, ta azquen gracia emain dizulaco, uſte, ta eſperantz andi bat? NAI dezu zuc videnabar cere Jaunaren AMORE, ta maitatze bero-ſendor bat? Valia zaitez bada Bitarteco onèz, edo JESUSen AMAZ: hau da, zuri cere Jauna gandic onguien-onguien ori gucia erditſico dizun, BITARTECOA.

BAñA artu naico dezu zuc, Ama maita-garria, ni bezain gauza char, errebes bate gatic onembat eguiteco? NAICO dezula, ba-nequi nic, atſeguin, ta contentuz beteric

ric guelldituco nintzaque! Naico dezula, deritzat, bai, AMA VIRGINa; bada zure Seme JESUSmaita-garriac gaur eguin duena, niri eracusteco da: ta, eracutsi dizquidan, gauz-etatic bata da, zutaz valiatzea. Ona bada ni, VIRGEN AMa maita-garria; ona non natorren ni, zuri ciñez escatzera, ar ditzatzula arren nere bihotz char hau, ta, nere Jauna maitatzeco, nic orain nere baitan arquitzen, dudan, gogoa, gañeraco nere gauza guciequin batean: ta ar ditzatzula, gucien presenta cere escuz Jaun berari gaur eguiteco. Eguizu ni gatic ambeste; ta videnabar escatu behar diozu nere Jaungoico maiteari, didala arren, emendic aitziña, nere gauza guciac zucen eguiteco, behar dudan, bere laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

3.

CHRISTUS DILEXIT NOS, ET tradidit semetipsum pro nobis oblationem, & hostiam Deo in odorem suavitatis. Ephes. 5. 2.

ECusten dezu, cembat zor diogun guc gure JESUS maita--garriari? Guri ongui naiez, artu ditu bere gain gure zor guci-guciac; eta, orretaraco, aguertu zaio JERUSALENgo Elizan bere Aita Eternoari, ta erran izandu dio, onequin bera-requin dela gaurguero haren eguitecoa. ONA, (erran dio aldi onetan AIT Eternoari); ONA ni prest zor orien alde nai dezuneraco. BERTAN, GUERO, edo zuc nai dezunean nic eguiñen dut orien alde, manatzen dezun guci-gucia. EZ dezu, ez, cer beguiratu nere neque-etara; andienac ere pocic artuco ditut nic, zuri guizonen zorrac pagatzea gatic, eta baquetan gueldi zaitecen zu, nere Aita maitea, nic maite ditudan, munduco gende GUCI-EQUIN.

Orra, becatari charras ORRA, zu gatic gaur gure JESUSec, bere Aita Eternoari erraten diona. Eta zuc JESUSi ordañez bezala, cer erraten diozu? Cer daquit bada? Nic erran behar niqueona da: ESQUERRAC, eta esquerrac zuri, nere JESUS maita-garri oneguia! Orrelacoa zu ez izatera, nola zuc ar cenetzaquen, gu bezain hume char galduac gatic, artu dezun, adimbat neque, ta eguiteco? Ez daquit nic gaur cer neguiquen, nere onetàn zuç aldi onetan eguiten de-

la, bere REDENTOREA, ta eman ciozcan esquerrac esquerren gain, bere etortze, era ain maita-garrizcoa gatic, eta, ecin iduquiz, edo ecin gordez, bere Salvatzalle-JESUS ecuste onec eman cion, atseguin--contentua, asi cen hitz-eguiten, ta aguertu cien, an arquitzen ciranei, nor cen, an horduan guciac ecusten zuten, AURCHOA.

Cer ANDRE cen, zori oneco Andre ecusle hau? Hau cen, zazpi urte baicic, ezcontzan eguin etzituen, Andre bat. Hau cen, lauroguei, ta laur urteco, alargun, vicitza garbizco bat. Andre alargun onen lembicico eguitecoa, edo eguitecone andiena izandu cen, baruz, ta ne juez bere burua, edo bere passioneac escuratzea; esquez, ta otoitzez bere Jauna palacatzea, gau, ta egun, ta beti bere Jauna servitzatzea; al zuen gucian, ta guztiz maiz Elizaratzea, ta ango gauzac zucen eguitea. Guisa onetan irabaci zuen Andre on onec, JESUS Elizan aguertzen cenean, hau ezagutzeco, arguia. (2)

Ecusten dezú ceintsú diran, edo nolacoac, JESUS ezagutzen dutenac? Ecusten dezu, nondic artzen duten, zucen dabiltzanac, JESUS ezagutzeco, videa? Orien vide on zucen ónez ibilli ote zara zu ere orain-dañoco cere demboran? Ez ote diozu zuc norbaiti eguin izandu bein-ere, niorc zuri eguin diezazun, nai etzenuquen, gauzaren bat, edo bertze? Eta cer eran ote zabiltza zu, egungo egun-beretan ere? Ongui zatoz zu cere auzoa-requin, ta lagunurco guciequin? Bati ere zuc ez diozu nioiz eguiten vide-gaberen bat, edo beste? Zurequin arquitzen diran, ta, zu beren beguietan zaituzten, guciac content arquitzen ote dira zure pausú guciez, edo zure ibilleraz? Niori ere eguin ez diozu zuc nioiz, ongui ez dirudien, cer, edo cer?

Vistan dituzu beti zuc, eta beti cere beguietan, cere uts-eguiñac, cere obenac, eta culpa gúci guciac? Damutzen zaitzu zuri, oriec ecusten dituzunean, oriec bezain, gauz-itsusi gaisto galgarriac eguin izanduaz? Berriac eguiteco, edo lenac gatic Cerua galtzeco beldurrez zaude zu gau, ta egun, edo noicean-bein bad ere?

Cere Jaun ona gogoan dezula, ta ari atseguin eguitea gatic, eguiten dituzu zuc cere gauzac? Guciac dira zucenac? Guciac °ongui diruditenac? Gu-

ciac garai onean, ta, behar den, eran, ta demboran eguiñac?

Espiritu Santua cerequin ote dezu zuc beti? Maitatzen dezu zuc ciñez cere Jangoico maita-garria? Galtzen ez dezu zuc bein ere cere Jangoico ac emanicaco, gracia; edo vici oi zara zu, becatu andiric beintzat, eguiten ez dezula; ta, chiqui bat eguin horduco, escatzen diozu cere Jangoicoari bere barcamentua; ta erne zabiltza guerozco demboran, berriric ez eguiteco? Cere gogoz, ta Elizaren manuric ez denean ere, barutzen zara cembait aldiz, edo quentzen diozu zuc cere buruari, ar lenezaquen, janaritic, edaritic, lotic, edo ased-etetic, cer, edo cer?

Eguiten dituzu goiz-arratsetaco cere otoitz onac? Bazoaz Elizara egun oro, edo, al dezun, aldi gucietan? Elizan, Echean, edo non--edo non ecusten dituzu zuc cembait demboraz cere zorrac, JESUSen nequeac, eta zu ganaco cere Jaunaren ontasuna?

Ori zuc eguitera, izain zara zu, bai, cere Jaunaren ecusle on-etatic bat; izain zara, bai, ANA Profetisaren, ta guizon Santu SIMEONen Ceruco laguna; ta zuc erraiñ diozcatzu JESUS maita-garriari, ara baño, lenagotic ere, ta comuniatzen zaranetan, norc daqui, cembat gauz eder, ta ederqui; ta zuc eguiñen dezu, al-eguiña, ezagutzen dezun, cere JESUSen berri ona banatzea gatic; ezaguturic, zuc bezala, maita dezaten gañeracoac ere: ta zuri bere demboran guertatuco zaitzu, JESUS ona requin dabiltzanei guertatzen zaiena, edo beraren glorian zucen sartzea. Ala guerta daquizula. Bai arren, bai.

§. II.

JESUEN AMARI EGUN ONETAN guertatua; ta JESUS equin dabillenari guertatu oi zaiona.

ETzen quendu oi JESUSen aldetic, JESUSen AMA maita-garria. JESUSen aldean arquitu cen, JESUSec, Aingueru batec emanicaco, berria-requin ARTZAIAC billatu cituenean. JESUSen aldean cegoen AMA Virgina, CIRCUNCISIOco JESUSen nequeei beguira. Bere JESUS-equin cen AMA Virgina, goiztar irur ERREGUEAC JESUS ecustera aguertu ciranean; ta, an cen Ama Virgina JESUSen Presentacioan ere.

Be-

dezuna gatic ! Ona ni ere nere JESUS maita-garria, nere aldetic preſt eſquer-dun onaren eran, zuc nai dezun, edocein gauza eguiteco. Cer nai dezu bada daguidan nic, zor dizudan, amorearen alde ? Zure eſcu-etan uzten dut orretaraco, nere bihotz hau ; eſcu ber-etan uzten dut nere adimentua ; bai, ta nere oneſte, ta nai guci-gucia ere.

Gucia da guti, zure amoreari nic zor diodanari eranzuteco, ta nere oben gaiſto, ta zor andien alde! Lenago nic ezagutzera orain adiña ba-cen ere, cer gauza den oben-culpa, ta orain-dañoco nere gaizquia, ez nuen eguiñen, ez beintzat ambeſtetan ; ez, eta bein ere! Eguiñac ez dute, eguin nituelaco damua, beſte zucen-videric. Damu dut bada; ta ciñez al ere ! Ta damuco nuque, nere vici gucian, gaizqui bat baicic eguin ez-panu-ere. Orra bada, JESUS maita-garria ; orra, nere eguin gucien alde, gaur eguiten dizudan, preſent char equin batean, oraingo nere urriqui hau ere ; ta, berriz orrelacoric ez eguiteco, gogoa. Gogo hau ere zu gandic datorquit niri, nere beſte gauz onac bezala ; ta, gal ez dezadan, indazu cere laguntza, ta gracia ; bai, ta lengo nere utſen barcamentua ere. Ori eſcatzen dizut, hitzez, ta bihotzez erraten dizudala. *NEFE JESU CHRISTO, JAUNA, &c.*

XXVII OTOITZ-GAIA.

CANDELARI EGUNECO GAUZAC ; ETA oriec adirazten digutena.

§. I.

SIMEONI, TA ANA PROFETIARI, CANDELARI *EGUNEAN JESUS-equin guertatua ; ta, JESUSen gogoa ezagutu nai dutenac, eguin behar dutena.*

GEndez ongui beteric arquitzen cen JERUSALENgo Erria Candelari eguna JESUS ara cenean. Ango

Elizan ere anitz izain ciran, JESUS an bere PRESENTACIOra sartu ceneco; ta ala ere etzuten ezagutu, nor cen JESUS, bic baicic. Orien icenac ciran SIMEON, ta ANA: ta orien vicitza, Evangelio Santuac diona.

Arquitzen cen horduan, JERUSALENen, dio Evangelio Santuac, SIMEON ceritzan, guizon bat. GUIZON hau, batiere vide-gaberic eguiten etzion, guizona cen; ta dembora berean Jangoicoaren beldurtia, ta Jangoicoren Legueco gauz-andi, ta chiqui, ciranac zucen eguiten cituena: ta orre gatic cen guizon Santua, ta, Espiritu Santua berequin ceducan, guizona; edo graci anitz, eta Ceruco argui, ta atseguin andi-equin arquitzen cen, guizona.

Guizon on oni, egun hau etorri baño, len aguertu cion Jangoico maita-garriac, egun onetaco JESUSen presentacioa; ta, JESUS Elizara ceneco, an cegoen JESUSen beguira. APAIZA cen guizon Santu hau; ta, JESUS an aguertu-horduco, ezagutu zuen, berac uste zuen, JESUS bera cela. Artzen du berea-la bere beso-etan (cembat atseguin, ta contentu-requin, norc adiraci?) ta, erraten dio bihotzez, norc daqui cer? Ecusi zazu, cer erran cezaquen onelaco aldian guizon Santu batec; eta guizon, bere vicitza gucian, edo, norc daqui, cembat urtez, Jangoico-aur onen beguira cegoenac!

Jangoico aur hau bada bere beso etan ecusi zueneco, ari cen SIMEON hitzez erraten, Evangelio Santuz guc daquiguna: EZ DUT JAUNA, cion, ez dut, cer ecusi lur gañean, edo Munda gucian, ecusi ez quero, beso-etan daducadan, nere SALVAT-ZALLEA. Onen beguira nengoen ni, joan den aspaldico demboran; etorri da, nic hau ecusteco, dembora; ta hau ecusteac eman dit, munduan izan nezaquen, atseguin, ta contenturic andiena. Ba-lequite munduco gendeac, nor den, nere beso-etan dagoen, JANGOICO-GUIZON aur-eguin hau! Hau da, Mundu guciari argui-eguitera, datorren, gure REDENTOREA; ta hau, artu nai dutenen, HONRA, TA GLORIA. (1)

Hordu berean aguertu cen an ANA Profetisa; ta ezagutu zuen onec ere, guizon Santu SIMEONec beza-

la

icerdiac, tormentu gogorrac, eta eriotz arri-garria, gogoan cerabiltziela, bere nai-gabeac, bere aiac, eta bere penac, eta penac berritzera?

Cer izan citequen, JEREMIASec diona baicic? Itsasoan ur gaci, adiña oñace, damu, ta pena arquitzen dira (dio JEREMIASec) onen anima maita larian (4)! Orre gatic ez deritzat anitz San BERNARDOc diona, dionean, MARTYRE baño, gueiagocoa dela JESUSen AMA, Jesus-equin cebillela, bere animan ecusi zuena gatic. (5)

Eta cer diozu zuc, JESUSen humetzat cere burua daducazuna? Cer diozu bada, edo certan zaude? JESUSen ondoren ba zabiltza zu, JESUS beraren AMA bezala, izain dezu, bai, zuc ere cer eraman, ta cer ecusi! Mundu eroarentzat eraqueriac dira JESUSen gauza guciac; eta hista, ta burla du Munduac, orietan sartzen diranendaco. Etsai galgarri-galduac ecin ecusi du JESUSen gauz ori-etatic bat ere. Al-eguiñean urratzen ditu, gauz orretaraco vide guciac; eta, besteric ecin duenean, gogortzen ditu, eguin behar diran, gauzen gaiac; eta quentzen die, berez ecarri lezaqueen, ezti, ta contentu gucia. Lurreco gaistoac irriz egoin dira, ta hista, ta hista, zu cere JESUSen gauz-etan ecusten zaituzten-etan: ta gañeraco-etatic, edo on ber-etatic ere, cembaitec beintzat, 'onez ustean, emain dizute bein, ta berriz, ta ascotan ere cer ecusi, edo naigaberic asco. Ecusi zazu bada certara zoazen.

Ecusia daducat, bai nere Jangoico maita-garria; ta aspaldi al ere, ta guztiz ongui: ta, hau ecusi, ta ere JESUSen ondoren ibilli nai dut nic, vici nazaño; naiz neca nadilla, necatu alean, ta nere indarrac eraman ala. Nere nequeac gañez eguin baño, len JESUS berac emain dit, bai, bere escua, ta laguntza; bai, ta noiznai ere, nic escatu ezquero; ta berac horduan ateraco nau ni (ta ateraco nau guztiz aisa) nere neque, ta lan-pena gucien artetic. Eta, JESUSen ondoren nabillela, garaitzen ba nau ni nere nequeren batec, pocic emain diot nic JESUS nereari nere vicia; ta emain diot, ordañez bezala; edo len ni gatic berac (eta niri orretaraco deus zor etzidala) eman izandu zuen, bere viciaren alde. Zori oneco humea ni, eguiten ba dut hau, orain diodan eran, ta ill arte gucian.

FI-

1.

FILI, CONCUPISCENS SAPIENtiam, conserva justitiam, & Deus prabebit illam tibi. Eccli. 1. 33.

JAquin nai dituzu zuc, JESUSEN humea, cere Jaunaren gauzac? Nai dezu zuc, dizun zuri cere Jangoico maitagarriac bere Ceruco gauzen cerbait berri? Zabiltza bada zucen-zucen Ceru bereco cere videan, edo zabiltza ongui, ta garbiro; ta, orretan ibilli-gogo ba-dezu, ez da besteri cer eguin, zuc ceretzat naico etzenuquen, gauzaric bat ere: ta, eguiten dituzunac, eguizquitzu, cere Jaunaren gogara, ta alic onguiena. Ori zuc eguiten ba-dezu, izain dezu, bai, nai dezuna: ta cere Jangoicoac emain dizu argui eder, ta jaquiunde garbi lucea.

Ah, baña itsu bat bezala vicitu naz ni orain-dañoco, nere demboran, nere Jangoico maite argui-guillea; ta vicitu naz, zu nere gauzetan ecusi ere bague! Bada nic ez ditut artu izandu bein ere nere naigabeac, nere char aldiac, nere eritasunac, eta gañeraco nere malhurrac, behar cen eran, edo nere Jauna gana ceramaten, urratsac, edo pausuac bezala! Ez nabil berez, behar den, videz, ta zucen! Uts-eguiten dut berez lagun urco-equin, edo nere Jangoico maita garria-requin!

Bai: nosqui; ta, nic uste baño, anitz guei igotan ere! Centza ba nendi ni orain bad-ere! Eguin ba nitza gaurguero nic, nere Jangoico maita-garria, zuri dagozquizun, nere gauza guciac, eta nere auzoco, ta lagun gucien gauzac ere! Horduan bai, zuc, nere Jangoico maitea, aguertuco ceniquet, ongui izateco, nic jaquin behar nuquen, guci-gucia! Hau icasi naiez nago, nere Jangoico maita garria, nere gaur-gueroco gauza guciac era orretan eguiteco. Eracus zadazu arren, dagui-quezunac bezala; ta indazu, nere gauza guciac zucen eguiteco, ta zu ciñez maitatzeco, cere laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

2.

HUMILIARE DEO, ET EXPECTA manus eius. Eccli. 13. 9.

JAngoicoac ecin ecusi ditu bihotz arrozco guizonac, eta gendeac. Oriei gordetzen diezte gure Jangoicoac, aguertzeco daduzcan, bere gauzac. Guizon humillac dira, gauz oriec icasten dituzten, guizonac,

Beguirozu, AMA maita-garria! Beguira, cer eguiten dezun! Orrela ba-zabiltza, ta JESUSen orren aldean beti zu arquitzera JESUSec ez-ecic, izain dezu zuc ere cere quezca, ta naigabea!

Hau adiraci cion, guizon arguitu San SIMEONec, Candelarico, edo JESUSen PRESENTACIOCO egun onetan; bada, oraindic JESUS bere besoetan ceducala, erran izandu cion AMA Virginari: ECUSTEN DEZU, cere Seme Jangoicoguizon, JESUS maita-garri hau? Bada hau dela medio, edo one gatic anitz izain dira ISRAELco gende-etatic (bai, ta mundu gucico-etatic ere) Ceruraco diranac: baña bertze anitzec, cein ere den, ez ezagutu eguiñen diote: ta, ori deus-ez bat bai-liz bezala, guztiz beguitan artuco dute, cembaitec beintzat; eta eguiñen diozcate munduan diran, videgabe, ta charqueri guciac.

Zuc cere Seme on onequin ibilli naico dezu, oraindañocoan bezala; ta ecusi beharco dituzu, Semeari eguiñen diozcaten contraco gauzetatic cembait bad-ere; ta maite egui dezu zuc cere Seme hau, ecusten diozcatzun, nequeac ceretzat ez artzeco. Andiac dira, bai, onec eraman, ta zuc ecusi behar dituzun, charqueri-neque-tormentuac; eta oriec ecuste berac utzico du zure Anima, ezpataz bai liz bezala, damuz, urricariz, TA PENAZ JOSIA. (3)

Hau da guizon harc JESUSenAmari aldi artan erran izandu ciona; ta hau berau guero demborazJESUSen Amari guertatu-ricacoa. Bai: Jesusen Amari GUERTATU-RICACOA; bada JESUS badoa, bereAitaren manuz EGYPTON gordetzera, bereAma requin doa; ta videan dabill Ama, ta EGYPTON dago, JESUSen videco, ta IGYT-arteco penac ongui penatzen dutela. Andic datorrenean, ta guerozco demboretan ere, JESUSen AMAC ecusten ditu JESUSen nequeac; eta, bereac bai-litu baño, gueiago illuntzen diote Amari bere bihotz mimbere maitaria.

Elcar-equin hitz-eguiten zutenean AMA Virginac, eta JESUS maita-garriac, cembat aldiz aguertuco ciozcan Semeac Amari bere Pasioneco nequeicerdi, odol isurtze, ta gañeraco tormentuac? Eta nola adi citzaquen Ama Virginac bere Seme maitearen neque-tormentu, onen arrigarriac, bihotza guztiz penatzen etziotela, ta negar

gar ederrac isuri gabe? Virgin Amac ecusi zuenean, Escribac, Fariseo-tzarrac, eta beste anitz guiza-char galduc onic etzutela, haren Seme JESUS galduric, edo illic utzi artean, cembat illun-tasunec artuco cioten bere bihotza, cembat estutasunec, eta cembat naigabec?

Judasen JESUS saltzeac; eta saltzea JESUS ecer-ez batean, edo oguei, ta amar diru ciquiñetan nola estutuco cion Amari bere anima? Aditu zuenean Ama berac, JESUSi gaizqui nai ciotenac loturic cecartela JESUS Getsemanitic JERUSALENa; ta ecarri zuten, gau berean Juezez Juez, ta Tribunalez Tribunal cerabitela, lem baitlen, gaistaguin arrigarri bat bai-liz bezala, vicia quendu naiez, cer dardarac, cer ito-naiac, horduco Virgin Amaren barreneco ito-nai-dardarac? Aditu cituenean, gau hartan JESUSi eguin ciozcaten, irriac, histac, eta charqueriac; aditu cituenean bigaramun goiceco azoteac, eta arantzez burua urratzea, ta nola, JESUS utziric, artu zuten Barrabas Jerusalengo gendeac, cer penac, cer quezcac JESUSen Amarenac?

Atozea: goiz berean etzuen Amac ecusi bere Seme maite JESUS maita-garria, arantzazco coroàc, bere loac, eta buru gucia urratzen ciozcala, odola ceriola, indarric gabe, gurutze-tzar bat soñean zuela, an jaiqui, emen erori, ta borreroac tiraca ceramatela? Etzuen ecusi izandu, Calvarioco mendira ceneco, josten ciozcatela iltzez JESUSi gurutze batean bere bi escuac, eta oñac; eta gurutze berean goitituric, utzi zutela, norc daqui, cembat milla personen artean, ori-etatic anitz histaz, ta blasfemiaz cegozquiola? Etzuen ecusi izandu, nola cegoen an irur horduz, oñacez betea, odolez ustutzen, ta, guizonéc eraman dituen, tormentu, ta agoniaric andien-etan? Eta, hau gucia ecus cezaquen Amaric maitarienac, Semeric maita-garrienari beguira cegoela, penaz erdiratzeco puntura gabe?

Cer izain cen bada, Ama berac ecusi zuenean guero, Soldadu batec JESUS berari lanzaz urratzen ciola, bere bularrasta, bihotza zulaturic, atera ciola, an guelditu cen, odol guchicho bat? Cer izain cen, gurutzetic jaitsi, ta bere besoetan ecusi zuenean bere Seme maita-garriaren gorputz ill otz-urratua? Ta cer, hau ere obian sartu, ta itzuli cenean, bere zocochora, an Semearen neque-

icer-

nac. JERUSALENgo Fariseotzar, ta Escriba arroac, eta, antuste eroz beren buruac beteac ceduzcaten, horduco guizonac, etzuten ecusi JESUS bere Presentacioan, SIMEONec, eta ANA Profetisac bezala? Bai; baña ez nor cen, ezagutzen zutela. Ezagutu zuten SIMEONec, eta ANA Profetisac? Oriec bai. Cer gatic ore? Ceren baruz, otoitzez, ta Jaunaren beldurrez humildu cituzten beren buruac.

Orain dañocoan ez bezala, nai dezu zuc orain ezagutu cere Jangoico maita-garria? Orreta-raco beititu beharco dezu zuc cere burua. Beguiratu beharco diezu bein, ta berriz cere obenei. Ecusi beharco dezu cer den orien alde zor zaitzuna, edo cer su lecea. Beguiratze hau zuc zucen eguitera, ecusico dezu nor den, cein ona den, ta cein maita-garria zure Jangoico JESUS ecin obea; bada zu galdu-lecuan, zure oben galgarriei cegoqueen bezala, zure zorren alde sartzen da gaur JERUSALENen, aur eguiñic, eta Elizara doa, Aita Eternoac cer manatzen dion, aditzera.

Ah! nere JESUS, ona baño, obea, ta humilla baño, humillagoa! Alqueturic naducate ni, ta lotsaz beteric orain-dañoco nere arrotasunac, ta antuste galgarriac! Lurpean sarturic egon beharra nintzan ni aspaldi-etaco dembora gucian, nere vicitza lizun, ta ibillera gaistoa gatic; eta, ambat becatu loi izugarri eguin ondoan, deus-ez bat eguin ba-nu baño, lotsa gutiago-requin aguertu izandu naz ni zure beguietan, ta ibilli naz guero ere arro, ta zucen! Ez daquit, nola ondaturic ez naducazun, nere Jaun andia, lembicico nere becatu itsusitic! Zure oneguia, nere JESUS maita-garria! Berandu ba-da ere, ezagutu dut nic gaur nere orain-dañoco eraqueria! Indazu arren onen barcamentua: ta indazu, humil, ta, zuc nai bezala gaur-guero vicitzeco gracia. Bai arren, Jangoico maitea, bai.

3.

VIDE, DOMINE, QUONIAM TRIbulor ... Subversum est cor meum in memetipsa: quoniam amaritudine plena sum. Thren. 1. 20.

BEguira, Jangoico maita-garria, beguira JESUS! Ecusten ez dezu zuc, non arquitzen den, edo nola dagoen, zure AMA maita-garria? Zuri ongui naiez hau, zurequin

dabil beti : ta orra ortic datorquiona ; gurutze gogorra, quezca , ta nequea! Bai, dio Profetaz ; arazo andiac dira , ta naste gogorrac, nere barrenác ecusten dituenac! Gain-bera bihotz hau irauli ba-lirate , bezain oñace , ta neque andi-equin arquitzen naz ni ; ta miñez , ta naigabez beteric nago , nazan guci-gucia ! Zure nequeac dira, nere Seme maite JESUS , cerorrec daquizun , adiña penatzen nauten, nequeac ; eta dira neque barreneco quezquez , ta urricariz erdi bi eguiteco eran naducatenac!

Penen gogorrac nombait , JESUSen AMAren penac! Nondic datozquio, baldin badaquizu , obenic bagueco VIRGIN AMA-maiteari onen pena gogorrac ? Bere Seme JESUSi laguntzetic ! JESUSec alabaña ecuti nai ditu , bera bezala, bere lagunac ; eta JESUSi lagun eguiten dionac Ceruraco vicitzan , eraman beharco ditu, JESUSen nequen, eraco nequeac. Bai ; artzen ba-dezu zuc, JESUSen vicitzaren , eraco vicitza , beraren Amac bezala, izain dituzu zuc ere , harenen, eraco cembait neque , ta quezca. Baña ez da cer izutu orien etor-eraz: bada aituco dira noizbait emengo neque andi-chiqui guciac ; eta artzen ba dituzu , zu gatic JESUSec eraman cituenen alde , ecarrico dizquitzute betico contentuac , betico atseguiñac , eta beti-betico gloria. Norc utzi naico ditu bada , galdu char ero bat ez izatera , onembat irabacizco quezca-nequeac ? Nic ez beintzat!

Naiz bai , bada , JESUS maitea ; naiz neca nadilla , neca al adina , zurequin nabillenean , zurequin ibilli nai dut nic , vici nazaño. Ala lenago ez ibilliaz ; ta , ez-ibiltze onetatic etorri diran , nere utsez dut damu , ta urriqui ; ta ciñez al ere ! Barca ba cenitza guciac ! Eman ba-cenezat , berriz bat ez eguiteco , gracia ! Ori escatzen dizut , hitzez , ta gogoz erraten dizudala : NERE JESU CHRISTO,&c.

4.

CUI COMPARABO TE , VEL CUI assimilabo te , Filia Jerusalem? Cui exæquabo te , & consolabor te , Virgo Filia Sion. Thren. 2. 13.

NOn arqui dezaquet nic zure pareric , JERUSALENgo Alaba-eder, ongui minduric arquitzen zaran, Ama Virgina ? Tristuraz beteric sartu cen lengo batean Belenen NOEMI,

MI, bere Erreña RUTH alarguna-requin. Baña haren triſturac ez dute cer ecuſi oraingo zure triſtur min-andi-equin! Triſtatu cen NOEMi bere bi Seme galdua-gatic; eta, zuc galduricaco, JESUSec valio du, bi milla Semec, eta munduco Seme guciac baño, anitz, eta aguitz gueiago; ta, Ama guciac beren Semeac baño, aſcotan maiteago cenuen zuc, galdu dezun, cere Seme JESUS maita-garria!

Non idiroco dut, naigabez, ta nequez beteric arquitzen zaran, AMA VIRGINA, zure penac ceibait arintzeco, atſeguin, belar, edo videren bat? Ez, eta mundu gucian ere! Emengo arin-videac, eta gauzac baño, luce-andiagoa, ta zabalagoa da zure bihotzeco pena; pena da alabaña, Jangoico-guizon ill-baten Amari dagocan, bezalacoa!

Bada, penatzen zaran ezquero, AMA maita-garria, ta daquizun ezquero, nic naia gatic, ecin dagui-quedala deus bat, zure penac arintzeco, eguizu zuc nere alde, ta gure oneraco, eguin dezaquezuna; ta cere penac gatic far gaitzazu gu ere, zure, ta JESUSen penetan, edo utz gaitzatzu, gueren becatuz penatu zaituzte-gulaco damuz, ta penaz beteac; bada bien neque-penac dira gure oben, ta culpa gaiſtoac garic!

Ay, nere Ama maitea! on hau atera ba neza nic, ni gatic izandu dituzun, cere neque-pena gogor etatic! Ah, videnabar ar ba neza nic, zu ni gatic penatu zaralaco pena andi, ta naigabe bat! Gueroz uſteco nuque, vici behar dudala, utſ-vide-etatic urrun, ta pena berri-etaraco gairic ematen ez dudala. Ar nazazu bada arren, Virgin Ama maita-garria, bere gaizquiez urriquituric arquitzen den, hume char bat bezala; ta lagun zaquizquit erdiſten, orain nic adiracia; ta, zucen vicitzeco behar dudan, Ceruco gracia; bai, ta orain hitzez, ta bihotzez erraten ere; *NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.*

(1) Luc. 2. 29. (2) *Ibidem à v.* 36. (3) *Ibid. à v.* 34.

(4) *Magna eſt velut mare contritio tua.* Thren. 2. 13.

(5) *Pluſquam Martyrem non immeritò prædicamus. Serm. de* 12. *Stellis.*

ASIEREN ARQUI-VIDEA.

JESUSEN BIHOTZAREN CONGREGACIOCO ERREGLAC; ETA CONgregacio.o asiera, ta bucaera.

§. 1. Gauz erraza da gozozco otoitza. . . . . Pag. 1.
2. Gauz ondasun-dura da gozozco otoitza. . . . . 5.

LEMBICICO LIBRUA.

LEMBICICO OTOITZ-GAIA.

§. 1. Berria, ta char itsusia da gure gorputzaren asiera. . . . 27.
2. Ciquin itsusia da gure asiera. . . . . 9.
3. Char itsusia da gure jaiotzea . . . . . 12.

BIGARREN OTOITZ-GAIA.

§. 1. Char itsusia da lurreco gure acitzea, ta izatea. . . . . 17.
2. Char itsusia da gure eriotza, ta ill-ondoa. . . . . 20.

IRUR-GARRENA.

§. 1. Zorrez betea izan oi da gure aurtasuna- . . . . . 25.

LAUR-GARRENA.

§. 1. Zorrez betea da lurrecoen gazte-dembora. . . . . 31.
2. Nondic datocen gaztearen gaista-queriac. . . . . 35.

BOST-GARRENA.

§. 1. Zortzi itsusia da guizonaren vicitza, ta ibill-era. . . . . 39.

2.

upna

2. *Adin onetaco becatuen sustraia, edo zaña.* . . . . . 41.
3. *Gaistoac, beren gain, artzen ditu besteren becatuac ere.* . . . 44.

SEI-GARRENA.

§. 1. *Beti-beticoa da, ta beti bat gure Jangoicoa.* . . . . . 50.
2. *Bere gogoan iduqui gaitu beti, ta gaduzca gure Jangoicoac.* . . 53.

ZAZPI-GARRENA.

§. 1. *Ecin-andiagoa da Jangoicoaren izatea.* . . . . . 58.
2. *Non-nai arquitzen da Jangoicoa, non-nai, ta beti gu zucen erazteco.* . . . . . 60.

ZORTZI-GARRENA.

§. 1. *Ecin andiagoa da Jangoicoaren edertasuna.* . . . . . 65.
2. *Gure gogoa Ceruta zucen-erazteco da gure Jangoicoaren edertasuna.* 68.

BEDERATZI-GARRENA.

§. 1. *Luce-zucen beticoa da gure Jangoicoaren jaquiundea.* . . . 73.
2. *Ecin-andiagoa da, ta guztiz zucena gu ganaco gure Jangoicoaren ontasuna.* . . . . . 77.
3. *Ecin guetago-tañocoa da Jangoicoaren ahala, ta escua.* . . . 79.

AMAR-GARREN OTOITZ-GAIA,
GUREQUIN GURE JANGOICOAC EGUITEN DUENA.

§. 1. *Eman dizquigu Jangoicoac Ceruaren berria, Cerua irabatzeco dembora, ta toquia, ta vicitzeco behar duguna.* . . Pag. 89.
§. 2. *Ba-zuen Adanec, eta ba-dute gañeracoac ere, gure Jaunac emanicaco videa.* . . . . . 93.
§. 3. *Ematen digu Jangoicoac gueren videraco behar duguna.* . . . . . 97.

AMAICA-GARREN OTOITZ GAIA.
NOLA EGUITEN DUEN GURE JANGOICOAC, GURE oneraco eguiten duena?

§. 1. *Gurequin dago beti, gu diñacoa baicic e-zpa-liz bezala, gure Jangoicoa.* . . . . . 109.

§. 2.

§. 2. *Gurequin dagoen, gure Jangoicoaren asmoac.* . . . . . 112.
§. 3. *Gure oneraco da gurequin gure Jangoicoac eguiten duena.* . . 115.

BI-GARREN LIBRUA.

JANGOICOAREN GUIZON EGUITEA, TA AUR-DEMBORA.

AMABI-GARREN OTOITZ-GAIA.

Adanen utsac ateratzea gatic eguin cen guizon gure Jangoicoar. 125.
§. 1. *Anitz da bere becatua gatic Adanec galdua.* . . . . . 126.
§. 2. *Andi-arri-garria da Adanen becatuaren castigua.* . . . . . 128.
§. 3. *Latz illun gogorra cen Adanec bere becatua gatic izandu zuen, dama-urriquia.* . . . . . 130.

AMAIRU-GARREN OTOITZ-GAIA.

GUIZON EGUIN BAÑO, LENAGOTIC JAINCOAC AGUERTU *cigun urrical-tasuna.*

§. 1. *Aguertzen die Jaincoac, Adani, ta bertze anitzi bere guizon eguin bebarra.* . . . . . 137.
§. 2. *Nola aguertu zuen berri hau?* . . . . . 139.
§. 3. *Cein maiz, ta certaco aguertu zuen berri hau?* . . . 142.

AMALAU GARREN OTOITZ-GAIA.

NORAÑOCO ONTARTEA DEN JAUNAREN GUIZON-EGUITEA.

§. 1. *Patriarchac, eta Erregueac zuten Jainco-guizonaren ecusi naia.* . 149.
§. 2. *Isaiasen era bereco naia.* . . . . . 153.
§. 3. *Beste Profeten nai-bera.* . . . . . 158.

AMABOST-GARREN OTOITZ-GAIA.

CEIN ANDIAC EGUITECO ONETAN DABILTZANAC?

§. 1. *Jangoicoa, Ama Virgina, ta San Gabriel.* . . . . . 166.

AMA-

upna

AMASEI GARREN OTOITZ-GAIA.

CEIN GAUZ ANDI ONA JANGOICOAREN GUIZON EGUITEA.

§. 1. *Jangoico jaquintſuarena bezalacoa.* . . . . . 177.
§. 2. *Jangoico al-tſuarena bezalacoa.* . . . . . 179.
§. 3. *Jangoico guztiz onarena bezalacoa.* . . . . . 183.

XVII. OTOITZ-GAIA.

JESUSen jait hordua, ta horduco munduaren ibillera.

§. 1. *Cer horduz, edo noiz mundura cen JESUS maita-garria?* 191.
§. 2. *Nola cebiltzan munducoac, JESUS mundura cenean?* . . . 195.

XVIII. OTOITZ-GAIA.

JESUSec bere jait demboran lembicicoric eracuſten diguna.

§. 1. *Araguiaren naicunde gaiſtoac garaitzen guri eracuſteco, jaio-baño, lenago JESUSec eguin zuena.* . . . . . 202.
§. 2. *Aragiuaren naicunde gaiſtoac garaitzen guri eracuſteco, JESUSec bere jait-horduan eguiña.* . . . . . 205.

XIX. OTOITZ-GAIA.

JESUSec bere guiza-taſuna artzean, ta jait-horduan eracutſi cigun, bi-garren gauza.

§. 1. *Bere guiza-taſuna artzean, eracutſi cigun JESUSec gogoaren eraqueriac, edo begui galduen arintaſunac garaitzen.* . . . . . 211.
§. 2. *Bere jait-horduan eracuſten du* JESUSec, *nola garaitzen den animaco bi-garren etſaia.* . . . . . 213.

XX. OTOITZ-GAIA.

JESUSec bere jait-horduan eracutſi cigun, irur-garren gauza.

§. 1. *Eracutſi cigun bihotzaren arro-taſuna, ta antuſtea garaitzen.* . . 223.
§. 2. *Ez da, vide bau, beſte videric, lurrecoen antuſte arroa garaitzeco.* . . . . . 226.

XXI. OTOITZ-GAIA.

Zortzi-garren Egunean, edo urte berriz JESUSec eracutſi ciguna.

§. 1. *Urte berrico bere neque berri-equin ere eracutſi cigun* JESUSec *gueren etſaiac garaitzen.* . . . . . 233.

§.2.

§. 2. *Urte berrico bere deshondr-equin ere eracutsi cigun* JESUSec *antuste arroac garaitzen.* . . . . , ... 236.

XXII. OTOITZ-GAIA.

Erregueen egunean gure JESUSec eracutsi ciguna.

§. *Erregueei* JESUSec *eraguin ciena ; ta guri ere eraguin nai digun , lembicico gauza da, berac nai duen , gucirago gu prest egotea.* . . . . . 241.

XXIII. OTOITZ-GAIA.

Erregueei JESUSec *eraguin cien, ta guri ere eraguin nai digun , bi-garren gauza da , gauz onac asitzea , ta ongui , ta zucen bucatzea.* . . . . . 251.

XXIV. OTOITZ-GAIA.

Erregueei Jangoicoac eraguin ciena, ta guri ere eraguin nai digun, irur-garren gauza da , present on bat humilqui , ta gozoz, JESUSi *guc eguitea.* . . . . . 259.

XXV. OTOITZ GAIA.

Erregueei JESUSec *eraguin cien , ta guri ere eraguin nai digun, lau-garren gauza da, berac nai duen , videz guibiltzea.* . . . . . , 269.

XXVI. OTOITZGAIA.

Candelari eguneco JESUSen *Elizaratzeac eracusten digu, guc gueren buruez eguin behar duguna.* . . . . . 277.

XXVII. OTOITZ-GAIA.

Candelari eguneco gauzac ; eta oriec adiratzen digutena.

§. 1. *Simeoni, ta Ana Profetissari , Candelari egunean* JESUS-*equin guertatua ; ta* JESUSen *gogoa ezagutu nai dutenac , eguin behar dutena.* . . . . . 285.

§. 2. JESUSen *Amari egun onetan guertatua ; ta* JESUS *equin dabillenari guertatu oi-zaiona..* . . . . . 288.

upna

upna
Universidad Pública de Navarra

upna
Universidad Pública de Navarra

upna
Universidad
Pública de Navarra

upna
Universidad Pública de Navarra